Eranskinak
Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran

1. Euskal nortasuna eta kultura Euskal Autonomia Erkidegoan: Azterketa kualitatiboa
2. Euskal nortasuna eta kultura Nafarroan: Azterketa kualitatiboa
3. Euskal nortasuna eta kultura Ipar Euskal Herrian: Azterketa kualitatiboa
4. Inkestaren emaitzak lurraldeka
5. Euskaltasunari eta euskal kulturari buruzko pertzepzioak interneten
6. Inkestarako erabilitako galdesortak
7. Eztabaida taldeen eta elkarrizketen gidoia

1. EUSKAL NORTASUNA ETA KULTURA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN: Azterketa kualitatiboa

1.1. Ikerketaren abiaburua 3
1.2. Eztabaida taldeetan sumatutako giro orokorra 4
1.3. Euskal Herriaren kontzeptua 11
1.4. Euskal nortasuna 18
1.5. Euskara 27
1.6. Euskal kulturaren kontzeptua 37
1.7. Euskal kultura osatzen duten elementuak 44
1.8. Euskal kulturaren etorkizuna 57

Kualitate Lantaldea

1.1. IKERKETAREN ABIABURUA[1]

Ondoren EAEn ikerketaren gai nagusien inguruan egindako landa lan kualitatiboaren emaitza nagusiak aurkeztuko ditugu:

– Euskal Herriaren kontzeptua

– Euskal nortasuna

– Euskara

– Euskal kultura

Gai horien inguruan EAEko herritarrek adierazten dituzten jarreretan sakontzeko antolatutako eztabaida taldeeak osatzeko, ondoko aldagaiak erabili dira:

– Euskalduna / ez euskalduna[2]: Hiru talde euskaldunek osatu zituzten, beste bi ez euskaldunek, eta batean euskaldunak eta ez euskaldunak nahastu ziren.

– Adina: Lau talde gazteek (20-35 urte) osatu zituzten eta beste bi helduek (36-55 urte).

– Landa / hiri ingurua: EAEko hiru hiriburuetan eta bi herri txikiagotan egin ziren taldeak.

– Jatorria: Euskal Herrian jaioa / Euskal Herritik kanpo jaioa: Talde bat (Gernaikakoa) Euskal Herritik kanpo jaio eta EAEra etorritako gurasoen seme-alabekin osatu zen.

Horrez gainera EAEko hiru lurraldeen arteko oreka ere bilatu da, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bina eztabaida talde egin direlarik.

Aldagai hauek kontuan hartuz, ondoko taldeak osatu dira:

LEKUA	PROFILA	ADINA
· Gasteiz	Euskaldunak	Gazteak (20-35 urte)
· Gasteiz	Ez euskaldunak	Gazteak (20-35 urte)
· Bilbao	Ez euskaldunak	Helduak (36-55 urte)
· Gernika	Mistoa	Gazteak (20-35 urte)
· Donostia	Euskaldunak	Helduak (36-55 urte)
· Tolosa	Euskaldunak	Gazteak (20-35 urte)

1. Ikerketa kualitatiboaren antolaketari buruzko xehetasun gehiagotarako, ikus Metodologia atala.

2. Atal honetan ere, ikerketa osoan bezala, euskaldun / ez euskaldun zatiketak hizkuntza gaitasunari egiten dio erreferentzia.

EAEko herritarrez osatutako eztabaida talde horiez gainera, bestelako informazio iturriak ere erabili dira emaitza hauek lantzean. Zehaztasunak Metodologia atalean azaltzen dira.

Ikerketa taldeak azterketaren gune nagusiak dei ditzakegunaren analisian jarri du arreta; bere konfigurazio eta ezaugarrietan sakonduz eztabaida taldeen diskurtsoaren bitartez. Beraz, kapitulu honetan, landa lanean zehar jasotako materiala modu koherente eta egituratu batean aurkeztea litzateke helburua. Aurkezpen honek aztergai desberdinen definizio eta mugatzean bat egiten duten askotariko ikuspuntu eta ikuspegien deskribatzaile eta argigarri izan nahi du.

Honela esan genezake, diskurtsoen analisiak baino lehentasun handiagoa izan duela ikuspuntu desberdinen azalpenak eta karakterizazioak. Horretarako ondoko prozesua jarraitu da: lehenik, diskurtsoak mahagainaratzen dira, bere osagai nagusiak ikusten; jarraian, ikuspegi desberdinen arteko elkarrizketa irekitzen da eta, azkenik, eztabaida taldeetan eta elkarrizketetan jasotzen diren etorkizunerako zenbait ideia lagungarri azaltzen dira.

Dinamika honen ildotik, jasotako informazioa irauli dugu, eztabaida taldeen izpiritua, adierazpenak eta gogoeta espontaneoa ahalik eta gehien errespetatzen saiatuz.

Jarraian aurkezten da ikerketa taldeak aipatutako lau ikerketa arloak mugatzen eta ezaugarritzen murgildu ondoren egindako azterketaren edukia. Lan honen azalpenean ondoko atalen sailkapena jarraituko da:

- **Eztabaida taldeetan azaldutako ideia orokorren aurkezpena.** Atal honetan taldeek ikerketa gai bakoitzarekiko ondorioztatu dutenaren panoramika zabala eskaintzen da. Jarrera hartze eta ikuspegi desberdinek azterketako lau gai nagusien aurrean duten kokapen orokorra marrazten saiatuko ginateke honela.

- **Taldeetan dauden ikuspuntu desberdinetan sakontzea.** Azaldutako inguru orokorretik abiatuz eztabaidan jasotako desadostasunetan sakontzen da. Dauden ikuspuntu desberdinak argitara ateratzeko garaia da, horietako bakoitzaren euskarri diren aldagaiak ezagutu eta sostengatzen dituzten ele-

mentu nagusiak aztertzekoa. Aurrez aipatutako dimentsioak kontuan izanik (euskaldun/ez euskaldun, adina, landa/hiri ingurunea), lau azterketa guneen azalpenean, kasuan kasuko, baldintzagarri diren aldagaiak errepikatuko dira. Honela, elkarrengandik urruntzen diren ikuspuntuak azalerazteaz gain, antolatutako talde dinamiketan bildu diren askotariko ahots, ikusmolde eta errealitateen artean elkarrizketa bultzatzea bilatuko litzateke.

- **Taldeen diskurtsoetan jasotako zenbait alderdi ebolutiboren aurkezpena.** Atal honetan talde desberdinetatik modu esplizituagoan edo inplizituagoan eratortzen diren etorkizunerako zenbait proposamen, irrika eta desioen berri emateko ahalegina egiten da. Lau azterketa guneekin zerikusia duten proposamenak eta lerro eta ardatz prospektiboak marrazten hasteko balioko luketenak.

1.2. EZTABAIDA TALDEETAN SUMATUTAKO GIRO OROKORRA

Euskal Herria, hizkuntza, kultura edo euskal nortasuna bezalako elementu konplexuen definizioan eta ikusmoldean dauden jarreren arteko desberdintasunak albo batera utzita, deitutako eztabaida talde guztien azpitik legokeen premisa multzo bat badela nabarmendu daiteke eta ikerketa taldeak dinamika ezberdinak egiten izandako esperientzian jasotako usteak argitzeko balio izango lukete.

Ildo honetan, partaideen adina, jatorria, atxikipen ideologikoa, euskararen ezagutza (eza) edo bizi diren ingurunea (landa edo hiria) bezalako aldagaiek diskurtsoetan sortzen dituzten ezberdintasunak kontuan hartu gabe, taldeetan ondoko gaien inguruan piztutako adostasuna egiaztatzen da:

- ***Gizarte dinamikan kulturak duen pisua.*** Kultura ideia bere zentzu zabalean hartuta, kulturari gizartea dinamizatzen duen elementu bezala emandako garrantzia nabarmendu daiteke. Honela, talde gehienek gaiari interesarekin eta partehartzeko gogo biziz heldu diote, gai iradokitzaile eta erakargarria dela aditzera emanez, berari buruz eztabaidatu eta hausnartzeko gogoz eta horri buruzko euren ikuspuntua eskaintzeko prest agertu direlarik pertsonak. Gisa honetan, ikerketak landutako gaien artean, eztabaida guztiaren elementu dinamizatzaile bezala kultura nabarmendu daiteke. Hau landa lanean zehar auzi honen inguruan jasotako materialaren tamainak azaltzen du eta Euskal Herriaren nozioa, euskal nortasuna edo euskara bezalako alderdien azterketaren aurrean –gutxienik txosten kualitatibo honetan– hartzen duen protagonismo handiagoa justifikatzen du.

- ***Kulturaren izaera konplexua, anitza eta dinamikoa***. Lerro batzuk gorago adierazitakoa kontuan hartuta, euskal kulturaren irudikapena nozio aberats, konplexu eta anitza bezala iradoki daiteke. "Kultura dena da" esatera iritsi dira ikerketan partaide izandako pertsona asko. "Kultura" kontzeptuaren barnean jaso daitezkeen osagaien nahasteari gehitu beharko litzaizkioke euskal kultura begiratzeko, ulertzeko eta bizitzeko modu eta era anitz eta askotarikoak. Nozio honen inguruan –azterketan zehar ikusi ahalko denez– hamaika alderdi sinboliko kudeatzen dira. Oinarri sinboliko honek –mamitsua eta aberatsa– ematen dio kulturari lehentasunezko toki bat pertsonen diskurtsoan, zeintzuentzat kultura agertzen den karakterizaziorako eta bereizketarako oinarrizko elementu bezala; taldearen muin eta etorkizunaren benetako motore, dinamizatzaile bezala.

> *Es que hay muchas culturas vascas. La cultura vasca en general, yo creo que cada uno vive su propia cultura en Euskadi. Y cualquiera es válida. Cultura vasca la que puedo vivir con mis amigos, en casa, en libros que yo leo, el cine, o la música que consumo. Todo eso es cultura. Y cultura vasca puede ser la gastronomía, la forma de vestir, mil cosas…*
>
> *(Gazteak, mistoa[3], Gernika)*

> *En la calle se vive eso, todo lo que vives, todo lo que haces. Todo, absolutamente todo, es la cultura de aquí. Y eso no se puede quitar. Eso aunque haya una integración total de otras culturas. Como la hay actualmente, cubanos, dominicanos, esa clase de gente que ha entrado. Ellos y nosotros nos estamos adaptando todos a la cultura vasca porque*

3. Talde hau euskaldunek eta ez euskaldunek osatua izan da, espainiar estatutik etorritako etorkinen seme-alaba izateak biltzen zituelarik.

es lo que se vive. Eso no es una cosa que te impongan, sin querer lo estás viviendo. Y te acostumbras a ello…

(Gazteak, mistoa, Gernika)

Kulturaren karakterizazio honek, bestalde, ez ditu ezkutatu behar ikuspuntu guztiak jasoko dituen eta behar guztiei erantzungo dien definizio bateratu bat aurkitzerakoan dauden zailtasunak. Kultura, baieztatzen da, izaera desberdineko elementuak biltzen dituen edukiontzia da: kultura tradizioa, ohiturak edo folklorea da. Baina kultura da, baita, sorkuntza eta kultur ekoizpena eta, zergatik ez? baita inguratzen gaituen guztia ere, zeinarekin egunerokotasunean harremanetan gauden (paisaia, janaria, lan erremintak eta abar, izan daitezke). Kultura nozioan eragiten duten elementu nahasien emaitza bezala, kontzeptu konplexua azaleratzen da, batzuetan eztabaidagarria, besteetan iheskorra. Beti ere definitzeko zaila den kontzeptua. Horregatik, garrantzitsua da kulturaren inguruko eztabaidei berari buruzko ikuspuntu malgu batekin aurre egitea, aldaketari eta gerta daitekeenari irekia dagoen ikuspegiarekin eta, irekitasun eta dinamismo maila handiko interpretazioek tokia izango duten definizio elastikoaz.

Es una selección de cosas. Se seleccionan mucho las cosas en la cultura vasca. Sus propios deportes, su propia comida, su propia manera de vivir en los caseríos, su propia manera de vivir también urbanamente. Hay diferencia, por supuesto. Tú te vas a otras comunidades, y lógicamente hay unas diferencias abismales. La forma del día a día…

(Gazteak, mistoa, Gernika)

- ***Euskal kulturari buruzko definizio bateratuak zehazteko zailtasuna.*** Talde desberdinetan jaso ahal izan diren hurbilpen eta interpretazio anitzekin batera –aurrez adierazia–, zailtasuna sumatzen da euskal kulturaren ingurumaria marrazteko eta bere ikur eta ezaugarriak zehazteko gai diren ardatzak ezartzeko. Ez dago garatua honi buruzko gogoetarik: euskal kultura zer den edo zer izan beharko litzatekeen edo zer ez. Talde dinamika desberdinetan parte hartu duten pertsonek ez dute jarrera argirik agertu. Ez dute asmatzen euskal kulturaren mugak zehazten ere. Diskurtsoa berezkoa da eta ez dago aurrez aldetiko eskema, ideia edo definizioetara lotua.

Gaur egungo euskal kultura asko daude. Desberdina da Goiherrin ematen diren euskal espresioak edo Barakaldon ematen direnak…

(Helduak, euskaldunak, Donostia)

Niretzako gatza da definitzea zer den euskal kultura, ez dakit euskal kultura Ameriketatik etortzen den tipo batek idazten duena euskaraz, euskal kultura da. Edo hemengo marrokiar batek egiten duen liburu bat euskal kultura den…

(Hedabideetako taldea)

Ni metodologia honen kontra egoten naiz. Normalean definitzea aldatzen dagoen gauza bat oso zaila da, kultura, herri kultura Ni nire lanean ez dut inoiz definitu, kultura hitza handia iruditzen zait definitzen hasteko. Baina gustatzen zait azterketa hori egitea nire beharrean eta nire bizitzan. Euskal kultura euskaraduna da., hori da horrela. Vasco es otra cosa. Niri pertsona batek esaten badit bera…

(Kultura eta sorkuntza taldea)

"Euskal kultura" eraikitzeke dagoen edukiz bete beharreko kontzeptu modura azaleratzen da, bai kultura elementu tradizionalekin lotzen duten definizio klasikoak osagabeak edo desegokiak direlako, edo, baita, kulturaren inguruan azaltzen diren hausnarketak hain orokorrak izanik, gizarte osoak onartu ditzakeen elementu zehatzekin identifikazioa ezinezkoa egiten dutelako. Sarritan gutxi garatu den diskurtso baten aurrean gaudela dirudi: izen, irudi eta elementu errepikatuenak erabilienak eta estereotipatuenak dira. Faltan botatzen da euskal gizartearen gaur egungo egoerarekin bat datorren diskurtso garaikide bat. Hortaz, berraztertze ariketa bat behar duen eremua da hau, edo nahiago bada berkontzeptualizazio bat, XXI. mendean euskal kulturak aurre egin behar dien erronka berrietara egokitzeko. Kultura etorkizunerako eremu garrantzitsu bezala sumatzen da: lan asko dago egiteko; ibilbide luzea dago korritzeko.

Entiendo que es un vínculo. Como ha evolucionado; teniendo en cuenta que hoy en día el euskara sería un elemento de la cultura vasca con el que mayor esfuerzo se esta haciendo… de concienciación, de preservar de defender. A la cultura vasca le falta un proceso de auto revisarse. A mí me parece

limitado entender que la cultura vasca se asocia con lo tradicional, dejando al margen la cultura vasca mas moderna…

(Gazteak, euskaldunak, Iruña)

Hemen dauzkagun arazo politikoetatik harago, badauzkagu gauzak eskaintzeko, literatura, zinema, musika… Banatzea ez beti lotuta Euskal Herria eta gauza negatiboak eta ez bakarrik folklorea, ez garela herri atzeratu bat bizi garela tradizioekin eta gure arazoekin. Jendeak hori da dakiena…

(Gazteak, euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)

…Irauten duena, segitzen du integratzen eta eboluzionatzen. Bertsolaritza ez bazuen jendeak ulertzen, transmititzen… eta bertsolariek ez balute landu izan desagertu egingo zen. Ez bazen gaur egungo mailara iritsi, ez legoke gaur egun hainbeste publiko…

(Kultura eta sorkuntza taldea)

Aipatutako gabeziei gehitu beharko litzaieke euskal kulturaren arlo jakin batzuetan dagoen erreferente kulturalen falta garrantzitsua, batez ere, sorkuntza eta ekoizpen kulturalaren arloan. Hau da, kultur adierazpenaren beste eremu batzuen aurrean edukirik gabeen agertzen dena.

Aurreratu da pila bat, material asko sortu da, normaltasun bide batean gaude… baina oraindik ere lotzen da asko ez natural bezala, eta horrek ez du erakargarri egiten. Eta nik uste dut gakoa hori dela, erakargarri egite horretan, erreferenteak bilatu behar dira…

(*Hezkuntza taldea*)

- ***Kultura eremu bereiztu baten nahia, politikak kutsatu gabea.*** Hau da, zalantzarik gabe, ikerketa taldearen aurrean argien agertzen den ondorioetako bat. Oro har, ikerketan parte hartu duten talde desberdinek –edozein dela euren osaera eta kokapena– interesa eta nahia agertu dute euren diskurtsotik politikaren ezein aztarna ezerezteko (politika bere zentzurik konbentzionalenean ulertua) eta, euskal alderdiei eta erakunde politikoei lotutako era guztietako sigla eta pertsonen erreferentziarik ez aipatzeko. Ildo honetan, deigarria da kultur eremua dinamika politikotik aparte uzteko egindako ahalegina, euskal gizartearen eguneroko dinamikan nonahi presente dagoena –bestalde–.

Nik argi daukat. Bat euskararen kontua ezartzea ez abertzaletasunaren munduan, nik uste dut, da super inportante.

(Hedabideen taldea)

Honela, taldeek izan duten tonu lasaia nabarmendu daiteke, neurri handi batean diskurtso politikotik aldentzeko guztien nahiak eraginda. Urruntze honek eman zien aukera partaideei kulturari buruz gogoeta jarrera ireki eta abegitsuaz egiteko –hasiera batean– eurenak ez diren –edo ez direla pentsa zitekeen– elementu eta eztabaidagaien aurrean. Hala, antzeman daiteke talde ez euskaldunak euskal kulturarekin zerikusia duen guztia konstruktiboki onartzeko gai direla eta talde euskaldunek euskal kulturan elementu ez euskaldunak sartzeko jarrera irekia agertzen dutela. Ahots eta ikuspuntu anitzetan betekada nabaria adierazten da istilu politikoz jositako giro iraunkorraren aurrean, eta taldeekin izandako esperientzia praktikoak erakusten du nahiago dela politikarekin zuzenen lotutako ezaugarriak saihestu egunerokotasuna bizitzeko modu eraginkorragoa delako.

Aipatutakoa kontuan hartuz, egokiagoa litzateke esatea politikak eta ideologi agerpenek talde desberdinen eztabaida baldintzatzen dutela, batez ere, berau faltan izate horretatik. Diskurtso politikoak eta bertatik letorkeen nekeak harrapaturik egotearen sentsazioak –taldeen gogo eta diskurtsoen azpian dagoenak– bultzatzen ditu pertsonak politika ukitu dezaketen baina, paradoxikoki, inolaz ere politikari zuzenean heltzen ez dioten, argumentuak osatzeko ariketa estu eta konplexua egitera.

Honek –argitu beharko genuke– ez du esanahi politika (euskal espazioaren ezaugarri diren borroka, zatiketa eta tentsioan agertzen dena) desagertu denik. Argi dago ez dela horrela. Hala ere, edo, agian, politikak edota ideologiak absente egotean (hots, ez egotean) hartzen duen protagonismoagatik beharrezkoa da bere pisua aitortzea egiturazko osagai bezala euskal kulturarari buruzko azterketa eta hausnarketan, bere definizioan, bere ezaugarrietan, bere osagaietan, bere iragana, oraina eta etorkizunean. Ildo honetan, taldeen mezua eremu politikoaren nagusitasuna eta kultur elementu askotaz jabetu eta euren proposamen, argumentu eta diskurtsoen oinarritzat

erabiliz kulturarekiko sarritan ezartzen duen hegemonia kritikatzera –modu estali edo ageriago batean– zuzendua egon da.

- ***Globalizazioaren pisua kulturen garapenean.*** Aurrez aipatutakoari gehitu beharko litzaioke euskal kulturaren inguruko eztabaida askotan izandako beste elementu nagusi bat. Euskal kulturak globalizazio prozesuetara eta gizarte aldaketa bizkorretara egokitzeko duen gaitasunaren inguruan gogoeta egitera behartzen gaituen elementu garaikidea eta gaurkotasun handikoa da.

Globalizazio nozioa ikerketa prozesu osoan izan da oso gogoan. Etorkizunerako edozein proiekziok kultur globalizazioaren fenomenoarekin egiten du topo eta dagoeneko bere ondoriorik agerikoena bezala antzematen denarekin: homogeneizatze prozesu geroz eta handiagoa eta ondorioz, kultur txikientzako eta berezitasunentzako mehatxua. Euskal kulturarentzat eta bere etorkizunarentzat erronka erabakigarri bezala antzematen den honi, mundializazioaren garapenari lotutako beste alderdi bat gehitzen zaio: informazio, kapital eta pertsonen fluxu geroz eta handiagoa, herrialde guztiei eragiten diena eta batez ere, euskal kasua bezala mendebaldeko eremuan daudenei.

> *Nik uste dut gure garaian ez zegoela hain argi baina nik uste dut gaur oso argi ikusten dugula gazte bat euskaraz hitz egiten eta bere erreferente guztiak, aisian, ikasketetan… dira beste batzuk, globalizazioak ematen dizkigunak, telebistak… Gaur egun nere lagun preso horri esaten nion gaur egun naiz Euskal Herrian jaio eta euskaraz hitz egin, eta erreza da erreferente guztiak kanpokoak izatea. Eta orain esaten dit arrazoia nuela, askotan bilatu egin behar dituzula erreferente horiek, ze herri txiki batean bizi bazara desberdina da, baina hiri handi batean, erreferente guztiak daudenak kanpotarrak dira. Baldin bazoaz arropa erostera, musika erostea… joan behar zara apropos euskara estan horretara edo joan behar zara nahita ze ez dator…*
>
> *(Bizitza-historia, eremu politiko eta soziala)*

> *Tengo preocupación ahora que llego porque tenemos condición económica bastante buena y hay extensiones sociales que son fruto de una condición económica cómoda, y me preocupa que en Euskadi nuestra juventud y nuestra gente contribuirá a la transformación social que lleve a una mayor autonomía y yo espero que independencia. Muchas personas que tengan una situación económica buena lo piensan mucho antes de arriesgar esa comodidad. Me hago esa pregunta. Estoy convencido de que la sociedad vasca mientras continúe bajo el tutelaje de los gobiernos españoles desaparecería (sólo es cuestión de tiempo). Seguiríamos el curso de otras culturas que han sido homogeneizadas…*
>
> *(Bizitza-historia, diasporako partaidea)*

Hurrengo urteetan herrialde askotatik etorriko den pertsona kopuru garrantzitsua espero da –estatu espainiar edo frantsesetik kanpokoak, baita Europako Batasunetik kanpokoak ere–, euskal gizartean ohiko izan direnetatik oso balio, sinismen, hizkuntza, bizimodu eta bizitzaren ikuskera desberdinak dakartzatenak. Hau aipatzen da ezinbestean aurre egin beharreko erronketako bat bezala. Izan ere, inmigrazio berria bezalako fenomeno baten ildotik izan daitekeen kezka eztabaida multzoen alderdi protagonistetako bat bihurtzen da, euskal kultura eta nortasunari buruzko ikuspuntu eta argudio desberdinen ardatz eratzaile bezala indar hartuz.

> *…Gehiago datoz eta gehiago daude, baina horrek ez du esango euskal kultura galduko denik. Arraza kontua ez, 100 urte barru argi dago ez garela izango zuriak baina euskaldunak bai, nere ustez…*
>
> *(Helduak, euskaldunak, Donostia)*

> *…herriko kultura. Gero badago beste fenomeno bat, etorkinak, kultura artekotasuna, orain gaia da baina aztertu beharrekoa eta hor beren kultur guneak ekarriko dituzte eta aniztasun horretan Nafarroan ez zaigula aitortuko gure tokia hartzea, esan nahi dut aniztasun horrekin, anitza da, esan nahi dut herri horretan. Eta erabiltzen ari dira Nafarroako gobernuan aniztasunaren kontzeptu hori, etorkinak eta beraien kultura hitzetan, zergatik, euskal kulturaren aurka egiteko. Kultur aniztasuna…*
>
> *(Hedabideen taldea)*

> *Estoy un poco obsesionada con el fenómeno de la inmigración. Sabemos lo que ha pasado en Europa, y tenemos la obligación de adelantarnos a lo que pasará. Sabemos lo que ha pasado en Cataluña. Tenemos que buscar la manera de que para los que no son euskaldunes las manifestaciones euskaldunes no sean un gheto. No podemos vivir en un gheto. Tenemos que convencer a los castellano hablantes de que hablar euskera no es hacer política, es enriquecerse. Y no sólo eso…*
>
> *(Gizarte mugimenduen taldea)*

Hala, argia da gizartean dagoen kezka kolektibo desberdinak kultura autoktono baten aterpe orokorrean nola integra daitezkeenari buruz. Dagoen kezkaz haratago, ez dago argi etorkizunean bizikidetzarako derrigorrezko sumatzen den integrazio hau nola gauzatuko den. Euskal Herrian bizikide diren nortasun nazional desberdinen –eta bere agerpen kulturalen– arteko harreman idealaren eredua oraindik zehaztu ez denean, arazoa sortzen da kultura ez hain hurbiletatik datozen pertsonek lagun duten errealitatea geureganatzeko ahaleginean.

Gizartean argi dago pertsona hauek egokitzea beharrezkoa dela, harrera kulturako parte izatera pasatzea, baina oraindik erantzuteke dago nori dagokion integrazio ahalegin nagusiena: pertsona inmigranteak dira integrazio ahalegina egin behar dutenak edo harrera kultura da beste toki batzuetatik datozen pertsonei berezko kultura erakargarri egiteko inbertitu behar duena?

> *Argi dago etorkinak bilatuko dutela bere identitatea, eta ikusiko gaituztela desberdin, eta hori logikoa da eta da bizitzeko behar bat. Rolloa da hori geto bihurtzen dugunean eta kanpotik bihurtu dezakegu hori geto. Gero beste gauza bat da ez izatea guk dauzkagun aukerak, zerbitzuak... beraz aukera hori izan behar dute. Orduan aukera eman eta ez bihurtzea geto eta joan elkar trukatzen. Integratzea esaten danean ez dakit ze esan nahi dugun, den bizitzea gure ohiturak... nik uste dut egin behar da elkar trukea eta ikustea non dauzkate beren lekua... eta gure ohituratan ere integratzen beraien eskaintzak...*
>
> *(Bizitza historia, eremu politiko eta soziala)*

> *El vasco va imponer, su ley, sus costumbres, se entremezclaran, pero va a seguir. Y tendrán que adaptarse los que vengan. Antes eran gallegos, andaluces y extremeños y se tuvieron que adaptar al país vasco y va a seguir así...*
>
> *(Helduak, ez euskaldunak, Bilbo)*

Diskurtso gehienetan ez da kontuan hartzen benetan arduratzen gaituen inmigrazioa, batez ere, ekonomikoa dela eta Euskal Herrira etortzen diren pertsonen helburua euren baldintza ekonomikoen hobekuntza dela eta ez aberastasun kulturala. Gertaera hau kontuan izanik, agerikoa dirudi etorkizuneko agertokiei buruzko edozein gogoetetan gai nagusietako bat bihurtzen dela nola egin berezko kultura erakargarri eta beharrezko etorkinarentzat.

Azkenik adierazi behar litzateke, askotan globalizazio kontzeptuak berak sortzen duen desorientazio eta nahasketarekin batera, bizimodu eta harremanetan aldaketa sakon eta bat-batekoak gertatzen ari diren une baten aurrean aurkitzen garen sentsazioa ageri dela diskurtsoetan. Eraldaketa hauek euskal herritarron errealitatean ere eragiten dute. Belaunaldi berriekiko jauzi kualitatiboa sumatzen da; belaunaldi hauek azken hiru hamarkaden ezaugarri ziren gizarte arau askorekin hausten ari dira. Aldaketak tradizioetan, usadioetan, mundua ikusteko eta ulertzeko moduetan; eta, aldi berean, eraldaketak ingurune fisikoan bertan (landa guneetatik begi-bistakoagoak): azpiegituren ugaltzea, gehiegizko eraikuntza (etxebizitzak, eta abar.) edo ingurumenaren degradazioa dira herritarrek euren paisaia eta egunerokotasuneko erreferentzietan izandako aldaketen arrasto bezala aipatutako fenomenoetako batzuk.

> *Baserria desagertzearekin, ingurugiroa, basoak zikinak daude. Ze baserriak mantentzen zitun, basok eta sorok, bere janaria bere animalik. Ba, sasik...*
>
> *(Gazteak, euskaldunak, Tolosa)*

> *Herri txikitako xarma galdu da, lehenago zeuden lau baserri eta atera zintezke etxe aurren ta edozein moduz jantzita eta orain ezin zaitezke kalera atera, etortzen zaizkizu eta ze zapatila... niretzat xarma da. Gaur egun ere plazara joan behar naiz eta itxura bat, eta lehen lasaitasunez...*
>
> *(Gazteak, euskaldunak, Tolosa)*

- ***Bilakaeran dagoen kultura baten eskaera.*** Azkenik, kultura nozio dinamikoago eta malguago baten eskaeraren inguruan –aurrez aipatutakoa– azpimarratu genezake hainbat eztabaida taldetatik egindako deia euskal kultura irekiago baterako, euskal kultura eta nortasuna gaur eguneko baldintzetara aurreratu eta egokitzeko. Ez litzateke soilik –diote oro har– beste kultur erreferente batzuk euskal kultur eremura lekualdatu eta eramatea, baizik eta oraingo denbora eta espazio baldintzetatik abiatuz euskal kulturaren gakoen berrirakurketa eta berinterpretazio bat bultzatzea.

Hay partes que me pierdo, por el idioma... pero yo creo que tenemos que hacer... tenemos que ser inteligentes, tenemos que ser listos... sin perder nuestra esencia, yo creo que tenemos una esencia noble y honrada... pero tenemos que buscar, tenemos que vendernos, para conseguir atraer... lo primero a nuestros jóvenes, y luego a otras culturas... tenemos que mezclarnos... tenemos que intentar avanzar en muchos terrenos. Yo creo que como no hagamos ese esfuerzo pues nos vamos a quedar... Aprender a adornarlo... sin perder nuestra esencia, sin venderte pero como lo venden los franceses, los americanos... ¡como lo consiguen! Ayer viendo Basetxea... luego otras cadenas... Tele 5 mismo... los jóvenes tienen otra historia... en cambio aquí están como... como en la tribu... no se... Creo que la cultura vasca en general tiene que dar ese salto... por un lado que se conozca a nivel nuestro pero luego tirar muy alto, porque luego la resta te va a situar...

(Bizitza-historia, musika eta sorkuntza eremua)

Gai honetan tradizioa eta modernitatearen arteko tentsio argia azaleratzen da (zaharra eta berriaren artekoa). Dikotomia honi buruzko ikuspegi desberdinak mahaigaineratzen dira askotan, eskuarki euskal kulturak etorkizunari aurre egiteko eta egokitzeko beharrari buruz eztabaidatzerakoan. Oro har, taldeek hori sumatu eta euskal kulturaren ezaugarri diren zeinu eta ikurren garapen sakona eskatuz bukatzen dute. Tradizioak, ohiturarik errotuenak, folklorea dira –aurrerago aztertuko den eran– euskal kulturaren zutabeetako bat. Beronen agerpena nabarmena da taldeen diskurtsoetan eta, era berean, euskal eremuko kultur erreferenteen mapa egiterakoan bere nagusitasuna aitortzen da. Hala ere, kultur ikur bezala tradizioen balioa azpimarratzeko eta aitortzeko behar honekin batera, erredukzionismora eraman dezakeen guztiarekin –taldeek ulertzen dutenez– apurtzeko nahia azaleratzen da: estereotipoak, irudi folklorikoak, tokiz kanpo leudekeen nekazal munduko sinboloak. Beharra dago –batez ere ingurune urbanoetako gazteen artean– behin betiko garaikide izango den euskal kultura baterantz aldatzeko. Eskaera hau badago baina ez da errezetarik ezagutzen (nola egiten da?) eta sarri nolabaiteko nahasmendua eta frustrazioa azaleratzen dira. Iragana aintzat hartzen da, nekazal oinarriari begirunea eta estimua zaio euskal kultura eta tradizioen berezitasunaren iturri bezala baina, aldi berean, hortik ondorioztatzen diren irudi eta estereotipoak gainditzearen garrantzia adierazten da. Horretarako zenbait arrazoi ematen dira:

– Gaur egun ez datorrelako biztanleriaren gehiengoaren egunerokotasunarekin bat. Hala, folklore tradizionalaren agerpenak indarrean daude ikuspuntu sinbolikotik eta euren berreskurapena positiboki baloratzen da, baina beharrezkoa da –behin eta berriz esaten da– errealitate hau beste joera garaikide batzuekin bat egiteko modua aurkitzea eta garai historiko desberdinei lotutako kultur elementuen arteko zubiak eraiki ahal izatea.

Baina filtroa hori da, esperimentatu, gauza modernoak... baina tradizioak, historiak eta nahi duzuna gordetzea, jakiteko aurrekoek zer pentsatzen duten. Oso garrantzitsua da transmisio hori jakiteko nondik zatozen eta nora zoazen, eta gero bakoitzak nahi duena egin dezan...

(Kultura eta sorkuntza taldea)

– Kulturaren egokitzapen gaitasunaren, bilakatzen jakitearen menpe dago iraun eta garatu ahal izatea, hala bere agerpen artistikoak nola belaunaldi berriekiko loturak –adibidez–. Honela, aurrera egingo luke une historiko bakoitzeko baldintzetara egokitzeko gai den patrimonio dinamiko baterantz.

Bertsolaritza eta bertsogintzak eboluzionatu du eta eboluzionatuko du, nahiko barneratua eta normaltzat hartzen dira. Bertsolaritza hasi da antzerki mundura hurbiltzen, kantura... beste gauza batzutara hurbiltzen, segur aski asko aldatuko da. Baina ez dut uste beldurra ematen digun zerbait denik, eta bertsoa da guk esperimentatzeko dugun tokia. Publikoari gustatzen zaio eta bertsolariei ere, gero kritikak badaude, baina nahia ere badago. Bai bertsogintzan,... bertsolariek beste modu batean kantatzen dute, neska gehiago dago, hor...

(Kultura eta sorkuntza taldea)

Ikerketa taldeak uste du banan-banan aipatu diren elementu horiek abiapuntu interesgarria osatzen dutela taldeek eta horietan partaide izandako pertsonek esandakoa ikertzeko eta osteko azterketarako. Aipatutako zenbait premisen begi bistako izaera, gehiagoan edo gutxiagoan, albo batean utziz, garrantzitsua dirudi erre-

pikatzea talde guztiek iritzi horiek azaldu dituztela. Honek beste ikerketetan maiz errepikatzen ez den egoera baten berri ematen du –uste dugu–, zeintzuetan ahots nagusi bi edo gehiagoren arteko desadostasunak azaleratzen diren ezaugarri zentraltzat eta egindako eztabaida taldeen multzoak agertzen duen errealitatearen elementu zehaztailetzat.

1.2.1. Ikuspuntu desberdinei eusten dieten aldagaiak

Aipatu berri ditugu –taldeen diskurtsoei jaramon eginez– euskal kulturaren inguruko gogoetari forma eta sendotasuna ematen dieten ardatz egituratzaileen alderdietako batzuk. Politika eta ideologiaren pisua, modernitatea eta tradizioa dikotomia edo globalizazioa bezala ezagutzen den fenomenoaren nagusitasuna dira euskal kultura eta nortasun garaikideari buruzko diskurtso, interpretazio eta ikusmoldeen hezurdura moduko bat. Aitzitik, honelako osagai orokorrez gain, ikerketa taldeak oinarrizkoa deritzo beste zenbait aldagairen garrantzia kontuan hartzea, horiek daude –praktikan– euskal kultura eta nortasunaren definizio eta kontzeptualizazioan nahasirik diren ikuspuntu desberdinen jatorrian.

Ikerketa taldeak sakontzea erabaki duen aldagairik esanguratsuenak ondokoak lirateke:

– ***Euskalduna / ez euskalduna.*** Izan ere, euskararen ezagutza edo ez ezagutza eztabaida taldeak konfiguratzeko erabilitako osagaietako bat izan da. Susmatzen genuen moduan, praktikan hau izan da euskal kultura eta nortasunaren inguruko diskurtso eta ikuspuntu desberdinak osatzerakoan pisurik gehienetakoa izan duen alderdia.

  Azterketa osoan zehar ikusiko denez hizkuntza, euskararen ezagutza izatea edo ez izatea, pertsona batek euskal kultura eta nortasunaren inguruan duen iritzi ematea, jarrera eta itxaropenak argi markatuko dituen esperientzia da.

– ***Adina.*** Adina ere, adin talde gazteenean edo helduenean egotea, beste oinarrizko aldagai bat da euskal kultura eta nortasunaren ikusmolde eta kontzepzio desberdinak bereizterakoan. Ondoko azterketan ikusiko denez, gazteenen eta nagusienen diskurtsoen arteko kontrajartzea ikerketan indartsuen agertzen denetako bat da, adinaren eta batzuek eta besteek izandako bizipenen arabera unibertso desberdinak daudela azaleratuz.

– ***Landa/hiri ingurunea.*** Aipatutakoaz gain, interesgarria iritzi zaio landa/hiria dikotomiak euskal kultura eta nortasunari buruzko definizioan elkarrengandik urruntzen diren ikuspuntuak osatzerakoan jokatzen duen papera agerian uzteari. Bereizketa honek polemika sortzen du eta zuhurtzia handiz kontsideratu beharrekoa da. Argi dago, gaur egun gero eta zailagoa dela bi inguruneak bereiztea. Zein puntutaraino hitz egin daiteke hiriarekin zerikusirik ez eta isolatua dagoen landa inguruneaz? Egun tradizionalki landatar aitortu dena gero eta hurbilago dago balore hiritar aitortzen direnetatik. Biak dira biziki elkartzera doazen errealitateak. Gainera, nabarmena dirudi landa inguruneetan bizi diren pertsona asko ez direla bizi orain arte ingurune horietako jarduera ekonomiko nagusia izan denetik –nekazaritza–, euren gizarte, lanbide eta kultur bizitza bestelako errealitate eta egoerei lotua dagoelarik.

  Hau esanda, jasotako informazioaren argitara, ikerketa taldeak interesgarria deritzo oraindik ere bizimoduetan, portaeretan, ohituretan edo ikusmoldeetan bizirik dirauten ñabardura elementuak azterketan sartzeari, zeintzuek aipatutako bi inguruneekiko harremanaren arabera euskal kultura eta nortasuna ulertu, esperimentatu eta bizitzeko era bat baino gehiago daudela erakusten diguten. Honela, eta ikerketak alderdi honetan ezin izan duela sakondu aitortuz, azterketan zehar euskal kultura eta nortasunak praktikan esanahi dezakeenaren bi ikuspuntu eta bi esperientzia desberdinen iraupenaren berri eman nahi izan da.

– **Jatorria: Euskal Herrian jaiotako pertsonak edo Euskal Herritik kanpo jaiotakoak.** Azkenik, eztabaida talde desberdinetan jasotako materiala aztertu ondoren, interesgarria dirudi pertsonen jatorriari lotutako aldagaia kontuan hartzea. Azterketan zehar ikusi ahal izango denez, gertaera honek jarraitzen du, askotan, ikerketan lantzen diren moduko gaietara hurbiltzeko era baldintzatzen: Euskal Herriaren

nozioa, euskal nortasuna, euskara edo euskal kultura. Honela, jende askok euskal kultura eta nortasunera duten hurbilpenean jatorria bigarren maila batean uzten dute; beste batzuei, ordea, kanpoan jaio izanak, "kanpokoak" kontsideratu izanak edo "kanpokoak" direla sentitzeak, honelako gaien inguruan duten jarrera zeharo baldintzatzen diete. Kasu honetan ikusten da, desberdintasunek ez dutela hainbeste zerikusi toki batean bizitzen daramaten denborarekin, baizik eta jarrera pertsonal batekin, edo integratzeko era edo ingurune bateko partaide sentitzeko moduarekin.

ADOSTASUN ELEMENTU OROKORRAK EZTABAIDA TALDEETAN

- **Kultura elementu eragilea da gizarte dinamikan**; interesa eta itxaropenak sortzen ditu eta eztabaida kontruktiboa pizten du.
- **Kulturak soslai ireki, askotarikoa eta dinamikoa du.** Kultura "guztia" delako sentsazioa dago, gertaera kulturala irudikatzerakoan aukera sorta zabala irekitzen delarik, baina askotan izaera desberdineko osagaiak bilduko dituen definizio operatibo bat sortzeko (kultura tradizio moduan, sorkuntza moduan, ingurune moduan...) zailtasunak ezkutatzen ditu.
- **Euskal kulturak definizio eta erreferente bateratuen beharra du.** Eskaera hau funtsezko bi arrazoitan oinarritzen da. Alde batetik, euskal kulturak neurri handi batean pertsona askok onartzen ez dituen estereotipoetan sostengatua jarraitzen duela uste da; beste aldetik, nortasunaren oinarrizko eta gaur eguneko elementuak zehazteko dauden zailtasunak nabarmentzen dira.
- **Kultura politikatik at dagoen eremu bezala.** Errealitatea izatera iritsi ez arren, kultura politika tradizionalaren dinamikatik deslotzea desio bat da. Diskurtso politikoak kultura eta nortasunari buruzko diskurtsoak baldintzatzen jarraitzen du baina azken hauek politikaren pisu hegemonikotik ihes egiten saiatzen dira.
- **Globalizazioa kultura garapenaren baldintzatzaile.** Globalizazioa gutxiengoan dauden kulturen iraupenerako mehatxu bezala ikusten da. Diskurtsoetatik nahasketa eta zalantza baino asko gehiago ez da jasotzen, batez ere inmigrazioaz ari direnean, muga arteko fluxuz jositako aro berriaren ezaugarri bereizgarrienetako bat.
- **Kultura eta tradizioa kultur ikur bezala.** Tradizioek duten balioa azpimarratzen da. Baina irudi eta estereotipoak gainditu beharra adierazten da, eta beste joera garaikide batzuekin bat egiteko beharra nabarmentzen da.

1.3. EUSKAL HERRIAREN KONTZEPTUA

1.3.1. Azalpen orokorra

Oro har, EAEn egindako eztabaida taldeek Euskal Herriaren nozioa ezagutzen dutela esan daiteke eta berau euskal gizartean presente dagoen kontzeptua dela berresten du, gizartearen sektore zabalek erabiltzen dutena. Beste gauza bat da Euskal Herria zer den eta zein lurraldek osatzen duten mugatzerakoan izan daitekeen adostasun maila handiagoa edo txikiagoa.

Diskurtso gehienek Euskal Herriaren ideia zazpi probintziekin lotzen dute, bestelako ikuspegiak dituztenak ere badiren arren. Zenbait kasutan, adibidez, Euskal Herria País Vascoren sinonimotzat erabiltzen da (hots, EAE osatzen duten hiru probintziekin identifikatzen da). Beste kasu batzuetan Hegoaldeko lau probintzien elkarketa bezala definitzen da. Bada Euskal Herria sei probintzien bilketa (Nafarroa kanpo utziz) bezala aipatzen duenik edo sei probintzia t'erdiz (Erribera nafarra kanpoan utziz) ere hitz egiten da.

El mapa, el de las siete…

(Gazteak, ez euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)

Yo, el de las cuatro, porque Francia no conozco…

(Gazteak, ez euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)

Yo, con tres…

(Gazteak, ez euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)

Yo, con las seis y pico. Yo, me parece, que Alava entró en Euskadi, con el tema del Parlamento…

(Gazteak, ez euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)

Oro har, ez da eskaintzen arrazoi edo motibazio zehazturik Euskal Herriko mapan probintzia batzuk edo besteak sartzea edo kanpo uztea justifikatzeko eta taldeetan ohikoena izan da sentimendu eta sentsazio pertsonaletara, irudi edo sinismen ideologikoetara jotzea horretarako. Arlo honetan bat etortzea oso zaila da eta horri buruz egindako diskurtso guztietan agertzen den ideietako bat da Euskal Herria nozioak adostasunerako nahiz desadostasunerako elementuak biltzeko gaitasuna duela.

…Mucho más cercano de que habla euskara de otra zona. Es una cuestión mental o psíquica. Te sientes más identificado con lo que admiras. Es importante la cultura…

(Gazteak, ez euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)

Etimologikoki da euskaldunen herria, baina gero nahi zaio eman kutsu politiko bat, gero hori onartu daiteke edo ez, baino beno gauza bat da nola deitzen diezun zazpi probintziei; Euskadi, Nafarroa, Euskal Herria edo mila modukoa. Gaur egun erabiltzen ari da euskal herria zazpi probintzia bezala. Ez dakit, hori ondo edo gaizki dagon…

(Helduak, euskaldunak, Donostia)

Batzuetan desadostasuna desberdintasun nabarietan justifikatzen da, hala ohiturak, bizimodua edota *euskalki* desberdinen erabileragatik ere. Baina desadostasuna Euskal Herriaren ideia hezurmamitzen lagunduko duten osagaien faltatik ere elikatzen da. Euskal Herriaren gaineko nozioaren identifikazio orokortuaren gainetik, taldeek gaur egungo bere edukia eta oinarria plano teoriko, sinboliko edota ideologikoan jartzen dute. Ez da batasun –ziurtatzen da– erreala, zentzu praktikoan. Hau da, ez da ageriko elementuetan oinarritutako batasuna aipatzen. Honi laguntzen dio, zalantzarik gabe, Euskal Herria osatzen duten lurralde multzo osoaren errealitateari buruzko informazio falta eta ezagutza ezak. EAEtik aitortzen da Iparraldeko errealitateari nahiz Nafarroari buruzko ezagutza eza. Aipatu bezala, informazioa falta da –esaten da– baina auzoko zonaldeekiko nolabaiteko interesik eza ere aitortzen da. Ez da Euskal Herria ezagutzen, ez dago bere eskualde eta lurralde desberdinetan barrena ibili izanaren esperientzia zuzenik, ez dago erreferenterik, ez dira nabarmentzen izenak, tokiak, pertsonak.

Sí, igual es un poco también por los medios de comunicación, que lo han dejado un poco más apartado. Que no se les ha tratado tanto. Para mi son grandes desconocidos. A mi me han preguntado mucho porque he estado mucho sobre la zona vasco francesa, pero poco puedo decir, no sé nada de ella, que se habla euskera porque cierta gente habla euskera, y que no se habla tanto evidentemente como en la Comunidad Autónoma Vasca y que compartimos cultura…

(Gazteak, mistoa, Gernika)

Ezagutzen duzu ingurukoa, geografikoa. Nik ezagutzen dut gutxiago Iparraldea Hegoaldea baino…

(Helduak, euskaldunak, Donostia)

Euskal Herriaren ideiarekin identifikatuen dauden pertsonen kasuan, zazpi probintzien batasuna euren egunerokotasunean isla eskasa edo batere ez duen nahi edo herrimin bezala marrazten da. Beste batzuetan, lotura hau, irudikatuaren edo nahiaren eremuan egoteaz gain, konnotazio politikoek baldintzatua legoke. Azken alderdi honek, diskurtso batzuentzat, Euskal Herriari buruzko eztabaidan oztopo bat esanahi du: nortasun gatazkaz eta konnotazio politikoaz hitz egiten da, eta horrek sortzen duen egonezak gaiari ihes egiten saiatzera daramatza. Honela, Euskal Herria mapa batean irudikatzeko nolabaiteko zalantza ikusarazten dute zenbait diskurtsok, eta nozio hau alderdi ez hain gatazkatsuekin eta teorikoki arinagoekin, historia, kultura edo hizkuntza bezalakoekin, lotzen duten definizioak aukeratzen dira. Horrela, Euskal Herria kontzeptu kultural bezala osatzen da, lurralde politikoarekiko mugak definitu gabe jarraitzen duena eta horregatik deskonfiantza pixka bat sortzen du.

Izatez, Euskal Herriaren ideiak zalantzarik gabe identifikatzen duen osagarri argi bat baldin badu, hori hizkuntza da. Euskara da lurralde desberdinak lotzeko orduan pisurik gehien aitortzen zaion elementua. Hizkuntza da, beraz, –gaur

gaurkoz– generikoegia den nozio bati, ikusi dugun moduan, zentzua emateko ahaleginean taldeek duten helduleku nagusia. Izendapenak berak laguntzen du hortara: Euskal Herria da –talde batzuetatik aipatu moduan– euskararen herria, tokia.

> *Niretzat Euskalerria euskaraz egiten den tokia. Beraz, hizkuntzarekin lotuta. Edo euskal kultura daukan tokia. Gero beste gauza bat da kalean nola erabiltzen duzun eta nik erabiltzen dut Erkidegoa…*
>
> *(Gazteak, Euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)*

Euskarak laguntzen du Euskal Herriaren nozioa edukiz betetzen eta bere oinarrizko zutabeetako bat osatzen du, behin eta berriro aipatu dugunez. Baina hizkuntzak desberdintasunak suspertzen eta ikuspegi desberdina bultzatzen ere laguntzen du: ez bakarrik aipatutako *euskalkien* ildotik, baizik eta, funtsean, euskarak lurraldeetako bakoitzean bizi duen egoera desberdinagatik. EAEko ikuspuntutik alde hauek oso nabarmenak dira, eta diskurtsoetako askoren arabera lurralde desberdinetan beste maila batzuetan –horien artean politikoan– bizi diren egoera ezberdinak argira atera eta azaltzeko balio dute. Hizkuntzak, Euskal Herriari buruzko nozioak bezala, balio du komunitateen arteko batasun eta integraziorako aukerak dituzten elementuek, aldi berean, desberdintasun eta muga nabarmenak ezartzeko gaitasunak ere badituztela azaltzeko. Azken finean, batzen gaituen bera da, banatzen gaituena ere.

Edozein eratan, taldeetako asko saiatzen dira Euskal Herriaren ideia komun baten garapena zailtzen duten elementuak gainditzen (informazio falta, erreferenteen gabezia, osagai politikoaren pisua edo egoera soziolinguistiko desberdinek adierazten dituzten desberdintasunak), eta lurralde desberdinen arteko kohesioan eragin dezaketen elementuak, argiak direnetatik aparte (hizkuntza), aipatzen dituzte. Oro har diskurtsoan askoz urtuago dauden osagaiak dira, batzuetan ukiezinak edo adierazteko zailak, baina errealak eta era berean, presenteak. Honela, partekatzen diren alderdi bezala hitz egiten da kulturaz –generikoan– eta, gutxiago historiaz edo paisaiaz. Horregatik, desberdintasunak izan arren, guztien artean loturak partekatzen diren sentsazioa dago. Horrek egiten du EAEn bizi diren pertsonek, Espainiako Estatuko biztanleen aurrez aurre, Euskal Herri osoan bizi diren gainontzeko herritarrenganako hurbiltasun handiagoa sentitzea. Inoiz ez da berdin izango –ziurtatzen da– Nafarroa edo Iparraldea bisitatzea edota espainiar edo frantses estatuko beste zonalde batzuetara joatea.

> *Euskal Herria para mí se me queda un poco más lejos, en Iparralde como yo no he estado, no sé como son y casi no los conozco, y los medios de comunicación alguna vez si que han hablado de ellos, pero me queda un poco como lejos. Euskadi se me queda más cerca, y Euskal Herria más lejos. Euskal Herria igual más a nivel histórico cultural, efectivamente. Euskadi, está más cerca Guipúzcoa que lo que pueda estar Lapurdi, que estas pasando una frontera, y ya estás en un sitio donde afectan otras culturas. Y Navarra, sí es Euskal Herria, pero bueno…*
>
> *(Gaztea, Mistoa, Gernika)*

Esanak esan, Hegoaldetik Iparraldea lurralde urrun bezala antzematen jarraitzen da, non euskal kultura egunerokotasunaren zati bezala ez den bizi, baizik eta zerbait folklorikoa, "kontsumo" murriztukoa eta une jakin baterakoa dena. Orokorrean, euskal kultura Hegoaldean eta bertako herritarren bizimoduan sustraituago dagoela onartzen da.

1.3.2. Ikuspuntuak

Euskal Herriaren nozioak, berau talde desberdinek ulertu izan duten moduan, ez du hainbat ikuspegiren artean bereizketa garrantzitsurik egiteko aukerarik ematen. Izan ere, berau izan da EAEn egindako dinamiketan eztabaida gutxien sortu duen azterketa ardatzetako bat eta, orokorrean, ezin esan daiteke interes berezirik jaso zuenik. Euskal Herriko lurralde desberdinei buruz taldeetan zegoela zirudien ezagutza eza, informazio eskasa eta batzuetan egozten zitzaion osagai politiko-ideologikoa –eta gehienetan ekiditen saiatzen zirena– leudeke ziur aski gaiari buruzko eztabaida irekitzeko gogo-gabezia eta interes faltaren oinarrian. Gai konplexu eta nahikoa abstraktu bezala ikusten da. Are gehiago, orokorrean Euskal Herriari buruzko edozein eztabaida herritarrengandik urruneko maila batean jartzera jotzen da. Eztabaida eurengandik aparte ematen dela dirudi:

> *a mí me da igual que abarque más o menos, lo que me interesa es vivir tranquila*
>
> *(Helduak, ez euskaldunak, Bilbo)*

Jasotako informazioari kasu eginez, egin daitekeen desberdintasun esanguratsu bakarra euskaldun eta ez euskaldunen artekoa litzateke; lehen taldea delarik, oro har, Euskal Herriaren nozioari buruzko iritzi eta jarrera definituagoa

adierazi duena. Jarrera positiboa talde honek Euskal Herria osatzen duten lurraldeei buruz duen informazio eta ezagutzan oinarriak dituena. Iparraldea eta Nafarroa bisitatu dituzte, hobeto ezagutzen dute bertako errealitate kultural eta soziolinguistikoa eta, bi lurraldeetan euskara pasatzen ari den unearekiko kezka gehiago agertu dute. Gainera, Euskal Herria kontzeptuarekiko sentsibilitate, atxikimendu eta enpatia gehiago agertzen dute, identifikazio maila garrantzitsua azaltzen dutelarik: pertsona hauetako askorentzat Euskal Herria da "gure herria", "gure etxea" ("nuestro país", "nuestra casa").

Esandakoa gorabehera, euskaldunen taldeek Euskal Herriaren nozioarekin agertutako hurbiltasun sentimendu honek ez dirudi nahikoa Euskal Herri sinboliko edo irudikatutik benetako eta ageriko Euskal Herritik baino hurbilago dagoen imajina gainditzeko. Gazte euskaldunen talde batean baieztatzen zen moduan: "gauza bat da Euskal Herria izatea nahiko genukeena eta bestea benetan dena".

Ildo honetan, Euskal Herriaren ideia sendotzeko aurre egin beharreko arazoetako bat pertsonen egunerokotasunean duen presentzia eskasa da. EAEko edozein pertsonarentzat –baita gipuzkoarrentzat ere– errazago izaten jarraitzen du erosketak egitera Bilbora joatea Baionara baino. Imajina dezakegunez, erosketak egiten arratsalde bat pasatzea benetan Bilbon edo Baionan errazago den albo batera utziz, garrantzizkoa da herritarrek horrela bizi dutela.

Lerro batzuk gorago aipatu bezala, diskurtsoen arteko desberdintasunak ez dira oso nabarmenak, nahiz eta talde ez euskaldunek Euskal Herria nozioarekiko azaldu duten urruntasuna aipatzea komenigarria dirudien. Urruntasunak uzten du ikusarazten Iparraldeko nahiz Nafarroako errealitatearen ezagutza maila txikiagoa, eta bi lurralde hauekiko esperientzia askoz mugatuagoa: ez dira bisitatu, ez daukate euren imajinarik, ez jendearenik, ez herri eta hirienik. Irudika dezakegunez, guzti horrek eragiten du berez bere mugetan zalantzazkoa den kontzeptuari eduki eta sendotasuna ematerakoan zailtasun gehiago izaten: kultur eremu batetaz hitz egiten dugu?, eremu politiko batetaz hitz egiten dugu?, zertaz hitz egiten dugu? Talde ez euskaldunentzat definizioa askoz konplexuago bihurtzen da eta, Euskal Herria ezaugarri kolektiboak dituen eremu bezala aitortu arren, atxikimendua borondate, edo nahiago bada ideologia, kontu batetara mugatzen da nagusiki. Talde hauen euskarekiko lotura askoz ahulagoa da; beraz, Euskal Herriaren definizioan erabilitako osagai nagusienak –hots, hizkuntzak– nagusitasuna galtzen du, Euskal Herriaren nozioa beraiena den zerbait bezala onartzeko zailtasunak nabarmenki igoz.

Azkenik eta ez euskaldun kolektiboaren azterketarekin amaitzeko helduen taldeen eta gazteen taldeen arteko desberdintasunak aipa ditzakegu. Honela, lehenengoek askoz jarrera indiferenteagoa duten bitartean, gazteek, oro har, Euskal Herriaren ideiarekin lotura estuagoa azaldu dute eta gaiari eta honen ondorioei buruz, direla politikoak edo direla kulturalak, eztabaidatzeko jarrera irekiagoa. Horren adibidetzat har genezake, talde desberdinetako partaide gazte gehienek euskara eta euskal kultura Euskal Herriaren ideiaren errepresentazioaren oinarrizko euskarri bezala ezagutu zituztela. Honela, talde gazteenak, nozio honekiko azaldu duen onarpen maila altuago edo txikiagoa izan, euskal kultura eta nortasunari buruzko eztabaida zabalaren barruan benetan nozio honen presentzia eta jadanekotasunaren berri ematen du.

> *Yo me relaciono más con una ideología que con la geografía. Donde más has estado, es donde nace la cohesión. Decir que eres vasco y eso intentarlo plasmarlo en un mapa político, no lo veo. Una ideología, una forma de ser, una tradición, una cultura…*
>
> *(Gazteak, ez euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)*

1.3.3. Alderdi ebolutiboak diskurtsoan

Goragoko lerroetan aipatu bezala, hizkuntza da Euskal Herriaren nozioa edukiz hornitzeko gai den ia osagai bakarra. Alabaina, gehitzen dute taldeek, euskara hizkuntza komun bezala partekatzea ez da nahikoa Iparraldea eta Hegoaldearen artean sentitzen diren hesiak gainditzeko orduan. Kasu honetan, argi gelditzen da hizkuntza, nortasunaren konfigurazioan garrantzitsua izanik ere, ez dela guztia. Bi kultura desberdin –gutxienez– antzematen dira –Iparraldea eta Hegoaldea– eta hizkuntzak ez dirudi bien artean irekitako etena gainditzeko gai. Eten hau askotan ohiko eta itxuraz garrantzirik gabeko alderdietan gauzatzen da baina pertsonen egunerokotasuna nabarmenki baldintzatzen dutenetan eta, ondorioz, euren inguruneari buruzko pertzepzioan. Honela, Iparraldearen eta Hegoaldearen artean antze-

mandako desberdintasunak, bizimodua, jan eta lan ordutegiak, hizkuntza (frantsesa kasu honetan) bezalakoak, harremanen baldintzagarri dira praktikan, fluxu eta hartu-emanak zailduz.

Bestaldekoak frantsesak jarraitzen dute izaten...

(Muga-Frontera Taldea)

Euskara badauket Iparraldekoekin baina beste guztia beste mundu bat da, ohiturak, jaiak, liburuak, irtetzekoak... Nik beraietaz ez dakit ezer...

(Gazteak, euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)

...Ez dakit zuzen ze elementu amankomunak badira, bederen territorio batean bizi dira, eta hori elementu politiko bat da. Euskal herria da, beraz, beste jende askorekin beste elementu bat da mintzaera. Eta gero gure eguneroko bizian arrunt desberdin bizitzen gara, egunero etortzen naiz, eta hemen bizimodu bat dut eta Iparraldean beste bat. Gaur hemen bazkaldu dut ia laurak eta erdietan eta Iparraldera iristen naizenean zazpiretan nere umeak afaltzen dira. Beraz, elementu amankomunak gutxi eta asko...

(Muga-Frontera Taldea)

Muga bat dago politikoa eta fisikoa. Ez dago mugikortasun fisiko bat, ere. Edo zuk entzuten duzu Euskadi Gaztea eta zenbatek bidaltzen dute mezuak Iparraldetik. Hori da kultura, ez daukagu kultura bat amankomunean...

(Gazteak, euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)

Hegoaldetik ziurtatzen da "gu espainiartuak gaude eta haiek frantsestuak", ideia honek azalarazten du euskarak (berezko eta guztion hizkuntza bezala) aurkitzen duen zailtasuna bere kontura talde lotura sendoak eraikitzeko gizarte lanean. Taldeek esandakoaren argitara zailtasun hau euskal kultura osora zabalduko litzateke, zeinak bere mugak zehazteko eta bere potentzialitatea garatzeko zailtasun larriak izango lituzkeen finkatutako frantziar eta espainiar kulturen aurrean. Hala ere, sumatu daitezkeen oztopoen aurrean lurralde desberdinen artean zubi lana egingo luketen elementuen presentzia behin eta berriro aipatzeko beharra antzematen da. Ildo honetan interesgarria dirudi, hizkuntza lotura gehiengoak partekatuko lukeen beste motako eduki kulturalekin sendotzen lagunduko duen kultur ardatz zabal bat garatzea: kultur sorkuntza eta ekoizpenari lotutako edukiak, ohitura eta tradizioak, ibilaldi eta ibilbideak, gastronomia.

Euskal Herriaren nozio nabariago batean aurrera egiteko estrategia posible bezala euskal kulturari lotutako alderdien garapenean lan egitearen beharra defendatzen duen ideia generikoaz gain, talde desberdinetan egitasmo zehatzak garatzearen garrantzia susmatzen da, tamaina txikikoak, baina gaur eguneko zatiketa ("muga", batez ere psikologikoa) gainditzen lagunduko luketenak, praktikatik, egunerokotasunetik, lurralde desberdinetako pertsonen arteko esperientzia zuzena bultzatuz. Neurri desberdinetako programak edo egitasmoak izan daitezke baina, bestela, funtsean imajinario baten parte bezala gelditzen diren loturak argitara ekartzera, gauzatzera zuzendutakoak. Zentzu honetan nabarmendu daiteke "Euskal Hiria" edo "Bidasoa-Txingudi Partzuergoa" (Hondarribia, Irun eta Hendaia herriek parte hartzen duten partzuergoa) bezalako mugaz gaindiko garapen ekimenek taldeetan jasotako oihartzun eskasa. Ezjakintasunak erakusten du maila txikiko baina pertsonen egunerokotasunean oso sartuta dauden egitasmoen norabidean tematzearen garrantzia. Ildo honetan, honelako elementuak lantzearen garrantzia azpimarratzen da:

– Garraio, komunikazio eta harreman azpiegituren sorkuntza edota hobekuntza.

...Eta ni ziur nago azpiegiturak hemen moldatzen badira eta fluxuak egiteko erraztasunak ematen badira, orain erraztasunik gabe fluxuak badaude, eta erraztasunak ematen ba ditugu fluxu horiek egingo dira eta komunikatzen bada, kontaktuan jartzen bagara, arazo horiek desagertuko dira eta ordu batak eta erdietan bazkalduko dugu...

(Muga-Frontera taldea)

Baina gero eta gutxiago. Tresna praktikoak, peajea kendu...

(Muga-Frontera taldea)

– Euskararen garapena guztion hizkuntza bezala.

Gero beste elementu bat hizkuntza, denak, hitz egiten direnak, horrek errazten du. Infraestrukturak, egiten diren ekintzak, orkestra sinfonikoa edo teatroa. Zuk esaten duzu, teatroan zer gertatzen da? baina musikan askoz errazagoa da, hizkuntza. Eta infraestrukturak iruditzen zaizkit neri oso garrantzitsuak. Eta gauza batzuk ez dituzu egun batetik bestera egiten...

(Muga-Frontera taldea)

– Muga arteko harremana sustatuko luketen ekintzen garapena.

– Turismo eta kultur eskaintza adostu baten garapena.

– Egitasmo ekonomiko pribatu bateratuak.

– Legezko tresnak estatu desberdinetan dauden lurraldeen arteko entitateen elkartzea errazteko.

> *Eguneroko lanerako badira tresna juridiko batzuk. Ni ikastolen konfederazioan naizelarik, sortu dugu Europako elkarte bat, eta hori zaila da, eta hori da elkarte bakarra bi estatutan, eta nortasun juridiko bakar batean. Eta non kokatuta dago, Donostian kokatuta dago baina baditu kide batzuk Iparraldean…*
>
> *(Muga-Frontera taldea)*

– Gizarte kontzientziaren eta konpromiso politikoaren garatzea.

> *Azkenean borondate politikoa egon behar da. Hegoaldean ikusten da Iparraldean baina gehiago…*
>
> *(Muga-Frontera taldea)*

– Hedabideen paperaren garapena.

> *…Orduan orokorrena ikusita Iparraldeko perspektibatik inportantea da, auto organizazioa eta eraikitze premia nagusia ikusten da. Azken urtetan Frantziatik martxan jarri dira instituzio edo sasi instituzioak eta eraman du desmobilizazio batetara gizartea, eta momentu honetan euskararen egoera ez da aurreratu, departamentuarena geldi dago, betiko aldarrikapenak ez dira aurreratu. Eta ikusten da momentu honetan berriro pizte bat eta euskal kulturarekiko behar dela berriro, su bat behar dela, eta ikusten da eraikitze eta auto organizazio, auto eraikitze premia bat eta horretarako dirua behar du. Eta momentu honetan ari dira dirua bilatzen gauzak eraikitzeko eta noski, gu irrati gisa ere ikusten dugu, irratia hiritartu beharra eta erdaldun mundu hori behar dugu, zer galtzen duzu euskal kultura edo euskaraz ez jakiteagatik. Eta gero hiru lurraldeen; Baxe Nafarroa, Ziberua, Lapurdi arteko lotura bat, ze zenbait gauza egiteko beharrezkoa da eta Hegoaldearekin bertrebazio hori behar da ere landu, eta hor ere beste erronka bat dago…*
>
> *(Hedabideen taldea)*

Aldi berean, taldeen diskurtsotik atera daitekeen beste proposamen bat lurralde desberdinen arteko harremana eta ezagutza erraztuko luketen gakoen zabalpena lantzera bideratua legoke, Euskal Herria denaren edo izan behar lukeenaren irudi eta kokapen argiago bat sortzea ahalbideratuz. Informazioa azaleratzen da, horrela, elementu bereziki esanguratsu bezala; gaur gaurkoz, errealitate desberdin hauekiko informazio eza baita, zalantzarik gabe, Euskal Herria kontzeptuak diskurtsoetan jaso duen pisu eskasa ondorioztatzen duen hutsuneetako bat. Hedapen eskaera honi gehitu behar litzaioke espazio komun hori lortzeko beste oinarrizko zutabe bezala borondate politikoa azpimarratzearen garrantzia, batez ere, kontuan hartzen ba da Iparraldeak ez duela berezko administraziorik eta, beraz, lurralde hori "fikziozko" bezala ulertzen jarraitzen dela.

Ondorioz Euskal Herria bezalako nozio batek duen sostengu eskasa nabarmendu daiteke, bere baliagarritasuna –paradoxikoki– talde gehienek onartua den arren. Euskal Herriaren ideia ezagutzen da baina lurraldeak berak oso ezezaguna izaten jarraitzen du. Ez dago bere zonalde desberdinei buruzko xehetasunik; ez dago ekimenen berri, adibidez, mugaz gaindiko garapenerako lanean ari diren egitasmoen berri. EAE eta Nafarroaren arteko harremanak turismora mugatuak geratzen dira, nafarrek euskal kostako hondartzetara egindako bisitak edota San Fermin festak disfrutatzeko alderantzizko bidaiak. Euskal Herriaren ideiak, beraz, disolbatua jarraitzen du, eta umezurtz agertzen da irudikapen politiko, administratibo, eta abarretatik. Estereotipo eta aurreiritziek ezartzen duten zurruntasuna gaindituko duten diskurtso eta irudiak falta dira. Era berean, eztabaidak falta dira, adibidez, Euskal Herriak Europan duen esanahiaz itaunduko dutenak eta euskal nortasun batek kontinentean lukeen potentziala esploratuko luketenak. Azken hamarkadetan jazotakoaren fruitu diren konnotazio politikoek oztopatutako imajina marrazten jarraitzen dute diskurtsoek. Imajina honek, momentuz, ezin izan du urtu zenbait ahotsek muga hertsiena bezala deritzotena: normalean buruan, imajinarioetan ezartzen dena. Horren aurrean proposamen biribila: mugak gainditzeko gai den kultura sendo bat.

EUSKAL HERRIA KONTZEPTUA

Aurkezpen orokorra

- **Euskal Herria nozioa ezagutzen da.** Nahiz eta lurralde kopurua zehazterakoan ikuspuntu desberdinak agertzen diren.

- **Euskal Herria kontzeptuak adostasun elementuak beste desadostasunak sortzen ditu.** Euskal Herriko maparen mugak era argian ezarriko dituen elementu zehatzen falta sumatzen da. Kasurik gehienetan elementu sinboliko eta ideologikoetara jotzen da; baina bere indarra zalantzan gelditzen da Euskal Herriaren ideia alderdi konkretuetan gauzatzeko zailtasunen aurrean.

- **Euskara ikusten da lurralde desberdinak lotzeko orduan pisu gehien duen elementu bezala.** Alabaina, hizkuntzak desberdintasunak suspertzen ere laguntzen du, batez ere lurralde desberdinetan euskararen egoeragatik, *euskalkien* presentziagatik, desberdintasun politikoengatik, eta abar.

- **Euskal Herria kontzeptua edukiz betetzen laguntzen duten beste elementuak** lirateke kultura eta, neurri txikiagoan, historia komuna eta paisaia.

Ikuspuntuak

- **Euskal Herria kontzeptuari buruzko eztabaida sakonaren falta.** Apatia honen iturrian informazio falta, lurralde desberdinen inguruko ezjakintasuna eta osagai politiko-ideologikoak dituzten eztabaidetatik ihes egiteko nahia hautemango lirateke.

- **Ikuspuntu desberdinei eusten dieten aldagaiak:**

  - Euskaldun/ez euskaldun: hau izango litzateke aldagai esanguratsu bakarra ikuspuntu desberdinak adierazterakoan. Honela **euskaldunen ikuspegitik** jarrera positiboago bat eta Euskal Herria kontzeptuaren ezagutza handiago bat ikusten dira; sentsibilitate eta identifikazio handiago bat erakutsiz, gainera. Jarrera hartze honek ez dirudi nahikoa erreala eta agerikotik baino sinboliko edo irudikatutik hurbilago dagoen Euskal Herriaren irudia gainditzeko. **Ez euskaldunen ikuspegitik** Euskal Herriaren ideiarekiko urruntasun handiago antzematen da. Hortaz, kontzeptu hori edukiz betetzeko zailtasun handiagoa ikusten da. Horrela Euskal Herria kontzeptua aitortzen den arren berau borondate edo ideologia kontuekin lotua legoke.

  - Heldu ez euskaldunak/gazte ez euskaldunak: Euskal Herria kontzeptuaz aritzean **helduen taldeak** jarrera indiferenteagoa eta urrunagoa azaltzen du. **Gazteen taldea**, ordea, Euskal Herriaren ideiarekin gehiago identifikatzen da, gaiaz eta bere ondorioez eztabaidatzeko jarrera irekiago bat azalduz.

EUSKAL HERRIA KONTZEPTUA

Alderdi ebolutiboak diskurtsoan

- **Hizkuntza Euskal Herria kontzeptuaren definitzaile bezala**. Dena den, hizkuntzari ematen zaion balioak ez dirudi nahikoa denik Iparraldea eta Hegoaldearen artean dagoen hesia gainditzeko. Horrela taldeetan bizimodu, jatordu eta lan ordutegien arteko desberdintasunak azpimarratzen dira.
- **Hegoaldea eta Iparraldearen arteko muga gainditzeko zubi lana egingo duten elementuak sortzeko beharra.** Ardatz kultural zabal bat garatzea proposatzen da hizkuntz lotura –ez oso trinkoa– sendotzen lagunduko duena.
- **Gaur egungo hesia gainditzen lagunduko duen egitasmo zehatzak garatzearen garrantzia:**
  - Garraio, komunikazio eta harreman azpiegituren sorrera eta hobekuntza.
  - Euskararen garapena.
  - Muga arteko harremana sustatuko luketen ekintzen garapena.
  - Turismo eta kultur eskaintza adostu baten garapena.
  - Egitasmo ekonomiko pribatu bateratuak.
  - Legezko tresnak estatu desberdinetan dauden lurraldeen arteko entitateen elkartzea errazteko.
  - Gizarte kontzientziaren eta konpromiso politikoaren garatzea.
  - Hedabideen paperaren garapena.
- **Hedapena lurralde desberdinen arteko harremana eta onarpena errazteko gako bezala.** Taldeetan azpimarratzen da lurralde desberdinen artean informazioa eta komunikazioa hedatzeak duen garrantzia Euskal Herriaren irudi argiago bat sortzeko, baieztatzen baita gaur egun Euskal Herriaren ideia disolbatua agertzen dela, eta neurri handia batean umezurtz irudikapen politiko eta administratibotik.

1.4. EUSKAL NORTASUNA

1.4.1. Aurkezpen orokorra

Itxuraz euskal nortasuna da taldeetan irtenbidea hobekien aurkitu zaion alderdietako bat. Honela, hizkuntzari lotutako hainbat alderdi desberdinen inguruan edo euskal kultura kontzeptuaren mugaketan dagoen tentsioa antzeman daitekeen bitartean, nortasunaren eremuak hasera batean behintzat eztabaida maila txikiagoa sortzen duela dirudi. Egiaztapen honen harira, euskal nortasunaren definizioaren inguruan adostasun handiagoko une batean gaudela dirudi, adostasuna, funtsean, "guztiok gara euskal herritarrak" ideian oinarritzen da. EAEn sentsazio honek are pisu nabarmenagoa du Nafarroa edo Iparraldeaz gogoeta egitean: oro hor nortasunaren gaiak bi lurralde horietan desadostasun eta gatazka maila handiagoak dituela aitortzen da. Honela, EAEko biztanleek badirudi garrantzizko lana egin dutela euskal nortasun malguago eta irekiago baten definizio eta mugatzean. Hala ere, argia da, eta horrela baieztatzen da taldeetan, oraindik nahikoa atal (eta atal oso garrantzitsuak) falta direla bat etortzeko. Horregatik, egia den arren "euskal herritar izateak zer esanahi duenari" buruz gutxiengo batzuetan adostasuna lortua legokeela, ezin da utzi ohartarazi gabe maila sozial edo kolektiboan konpondu gabeko elementuak erakusten dituzten zeinu eta seinaleen presentzia.

Taldeetan ikusten denaren arabera, euskal nortasunaren inguruko adostasuna oinarrian esentzialistentzat (itxura fisikoari lotutakoak,

odola, abizenak, eta abar) jotzen diren nortasun elementuen etengabeko indar galtzeagatik letorke. Euskal nortasun itxuraz heterodoxoago eta malguago baterako aurrerapen hau, batez ere, gazteenen diskurtsotik indartzen da. Talde hau da, gaur egun bere indarraren parte handi bat galdu duten hainbat alderdiren menpekoa den nortasun zurrun eta estatiko bati eutsi dioten mito eta erreferenteekin tradizionalki kritikoen agertzen dena. Gazteak azken urteetan izandako transmisioaren –hala hizkuntzarena nola euskal kulturarena– lekuko dira eta, horretan oinarrituz, posible da euskal herritar izatearen inguruko definizio anitzak aurkitzea. Transmisio honek euskal gizartearen nortasun ezaugarrien eta euskal kulturaren irakurketa eta eskuratze pertsonala bultzatu du eta, oinarri horretatik, euskal nortasunaren inguruko definizio posibleen kopurua biderkatzen da.

Alabaina, talde askok euskal izaeraren definizio "generikoari" ñabardura garrantzitsuak eskaintzen jarraitzen dute. Talde batzuen ustez, gaur egun oraindik euren inguruan "euskal herritar izateko" maila desberdinak daudela bizi dute. Honela familiaren jatorriak (bertakoa edo kanpokoa), abizenek, euskararen ezagutza edo ezagutza ezak edota hitz egiten den euskara motak (batua, *euskalkiak*...) baldintzatuko dute pertsona bat euskalduntzat, gehiagoan edo gutxiagoan, hartu ahal izatea. Jasotako iritzi batzuetatik ondorioztatzen denez, euskal herritartasunari buruzko mota honetako ikusmoldeek oztopoak jartzen jarraituko luke, gaur egun onartuenetakoa den euskal nortasunaren definizioan, "berton jaioa izatea" eta, batez ere, "hemen bizi eta lan egitea"-ri lotua dagoen horretan.

> *Según la necedad de mucha gente, euskaldun es ser con apellidos vascos, y saber euskera perfectamente...*
>
> *(Gazteak, mistoa, Gernika)*

> *Hemengoak ere batzutan oso itxiak gera. Badago jendea 25 urte daramana herrian, euskaraz ikasi duena, pelotara joan igandero... Que si no tienes los siete apellidos como que no eres de dentro... eta herrietan gehiago...*
>
> *(Gazteak, euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)*

> *...aquí siempre esa obsesión de ser vascos. Mi novio (es de aquí) quiere que aprendiera euskara, que fuese del atletic... si tuviéramos un hijo. A mí no me gustaría influirle tanto, que sería de todas partes. Yo creo que aquí hay demasiada obsesión con eso. Yo creo que la gente que es de afuera se hace más nacionalista de su sitio como reacción. He vivido en muchos sitios y aquí se insiste demasiado, supongo que habrá sido por la opresión. En la televisión, en la gente. En Bilbao hay mucha gente de fuera...*
>
> *(Helduak, ez euskaldunak, Bilbo)*

> *Desde que naces en un sitio naces algo. Una identidad de donde has salido...*
>
> *(Gazteak, ez euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)*

Esentzialistatzat hartutako osagai hauen nagusitasunarekin batera, nortasun kontuen inguruan eztabaida sakona sortzen jarraitzen duten bestelako alderdi batzuk azaleratzen laguntzen du diskurtsoak. Osagai horiek identifika daitezke euskal nortasunaren puzzlean sarrera konplikatua duten piezak bezala eta euren inguruan aurrez aurre dauden ikuspegiak sortzen dira.

Nortasunaren eremuan eztabaida behartzen duen alderdietako bat hizkuntza da. Oro har, taldeek nahasita jarraitzen dute euskarari euskal nortasunaren definizioan eskaini beharreko zereginaz. Lerro batzuk gorago aipatu bezala, euskal nortasunaren inguruan adostasun handiena lortzen duen definizioak lehentasuna ematen dio, jaio, bizi edo lan egiten den tokiari. Euskara, guztiek (baita ez euskaldunek ere) oso faktore garrantzitsutzat jotzen dute, baina kasu askotan bigarren toki batera baztertua gelditzen da. Balore sinboliko handia mantentzen du eta nolabait onartzen da "euskararik gabe ez dagoela euskal nortasunik..."; hala ere bada sentsazioa "nortasuna hizkuntza (euskara) baizik ez bada nortasuna murriztuta gelditzen dela". Ikus daitekeenez egoera honek konpontzeko zaila den ekuazioa marrazten du. Talde batzuk, ordea, euren irtenbidea aurkitzen dute "hizkuntzak ez zaitu "euskal herritarrago" egiten baizik eta euskal herritar "osatuagoa" egiten zaitu" diotenean. Ikuspegi honek baieztatzen du euskara bezalako hizkuntza baten izaera singular eta oso berezia eta, ezagutu eta hitz egiten duten guztiei eskaintzen dien ekarpen positiboa baloratzen da, baina bestelako alderdi nagusiagoen artean (hala-nola Euskal Herrian jaioa izatea edo bertan bizi eta lan egitea) izaera osagarria duela berresten dute.

Perspektiba honek topo egiten du hizkuntza euskal herritar izateak esanahi duenaren muinean kokatzen dutenenarekin (euskaldunen artean askoz hedatuagoa). Kasu honetan "euskaldun" eta "euskal herritar" baliokideak lirateke. Hemendik sortzen da –aurrerago euskal

kulturaren definizioan gertatuko den bezala– euskal herritar izateari (edo sentitzeari) buruzko bi definizio egotea: "euskalduna" eta "euskal herritarra" edo berdina litzatekeena: euskaldun (hizkuntzaren jabe dena) eta Euskal Herriko herritarra, azken hau "vasco edo vasca" nozioarekin gehiago lotzen den ideia.

> *Euskaldun izateko euskara behar da, euskalduna euskara duna da, besteak dira Euskal Herrian bizi direnak…*
>
> *(Gazteak, euskaldunak, Tolosa)*

Bi ikuspuntu hauen arteko talkaren ondorioz, kasu askotan zalantzazko jarrerak sortzen dira: nortasuna hizkuntza bat da? Ez, diote batzuek, baino argi dago hizkuntza oso garrantzitsua dela euskal kasuan. Beharrezkoa al da euskara ezagutzea euskal herritar sentitzeko? Jende askok ezetz dio, baina beste batzuei euskal herritar definitzeak euskararik jakin gabe, bukatu gabeko sentimendua sortzen die (euskal herritar izatea "erdizka").

> *Para mí una persona que no hable euskera puede ser vasca perfectamente. En euskera hay dos palabras euskalduna y euskalherritarra. Euskalherritarra es una persona vasca, que vive aquí, y euskalduna es una persona que conoce el idioma…*
>
> *(Gizarte Mugimenduen taldea)*

Ikus daitekeenez, euskararen munduak konpondu gabeko alderdiak izaten jarraitzen du. Egoera honek, txostenaren euskarari buruzko atalean ikusiko denez, ondoez nabarmena sortuko du berau ezagutzen dutenen artean eta ezagutzen ez dutenen artean.

Euskal nortasunaren inguruko eztabaidan parte hartzen duen bigarren elementu batek sentimendu eta nortasun nazional desberdin bezala definitzen direnen arteko talkari egiten dio erreferentzia. Hizkuntzarekin gertatzen denaren kontrara, mota honetako gaiak askoz era ahulagoan azaltzen dira diskurtsoan. Alabaina, presente daude kultur kontsumorako sentsibilitate, praktika eta jarraibide desberdinetan. Desadostasun honek euskal gizartean hainbat arlotan adierazten den dimentsio gatazkatsua hartzen du, horien artean politikoa litzateke argiena. Gainera, oraindik indarrean daude kontrako bezala definitzen den pertsonari buruzko errefusa, mespretxua, errrespetu falta adierazten duten imajina eta narratibak. Alde batean, hizkuntza, kultura eta berezko ohituren begirunerik eza aipatzen dute; beste aldean, aurrez ulertutako nortasun parametroetan ez dagoen guztiarekiko mespretxua aipatzen dute. Agertoki honetan, behin eta berriz normalitaterik ezaren sentsazioa sortzen da: euskal gizarteak –baieztatzen dute ahots batzuek– normalizatu gabeko gizartea izaten jarraitzen du. Zaila da –baieztatzen da– euskal herritar izatea.

> *Pero tampoco te tienen porqué gustar. No vas a ser más vasco porque sólo escuches música vasc. Hay otra cosa que me parece que falta mucho en el carácter de los vascos y es la autocrítica. Todo lo que forma parte de los vascos parece que es intocable, yo creo que eso es necesario y es sano para progresar, para discutir, y para compartir opiniones de todo tipo. En la cultura vasca puede haber cosas que te gustan muchísimo y otras que igual no te gustan nada. Aquí entre los vascos hay la idea de que tenemos que proteger nuestra cultura y por eso no la vamos a criticar. Yo no creo que de todo lo que hay en la cultura vasca te vaya a gustar todo, eso es imposible…*
>
> *(Gazteak, mistoa, Gernika)*

Esandakoak esan arren, taldeetako diskurtsoak tentsio gutxiagoko nortasun eredu bateranzko aurrerapena adierazten du: bakoitzak "euskal herritar izateari" buruzko definizioan, hau da, bere nortasun edukiontzian sartu nahi duenarekiko errespetuan, batez ere, oinarritutako eredua. Arazoa kasu honetan nortasun partekatu bat mugatzerakoan sortzen da. Puntu honetan aipatu besterik egingo ez dugun zailtasun bat agertzen da euskal nortasuna ulertzeko adierazpenak bat ez datozenean gizartean eta kulturan errotutako aurretiazko eskema eta ereduekin. Banatze hau gertatzen denean, galdera agerikoa da, zein balore partekatuk sortzen dute nortasun kolektibo potentzial horren oinarria? Ba al du kultur eremuak nortasunaren muntaia horretan parte hartzeko aukerarik? Kapitulu honetan zehar galdera hauentzako erantzunak asmatzen utziko diguten giltzarriak eskaintzen saiatuko gara. Edozein modutan, diagnostiko hau osatze aldera, hemen azaldutako lerro nagusiak zehaztuak izan beharko lukete nortasunaren inguruko eztabaidan nagusi izan diren ikuspuntu eta perspektiba desberdinak kontuan izanik.

1.4.2. Ikuspuntuak

Euskal nortasunari buruzko eztabaidetan bi aldagai nagusik hartutako garrantzia azpimarratu behar da: euskararen ezagutza edo

ezagutza eza (euskaldun/ez euskaldun) eta adina (gazteak/helduak). Azken aldagai honi (adina) lotuta kontuan hartzeko beste alderdi bat azpimarratzea ere interesgarria litzateke, jatorria; izatez, Euskal Herrian edo lurralde honetatik kanpo jaio eta sozializatzea, nortasunaren konfigurazioan beste faktore baldintzatzaile bat bezala agertzen baita.

Euskaldun eta ez euskaldunen arteko desberdintasuna kontuan izanik, euskarak lehen talde horren nortasunaren definizioan hartzen duen pisua azpimarratu behar litzateke. Argi dago euskaldunentzat hizkuntza euren nortasunari estu-estu lotua dagoela eta horrela azaltzen da euren diskurtsoan. Hizkuntza jotzen da "euskal herritar izatearen" adierazpen maximotzat. Hizkuntza da –talde honetatik diote– definitzen gaituena, eta errealitate hau izendatzeko badago ezin hobe azaltzen duen hitza: "euskaldun". Hizkuntzaz gain, berezko nortasun ezaugarriak finkatzen dituen beste elementu mota batzuk ere badirela aitortzen da. Honela euskal herritar izan eta sentitzeko, hizkuntzaren ezagutza izan edo ez izan, bestelako aukera batzuk irekitzen dira. Elementu horien artean nabarienetako bat euskal herritar izateko edo sentitzeko nahia, borondatea litzateke. Era berean onartzen da, Euskal Herrian jaioa izatea, euskal kulturan sozializatua izatea eta bere ohitura, tradizio eta bizimoduetan parte hartzea euskal nortasuna finkatzeko funtsezko oinarriak direla. Zentzu honetan zenbait pertsonengan jende jakin baten perfilak (perfil politikoa) sortzen dituen zalantzen gainetik, onartzen da euskal herritar autodefinitu eta hala senti daitezkeela.

> *…Me imagino que será el hecho de la cuadrilla con la que estoy. El mismo hecho de que ellas sean euskaldun-zaharras, hace que yo me sienta integrada, para mí mi forma de vida es vasca. Pero es eso, es todo ello: costumbres, tradiciones, el carácter…*
>
> *(Gazteak, mistoa, Gernika)*

> *La forma que vive un vasco día a día es… Un euskaldun, por norma general, yo lo veo así, es una persona con mucho carácter, mucha fuerza, mucha energía, es un nervio. Es así. Yo lo veo así…*
>
> *(Gazteak, mistoa, Gernika)*

> *Hemen umorea desberdina daukagu, gure tokea ematen diogu…*
>
> *(Gazteak, Euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)*

> *Dentro de la identidad también entran las relaciones y la forma de trabajo, además del folclore, el arte o la historia…*
>
> *(Gizarte Mugimenduak taldea)*

Honela, hizkuntzaren izaera zentrala eta muinekoa den arren, talde euskaldunen diskurtsoek beste dimentsio batzuei ere toki edo aukera ematen diete euskal nortasunaren zutabe bihurtu ahal izateko, edo agian zuzenago litzateke esatea, euskal nortasun motaren baten zutabe. Ikuspegi honek toki egiten die –batez ere– 1960 eta 1970eko hamarkadetan Espainiako Estatutik Euskal Herrira iritsi ziren pertsonen seme-alabei. Euskaldunen diskurtsoa gazte belaunaldi honi buruzkoa da, pertsona hauek, oro har, euskal errealitatean eta kulturan parte hartzen dute eta euren euskal nortasuna ez da eskuarki zalantzan jartzen. Argia da kasu honetan ere, kritika eta ezinegonerako tokia badela. Honela, taldeetan bereiz daitezke Euskal Herrira iritsitako pertsona batzuek integratzeko adierazi duten borondate eskasa azpimarratzen duten zenbait ahots; borondate hori euskararekiko jarrera indiferentean (edo baita kontrakoan ere) eta ingurune hurbileneko dinamika sozial eta kulturalarekiko interes faltan agertuko litzateke. Inoiz integratu ez den jendea da –baieztatzen dute– eta, kasu zehatzetan, euskaldun denarekiko jarrera erasotzaile eta iraingarria ere –euskaldunen hitzetan– azal dezakeena.

> *…Jende horrek ez, hemen orain 30 urte daramana eta ez da saiatu, ez zaio inporta…*
>
> *(Gazteak, euskaldunak, Tolosa)*

Mota honetako agertokiek gazteen taldeetan landutako diskurtsoetan eta nagusien taldeetan sortutakoetan begirada jartzera bultzatzen gaitu, desberdintasun esanguratsuak azaltzen direlarik kasu honetan batzuen eta besteen ikuspegietan.

Gazte euskaldunen taldeen kasuan euskal nortasunaren elementu –euren begietara– esentzialista edota estereotipatuenetatik urruntzeko gaitasun eta nahi handiagoa ikusten da; elementu horiek protagonismo handiagoa dute nagusi euskaldunen diskurtsoan. Posible da zentzu honetan heldu eta gazte euskaldunen artean desberdintasun garrantzitsua ikustea euren nortasuna sortzeko eta adierazteko moduan. Lehenengoen kasuan, iragana eta, bereziki, tradizioari, herriminari eta iraganeko toki eta denboren oroitzapenari lotutako nortasunaren sinboloak birsortzeko joera dago. Gazteenek, beren aldetik, trantsizio garai bat

bizitzen ari garen sentsazioa azalarazten dute euren diskurtsoan. Etorkizunari begiratzen diote, baina tradizioak oraindik euren errealitatean pisu garrantzitsua duela aitortzen dute. Tradizioaren aurrean duten jarrerak –euskal kulturari eskainitako ataletan ikusi ahal izango denez– iragaite une hori adierazten du: ohiturak, folklorea euren parte dira, baina euren errealitatea beste bat da, euren bizipenak garaikideago diren beste erreferente batzutan oinarritzen dira.

Ez euskaldunen eremua aztertzera igaroz, oraindik argiago ikusten da belaunaldien arteko desberdintasuna. Ez euskaldun nagusiengan arreta jarriz, EAEtik kanpoko jatorria dutenak, pertsona horietako askok euren nortasuna euren hazkuntza eta lehen sozializazioa jaso zen jaiotokiari lotzen diotela baiezta daiteke. Alabaina, euren seme-alaba gehienek –dagoeneko EAEn jaioak– beren burua euren jaiotze tokiarekin, *eurek* "bizitako" espazio soziokulturalarekin eta mundu sozialekin identifikatzen dira. Hots, euskal herritar sentitzen dira eta halaxe definitzen dute beren burua.

Ildo honetan interesgarria da kasu askotan familia beraren barnean nortasunen artean dagoen bizikidetza ikustea. Honela, ohikoa da taldeetan ondokoa bezalako esaerak entzutea:

> *Yo por nacimiento me siento maño 100% pero me siento raro porque ahora tengo un hijo que ha nacido aquí y que es vasco*
>
> *(Helduak, ez euskaldunak, Bilbo)*

Are gehiago, pertsona helduen kasuan ere ez dago argi guztiak euren sorterriari lotzen zaizkionik. Urteen igarotzeak, bizitako esperientziek eta bizikidetzak egin dute Estatuko beste tokietatik etorri zirenetako askok nortasun partekatua izatea (euren jaioterrikoa "izateak" eta euskaldun "sentitzearen" baturak osatua) edo, baita euskal errealitateari lotuago daudela baieztatzea ere, ("aun habiendo nacido fuera me siento más de aquí porque aquí es donde tengo todo"). Azkenik, zenbait pertsonen kasuan izan daiteke nola edo non kokatu ez jakitearen bizi paradoxa, ("cuando voy a mi pueblo me dicen el vasco y aquí me consideran como español"). Oro har, gehienek hartu dituen lurraldearekiko esker ona agertzen dutela esan daiteke baina ez dietela "euren sustraei", euren jatorriari, uko egiten.

Bestalde, duela hamarkadak Espainiako Estatuko beste herrialdeetatik etorritako pertsona horien seme-alabek bestelako errealitate zeharo desberdina adierazten dute.

Seme-alabak EAEn jaio dira, non euren bizipen eta esperientzia sakonenak izan dituzten. Euren familien jatorrizko kulturarekiko hurbiltasun handiagoa edo txikiagoa onartzen duten aparte utzita, gazte hauek ez dute inoiz zalantzarik euren burua euskal herritartzat aitortzeko. Era berean, euskal kulturarekin osorik identifikatzen direla ziurtatzen dute eta bertan partaide direla, nahiz eta, kasu askotan, euskaraz egoki aritzeko adinako ezagutzarik ez dutela baieztatzen duten. Ez dirudi hizkuntza euren nortasun ikurrak garatzeko oztopoa denik, beraiek euskal kultura partekatuan partaide izatea ahalbideratzen dieten erreferentzia asko euren egunerokotasunean aurkitzen dituzten neurrian. Euren usadioak eta eguneroko ohiturak, harreman moduak (lagun-taldea, herrietako jaiak, aisia, eta abar) –gainontzeko euskal gazteenen berdinak direla diote– euskara ezagutu eta hitz egin ala ez.

> *Yo lo veo como una forma de vivir, yo me considero que estoy integrada. Mis padres son castellanos, y yo estoy muy orgullosa de ello. Y en mi casa se habla castellano y siempre se ha hablado, y yo en el colegio aprendí euskera, pues lo mismo, teniendo a la semana un par de horas o tres de euskera a la semana y sin más. Pero yo considero que tuve la suerte de juntarme con un grupo de gente que era euskaldun-zaharra y que he disfrutado de ello. Que lo he disfrutado bien, y lo sigo disfrutando. A mi ellas me han aportado muchas cosas, cosas que seguramente en mi casa no he visto. Tradiciones que tienen en sus casas y en la mía no hay, pero igual de la misma forma que yo he disfrutado de las tradiciones que tienen en sus casas por ser como son, ellas las han disfrutado de la mía, porque ellas han venido a mi casa y las han disfrutado, de forma castellana y yo de la forma de aquí…*
>
> *(Gazteak, Mistoa, Gernika)*

> *Entonces sí, tenemos nuestra gastronomía, nuestra cultura, los bailes, el mercado mismo, es diferente. Y tú te vas para la zona centro del país y no es lo mismo. Pero es que es completamente diferente, yo creo que la gente sí está integrada, desde mi punto de vista. O igual es por que yo me he integrado muy bien, yo me siento muy integrada, y yo me siento euskaldun a tope, aunque mis padres sean castellanos, esa es la verdad. Y a lo mejor, porque en el entorno que estoy a mi me han aceptado como tal, aunque no haga ese esfuerzo que debería hacer por hablar con ellos en euskera. Pero bueno, como ellos tienen claro que todo lo que dicen lo voy a entender, lo entiendo y voy a contestarles con coherencia, pero claro, en mi lengua materna, pero igual que para ellos, su lengua materna es el euskera y me contestan en euskera. Yo de todas formas intento participar*

haciendo lo que hace cualquier cuadrilla, te vas al Ibilaldi, te vas al Herri Urrats, y te vas a ver cosas, a oír bertsos, y por ejemplo, el consumo de música también es muy diferente. Depende de cada gusto. Pero bueno, si te gusta la música de aquí, la vas a consumir, y se oye, y aquí se vive eso. Cosas que a lo mejor en otro sitio no tienen tanta importancia.

(Gazteak, Mistoa, Gernika)

Era berean, euskarazko kulturaren mundutik datorren guztiarekiko irekiak agertzen dira eta kasu askotan euren frustazioa azaltzen dute euskaldunen baldintza beretan euskarazko kulturaren aberastasuna ezin partekatuagatik. Alabaina, sentsazio honi berari, zenbaitetan hainbat euskaldunen jarrerekiko nahigabea eta kexa lotzen zaizkio, zeintzuei –aurrez esan bezala– itxikeria aurpegiratzen zaien, ez baitirudi beraiek euskal herritartzat onartzeko prest daudenik euren kultura osorik ezagutzen ez dutelako. Honela, gazte ez euskaldun hauen –etorkinen seme-alabak– arteko kolektibo batek, mespretxua sentitzen duela dio euskaldunen sektore batengandik, zeintzuek –ziurtatzen dute– ez duten inolako ahaleginik egiten guztien eremu kultural bateko partaide izan daitezen. Euren aldetik, behin eta berriro aipatzen dute hizkuntzaren ikasketak duen zailtasuna, aldi berean askotan euskarara hurbiltzeko ahaleginean erosotasunagatik amore ematen dutela aitortzen duten arren. Euren ahaleginak geldiarazten dituen beste alderdi bat –euren esanetan– sakonago ezagutu nahi luketen kultura baten alderik erakargarrienera hurbiltzeko duten intentzioa indartuko duen keinuen falta da, beti ere pertsona euskaldunen aldetik.

No es idioma es una interiorización que nos falta. Lo que no nos cuesta; el carácter, rasgos físicos, fiestas… las cosas que no nos cuestan ni esfuerzo ni tiempo las llevamos estupendamente. Si supiera euskara, mi visión sería diferente.

(Gazteak, ez euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)

Aipatutakoa kontuan izanik, euren gurasoen esperientziarekiko gazte hauek aurrera pausu bat adierazten dutela esan daiteke, gurasoek kasu askotan oztopo handiagoak aurki ditzakete eta erreparo garrantzitsuak izan euskal kultura berezko kultura bezala ezagutzeko. Izan ere, euskal herritar belaunaldi berri hauei, euren familia-historiaren –euren gurasoen– parte ez den kultura batean toki erosoa aurkitzeko aukera ematen dieten faktoreak oso kontuan hartzekoak dira eztabaidatzen denean zein aukera egon daitezkeen euskal kulturari buruzko ikuspegi, sentsibilitate eta esperientzia desberdinen topaleku eta gizarte osoaren zeharkako nortasun kolektiboa izan daitekeena finkatzeko. Era berean, kontuan hartu behar litzateke hizkuntzaren gaiaren inguruan kasu askotan sortutako sosegurik eza, sosegu falta honek nortasun partekatuko espazio bat, nortasun kolektibo komuna, sendotzea zailtzen jarraitzen du.

1.4.3. Alderdi ebolutiboak diskurtsoan

Aipatu dugunez jasotako diskurtsoek euskal nortasunaren definizio ireki eta askotarikoa aditzera ematen dute. Nabaritzen da, inolako zalantzarik gabe, oso partekatua den *beharra*: Euskal Nortasunaren interpretazio irekiago bat nahi da –gaur eguneko gizartearen errealitateari egokituagoa, diote taldeek– euskal herritar izateko, sentitzeko eta adierazteko modu desberdinak bat etorriko diren ikuspegi bat.

Nortasun eremu partekatu baten garapena eta etengabeko sendotzea itxuraz modu bikainean aurreratzen letorkeen lorpena da. Hala ere, oraindik arreta eustea beharrezkoa dirudi partaidetza eta euskaltasun sentimenduaren gaiari buruz gatazka bizirik dirauen gotorleku txiki batzuen inguruan. Ikus ditzagun, urrunago joan gabe, kanporatze-barneratze identitarioari buruzko tentsioa eta ikuspuntuen desadostasuna agerian uzten duten bileretako bi eranskin. Gazte taldeei dagozkien bi pasarteetan zehazki agertzen da nortasun elementua era naturalago eta landuago batean. Lehenengoa Estatuko beste tokietatik iritsitako pertsonen seme-alabek osatutako Gernikako gazte euskaldun-ez euskaldun talde batetik hartua da. Bigarren pasartea Gasteizko gazte ez euskaldunen talde bati dagokiona da:

1. Pasartea:

– *Yo he nacido aquí y he aprendido euskera por lo que soy vasco y euskaldun.*

– *Pero hay gente que piensa que si tus padres son de fuera o no tienes apellidos vascos, que no eres vasco.*

– *Incluso te dicen que tu euskera no es el vizcaíno de ellos.*

– *Sientes que estás un poco desplazado en cuanto a idiomas, en cuanto a cultura, en cuanto a todo*.

(Gazteak, Mistoa, Gernika)

2. pasartea:

- *Yo si sabría euskera me sentiría más vasco de lo que me siento ahora.*
- *Perdona, te sentirías más completo como vasco, pero no más vasco.*
- *Más completo porque podrías acceder a una parte de la cultura en euskera que ahora no accedes, pero el tema de ser vasco es consustancial a la persona, has nacido en el País Vasco, te sientes vasco y punto.*

(Gazteak, ez euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)

Euskaldun eta ez euskaldunen arteko bereizketa albo batera utzita, beharrezkoa dirudi euskal nortasunak esanahi duen ikuspuntu eta adierazpen desberdinak egituratzean adinak hartzen duen pisuari buruz arreta deitzea: gazteen euskal nortasuna ez dator bat euren nagusienarekin. Etorkin nagusien belaunaldiaren euskal herritar sentitzeko modua ez dator bat (zenbaitetan gatazkan ere sar daitezke) euren seme-alabarenarekin.

Yo hoy por hoy, llevo aquí desde el 75 y no me he preocupado ni de saber de los orígenes de los vascos. Ni cómo empezó todo ni nada. Ahora me he empezado a preocupar un poco más por el euskara y esas cosas porque mi hijo me lo está metiendo bueno lo tengo en una Ikastola y me estoy preocupando un poco mas de eso, pero lo que me enseñan él y mi mujer, y para de contar. Pero desde el 75 que llevo aquí no me he preocupado en saber las raíces de Euskadi, nunca.

(Helduak, ez euskaldunak, Bilbo)

Yo me siento maño 100 por cien, me gusta mucho esto, pues aquí he aprendido todo. La cultura vasca la respeto, pero me siento raro porque ahora tengo un hijo que es vasco. Yo me he criado aquí, mis tendencias son mañas, me tira aquello. La cultura vasca, como no sé mucho de aquello… pero la respeto todas sus ideas, orígenes. Ahora tengo un hijo vasco, casi contradice mis ideas, pero no ha nacido aquí.

(Helduak, ez euskaldunak, Bilbo)

Desberdintasun hau errepikatzen da gainera –nahiz eta neurri txikiagoan– euskaldunen arteko adin talde desberdinetan. Honela, askok eta askok onartezen dute euskal herritar izatea adierazteko eta sentitzeko era desberdina dela gazteen artean ("euskal herritar izateari" buruzko euren ikuspegiari izaera urbanoago bat ematen dioten erreferente garaikideak dituztelarik) eta helduen artean (euskal herritar sentimendua, oro har, iraganari eta ohiturei oso lotua). Alde hauek sarritan jatorriak edota bizilekuak eragiten ditu. Honela, adibidez, Gasteizen edo Donostian edota Goierrin euskaldun izatea berdina ez dela berresten da.

Idatzitakoa kontuan, beharrezkoa dirudi "euskal nortasuna" ideiaren aurrean "euskal nortasunak" adierazpenaren balioa azpimarratzea. Egokia da baita, identifikazio nozioari –beti bukatua den eta muga gardenak dituen nortasun ideiaren aurrez aurre,– lehentasuna ematearen komenentziari buruz galdetzea ere. Kontzeptu honek nortasunaren osagaiekin harreman lasaiagoa, negoziagarriagoa eta malguagoa errazten du. Identifikazioa oinarritzen duen sostengu motan legoke desberdintasuna –ingurunearekiko enpatia, norbere esperientzia eta bizipen pertsonaletatik sortutako sentimendua–, nabarmen desberdintzen delarik orokorrean benetakoa/gezurrezkoa, ona/txarra, eta abarrari buruzko iritzi finkatuetan oinarritutako (sarritan diskurtso politiko eta ideologikoari lotua) nortasunaren diskurtso askoz zurrun eta trinkoagotik.

Euskal herritar izatearen edo sentitzearen oinarrian identifikazio ideiari bidea irekitzeak diskurtso eta adierazpenetan bilakaera garrantzitsua ekarriko luke, tradizionalki monolitikotzat hartutako nortasun eskema batetik, edozein nortasun sentimendutan adina, sexua, familiaren jatorria, ingurune hurbilenaren (edo lurraldearen) ezaugarriak, eta abar bezalako faktoreek eragiten dituzten desberdintasunak jasotzeko gai izango dena eredu askoz irekiago batera pasatuz.

Azkenik taldeek aipatutakoaren aurrean, beharrezkoa dirudi nortasun eremu partekatua deitu dugunaren garapena oztopatzen ari diren osagaiak aztertzea. Kasu honetan, erronka ez legoke hainbestean euskal herritar naizen edo ez naizen edo norbait euskal herritartzat hartzeko zein baldintza bete behar diren (jatorrizkoak, abizenak, borondatea, hizkuntza, euskalkia…) galderari erantzutean, baizik eta hausnarketa bultzatzean nortasun hori partekatzeko baimena izatean edo ala ez izatean eragiten duten osagaiez, gu bat partekatzea onartzeko dauden zailtasunez eta euskal nortasuna estereotipo eta esentzialismoetatik urrundutako adierazpenekin ulertzeari buruz.

Yo estoy integrada, tengo mi forma de vida y mi forma de vida es como la que se lleva aquí, intento participar haciendo lo que hace cualquier cuadrilla: te vas al Ibilaldia, Herri Urrats, bertsos…

(Gazteak, mistoa, Gernika)

EUSKAL NORTASUNA

Aurkezpen orokorra

- **Euskal nortasuna elementu hedatu bezala**. Taldeetan nolabaiteko lasaitasuna atzematen da euskal nortasunaz hitz egitean, hasteko euskal herritar izateak esanahi duenaren inguruko ikuspegi zabal eta hedatua baitago. Alabaina gizarte edo kolektibo mailan konpondu gabeko alderdien inguruan tentsio seinaleak ere atzematen dira. EAEn aitortzen da Nafarroa edo Iparraldearen kasuetan nortasunaren gaiak zatiketa eta gatazka seinale handiagoak dituela.

- **Osagai esentzialistenen protagonismo galera**. Ikuspegi hau batez ere gazteenen perspektiba eta diskurtsoetan indartzen da, euskal nortasun heterodoxo eta malguago bati tokia eginez. Hala ere, talde askok oraindik nortasunaren gaian osagai orokorragoen garrantzia azpimarratzen jarraitzen dute, euskaldun izatearen mailaketa bat egitera eramango lituzkeelarik.

- **Euskal nortasuna eta euskararen papera**. Taldeetank euskarak euskal nortasunaren definizioan izan beharreko pisuaren inguruko eztabaida sortzen da. Kasu gehienetan hizkuntzaren protagonismoa azpimarratzen da baina, askotan baita, hizkuntza bigarren mailara baztertzen duten beste osagai batzuen garrantzia ere nabarmentzen da (Euskal Herrian jaio izana edo hemen bizi eta lan egitea). Ikuspegi honek talka egiten du hizkuntza euskaldun izateak esanahi duenaren erdigunean ezartzen duten ikuspegiekin.

- **Euskal nortasuna eta nortasun nazional desberdinen arteko norgehiagoka**. Taldeetan nortasun nazional desberdinak sentsibilitate, kultur praktika eta kultur kontsumo arau desberdinekin agerian daude. Honela, alde batetik (ez euskaldunek) aldez aurretik pentsatutako nortasun parametroetan sartzen ez denarekiko mespretxua aurpegiratzen dute eta, beste aldetik (Euskaldunek), hainbatetan hizkuntza eta bere adierazpenekiko begirune falta aurpegiratzen dute.

EUSKAL NORTASUNA

Ikuspuntuak

4 **Ikuspuntu desberdinen oinarrian dauden aldagaiak:**

- Euskaldun/ez euskaldun. **Euskaldunen** ikuspuntutik, nortasunaren definizioan euskarak duen pisua azpimarratu behar litzateke, hizkuntza haren adierazpen maximoa bihurtuz. Nortasun ezaugarri horiek finkatuko dituzten bestelako osagaiak ere onartzen dira (euskal herritar sentitzea, Euskal Herrian jaio izana, euskal kulturaren alderdi desberdinetan parte hartzea). Ikuspegi honetatik Espainiako Estatuko etorkinen seme-alaben integrazio gaitasuna aipatzen da, ahots batzuek sentimendu hau ez dute partekatzen eta ustezko integrazio hori zalantzan jartzen dute.
- Gazteak/Helduak. **Euskaldun gazteen ikuspegian**, diskurtso esentzialistenetatik urruntzeko beharra eta nahia antzematen da. Aitzitik, **heldu euskaldunen ikuspegitik**, iragana eta funtsean tradizioari lotutako nortasunaren sinboloak birsortzeko joera adierazten da.

  Ez euskaldunen eremuan ere adinak desberdintasunak nabarmentzen ditu. **Heldu ez euskaldunen** artean euren haziera gertatu zen jaioterriarekiko lotura estua hautematen da. Haatik, **gazte ez euskaldunak** euskal herritar bezala definitzen dira. Gazte hauek, orohar, euskal kulturarekin zeharo identifikatuak sentitzen dira eta bertan parte hartzen dute, hizkuntzaren ezagutza nahikoa ez izan arren. Kasu askotan, euskal kulturaren aberastasuna euskaldunekin baldintza beretan ezin partekatuagatiko frustrazioa azaltzen dute. Baina zenbait ahotsek euskal munduan sumatzen duten itxikeria ere gaitzesten dute.

Alderdi ebolutiboak diskurtsoan

4 **Euskal nortasun irekiago baten beharra**. Taldeetan gizartearen errealitatera egokitu beharra azpimarratzen da, euskal herritar izatearen adierazpen desberdinak onartu, asimilatu eta eratuz. Ezin da nortasunaz hitz egin, baizik eta nortasunetaz.

4 **Identifikazio nozioari nortasunaren aurrean lehentasuna eman beharra**. Hala, muga ongi definitudun nortasunaren ideiaren aurrean, identifikazioa jotzen da eredu askoz irekiagotzat eta dauden nortasun sentsibilitate desberdinak jasotzeko gai.

4 **Nortasun partekatu bat oztopatzen ariko liratekeen osagaiak aztertu beharra.** Euskal nortasun partekatu baten ikuspegia sendotzea oztopatzen ari diren osagaiak aztertu beharko lirateke, eta definizio zabalago eta partekatuago batean lagunduko luketen osagaiak aurkitu.

1.5. EUSKARA

1.5.1. Azalpen orokorra

Jasotako informazioaren harian, aipatu beharra dago diskurtsoetan hizkuntzak hasiera batean espero baino protagonismo txikiagoa izan duela. Eztabaidaren gaia euskal kultura izan dela aintzat harturik, hasiera batean pentsatzen zen euskara arretagunea izango zela, betiere argudio eta hausnarketen ardatz nagusi bihurtuz. Neurri batean halaxe gertatu da, baina aurreragoko atal batean ikusiko den bezala, hizkuntzaren gaineko eztabaida euskarak euskal kulturaren definizioan duen pisura murriztu da. Halaber, azaldu berri den modura, hizkuntzaren eta nortasunaren arteko loturak sarritan azaldu dira taldeek euskarari buruz egindako hausnarketan.

Adierazitakoaren ildotik, lehendabiziko ondorio orokorra atera daiteke: berezko nortasuna duen azterketa gune modura baino gehiago, hizkuntza eztabaiden zeharkako ardatz gisa azaltzen da. Hori taldeek hizkuntzari ematen dioten garrantziaren isla da; izan ere, balorazioak alde batera utzita, osagai honek protagonismo nagusia hartzen du euskal gizarte, kultura eta nortasunaren egoera aztertzeko asmoa duen edozein diagnostikotan. Eta hori guztiori halaxe gertatzen da, galdeturiko pertsonek euskaraz jakin edo ez.

Hizkuntza, beraz, taldeek eztabaidaturiko gaien zeharkako ardatz gisa azaltzen da; alabaina, azpimarratzekoa da euskara aipatzen denean eztabaida sortzen dela, bai eta ikuspuntu nahiz interpretazio desberdinak ere, eman behar zaion garrantziari dagokionez, izan behar duen gizarte nahiz kultur protagonismoari dagokionez eta abar.

Hizkuntzaren gizarte garrantzia eta diskurtsoetan ematen zaion neurria kontuan hartuta, interesgarri iritzi zaio ikerketa taldeak azterlanean hizkuntzari buruz bildutako ikuspegi eta iritziak xehetasunez aztertzeko beren beregi zuzendutako atal bat atontzeari. Horixe da, hain zuzen ere, ondorengo orrien helburu eta xedea. Horien bitartez, euskararen oraingo eta etorkizuneko gunea marrazteko ahaleginak egingo dira, taldeek adierazitakoaren arabera. Horrela, esandakoak errepikatzeko arriskua egonagatik ere eta azterketa antzeko beste gai batzuetatik bereizteko zailtasunak gorabehera, hala nola nortasun eta kulturatik, ikerketa taldeari komenigarri begitandu zaio hizkuntzari aparteko azterketa gune bat eskaintzea.

Abiapuntu legez, ostera ere azpimarratu behar da hizkuntzak, euskarak, faktore zentral bezala euskal gizartean duen garrantzia. Taldeetan egindako diskurtso eta adierazpenei men eginez, pertsonek ingurunearekin duten harremanetan euskarak garrantzi handia duela egiaztatzen da, hau da, euskal gizartearen errealitatea ulertu eta interpretatzeko moduan. Euskaraz jakin edo jakin ez, euskaraz mintzatu edo mintzatu ez, euskara pertsonen bizitzan agertzen da, baina nola azaltzen da? Zein parametrotan?

Euskararen balorazioan aintzakotzat hartu beharreko lehendabiziko alderdia hizkuntzari sinbolikoki ematen zaion tokia edota garrantzia da. Horren inguruan nagusitzen den iritzia zera da: azken bi hamarkadetan izandako aurrerapenak gorabehera, euskararen eremuak urria izaten jarraitzen duela. Euskaldunak, euskaraz dakiten eta erabiltzen duten pertsonak, talde murritz bateko kide dira (eta haiek ere halaxe ikusten dute beren burua): “gutxi gara” –adierazten da–. Gainera, euskaldunen kokapena gorabeheratsua da: euskarari hobeto eusten zaio udalerri txiki eta ertainetan; Bilbo edo Gasteizen moduko hirietan euskara ez da egunerokotasunean agertzen eta oso gune eta eremu murritzetan dago. Gainera, EAEn duen egoeraren gaineko diagnostikoa egiten ahalegintzean, Gipuzkoa eta Bizkaian duen presentzia azpimarratzen da, Arabak duen pisu txikiaren aldean. Gauzak horrela, Gasteizko kasua euskararen ikusezintasunaren adibidetzat hartu ohi da beti.

> *...gainera oso desberdina da hemen, Nafarroan edo Iparraldean. Bakarrik ikusi behar da joerak. Hemen Gasteizen ezerez, gero zeoze eta gero apur bat gehiago egongo da. Etaliparraldean lehen ez zegoen asko, gero gutxiago eta hemendik urte batzuetara ez da egongo ezerez. Hor sartu administrazioaren asuntoak, instituzioak toki bakoitzean hizkuntzarekiko duen jarrera. Pentsaera... horregatik ikusten dut oso heterogeneoa.*
>
> *(Gazteak, euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)*
>
> *En Vitoria aunque se sepa en euskara no se habla, en Donosti sí...*
>
> *(Gazteak, ez euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)*

Diagnostiko honek era guztietako erantzunak eragiten ditu, euskararen inguruko ikuspegi desberdinak erakusteko atondutako atalean sakonago aztertuko direnak. Edozein kasutan ere, gehiengoaren jarreratzat har litezkeenei buruzko xehetasun batzuk aurrera daitezke. Hala, alde

batetik azpimarratu beharra dago euskaldunen taldeen artean sumatzen den ondoeza; horien ustez, hizkuntza murritza dute, gune urrietan eta momentu mugatuetan besterik erabiltzen ez dena: euskaraz egiten dena –pertsona euskaldunek azaltzen dutenez- gutxiengoarena da, ez dauka baliorik, ez da bultzatzen.

> *…eta da hizkuntza azken urteetan hiltzen ari delako, eta orduan prestigioa ari da galtzen lparralden. Eta da familiako kontu bat, eta laborantza munduan. Eta euskal kultura ari da poliki-poliki gerturatzen kantagintzara, eta kantagintza da kantua eta euskal kulturarako sarrera bat da, baina hor gelditzen da, ez da aruntzago joaten ez du beste urrats bat ematen…*
>
> *(Hedabideen taldea)*

Ikuspuntu horretatik abiatuz, sarritan sortu eta garatzen dira euskaraz dakiten eta erabiltzen duten hiztunen arteko konplizitate harremanak. Konplizitate hori euskararen alde egiten duten, ikasten ari diren edota euren ingurunean erabiltzen saiatzen diren pertsonetara zabaltzen da. Horrela, euskara bere egiten duten pertsona guztien arteko lotura afektiboa sortzen da (nahiz eta hitz egin ez). Ez da hain garrantzitsua euskaraz jakitea, baizik eta hizkuntzarekiko jarrera.

Ahaleginak, ordea, ageri-agerikoak dira pertsona ez euskaldunen begietara. Izan ere, hizkuntzarentzako gizarte guneak berreskuratzen saiatzen den hizkuntz politika garatzeko ahaleginek handiagotzen dute ez euskaldunek duten pertzepzio bat, euskara euren bizitza garatzeko beharrezkoa ez delako pertzepzioa, hain zuzen ere. Ikuspuntu horren arian, euskara ez da funtzionala, ez da baliagarria. Euskaraz ez jakitea –baieztatzen da– ez da oztopo handia bizimodu arrunta garatu ahal izateko eta euskararen erabilera gizartearen eremu zehatzetara mugatzen da. Hori ikusita, euskara ikasteko benetako motibazioa lan munduan eta, bereziki, administrazio publikoaren eremuan sartzeko aukerak dira.

> *Pero mucha gente sí que lo ve como una obligación, porque para encontrar un puñetero trabajo aquí tienes que saberlo…*
>
> *(Gazteak, mistoa, Gernika)*

Euskararen jendaurreko agerpenaren irudi murritz horrek talde batzuek duten inposizio sentsazioa bultzatzen lagunduko luke. Euskara pertsonen egunerokotasunean agertzen ez den neurrian, zaila izango da ondasun partekatutzat hartzea, ez da kultur baliotzat joko eta ez da pertsonak aberasteko iturri gisa ulertuko. Euskara betebeharrarekin eta inposizioarekin baino ez da identifikatuko.

Etorkizuneko erronkarik nagusienetariko batek euskararen inguruan dagoen mentalitatea aldatzea izaten jarraituko du: hizkuntza herritarren zati baten ondaretzat hartzetik gizarte osoaren ondasuna izatera igaro beharra dago. Hala ez bada, hizkuntza normalizatzeko zereginak oso korapilatsua izaten jarraituko du.

Puntu honetan euskararekin zerikusia duen bigarren alderdi baten garrantzia azpimarratu behar da: euskal gizartean bete beharreko zereginari dagokionez, ikuspegi bikoitza sortzeko eta elikatzeko duen gaitasuna. Ikuspegi bikoitz hori paradoxikoa eta kontraesankorra da, elkarren aurka dauden diskurtsoak jasotzen ditu eta horien arteko elkarrizketa nahiko korapilatsua dela sumatzen da.

Hizkuntzek, bai eta euskarak ere, bi zeregin betetzen dituzte berez: komunikatzea eta inkomunikatzea. Taldeek esandakoaren ildotik, hizkuntzek batu egiten dute, baina banatzeko zeregina ere betetzen dute.

> *…Honek arazoak ekartzen ditu. Kultura terminoak bi gauza kontrajarri: zerbait batu, baina zerbait banatzen duena. Bestela ez genuen euskal beharko edo txinatar…*
>
> *(Hezkuntza taldea)*

Euskarak batu egiten du euskal historia eta kulturaren osagai bereizgarria delako eta identifikazio garrantzitsurako bidea ematen duelako. Euskarak bereizten gaitu –taldeek baieztatzen dutenez–; euskara berezia da eta berezitasun hori modu positiboan baloratzen da pertsona euskaldunen eta ez euskaldunen diskurtsoan. Izaera berezi horrek justifikatzen ditu hizkuntzari bizirik eusteko eta zaintzeko ahaleginak. Beste kontu bat da hizkuntza normalizatzeko politikaren helburuen edo garapen mugen inguruan dagoen adostasuna.

> *…Para mí no hay nada que pueda superar el lenguaje, ni la geografía, ni nada. Porque geografía… me he encontrado con sitios, iguales de bonitos, más feos y más bonitos. Pero nuestro lenguaje es único…*
>
> *(Bizitza-historia, musika eta sorkuntza eremua)*

Edozein kasutan ere, elebitasuna, bi hizkuntzen arteko elkarbizitza errealitate bat da eta gertaera hori euskal gizartearen ezaugarrietariko bat dela onartzen da. Onarpen horri euskaraz dakiten eta hitz egiten duten pertsonenganako errespetu eskaera eransten zaio. Halaxe ulertu eta justifikatzen da hainbat zeregin eta jardueratan euskararen ezagutza bultzatzea. Horixe da jendaurreko arreta edo pertsonekiko zuzeneko harremanak dakartzaten lanen kasua.

Zehaztutako alderdiez gain, diskurtso partekatua atzeman daiteke euskararen etorkizunari (positiboari) loturik. Horri dagokionez, deigarria da taldeek hizkuntzaren inguruan sumatzen duten potentziala: –hainbatek esandakoaren ildotik– euskararen izaera ludikoa garatu behar da eta, batik bat, hizkuntzak duen gaitasun integratzailea. Euskarak –baieztatzen denez– zubiak eraikitzen eta elkarguneak sortzen lagun dezake. Ahalmen horren kontra, jarraian ikusiko den eran, euskararekin kritikoena den ikuspegiak egiten du, hots, hizkuntzaren inguruan sortutako alderdi gatazkatsuak azpimarratzen dituen ikuspegiak; iritzi horrek inkomunikazioa edo, nahiago bada, zatiketa sorrarazteko gaitasuna nabarmentzen du.

Hizkuntza, euskara, bi kolektibo hesitu eta banatzeko oztopo gisa ikusten da oraindik ere. Batzuetan euskaraz jakiteak edo ez jakiteak banatzen du. Beste batzuetan mugak guztiz ñabardura politikoa dauka eta euskara abertzale eta ez-abertzaleen arteko banatzaile gisa ikusten da; hala, lehenengoek hizkuntzaren alde egiten dutela uste da eta bigarrenek gaitzesten dutela. Ikuspegi mota hauen barnean txosten honetan aletu diren alderdi eta baldintza ugari daude, baina momentuz interesgarri iritzi zaio hizkuntzaren eta politikaren artean ezarri ohi den erlazioaren intentsitatea agerrarazteari. Taldeek zehaztutakoaren arabera, lotura hori oztoporik garrantzitsuenetariko bat (beharbada nagusiena) da, euskararen bilakaerarako eta garatzeko dituen aukeretarako.

> *La realidad es que la lengua está a nivel político excesivamente politizado, cuando debería ser patrimonio común de todos y es un riesgo que corre la cultura vasca en general y dentro de la cultura vasca la propia lengua…*
>
> *(Gizarte mugimenduen taldea)*

> *El idioma es una barrera muy grande. De ahora en adelante la gente que quiera venir al País Vasco lo va a tener muchísimo mas difícil, se están agotando los centros de modelo A. Si tienes que llevar a una Ikastola a tu hijo, casi salgo corriendo. No va a poder ayudar nada a su hijo…*
>
> *(Helduak, ez euskaldunak, Bilbo)*

Gatazkaren bigarren osagai bat aldagai politikoaren harian sortzen da eta zerikusia dauka hizkuntza ikasteko inposiziotzat hartzen den jarrerarekin. Betebehar hori, oro har, lana bilatzeko zereginari lotzen zaio, baina hainbat kasutan gaur egungo hezkuntza ereduari ere lotzen zaio. Hala, hainbat sektoreren barruan euskara ikasteko eta jakiteko betebeharra ezartzen delako ideiak irauten du. Ideia hori sostengatzen dute euskarari egozten zaion funtzionaltasun eskasak eta euskararen ikasketa eta erabilera bultza lezaketen beste motibazio mota batzuen –afektiboak, esaterako– arrakasta erlatiboak. Egia esan, talde batzuetan euskara ez erabiltzeko militante aktiboaren figura bereiz daiteke. Pertsona horiek, euskaraz jakin arren, ez dute erabili nahi, euren ustez erakundeek ezarritako inposizio neurrigabe eta ezbeharrezkoari erantzuteko. Bileren puntu honetara iritsita, argi eta garbi azaltzen da diskurtsoen dimentsio politiko eta ideologikoa.

> *…Rehúso, un poquito. Casi como que me han obligado un poquito. De pequeño si no sabías euskara eras más tonto que los demás, y yo he perdido trabajo por no saber euskara. Y casi es ese el motivo de que yo no lo aprenda. Porque si aprendes otros idiomas, lo aprendes…*
>
> *(Helduak, ez euskaldunak, Bilbo)*

Azkenik, hizkuntza hesi eta oztopo bezala ikusteko iritzia sendotzen duen beste osagaietariko bat da euskal hiztun batzuek (euskaldun berriak) batuaz egitean jasotzen ei duten mesprezua. Hainbat taldek euskaldun berriek testuinguru batzuetan lortzen duten onarpen txikia salatzen dute. Batua –betiere ikuspuntu horren arabera– ez da benetako euskaratzat hartzen: “ez du balio”. Era berean, kritikatzen da pertsona batzuek euskara ikasten dihardutenekin eta beraien eremuan erabiltzen saiatzen direnekin azaltzen duten ulermen falta.

> *A mí me pasaba de pequeña que simplemente intentaba hacerlo en euskera y se reían de ti, porque podías meter la pata, se han reído de ti, y tú has dicho, pues ya no me molesto, en castellano y así me entiende todo el mundo…*
>
> *(Gazteak, mistoa, Gernika)*

Además que no hay sólo un único euskera. Yo suelo decir siempre que hay dos euskeras, el batua y el Bizkaieraz. Porque yo fui al euskaltegi, estudié el batua, y luego resulta que salía a la calle y la mitad de los verbos que yo usaba no valían a la hora de comunicarte en un plan diálogos entre amigos. Y a mi me pareció que fui cambiar todo lo que yo aprendí allí. El batua se habla en la parte de Guipúzcoa y esa zona, yo vengo aquí hablo el batua y la gente me dice: ¿De dónde eres? ¿Eres de allí o de aquí? Yo al principio cuando empecé a estudiar el batua en el euskaltegi, yo salía a la calle o iba a Mendata, que era donde tenía que trabajar, y hablaba lo que aprendía en el euskaltegi, y luego resulta que me corregían. "No, no. Así no es. Es así." Vale, pero entonces lo que he aprendido ahí de que me vale…

(Gazteak, mistoa, Gernika)

Aitzitik, kolektibo ez euskaldunak batzuetan erakusten duen sentsibilitate falta nabarmendu behar da, betiere –haiek aurrean egonik– euskaldunek nahi duten hizkuntzan, hau da, euskaraz, mintzatzeko aukerarik ez dutenean. Gauzak horrela, ez euskaldun batzuek baieztatzen dute erakundeek diskriminatzen dituztela euskara maila jakin bat eskatzen zaienean, baina ez dute onartzen hizkuntza horretan ezin mintza daitezkeen pertsonen lekuan jartzea.

Iritzi hauek garrantzi txikikoak direla ematen du, baina talde batzuek adierazitakoari men eginez gero, badirudi mota honetako gai txikiak direla hizkuntzaren irudi desatsegina osatzen dutenak. Irudi hori pertsonek egunero-egunero aurre egin behar dieten egoera deseroso eta nahiko estresagarrietan indartu eta sendotzen da; alabaina, horiexek dira, azken batean, hizkuntzen arteko elkarbizitza (korapilatsua) irudikatzen dutenak.

1.5.2. Ikuspuntuak

Gorago agerturiko iritzi orokorrak aintzakotzat harturik, baiezta daiteke hizkuntzak, euskarak, askotariko ikuspuntu eta interpretazioak sortzen laguntzen duela. Ildo horri jarraituz eta gauza jakina denez, euskaraz jakitea edo ez jakitea iritziok egituratzean gehien eragiten duen alderdietariko bat da.

Lehenengo eta behin hizkuntzaren gainean talde ez euskaldunek duten diskurtsoari men eginda, adostasun orokorra sortzen da euskarak duen balio sinbolikoari edo euskal nortasun, kultura eta gizartearen ikur modura zaindua izateko duen eskubideari dagokienez. Euskara gizarte dinamikaren barnean txertaturik dago; ez euskaldunen artean ere oso zabalduta dago ondoko ideia hau: "hemen bizimodua atera nahi izanez gero, zure seme-alabek euskaraz jakin behar dute" (EAEtik kanpo jaiotako ez euskalduna). Jarrera horri laguntzen dio –pertsona ez euskaldun askok aipatzen dutenaren arioan– euskal hiztunek euskaraz ez dakitenekin erakusten duten begiruneak, "zuk hitz egiten ez baduzu, haiek gaztelaniaz egingo dizute, katalanek ez bezala".

Arestian agerian geratu den bezala, salbuespenak daude, baina kasu horiek albo batera utzita, hizkuntzarenganako errespetu orokorraz hitz egin daiteke, betiere horren barruan gazteak nahiz helduak sarturik. Batzuek zein besteek euskarak azken hamarkadetan izandako garapena onartzen dute eta aurrerapen horren jarraipena iragartzen dute: batzuek baikortasunez eta beste batzuek etsipenez.

Orokorrean euskararen aurrerapena geldiezina delako ustea dago (ez dago atzerabiderik). Hala, pertsona batzuek interesez eskatzen duten bitartean, beste batzuen iritziz hizkuntzaren garapena dagoeneko egindako gauza bat da. Prozesu hori gainera, justifikaturik egongo da Espainiako estatutik eta Europatik kanpo iritsitako etorkinen gero eta kopuru handiagoaren presentziaren ondorioz. Pertsonarik baikorrenek pentsatzen dute etorkizunean euskaraz "gero eta gehiago hitz egingo dela", "gure seme-alabek jakingo dute eta bere sentituko dute".

Nolanahi ere, ez euskaldunen artean diskurtso neutro horrek kutsu negatiboa hartzen du mahai gainean errealitate pertsonalaren hainbat arlori eragiten dioten alderdiak jartzen direnean: ikasketei, lanari, harreman pertsonalei buruz hitz egiten denean eta, orokorrean, eztabaida gizabanakoaren plano batera abiatzen hasten denean, hots, norbera ukituen sentitzen den eremu horretara iristen denean. Puntu horretan diskurtsoa mikro maila batera jaitsi eta kritikoago bihurtzen da: hizkuntza, orduan, muga modura ikus daiteke adiskidantzazko harremanetan, koadrilan, lanpostu bat lortzean, ikasketak amaitzean eta abar.

Euskara ikur eta kultur baliotik urrundu eta balio pragmatiko eta erabilera baliora hurreratzen den neurrian, orduantxe hasten dira arazoak eta arbuioak; "oso mentalizatuta egon behar duzu, kulturalki garrantzitsu iruditzen zaizun gauza bat ikasteko". Gero eta agerikoagoa den diskurtso kritikoa ondoko argudioak sartzen direnean:

- **erabilerakoak:** “perimetro txiki baterako baino ez du balio”, “ez da beharrezkoa hitz egitea, nahikoa da ulertzearekin”.

- **premiaren ingurukoak:** “ez da beharrezkoa, ez koadrilan, gaztelaniaz ulertzen dugulako elkar, ez gizartean ere, jendaurreko lan batzuetan izan ezik, betiere datorkizunak gaztelaniaz ez badaki”.

> *El euskara me vale para un perímetro pequeño. Lo que buscas son cosas muy funcionales. Tienes que estar muy mentalizado para aprender una cosa que te importe culturalmente…*
>
> *(Gazteak, ez euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)*

- **inposiziotzat** hartzen diren normalizazio jarrerak: “kolpean sartu nahi dute eta horrela lortzen den bakarra hizkuntza baztertzea da, jakin arren ez mintzatzea”.

- **diskriminaziotzat** hartzen diren osagaiak: “alde egin duen jendea dago euskara ikastera behartu dutelako”, “euskarak puntu gehiago ematen ditu lanbidea jakiteak baino”, “Mutrikun atzerritarra sentitu nintzen”.

> *A mí me pasaba de pequeña que simplemente intentaba hacerlo en euskera y se reían de ti, porque podías meter la pata, se han reído de ti, y tú has dicho, pues ya no me molesto, en castellano y así me entiende todo el mundo…*
>
> *(Gazteak, mistoa, Gernika)*

> *El euskara como el idioma de aquí, esta muy bien, pero no tendría que ser tan selectivo. Si piensas hacer la vida aquí tu hijo tiene que saber euskara…*
>
> *(Helduak, ez euskaldunak, Bilbo)*

Kasu hauetan euskara gizartea mugatu, estutu eta banatzen duen osagai gisa ageri da; zailtzen edo oztopatzen duen hesi bat da: “seme-alaben etxeko lanak egiten laguntzea”, “lanpostu baterako espezialistarik onenak aurkitzea”, “kanpoko jendeari hona etortzea nahi izatea erraztea” oztopatzen du.

Aipatutakoaz gain, pertsona ez euskaldunen kritika eta larritasuna sorrarazten duen beste elementu bat azpimarratu behar da atzera ere. Pertsona euskaldun batzuek hartzen duten jarrera ez da oso abegitsua euskara ikasten dabilen norbaitek haiengana jotzen duenean. Arestian esan den bezala, euskaldun berriak jarrera horren bitartez sentitzen du euskaldun zaharrak bere euskara tradizionala goratu nahi duela, euskaldun berriak ikasten diharduena gutxietsiz. Horrela, agerian jartzen da ikaskuntzari lotutako beste zailtasun bat dagoela, kasu baterako euskara mota desberdinak egotea; zirkunstantzia horrek hasiberriei ikasteko gogoa kentzen die.

Zehazki mikro maila eta gizabanakoen eremu horretan kokatzen da euskaldunen diskurtsorik ezkorrena ere. Horrela, diskurtso orokorrean hizkuntzaren eremuan izandako aurrerapenak onartuagatik ere –batik bat euskararen ezagutza eta hedapena–, beste alde batetik, oraindik ere hizkuntzak normaltasunez aurrera egiteko dituen mugak aipatzen dira. Ildo horri jarraituz, zehaztu ohi dira, besteak beste, eremu publikoan euskarak duen erabilera urria, erakundeek hizkuntzaren gainean hartutako konpromisoan ikusten diren kontraesanak (hizkuntza bultzatzen da eta normalizaziorako bitartekoak jartzen dira, baina administrazioaren irudia eta errealitate soziolinguistikoa ez dagokio hasiera batean espero denari), euskarak beste eremu batzuetan duen presentzia urria, esate baterako lan munduan, aisialdian, kultur arloan eta merkataritzan. Ikus daitekeenez, euskara, beraren presentzia eta garapena, gaur-gaurkoz irakaskuntza munduari lotzen zaio gehienbat (eta bereziki haurren eremuari). Irakaskuntzaren eremua albo batera utzirik, gutxi dira euskararen agerpen handia igartzen deneko egunerokotasun eremuak. Eta hezkuntzaren bitartez lortutakoak ere kolokan jartzen dira gaur. Horren erakusgarria da diskurtsoetan jasotako kezka, gazte euskaldunek euskara modu urrian erabiltzen dutela eta; izan ere, euskararen erabilera gero eta mugatuago dago eskola orduetara (eskolako gelara) eta aisialdi leku eta tarteetan baztertzen da, bertan gaztelaniak hartzen duelako protagonismoa.

> *…bat abertzaletasuna eta euskalduntasuna. Euskara ikasi bai, baina kultura transmititzeko… zergatik euskaraz ez dute hitz egiten gazteek euskaraz, hau euskara menperatu edo ez menperatzearekin lotuta dago. Hau lotuta dago kalitatearen kontuarekin; zuzentasuna, jatortasuna, egokitasuna. Baina euskaraz ondo egiteko euskaraz egin behar da. Orain arte zuzentasunean gelditu gara, eta hori da pixka bat…*
>
> *(Hezkuntza taldea)*

> *Nik bakarrik beldurra daukat jendea da D eredua jutea baina gero aritu erdaraz. Ez dute erabilgarritasun hori ikusten, maitasuna, beharra. Eta guk ere berdin erabiltzen dugu euskara lana*

aurkitzeko eta umeei txorakeriak esateko. Pixka bat seriotasunekin eta horrela egoera normalago batean erabiltzeko... orain umeak ez dira euskal giroa hartzen...

(Gazteak, euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)

Ikuspuntu horretatik, euskararen kultur ekoizpenean eta, batez ere, kontsumoan dagoen defizita ere azpimarratzen da. Hezkuntzari dagokionez –eta hasiera batean "D" ereduaren gorakadak kopuru itxaropentsuak eman arren–, bigarren irakurketa bat eginez, defizit nabarmenak agertu dira euskararen erabilerari dagokionez; izan ere, erabilera hori matrikulazio kopuruek aurreikusten zutena baino askoz txikiagoa da. Desoreka hori –taldeek baieztatzen dutenez– hizkuntza irakasteko kalitatearen ondorioa da, besteak beste; izan ere, kasu askotan ez du ematen ikasleen erabateko euskalduntzea lortzeko bezain zorrotza denik.

Ikuspegi ezkor hau hogeita hamar urtetik hurbilen dauden euskaldunen kasuan indartzen da. Horietariko asko euskaraz gizarteratuak izan dira eta gaur egun etsipenez ikusten dute euren garapen pertsonala (lan arlokoa, kultur eremukoa...) hizkuntza honetan luzatzeko zailtasun handiak dituztela. Talde honentzat hizkuntza egunerokotasunean ez agertzea agerikoagoa da eta, alde horretatik beraz, sentitzen duten atsekabea handiagoa da.

Gazte eta helduen arteko banaketan sakonduz, nabarmentzekoa da kolektibo bakoitzak hizkuntzaren gainean emandako profil desberdina. Gauzak horrela, ikus daiteke euskal gazteek naturaltasun handiagoz bizi dutela hizkuntza, hurbilago sentitzen dute, errealitateari, eguneroko jarduerei edota beraien bizitzan garatzen dituzten eremuei lotuago. Azken hori, gainera, euskaldunen eta ez euskaldunen kasuan gertatzen da; horrek, hala ere, ez du esan nahi –lehenago esan bezala– batzuek zein besteek euskarak euren ingurunean duen garrantziari buruz egindako balorazioan desberdintasunik ez dagoenik.

Aitzitik, belaunaldi helduagoek ikuspuntu nostalgiko eta sentimentalagoari heltzen diote; iraganari begiratzen diote hizkuntzaren aurrerapen edo atzerapenari buruzko erkaketak eta iritziak ematean: jakite maila handiagoa edo txikiagoa, erabilera handiagoa edo txikiagoa, gaur egungo eta iraganeko bizimoduarekin duen lotura, baserriko bizimoduarekin duen lotura, etab.

Azkenik, euskararen inguruan eta euskal gizartearen barnean izan duen bilakaeraren gainean dauden ikuspuntu desberdinak osatzeko asmoz, kontuan hartzekoak dira hiri eta landa ingurunean sortutako diskurtsoen arteko desberdintasunak, batzuetan nahiko esanguratsuak direnak. Horrela, hiri ingurunearekin erkatuta, baiezta daiteke landa eremu euskaldunean hizkuntza komunitatearen dinamikari guztiz lotutako osagaitzat hartzen dela. Hiri ingurunearekin alderatuta, beraz, hizkuntza hurrago agertzen da, egunerokotasunari, harremanei, udalerriko bizimoduari lotuago. Hiri ingurunean, aldiz, hizkuntza osagai anbiguoago, lausoago eta sakabanatuago ikusten da espazioan. Euskararen presentzia puntualagoa da eta hainbat gune, eremu eta jarduera zehatzekin, berezirekin edo puntualekin identifikatzen da. Horrela bada, landa eremuan euskararen "berezko" gunea egunerokotasuna izan daiteke, baina hiri ingurunean euskarak ia-ia aparteko izaera hartzen du egunerokotasun horretan.

1.5.3. Alderdi ebolutiboak diskurtsoan

Pertsonen bizitza osatzen duten mikro espazio horiekin euskarak duen lotura etorkizuneko giltzarrietariko bat da hizkuntzarentzat. Hizkuntzaren gaineko adostasun handia dago; adostasun hori haren garapen, erabilera eta hedapenaren alde lan egiteko nahi eta borondatean dago; edozein kasutan ere, zalantzak, ikuspunturik ezkorrenak eta baloraziorik negatiboenak agerian jartzen dira diskurtso orokorretatik pertsonengandik hurbilen dagoen errealitateen gaineko azterketarako urratsa egitean. Une horretan euskararen erabileran dagoen defizita jartzen da agerian, bai eta pertsonen dimentsiorik subjektiboenean oraindik ere estuasun eta larritasun elementuak sartzeko duen ahalmena ere. Presio horrek, gainera, sostengua dauka eremu politiko eta ideologikoan; horrek euskararen inguruan egiten diren diskurtsoak eta ematen diren irudiak baldintzatzen ditu modu garrantzitsuan. Pertsona askoren aburuz, hizkuntzak eta politikak bikote banaezina osatzen jarraitzen dute; zirkunstantzia horrek gaur-gaurkoz laguntzen du euskara gatazka eta tentsio osagai modura ikusten eta, gauzak horrela, kritikatua izateko eta beraren kontra egiteko aukera sortzen da. Zirkunstantzia horrek bereziki pertsona ez euskaldunei eragin arren, euskaldunen eremua ere baldintzatzen jarraitzen du.

Horrenbestez, den-dena ez dago konponduta etorkizunari begira. Ez dira zalantza guztiak argitu. Izan ere, eztabaidarik handiena sorrarazten duen gaietariko bat hizkuntzaren eta euskal

kulturaren ondorengoetaratzearena da. Horrela, azterketan azaldutako ondorioetariko batzuk ikusita, arreta jarri beharra dago hizkuntzaren jakite maila transmititzeko era eta moduei buruz lan egiteko premiaren gainean. Eztabaidak, bada, zabalik jarraitzen duela dirudi: euskara irakatsi besterik ez da egin behar? Ez al da beharrezkoa hizkuntzari indartsuago lotzeko bestelako elementu eta faktoreak (adibidez, kultur arlokoak) sendotzea?

> *…bat abertzaletasuna eta euskalduntasuna. Euskara ikasi bai, baina kultura transmititzeko… zergatik ez dute hitz egiten gazteek euskaraz,…*
>
> *(Hezkuntza taldea)*

Era berean, mugen eta errespetu tarteen arazoak sortzen dira: non geratzen dira euskararen mugak? Eremu ez euskaldunak ere hizkuntza indartzea ontzat ematen du, baina euskaraz ez dakitenak errespetatuz, "ezin kanpora daitezke hitz egiten ez dutenak edo hitz egin nahi ez dutenak". Gainera, ahots horiek berresten dutenez, behar-beharrezkoa da ilusio dosi handiak helarazten dituen irakaskuntza baten alde egitea, behartzen den guztia baztertua izaten amaitzen delako. Pribatuari eta helburu pribatu nahiz pertsonalari lotutako motibazio afektiboa sustatzeko premia aipatzen da: "gustuko duzun, sentitzen duzun zerbait hartzen ez baduzu, sekula ez duzu ikasiko".

> *…Yo pienso que el euskara y esas cosas se hacen más por ilusión, por cariño que por obligación. Las cosas que se obligan se da la tendencia al rechazo…*
>
> *(Helduak, ez euskaldunak, Bilbo)*

Etorkizunerako erronka nagusienetariko bat, hain zuzen ere, zera izango da: euskara ez euskaldunentzat erakargarri bihurtzea eta euskararen nahiz gaztelaniaren arteko elkarbizitzako esperientzietan sakontzea, euskara gizarte osoaren berezko ondasuntzat hartua izan dadin. Hurrengo ikerlanetan aztertu behar litzateke zein osagai erabili daitezkeen bi hizkuntzak lotu eta integratu ahal izateko.

Euskaldunen diskurtsoan ere agertzen diren proposamen mota hauek erantzuna dute euskararen garapena eskatzen duen ikuspegian, barnean dagoen motibazio mota edozein delarik ere. Garrantzitsuena –zehazten denez– jendeak euskara ikastea da eta gizarte presioak hizkuntza erabiltzera behartzea. Erabilera sustatuz gero, askoz errazagoa izango da hizkuntzarekiko loturak osagai afektiboagoetara jotzea.

> *Si no nos hubieran puesto las pilas a nosotros, nosotros no hubieramos puesto la necesidad de que los niños aprender euskara. Igual sí se ha presionado a profesores, funcionarios, que es el primer eslabón. Pero si no se obliga no va a empezar a desarrollarse…*
>
> *(Gazteak, ez euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)*

> *Ez dago zer ikusirik behartzea erabiltzearekin, zuk behartzen baduzu ikasiko dute eta erabiliko dute haien egituretan behar baldin badute. Hamar pelikulatik zortzi badaude euskaraz, aterako dira euskaraz egiten. Edo lanpostuetan… Guri behartu ziguten erdera ikastea eta erabiltzen dugu funtzio batzuetan. Erabilera gehiago da, funtzioetan eta hor nola sartzen duzu…*
>
> *(Euskalgintza taldea)*

Eremu euskaldunaren eremutik, hizkuntza bultzatzera zuzendutako hainbat ideia ematen dira, hainbat koordenadetan lan egiteko premia ekartzen dutenak:

- **Kontzientziazioa**, "ez da lanabes edo tresnen arazo bat, kontzientziazio arazoa baino, jendeari ez zaio interesatzen".

  > *No es idioma es una interiorización que nos falta. Lo que no nos cuesta; el carácter, rasgos físicos, fiestas… las cosas que no nos cuestan ni esfuerzo ni tiempo las llevamos estupendamente. Si supiera euskara, mi visión sería difirente…*
  >
  > *(Gazteak, ez euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)*

- **Baloreak**, "munduko zaharrena den hizkuntza honen garrantzia transmititu beharra dago".

- **Premia**, "gaur egun ez dago ikasteko premiarik, zertarako ikasi gaztelaniaz dendena egin ahal baduzu".

  > *Baina ez pentsa euskara derrigorrezkoa da lana aurkitzeko. Beraz, bilatzen da bultzatzea eta adibidez lan batetara zoaz eta euskaraz badakizu puntu gehiago dituzu…*
  >
  > *(Gazteak, euskaldunak, Tolosa)*

- **Gaztelaniarekiko elkarbizitza**, "batek bestea ez irenstea".

Nolanahi ere, euskara normalizatzeko prozesua nabarmen desitxuratzen duten elemen-

tu batzuek iraun arren, etorkizuneko ikuspegi positibo eta baikorragoa ematen duten alderdi ugari daude. Atal honetan egindako azterketatik ondoriozta daitekeen legez, euskarak azken urteotan izandako aurrerapena ezin jar daiteke zalantzan. Kopuruek jakite mailaren hobekuntza garrantzitsuaren berri ematen dute, baina egia da, era berean, prozesu horrek ez duela hainbesteko islarik izan hizkuntzaren erabilera publikoari dagokionez (eta hainbatek esaten dutenaren arabera, ez eta kalitatea zaintzeko gutxieneko estandarrei dagokienez ere). Gainera, hizkuntza belaunaldi berrientzako gero eta elementu hurbilagoa da eta gazte euskaldunek eta ez euskaldunek gaur egun euskararen adierazpideetara hurreratzeko dituzten aukerak askoz handiagoak dira lehen baino. Horrela, gazte euskaldun nahiz ez euskaldunak gizarteratuak izan dira hizkuntza eta haren errealitatea ezagutzeko egokiera handiagoa bultzatzen duen hezkuntza sistema baten bitartez; horrek lortu du, adibidez, belaunaldi berri hauek eroso sentitzea euskara eta euskal kultura sustatzeari lotuta dauden inguruneetan (Ibilaldia, euskararen aldeko jaiak, euskal kirolak...).

Jasotako ahots eta iritzi gehienek euskara eszenatoki baikorragoan proiektatu eta irudikatzen dute. Euskaldun eta ez euskaldun gehienek euskarazko etorkizun baterako oinarriak jartzearen aldeko apustua egin dute; ideia hori ondoriozta daiteke askoz homogeneoagoa eta bateratzaileagoa den diskurtsoa aintzat hartuz gero.

> *...Muy positivamente. Va a ser más normal las situaciones que ahora son más extrañas. Un idioma plenamente desarrollado, y se hable a pie de calle continuamente...*
>
> *(Gazteak, ez euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)*

> *Yo no sé si se está ampliando, es la sensación. Yo veo más gente que habla y hay más oportunidades de las que he tenido yo. Si vas a institutos vas perdiendo el euskara, porque como no practicas...*
>
> *(Gazteak, euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)*

Hala eta guztiz ere, giro itxaropentsu horrek ezin ditu kritikak albo batera utzi, ez eta argi-ilunak ere. Hori dela eta, hurbileko edo ertaineko epean euskalduntzeko aplikaturiko ereduaren eta haren mugen gaineko hausnarketari egin behar zaio aurre. Halaber, hausnarketa horrek ez euskaldunak hizkuntz normalizazioan izan beharreko inplikazio handiagoa ahalbideratzeko formulak bilatzeari ekin behar dio. Taldeek adierazitakoaren arabera, eskari horrek euskara birbaloratzeko ahalegin handiagoak egitea ekarri behar luke, hizkuntzak berezko balioa izan dezan, kultur ondasun partekatua izan dadin eta beste lorpen mota batzuk eskuratzea baldintzatzen duen tresna bihur ez dadin.

Hausnarketa estrategikoa da, txostenaren hurrengo atalen garapenean ikusiko den bezala, galdetzera behartzen gaituena ea zein den euskal kulturaren zentzua eta zein den etorkizunari begira dagoen euskal gizarte honetan bete behar duen eginkizuna.

EUSKARA

Aurkezpen orokorra

- **Hizkuntzak espero zena baino eremu txikiagoa betetzen du euskal kulturari buruzko eztabaidan**. Edozein kasutan ere, hizkuntzak duen garrantzia agerikoa da, zeharkako ardatz modura egituratzeko trebetasuna erakutsi baitu.

- **Hizkuntzak euskal gizartearen barruan betetzen duen zeregin zentrala**. Taldeek orokorrean onartzen dute euskarak euskal gizartearen eta kulturaren dinamikan duen garrantzia.

- **Hizkuntza eta hari dagozkion funtzioak**. Taldeek sumatzen dute, hizkuntzaren aurrerakada agerikoa den arren, funtzioei ematen zaien eremua oraindik ere mugatua dela. Horrela, adierazten da pertsona euskaldunen kolektiboa murritza dela eta lurraldeetako egoera soziolinguistikoa oso desberdina dela.

- **Hizkuntza eta komunikatzeko duen funtzioa**. Hizkuntzaren komunikazio funtzioa azpimarratuagatik ere, kontrako ahalmena ere onartzen da, hau da, inkomunikazioa sorraraztekoa ahalmena. Hala, hizkuntza oraindik ere bi kolektiboren arteko hesitzat hartzen da eta abertzaleen eta ez-abertzaleen arteko banatzaile gisa ikusten da.

- **Hizkuntza kolektiboen arteko hesi eta banaketa modura.** Pertzepzio hau sostengatzen duten alderdiak ondoko hauek dira, besteak beste:

  - Hizkuntzaren eta politikaren artean ezartzen den lotura.
  - Talde batzuek modu honetara definitzen dutena: “hizkuntza ikasteko inposizioa”.
  - Euskal hiztun batzuek (euskaldun berriak) batuaz hitz egitean sumatzen duten gutxiespena.

- **Hizkuntza osagai bereizgarri gisa**. Taldeek azpimarratu dute euskarak berezi egiten gaituela. Horrenbestez, hizkuntza zaintzeko ahaleginak justifikatzen dira. Hori guztiori gorabehera, eztabaida sortzen da hizkuntz politikaren mugak definitzean.

Ikuspuntuak

- **Ikuspuntu desberdinen oinarrian dauden aldagaiak:**

  - Euskalduna/ez euskalduna: taldeek euskararen garrantzia eta balio sinbolikoa azpimarratzen dute orokorrean. Kolektibo **ez euskaldunak** ere hizkuntzaren garrantzia barneratuta dauka, batik bat beraien seme-alabek euskara ikastearen garrantzia.

    Oro har, taldeek ontzat ematen dute euskararen garapena eta etorkizuna konfiantzaz ikusten dute. Ikuskera baikor hori eteten da eztabaida mikro maila batera edo maila pertsonal batera eramaten denean, pertsonak hizkuntzaren aurrerakadak modu negatiboan eragiten diola sentitzen duenean. Horrela, hainbat argudio azpimarratzen dituzte diskurtso kritikoago hori egiteko:

    – Erabilgarritasun falta.
    – Premiarik ez egotea.
    – Inposiziotzat hartzen diren normalizazio jarrerak.
    – Bereizkeriatzat jotzen diren elementuak.

    Pertsona **euskaldunen** ikuspuntutik ere mikro maila horretan sortzen da diskurtsorik ezkorrena: euskararen erabilera urria aipatzen da, erakundeen konpromisoan dauden kontraesanak eta euskarak familiarteari edo irakaskuntzari lotuta ez dauden eremuetan duen presentzia murritza.

EUSKARA

Ikuspuntuak

- Gazteak/Helduak: **gazteek** naturaltasun handiagorekin hartzen dute hizkuntza. Aitzitik, **helduen taldeak** ikusmolde nostalgiko eta sentimentalean kokatzeko joera dauka (euskaldunen kasuan) edo euskararenganako jarrera atzetu edo aldendua dauka (ez euskaldunen kasuan).
- Hiri ingurunea/landa ingurunea: **landa ingurunean** hizkuntza komunitatearen dinamikari hertsiki lotutako alderditzat hartzen da. **Hiri inguruneetan**, ostera, hizkuntza osagai anbiguo eta lausoago gisa ageri da espazioan.

Alderdi ebolutiboak diskurtsoan

4 **Euskarak mikro guneekin duen lotura.**

4 **Hizkuntza eta euskal kultura ondorengoetaratzeko lanean aurrera egitea**. Hizkuntzari eusten laguntzeko beste transmisio elementu batzuk jorratzeko garrantziaren gainean eztabaidatzen da. Eremu ez euskaldunak ere onartu du hizkuntza bultzatzea, batik bat –halaxe azpimarratzen da– motibazioa kontuan hartuz.

4 **Eremu euskaldunak etorkizunari eta hizkuntzaren sustapenari begirako hainbat ideia eman ditu**:

- Kontzientziazioa.
- Baloreak.
- Premia.
- Gaztelaniarekiko elkarbizitza.

4 **Euskararen aurrerakada.** Kopuruek euskararen egoeran hobekuntza eztabaidaezina islatzen dutela onartzen da, nahiz eta, erabilerari dagokionez, datuak hain baikorrak izan ez.

4 **Etorkizuna euskaraz**. Taldeek (euskaldunek eta ez euskaldunek) etorkizuna euskaraz izateko oinarriak jartzearen alde egiten dute. Geroari begirako lan ildo bezala, ez euskaldunak hizkuntz normalizazioan gehiago inplikatzea ahalbideratzen duten ereduak bilatzeko premia azpimarratzen da.

1.6. EUSKAL KULTURAREN KONTZEPTUA

1.6.1. Aurkezpen orokorra

Euskal kulturaren ezaugarriak eta protagonistak zehaztea, kokatzea eta aipatzea oso gai korapilatsua da. Horixe da ikerketa honetarako egindako landa lanetik atera daitekeen ondorioetariko bat. Eta zeregin nekeza da euskal kultura zehazteko eta azaltzeko ahaleginek makina bat kontzeptu, ñabardura eta abar kontuan hartzea dakartelako. Informazioa ugaria da eta oso ugariak dira mahai gainean jartzen diren xehetasunak. Horietariko bakoitzean sakontzeko eginkizuna ikerketa honen mugetatik kanpo dago, baina azterlanaren helburua bada horiek biltzea, erakustea eta etorkizunean arakatzen jarraitzeko aukera ematea. Laugarren azterketa gune honen garapenak norabide horretan ematen den urratsa izan nahi du. Horrela bada, aurrerantzean euskal kultura definitzeko ahaleginetan inplikatuta dauden alderdi nagusietariko batzuk aurkeztuko dira: nortasun ezaugarriak, kokapena eta protagonistak. Azkenik, 6. puntuan, taldeek aipatutakoari jarraituz, euskal kulturaren etorkizuna baldintzatuko duten faktore nagusiei buruzko hainbat zantzu ematen saiatuko gara: globalizazioa eta pertsonen joan-etorriak, inmigrazioa.

Gure ustetan, hiru gune hauek azterturik, ikerketan barrena euskal kulturaren inguruan emandako ideia eta premisen multzoaren irudi oso eta zehatza eskaintzen asmatuko dugu. Horrenbestez, ekin diezaiogun euskal kulturari buruzko nozioa aletzeari eta horren definiziora hurreratzen saiatzeari, betiere taldeek eurek adierazitakoaren haritik.

Non hasi eta non amaitzen da euskal kultura? Non kokatzen da euskal kultura? Nortzuk dira euskal kulturaren protagonistak? Horiexek izan dira talde dinamikaren markoan eztabaidatzeko proposaturiko galderetariko batzuk eta, jasotako informazioa aintzakotzat hartuta, esan daiteke, orokorrean, erantzunak bilatzean sortu dela hizkuntzaren kasuan dagoeneko zehaztutako paradoxa berbera: egiaztatzen da kulturak dimentsio bikoitza duela. Kulturak batu eta banatzen du, komunikatu eta inkomunikatzen du, bildu eta bereizten du. Horregatik, kasu askotan euskal kulturaren definizio zehatzaren eskaria baztertzen da. Talde ugaritan euskal kultura definitzeak mugak eta zedarriak jartzea dakarrelako ustea dago[4]. Hori dela eta, ez da batere erraza izan erantzunak aurkitzea eta, horiek iritsi direnean, zalantza ukitua izan dute orokorrean, segurtasunik gabekoak izan dira.

> *Ni metodologia honen kontra egoten naiz. Normalean definitzea aldatzen dagoen gauza bat oso zaila da, kultura, herri kultura Nik nire lanean ez dut inoiz definitu, kultura hitza handia iruditzen zait definitzen hasteko…*
>
> *(Kultura eta sorkuntza taldea)*

Zalantza hori hainbat modutara interpreta daiteke, baina ikerketa taldeak duda horiek jarrera zehatz modura ikusi nahi izan ditu. Gauzak horrela, duda-mudak, anbiguotasuna eta galdera ikurrak euskal kultura zehazteko eta zedarritzeko ardatz gisa egituratu dira. Ikuskera horri beste bi ikuspegi gehitu behar zaizkio, euskal kulturaren mugen eta tasunen askoz interpretazio zehatzagoa irudikatzen dutenak. Lehenengoa hizkuntzan dago, euskaran, euskal kulturako espazioa irudikatzeko oinarri gisa. Bigarrenak, bestalde, euskal kultura mugatzeko erreferentzi marko gisa, inguruari, eremu geografikoari egiten dio men. Azter ditzagun, bada, banan-banan euskal kultura definitzeko hiru ildo hauek.

Lehenengo eta behin, hizkuntzari, euskarari, hertsiki lotutako ikuskera bat dagoela zehaztu beharra dago. Ikuspuntu horren arabera, euskarak mugatzen du euskal kultura: edukiak, protagonistak… Kultura hizkuntzak zehazturiko eremuan kokatzen da. Horrela bada, euskal kulturaren nozio horren alde egiten duten pertsonen ustetan, euskal kultura zera da: euskaraz egiten dena.

Euskal kulturaren interpretazio hori hizkuntzaren berezitasunean oinarritzen da eta edozein adierazpide (euskaraz eginez gero) euskal gizartearen berezko adierazpen zehatz bihurtzeko ahalmena dauka. Horren arabera, hizkuntza euskal kulturari berezitasuna ematen dion faktorea da, betiere adierazpide guztiak jatorrizkotzat hartzeko aukera emanez.

Jarrera honen alde egiten duten pertsonek adierazten dutenez, euskal kultura gaur egun ez dago egoera normalizatu batean; zirkunstantzia horrek baldintzatzen ditu, neurri handi batean, kontzeptu hori definitzeko ahalegin guztiak. Hala, hizkuntza kulturaren zentzu eta esanguratik aldentzeak horren desagerpena ekarriko luke goiz edo beranduago. Gauzak horrela, hizkuntzaren eta kulturaren arteko binomioa ezartzen da, elkar elikatu behar duena eta, batez ere, euskal izaeraren osagai garrantzitsuenaren biziraupena ziurtatzen duena: euskararena, hain zuzen ere.

4. Taldeetan jasotako iritzietatik ondoriozta daiteke euskal kultura mugatzeko zeregina bazterketa jardun bat dela (euskal ezaugarririk ez duena kanpoan uztea); horrek hainbat sentsibilitateri kalte egin diezaioke eta, ondorioz, gatazka eta liskarra sortu.

Interpretazio horren ildotik, euskal kulturaren protagonistak gehienbat euskaldunak direla pentsatzen da. Era berean, euskal kulturaren eta beraren kokapenaren mugak gehienbat Euskal Herriak marrazten duen eremuan daudela uste da. Azken puntu honi dagokionez, nolabaiteko eztabaida nabarmentzekoa da; izan ere, pertsona batzuen iritziz, hizkuntza osagai definitzaile nagusia den arren, Euskal Herritik kanpo datozen euskal kulturaren adierazpideak ere aurki daitezke (adibidez, euskaraz abestu edo idazten duen jendea, nahiz eta Euskal Herritik at bizi izan). Edozein kasutan ere, horien aburuz, euskararen baldintza izango da beti bete behar den beharkizuna.

Bigarrenez, ikerketan jasotako iritziei men eginez, euskal kulturaren gainean inguruneari lotutako ikuskera bat dago edo, nahiago izanez gero, kultura hori sortzen deneko erkidegoaren muga geografikoei. Interpretazio honen oinarrian ondoko ideia ageri da: euskal kultura "gure kultura da. Berton egiten den kultura". Ikus daitekeenez, muga hau askoz ere lausoagoa da eta horren muga bakarrak, arestian esan bezala, geografiko eta administratiboak izango dira oinarri-oinarrian.

> *Guretzat euskal kultura da Euskal Herrian egiten dena. Nere ustez Guggenheim museoa hor barruan kokatzen da, edo museo San Telmo eta hor beste zati bat dago eta oso garrantzitsua, eta da sorterrien edo sustraien kultura proiektuak. Ze hau egin da euskal herrian, montatu da hemen, kudeatzaileak hemengoak dira. Badakit zer daukagun gehienetan buruan, baina azpimarratuko nuke hori ere dela euskal kultura. Badago ere beste euskal kultura, publiko handiak nahasten duena baina askotan nahasten ditugu horrelako adibideak eta segur aski hori esatean polemika pixka bat sartu dut mahai gainean…*
>
> *(Hezkuntza taldea)*

Ikusmolde honen abiapuntuan berezko kultura definitzen duten hainbat berezitasun daudelako ustea dago, baina horregatik ez da gainerako kulturen desberdina: euskal kulturaren berezitasuna gainerako kulturek aldarrikatzen dutenaren parekoa da. Gauzak horrela, oraintsu ikusi den legez, euskararen moduko osagai zehatz bati lotutako berezitasun maila lausoago azaltzen da edo, behinik behin, bigarren plano batean. Euskal kulturaren nortasun ezaugarriak bultzatzaileek eta sortzaileek definitzen dituzte. Euskal kulturaren protagonistak bertoko pertsonak dira –azpimarratzen da– eta haien bizipenak izango dira sorkuntzei izaera berezi hori emango diotenak. Ikuspegi horretatik, pertsonek kultura bat garatzen dute ingurunean esperimentatu dutenaren arabera eta inguru hori da aztarna uzten duena eta kultura definitzen duena.

Hemengo pertsonek hemen egiten duten guztia euskal kultura da (hizkuntza gorabehera) eta ikuskera horri jartzen zaizkion bestelako edozein baldintza ageri dira mugak edo zedarriak ezartzeko ahalegin modura. Euskal gizartean guztiak ez direla euskaldunak onartuz gero, kultura euskararen kulturara murrizteko ideia herritarren sektore bat baztertzeko nahi edo gurari gisa interpretatzen da, ikusmolde horren arabera.

Orain arte esandakoaren harian suma daitekeen bezala, ikuskera horrek euskal kultura gizartearen inguruan kokatzen duen definizio zabal baten alde egiten du eta gizarte hori osatzen duten guztiak bihurtzen ditu protagonista. Beste kontu bat nola transmititu nahi den kultura (zein hizkuntzatan) eta zer transmititu nahi den horren bitartez (edukiak).

Euskal kultura definitzeko hirugarren hurbilketa batek mugak ezartzeko zailtasunean bertan du bere jatorria. Zer da euskal kultura? Zer ez da euskal kultura? Taldeen sektore batek definizio bat zehazteko zalantzak, ezbaiak eta zailtasunak adierazi nahi izan ditu argi eta garbi. Gure ustetan, zehaztugabetasun horrek zerikusia izan dezake trantsizio une batekin; trantsizio horretan gizarteak erreferente eta nortasun zantzu berriak bultzatzeko premia dagoela adierazten jardungo luke. Zehaztugabetasun horrek, aldi berean, jatorria izan lezake elkarrengandik aldentzen diren eta aurreko lerroaldeetan aipatu berri ditugun sentsibilitate desberdinak uztartzeko formulen bilaketan.

> *Ez naiz hausnartuko antropologoa bezala euskal kulturaren definizio bat ematen. Orain horretan ari gara. Planteatzen da euskal kultura edo kultura katalana zer da, ba ez. Kultura dena da: nola bizi garen, inguruneak baldintzatzen gaitu. Kokagune geografikoa ere nola bizi dugun…*
>
> *(Hezkuntza taldea)*

> *Es que hay muchas culturas vascas. La cultura vasca en general, yo creo que cada uno vive su propia cultura en Euskadi. Y cualquiera es válida. Cultura vasca la que puedo vivir con mis amigos, en casa, en libros que yo leo, el cine, o la música que consumo. Todo eso es cultura. Y cultura vasca puede ser la gastronomía, la forma de vestir, mil cosas…*
>
> *(Gazteak, mistoa, Gernika)*

Zehaztugabetasun eremu horren ezaugarria da pertsonek bizi izandako errealitatea azaltzeko ahaleginak egitea. Horrela, euskal kulturaren barruan ondokoak sartzen dira: "gurea dena", "bizi duguna" eta are gehiago "geure egiten duguna". Ikusmolde honen ezaugarria dinamismoa da (beste gauza batzuk gure kulturan sartzeko eta geure egiteko ahalmena) eta hurbiltasunaren bilaketa (kultura bizi duguna da, geurea sentitzen duguna). Parametro mota hauen arabera, enfasia alderdi malguagoetan jartzen da. Alderdi horiek egunetik egunera negoziatzen dira, betiere unearen eta zirkunstantzien arabera.

Zehatzago adieraziz, kulturaren ikusmolde hori definitzen dutenak ondokoak dira:

- Nahasketa: gutxien-gutxienik bi kultura (euskalduna eta ez euskalduna) batera bizi direla aitortzen da eta, aldi berean, orain arte bien uztarketa ez dela erdietsi azpimarratzen da.

- Hizkuntza, euskara, euskal nortasun eta kulturaren elementu berezitzat hartzen da. Beste kontu bat da euskararen erabilera edo euskarazko kulturaren kontsumo maila.

- Definizio "errazei" egiten zaien kritika. Kolokan jartzen da euskaraz egiten den guztia euskal kultura izatea: euskaraz egiten den guzti-guztia ez da euskal kulturatzat jotzen, printzipioz, euskaldun denak euskaraz ekoizten den guztiarekin identifikatzen ez direlako. Euskal kulturak esan nahi duenaren gainean ezarritako estereotipoei eta ereduei heltzen dien kritika bat ere badago: euskal kulturaren gaineko estereotipoek on egiten al diote euskal kulturari?

- Definizio bigun eta lausoen defentsa: beharrezkoa al da kulturari mugak jartzea? Beharrezkoa al da zer den euskal kultura eta zer ez den zedarritzea? Gai hauek aztertuta, zehaztapen estrategia malguagoak gailentzen dira jendearen nahiei (euskal kulturaren elementuak horrelakotzat hartzen diren guztiak izango dira), unean uneko zirkunstantziei (kultura bizi duguna da) eta kulturaren berezko dibertsitateari, konplexutasunari eta adierazpideei lotuak (kultur adierazpide asko daude, besteak beste, hizkuntza bera).

Esandakoaren ildotik, pentsa daiteke kulturarako hurrerapen mota hauek euskal kulturaren protagonismoaren kokapen eta profil zehatz bat ezartzeko errezelo handiagoa azaltzen dutela. Bi baldintza horiek –beste behin ere– gizarte osoaren zirkunstantzien eta onarpenaren menpean jartzen dira.

1.6.2. Ikuspuntuak

Azaldu berri dena ikusita, onartu beharra dago ezin izan dela ikerketa amaitu talde guztiek euskal kulturaren gainean adosturiko definizio bat eginez. Horren ordez, euskal kulturaren eremuaren interpretazio korapilatsua lortu da: askotariko osagaiak biltzen dituen interpretazioa eta –ikusi ahal izan den bezala– euskal kulturarako hurbilpen eta ikusmolde ugariz osatuta dagoena. Edozein kasutan ere, arrago horretan sakontzeko asmoz, interesgarria izango litzateke hainbat profil zehaztea, azterlanean azaldutako aldagai bakoitzaren garrantzia erakutsi ahal izateko. Nolanahi ere, euskaldun eta ez euskaldunaren arteko dikotomiaren garrantzia azpimarratzen hasi behar da, euskal kulturaren ikusmolde eta interpretazioak atontzeko ardatz nagusi modura. Kontuan hartu beharreko beste aldagai interesgarri bat adina izango litzateke.

Guztiz jarrera garbiak ezartzeko zailtasuna gorabehera, talde euskaldun eta talde ez euskaldunen arteko ikusmoldea bereiztea ahalbideratu duten hainbat joera ikusi ahal izan dira. Azter ditzagun, bada, gehien aipatuetariko batzuk.

Zehazturiko lehendabiziko tipologiaren inguruan esan beharrekoa da haren barnean ere jarrera desberdinak topatu direla.

Jarrera horietako lehenengoari men egiteko, ***Euskararik gabe ezer ez*** leloa aipatu beharra dago. Ideia horrek ikusmolde honen barruan hizkuntzak euskal kultura definitzeko ardatz nagusi eta ia bakar modura hartzen duen garrantziaren berri ematen du. Ikuspuntu horrek biltzen ditu azalpen orokorrerako erabilitako aurreko puntuan zehaztu diren osagaietariko batzuk eta, arestian azaldu den bezala, –talde horien iritzien arabera– "euskal kultura" eta "cultura vasca" bereiztera daramate. Izan ere, Euskal Herrian euskararekin zerikusirik ez duen kultura bat dagoela onartzen den arren, azken horrek ez dauka euskararen inguruan eta euskaratik garatutakoaren maila, ez eta garrantzi bera ere. Ikuskera horren ildotik, euskara euskal kulturaren adierazpenik gorena izateaz gainera,

hizkuntza gainerako kultur adierazpenen neurri modura ezarriko litzateke. Handik abiatuta, euskaraz egiten ez den guztia "Euskal Herriko kulturaren" kontzeptuaren barruan sartuko litzateke; izan ere, azken izendapen horren bitartez, Euskal Herrian ekoizten den kultura guztiari egingo litzaioke men eta praktikan "cultura vascaren" sinonimo bezala erabiltzen da.

> *...Eta* cultura vasca *batez ere kontzeptu geografikoa dela, euskal kultura hizkuntzari loturiko kontzeptu bat dela, euskaraz garatzen den kultura.* Cultura vasca *da, Euskal Herriko herritarrek edo Euskal Herriko gizarteko partaideek, edo gizarte horrekin harremana dutenek garatzen duten kultura. Eta kontzeptu horiek solapatzen dira, eta gauza batzutan gauza bera izango da eta beste gauza batzutan ez da gauza bera izango. Baina nik horrela desberdintzen ditut. Dikotomia horrek laguntzen du gauzak ulertzerako orduan...*
>
> *(Hedabideen taldea)*

Pentsa daitekeenez, ikuskera honen arioan, hizkuntza osagai nagusia da, ez bakarrik euskal kulturaren elementurik garrantzitsuena baizik eta orokorrean euskal nortasunarena. Horrela bada, definizio hori "zabaltzeko" eta beste elementu batzuk maila berean sartzeko saioak euskara bigarren maila batean jartzea ekarriko luke, horren bitartez kulturaren eta euskal nortasunaren berezitasun eta zehaztasuna arriskuan jarriz. Azalpen hauetatik atera daitekeen galdera ondoko hauxe da: euskara euskal kulturaren zentralitatetik ateratzen bada, zer geratzen zaigu? Ez dago zalantzarik beldur hauen atzean bestelako kezka batzuk daudela. Pertsona batzuen ustetan, errezelo hauek zerikusia izan dezakete euskaldunek euskaltasuna definitzean nolabaiteko nagusitasuna galtzeko irudipenarekin. Beste batzuen iritziz, jarrera hau ondoko ideiari lotuta dago: hizkuntz gaietan lasaituz gero, euskararen egoeraren atzerakada egoteko beldurrari; izan ere, azken urteotan, aurrerapenak ikusi ahal izateko diru, denbora, energia eta ilusioaren inbertsio garrantzitsuak egin dira.

Edonola ere, kolektibo euskaldunaren barnean euskal kulturari buruzko bestelako interpretazioak aurki daitezke. Aipatu berri den jarreratik (*euskararik gabe ezer ez*) aldentzen den ikusmolde bat –tarteko jarreretara jotzeko bilakaeratzat har daitekeena– ondoko esaldiaren bitartez laburbil daiteke: "***euskaraz egiten den guztia ez da gurea/nirea***". Honako hau euskaraz ekoizten den guztiaren baliagarritasuna aldezten duten ahotsen interpretazio kritiko bat da. Guztiak ez du balio. Hori dela eta, paradigma honetan kokatzen diren pertsonek euskal kultura eta nortasuna eraikitzeko aukera aldarrikatzen dute, hizkuntzaren elementu nagusia baztertu gabe, baina identifikaziorako bestelako osagaiak sartuz, elementuotan nork bere burua ikusteko eta horiekin diskurtso bat eratu ahal izateko.

> *...Oro har euskal kultura eta batez ere euskaraz ari garenean, zer da euskal kultura?. Baina bai hizkuntzari loturik dago, baina hala ere ikusten dut ez ote dugun oso hertsi jokatu, marraz kanpo makina bat jende utzita eta sobera ahaleginik egin gabe marraz bestalde dagoen jendea gureganatzeko. Euskal kultura zerbait zabala da, hor hizkuntza tartean dago, eta horrek badu garrantzia handia. Eta euskaraz produzitzen den gauza guztia kultura da. Zalantza dago, kultura ia erdaraz mintzatzerakoan ez den gauza zabalagoa. Kultura pixka bat zabalago bat izan behar da...*
>
> *(Hedabideen taldea)*

Ikusmolde hauen haritik, taldeetan galdera interesgarriak sortu dira, ikuspuntu hau irudikatzen lagun dezaketenak. Esate baterako, talde batzuek galdetzen dute ea ETB1ek[5] euskaraz ematen duen Shin Chan saioa ETBko gaztelaniazko bigarren kateko "Vaya Semanita" saioa baino "euskal herritarragoa" den ala ez; izan ere, jende askok azken hori identifikatzen du euskal errealitatearen umorezko tratamenduarekin. Ildo honetako beste adibide batzuek men egiten diete euskal kultura tradizionaleko ezaugarritzat har litezkeen beste elementu batzuei, nahiz eta adierazpide mota horietarako gaztelania erabiltzen den: "bilbainadak" izeneko kantuen kasu zehatza da edo –kasu eztabaidagarriago modura– Nafarroako jotak.

Taldeek adierazitakoari men eginez, esan liteke horixe dela gazteenen ohiko jarrera –jarrera bakarra izan ez arren–; izan ere, euskararenganako fideltasunean oinarrituriko nortasuna dutela erakutsi arren, nortasuna eraikitzeko pro-

5. Puntu honetan talde euskaldunek euskal telebistaren kateari, ETBri, egindako kritikak aipatu behar dira. Kasu batzuetan galdetzen dute ea ETB euskal katetzat, kate euskalduntzat, har daitekeen, betiere emanaldiak gaztelaniaz egiten dituen kate bat duela aintzat harturik. Beste batzuetan oso gogor kritikatzen da euskal telebistako lehenengo kateak gaur egun euskal kulturaren inguruan ematen duen irudia. Taldeen iritziz, irudi horrek euskal kulturaren estereotipoak eta irudirik tradizionalena azpimarratzen ditu; beste kasu batzuetan, ordea, kanpoan asmatu eta ekoiztutakoaren "kopia" hutsa baino ez da egiten, originaltasuna eta berezitasuna alde batera utziz.

zesuan ez dituzte bestelako osagai baliagarriak eta baliotsuak baztertzen, beste kultura eta hizkuntzekin zerikusia dutenak.

Kolektibo euskalduna albo batera utzi gabe, euskal kulturaren definizioari buruzko hirugarren ikuspuntu bat suma daiteke, ondoko leloaren bitartez defini daitekeena: ***"euskararekin bakarrik ez"***. Ikusmolde honen arabera, hizkuntzaren garrantzia onartzen da euskal kultura zedarritzean: elementu nagusi eta ezinbestekoa da, baina, azpimarratzen denez, ez dauka –gaur-gaurkoz– pertsonek ingurunearekin identifikatzen dituzten premiak estaltzeko behar besteko ahalmenik. Berresten denez, euskarak ez dauka berak bakarrik kultur eta identitate unibertso bat sortzeko ahalmenik, gizabanakoa bere bizitza esperientziaren konplexutasuna interpretatzeko eta kudeatzeko gauza izan dadin. Hizkuntzatik haratagoko osagaiak behar dira, pertsonen berezko ingurunearekin, egunerokoa errealitatearekin eta ohiko kultur jardunekin zerikusia dutenak.

Jarrera mota hauetatik abiatuz, euskal kulturaren irudi heterogeneoago bat ematen da, Euskal Herrian dauden desberdintasunak kontuan hartzearen garrantzia azpimarratzen duena. Kultura inguruneari lotuta dagoelako irakurketa horretatik euskal kultura dibertso baten irudia garatzen da: "***Euskal kultura asko daude***". Taldeek ziurtatzen dutenez, euskal kulturari buruzko ikusmoldea eta adierazpideak ezin dira berberak izan Gipuzkoako herrixka batean eta Bizkaiko ezkerraldeko udalerri batean. Halaber, jakinaren gainean daude euskal kulturaren esanahia eta berori gauzatzeko modua desberdinak direla EAEn, Nafarroan eta Iparraldean.

Guztiarekin ere, nekez eraman daiteke euskal kulturan dibertsitatearen eremu modura azaltzen den ikusmolde hau diskurtso landu batera. Izan ere, diskurtsoan askotariko kultur errealitateak daudela eta euskal kultura bakarraren gaineko ideia baztertzeko premia dagoela egiaztatuko da; orobat, aukera, posibilitate eta adierazpen gehiagoz ordezteko beharrizana aipatuko da (*euskal kultura asko daude),* baina ez da haratago joango. Dibertsitate hau Euskal Herriaren nozioa gaur-gaurkoz bere osotasunean hartzen duten askotariko paisaien (giza paisaiak eta paisaia fisikoak) isla izango litzateke. Egiaztapen honetatik haratago, taldeetan ezer gutxi esan da ideia mota hauek kultur errealitatera helarazteko modu eta bideei buruz. Hari honi jarraituz, ardatz hau aintzat hartzekoa da etorkizuneko balizko lan ildo baten ardatz modura.

Pertsona euskaldunen diskurtsoa alde batera laga eta talde ez euskaldunek egindako ekarpenak aztertuta, segmentu honetan ere jarrera desberdinak ikus daitezke.

Lehendabiziko ikusmoldea ondoko leloaren barruan koka daiteke***: Euskal Herrian egiten dena euskal kultura da.*** Jarrera honek Euskal Herrian egindako guztia euskal kulturatzat hartzen du. Kasu honetan, kultura egiteko erabilitako hizkuntzak garrantzia galtzen du ingurunearen –bere ezaugarri eta berezitasunen– alde, betiere kultur adierazpen zehatz baten identitate zantzu modura. Euskal Herrian jaio, gizarteratu, bizi izan edo lan egiteak zehaztuko luke identitatea. Euskal kultura euskal herritarrek ekoiztutako guztia izango litzateke. "Euskal herritarra izateko" ideia hori oso zabala da, baina mugatuta dago; izan ere, honen alde egiten duten pertsonek jakin badakite herritarren zati batek ez duela ideia hori onartzen. Ildo honetatik, nabarmendu egiten da askok pentsatzen dutela gaur egunean "Euskal Herrian egiten den guztia ez dela euskal kultura", eta salatu egiten da euskara –edo hizkuntzarekin zuzenki identifikaturiko bestelako elementuak– erabiltzen ez dituzten kultur adierazpenak sorkuntza ardatz eta adierazpide legez onartzen ez dituen ikuspegia. Onarpen falta hau desilusioz, frustrazioz eta, hainbatetan, haserrez ere islatzen da taldeen diskurtsoan.

> *Guretzat euskal kultura da Euskal Herrian egiten dena…*
>
> *(Muga-frontera taldea)*

> *Yo siempre he pensado, en cuestión de literatura no es que esté muy puesto, la verdad, pero yo supongo que todo lo que salga de aquí es de aquí, da igual el tema, da igual todo, es de aquí y punto. Es igual que el que escribe en Madrid una obra, el tío es madrileño, pues es cultura de Madrid. Es eso, ¿no? Hay una base que es él…*
>
> *(Gazteak, mistoa, Gernika)*

Orokorrean esan daiteke ikusmolde hau gehienbat pertsona gazte ez euskaldunek osatutako taldeei lotuta –baina ez hori bakarrik– azaltzen dela. Neska eta mutil hauek euskal herritartzat hartzen dute beren burua eta euskal kulturan, euskaldunek egiten duten moduan, esku hartzeko eta horren zati izateko zenbaitetan dituzten zailtasunak salatzen dituzte. Talde hauetariko askotan eztabaida ondoko galdera mota hauen ingurukoa izan da: zergatik ez da euskal kulturaren zati Alex Ubagoren edo "La Oreja de Van Gogh" taldearen musika? Edo Lucia Etxebarriaren literatura?

Gai hauen haritik, bestelako eztabaidak ere sortzen dira, esate baterako ea euskal herritar guztien edo euskal nortasunaren ezaugarri definitzailerik dagoen; horrek pentsarazten digu ea nolakoak garen euskal herritarrak eta zeintzuk diren gure berezitasunik esanguratsuenak. Kasu hauetan ohikoena topikoetara jotzea da; horrela bada, horien arabera, euskal nortasuna familiazale eta itxi modura azaltzen da, bai eta gizarte sare edo lagunarte finko eta sendoei lotua ere; azken alderdi hori diskurtso ez euskaldunak kritikatzen du gehienbat, horren aburuz, izaera itxi eta hertsiegia sortu duelako, bai eta kanpokotzat jotzen denarekiko errezeloa eta hoztasuna ere.

Azaldu berri dugunari neurri batean lotutako azkeneko jarrera bat honako hauxe da: euskal kultura gizarteak berak ekoizten duen guztia biltzen duen eremuaren defentsatik abiatuta, euskara kultura horren ertzetan beren beregi kokatzen du eta hizkuntza honetan ekoiztutako guztia berea ez den urruneko kulturatzat jotzen du, bere egiten ez duen zerbait bailitzan. Kasu honetan, ikuskera honen lelo argigarria ondoko hauxe izango litzateke: ***euskara, beste kultura bat***. Baieztapen honek hizkuntza eta beraren adierazpideak kolektibo zehatz batekin lotzen ditu eta horrek gizarte osoaren ondasun eta balio modura onartzea zailtzen du. Euskal Herriko kultura euskal gizarte osoak –kasu honetan praktikan gehiengoa den kolektibo ez euskaldunarekin identifikatzen dutena– egindako kulturatzat hartuko litzateke eta euskaraz egindako kultura azpitalde modura agertuko litzateke, hau da, bigarren mailakoa eta beharrezkoa ez den zerbait bailitzan; izan ere, ikuspuntu mota honetatik abiatuta, euskarazko kultura hori ez da egunerokotasuna garatzeko batere beharrezkoa.

Euskal kulturari buruzko ikuspegi mota hauen deribatzat har liteke, diskurtso ez euskaldunaren marko berean, EAEn gutxiengoaren den jarrera bat, baina iritzietan beligerantzia eta gogortasun dosi handiak erakusten dituena. Kasu honi dagokionez, ikusmolde hau irudika lezakeen lelo edo esaldia ondorengo hau izan liteke: "***Euskara ez da nire/gure kulturaren zatia***". Jarrera hau euskararekin eta euskal identitate edo nortasunaren nozioarekin zerikusia duen guztiarenganako ezinegon batetik abiatzen da; gainera, bi alderdi horiek, euskara eta euskal kultura, gatazka, bortizkeria eta eremu politikoarekin identifikatzen dira gehienbat. Orobat, inposizio eta injerentzia modura ikusten dira norberaren funtsezko eskubideei dagokienez: bakoitzak nahi duen hizkuntzan bizi izateko eskubideari, batez ere.

Esan daiteke, oro har, ikuskera mota hauek estatuko beste leku batzuetatik etorritako pertsonenak direla eta –euren bizitzaren zatirik handienean EAEn bizi izan diren arren– euren nortasuna jatorrizko erkidegoekin lotzen dutela; handik ezaugarriak eta tradizioak jaso eta, sarritan, harrera tokietara eramaten dituzte. Halaber, interesgarria izan daiteke tipologia honen barruan dagoen biztanleriaren bigarren talde bat: EAEn edo hemendik kanpo jaiota, hizkuntza eta euskal kultura asmo pertsonalak garatzeko osagai deserosotzat eta mehatxutzat hartzen duena, esate baterako lanbide eta lan asmoak aurrera eramateko.

Diskurtso kritiko mota hauen barnean euskal kultura onartu eta errespetatzen da osagairik folklorikoenei edo ohiturazko elementuei dagokienez (gastronomia, paisaia, baserri giroko tradizioak eta abar); era berean, euskal herritarren ohiko izaerarekin identifikatzen diren ezaugarriak ere errespetatzen dira: jende zintzoa, langilea, solidarioa eta abar. Handik aurrera, eremu arazotsua zabaltzen da, batez ere hizkuntzarekin zerikusia duena: ikusmolde honen arabera, euskararekin zuzenean edo zeharka erlazionatzen den guztia nagusitasuna lortu eta inposizioa ezarri nahi duten diskurtso politiko eta estrategiekin identifikatzen da.

Jasotako diskurtso guztietan ikuspuntu horrek duen garrantzia baloratzean, berriro ere esan beharra dago gutxiengo batena baino ez dela eta oso ingurune nahiz testuinguru zehatzetara mugatzen dela. Gainera, jasotako informazioa aintzat harturik, kasu honi dagokionez, ezin sakon daiteke beste aldagai batzuek diskurtso mota hauek egituratzeko duten garrantzian; izan ere, printzipioz, ikusmolde honen jatorrian daudenak zirkunstantzia pertsonalak dira (lan egoera, harremanen sarea eta abar), adina edo ingurunea baino gehiago. Hala eta guztiz ere, gizartean agertzen diren diskurtsoak dira –zenbait kasutan komunikabideek emandako mezuek sendotzen dituztenak–, eta hala denez gero, argi dago euskal nortasuna eta kultura definitzeko nahiz kontzeptualizatzeko gizarte zereginari eragiten diotela.

1.6.3. Alderdi ebolutiboak diskurtsoan

Argi dagoenez, euskal kultura definitzeko aukerak ez dira agortzen eredu hauen berri ematean. Askoz jarrera, ikuspuntu eta ikusmolde gehiago sartzen dira definizioan. Hori dela eta,

aurreko puntuan azaldutako azterketak ez ditu aukerak mugatu nahi; izan ere, diskurtsoetan indartsuen agertu eta protagonismorik handiena lortu duten aukeren laburpen bat aurkeztu nahi izan dugu. Oinarrizko eskema horretatik abiatuz, eztabaida luzeari ekiteko aukera legoke. Guztiarekin ere, gure ustetan, positiboagoa izan daiteke aurrerapauso bat gehiago ematea eta, jasotako materialarekin, etorkizunerako hutsarteak zabaltzen ahalegintzea. Helburua *cultura vasca/euskal kultura* kontzeptuaren definizioari buruzko eztabaida gainditzea izango litzateke, mahaiaren gainean bestelako osagaiak jarriz; elementuok lagundu behar lukete euskal kultura mugatzen duten ika-mikak eta haren inguruan sortu ohi diren esperientzia, bizipen, ikuspegi eta adierazpen ugari gainditzeko dinamikak sortzen.

Horretarako, interesgarritzat hartu da taldeek euskal kultura osatzen duten osagaiak definitzeko eta kontzeptualizatzeko erabilitako modu eta bidean sakontzea. Kasu honi gagozkiolarik, kontua ez litzateke euskal kultura denaren (edo ez denaren) inguruan eztabaidatzea, baizik eta pertsonek kulturarekin nahiz berori irudikatu eta bideratzen duten elementuekin zuzenean ezartzen duten erlazioa aztertzea. Alderdi hau hurrengo orrietan garatuko da. Hau guztiau kontuan hartuta, egoki iritzi zaio puntu hau (alderdi ebolutiboak diskurtsoan) hurrengo bi ataletara ("euskal kultura osatzen duten elementuak" eta "euskal kulturaren etorkizuna") lekualdatzeari, lehenengo eta behin, modu honetara errepikatzeak saihesten direlako eta, bigarrenez, taldeetan garapenerako jasotako giltzarriak bi atal horietan hobeto sartzen direla pentsatzen dugulako.

EUSKAL KULTURA

Azalpen orokorra

4 **Euskal kulturaren definizioa.** Alde batetik, euskal kulturaren definizio argi eta zehatza ezartzeko zailtasunak azpimarratzen dira. Beste aldetik, hizkuntza euskal kulturako eremuaren osagai bereizgarritzat jotzen duten ahotsak nabarmentzen dira. Azkenik, euskal kultura definitzeko estrategia egoki modura eremu geografikoa aipatzen dutenak ere badira: "euskal kultura Euskal Herriko kultur eremuan ekoizten den guztia da".

4 **Euskal kulturaren hainbat ikuspuntu:**

- **Euskal kultura da euskaraz egiten dena**. Ikusmolde honek oinarria dauka hizkuntza euskal kultura definitzeko adierazpide nagusia delako ideian. Kasu honetan, euskal kulturaren protagonistak euskaldunak dira eta berori kokatzen den eremu geografiko nagusia Euskal Herriaren esparrua da.
- **Euskal kultura: gure kultura, berton egiten dena.** Ikusmolde honek euskal kultura ingurune geografikoarekin uztartzen du. Kasu honetan euskara bigarren plano batean azaltzen da eta garrantzia eremuan dago eta lurraldeari lotutako pertsonengan. Ikuskera honen arabera, kultura hizkuntzara mugatzeak herritarren sektore baten definizioa baztertzea dakar.
- **Euskal kultura eta berori definitzeko zailtasuna.** Taldeen sektore batek euskal kulturari buruzko ikusmoldea bilbatzen du honen mugak eta definizioa zehazteko zailtasun eta zalantzetan. Kulturaren gaineko ikuspegi honek ondoko ezaugarriak dituen definizioa bultzatzen du:
  - Nahasketa: gutxienez bi kultura batera bizi direla egiaztatzea (euskalduna eta ez euskalduna).
  - Hizkuntza osagai berezitzat hartzea.
  - Definizio "errazak" kritikatzea. Euskaraz egiten den guztia euskal kultura izatea jartzen da kolokan.
  - Definizio "bigunak", zabalak aldezten dira.

EUSKAL KULTURA

Ikuspuntuak

4 **Euskal kulturaren inguruan adosturiko definizio bat ateratzeko zailtasuna.**

4 **Ikuspuntuak oinarritzen dituzten aldagaiak:**

Euskalduna/ez euskalduna: **euskaldunen** ikuspuntuaren arabera, hainbat jarrera bereiz daitezke:

- **Euskararik gabe ezer ez.** Euskarak euskal kultura definitzeko pisu nagusia eta ia bakarra hartzen du. Gauzak horrela, maila edo garrantzi bereko osagairik sartuko balitz, euskal kulturaren berezitasuna arriskuan jarriko litzateke.
- **Euskaraz egiten den guztia ez da gurea/nirea.** Euskara euskal kultura definitzeko elementu bakartzat jotzen duten ahotsekiko ikuspuntu kritikoa da.
- **Euskararekin bakarrik ez.** Hizkuntzatik haratago doazen elementuak sartzea eskatzen da, pertsonen inguruarekin, eguneroko errealitatearekin eta kultur jardunekin zerikusia duten osagaiak, hain zuzen ere.
- **Euskal kultura asko daude.** Euskal Herriaren kontzeptuaren eta lurraldeen barruan euskal kulturaren gaineko askotariko sentsibilitate eta adierazpideak daudela onartzen da.

Ez euskaldunen ikuspuntuetan ondorengo jarrera hauek bereiz daitezke:

- **Euskal Herrian egiten dena euskal kultura da.** Euskal Herrian ekoizten den guztia euskal kultura da. Nortasuna zehaztuko litzateke Euskal Herrian jaio, gizarteratu, bizi izan eta lan egiteak zehaztuko luke nortasuna.
- **Euskara, beste kultura bat.** Hizkuntza eta honen adierazpideak kolektibo zehatz batekin uztartzen dira. Euskaraz egiten den kultura azpimultzotzat hartuko litzateke, bigarren plano batean jarriz.
- **Euskara ez da nire/gure kulturaren zatia.** Jarrera hau euskararekin eta euskal nortasunaren nozioarekin zerikusia duen guztiak sorrarazten duen ezinegon batetik abiatzen da; hau guztiau ikuspuntu politikoarekin lotzen da.

1.7. EUSKAL KULTURA OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK

1.7.1. Aurkezpen orokorra

Aipatu berri dugun legez, euskal kulturaren inguruko definizio adostua zehazteko egindako ahaleginek ez dute emaitzarik izan eta, alde horretatik, ikerketa honek eztabaidan zehar sortutako alde nabarmenen berri baino ezin izan du eman. Nolanahi ere, gai honen inguruan hainbatetan izandako eztabaidak, nahasketa eta anbiguotasuna alde batera utziz gero, azpimarratzekoa da euskal kultura definitzeko eta bereizteko haritik zabaldutako beste hausnarketa ildo batzuen inguruan lortutako adostasuna. Horrenbestez, terminoa kontzeptualizatzeko ahaleginetan sortutako tentsio eta larritasuna albo batera lagata, taldeek askoz lasaiago eta zabalago oratu diote euren iritziz euskal kulturaren euskarri praktikoa osatzen duten elementuak aztertzeko zereginari.

Orduantxe lortzen da euskal kulturaren diagnostikoaren gaineko adostasunik handiena eta ateak irekitzen dira pertsonen eta kulturaren arteko harreman gertuagoak eta berezkoagoak izateko. Lotura horrek, ikusi ahal izango den bezala, hainbat alderdiren inguruko tentsioa eragingo du, baina, aldi berean, elkarrekin topatzeko eta harremanetan jartzeko guneak sortzeko gaitasun garrantzitsua izango du; horrela, kulturari buruzko definizioetan izaera integratzaileagoa aurkitu ahal izango da. Definizio mota hauek kulturaren gaineko kontzeptualizazio zabalago batera jotzea eskatzen dute, ñabardura eta konnotazio politikoetatik at eremu bat marraztu ahal izateko eta horrela euskal kultura bizitzeko eta ulertzeko era eta moduen dibertsitatea islatzeko. Kulturari buruzko definizio esentzialistak saihesteko ahaleginak egin dira eta eguneroko gai mikroei nahiz esperientzia pertsonaletik hurbilen daudenei lotuta dagoen kulturaren profil baten alde egin da.

Hala, euskal kulturari buruzko definizio argirik ez egoteak, gai honen inguruan sortzen den eztabaidak eta euskal kulturaren nozio malguago eta ireki baten aldeko eskariek, gure iritziz, une honetan kultur eremuak biltzen duen tentsioaren berri ematen dute. Hau ikusita, taldeek irtenbide bat bilatzea lortu dute. Irtenbide hori abiatzen da kulturaren ideiaren barruan esanahi desberdina duten hiru eremu daudela pentsatzetik. Horietariko bakoitzak euskal kulturaren elementu eta osagai mota batzuei egiten die men. Hala, taldeek horietariko bakoitzarekin duten harremanak eta azaltzen duten jarrerak giltzarri izango dira euskal kultura partekatuaren oinarriak finkatzeko gai diren erreferente komunak ezarri ahal izateko, hau da, taldeek azkenean eremu partekatua aurkituko dute. Esparru hori potentzial handikoa da eta, ikusi ahal izango denez, kultura egunerokotasunarekin nahasten da; handik joz, kulturak indarra hartzen du ikuspuntu, iritzi eta aburu desberdinen arteko topagune eta komunikazio elementu modura.

Guztiarekin ere, puntu horretara iritsi ahal izateko, taldeek euskal kulturaren inguruan zehaztutako hiru elementuak hartu behar dira kontuan:

- Tradizioa
- Sorkuntza
- Bizitzeko kultura

Kultura tradizio modura ikusteak euskal herritar guztien ondare historikotzat jotzen diren folklorearen osagaiei eta ohiturei egiten die men. Tradizioak lotura estua dauka iraganarekin, beste aro bateko ekandu eta usadioekin, bai eta, hainbat prozesu eta gertakariren ondorioz, euskal kulturaren nahiz gizartearen ikur eta ikono bihurtu diren elementuekin ere.

Taldeen ikuspuntuan tradizioak leku garrantzitsua betetzen du euskal kulturaren mugak definitzen ahalegintzeko orduan. Horrela bada, diskurtsoetan onartu eta aintzakotzat hartzen da tradizioari lotutako osagai askok euskal kulturaren eremuan duten pisu handia. Nolanahi ere, tradizioarekiko loturak lausoak eta arazotsuak dira gai batzuei dagokienez. Alde batetik, diskurtso politikoak tradizioaren elementuak bereganatu eta hainbatetan alde bakarreko irudia eman dietela aipatu da. Beste aldetik, talde askoren diskurtsoak islatzen ditu ohituren eta folklorearen mundu hori orainaldian kokatzeko sarritan izaten diren zailtasunak. Zailtasun horiek, batez ere, hiri ingurunean areagotzen dira.

Halaber, hiriek gaur egun hartzen diharduten garrantzi handia aipatzen da; izan ere, hiriak dira jarraitu beharreko eredua. Horrenbestez, gehienbat landa ingurunearekin zerikusia duten balore tradizionalagoek desagertzeko edota indarra galtzeko joera dutela ikusten da.

Edonola ere, hori guztiori arloka aztertu beharra dago; tradizioarekin identifikatzen den kulturaren zatia eta hori osatzen duten alderdiak ikertu behar dira, taldeek zehaztutako loturaren berri izateko.

Arestian esan bezala, tradizioa euskal kulturaren zutabe garrantzitsua da eta horrelaxe islatzen da ikerketa honetan jasotako diskurtsoetan. Harekiko erlazioa gorabehera, argi dago tradizioa euskal kulturaren eremua aintzakotzat hartzeko oinarrizko erreferentea dela. Gogoeta orokor horretatik abiaturik, taldeek bestelako iritziak eta ikuspegiak eman dituzte; horiek, zalantza izpirik gabe, laguntzen dute gizarteak gaur egun tradizioaren eremuarekin (tradizioari ere men egiten zaio folklorea eta ohitura bezalako hitzak erabiliz) dituen loturak zehazten eta zedarritzen.

Tradizioaren esparruaren inguruan aurrena azpimarratzen den alderdiak zerikusia dauka bere aparteko izaerarekin, bere adierazpideetariko batzuei onartzen zaien berezitasunarekin, hain zuzen ere. Tradizioak “gurearen” berri ematen du, ingurune jakin batean bizi diren pertsonen berezko eta berezia den guztiaren berri. Ezaugarri hauek kontuan harturik, diskurtsorik gehienak bat etorri dira tradizioen balioa azpimarratzean edo merezi duten onarpena adieraztean. Horrela, pertsonek ohituratzat edo folkloretzat hartzen diren horiekin duten lotura handiagoa edo txikiagoa alde batera utzita, errespetua izan da emandako iritzi guztien abiapuntu komuna.

> *Gu ere horren parte bagara, nik ere txikitan egin ditut euskal dantzak… eta noizean behin pilota partidu bat…*
>
> *(Gazteak, euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)*

Tradizioa aztertzen jardun duten diskurtso askok bigarren alderdi batean sakondu dute; izan ere, tradizioa sarri askotan lotzen zaio tradizioaren eta bertatik eratorritako estereotipoen artean ezarri ohi den erlazioari. Ziurtatzen denez, tradizioa euskal kulturaren inguruan eraikitako irudi ugarien iturria da; alderdi hori, hala ere, ez da beti baloratzen modu positiboan.

Kanporuntz normalean saltzen dena folklorea, eta guk kontsumitzen duguna normalean guretzat ez da gure berezko gauza…

(Gazteak, euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)

Me da miedo cuando hablamos de cultura y nos vamos a las dantzas, que esto se convierta en un folclorismo, porque esto es mucho más que esto…

(Gizarte mugimenduen taldea)

Alde batetik, jakinaren gainean daude estereotipoen inguruan asko eta bakar-bakarrik jardutea ez dela onuragarria kultur eremua garatu ahal izateko. Diskurtsoek iradokitzen dute kasu ugaritan eta testuinguru zehatzetan indar gehiegi jartzen dela euskal tradizioaren eta muinaren islatzat hartzen diren irudietan. Adierazpen horiek ziurtatzen dutenari jarraituz, joera mota hauek kultura monolitiko eta mugiezin baten irudia ematen dute, oro har gaur egungo bizimodu eta zirkunstantziekin zuzeneko zerikusirik ez duten osagai eta ikurren menpe. Mesprezatu edo gutxietsi gabe, ikusmolde horrek tradizioa beharrezko testuinguru egokian kokatzearen garrantzia azpimarratzen du; gainera, ikuskera horren arabera, tradizioa XXI. mendeko gizarte bati dagokion lekuan jarri beharra dago.

Hala, tradizioa bere testuinguru eta denboran ulertzeko premia nabarmentzen da; izan ere, testuinguru eta denbora horrek ematen die zentzua adierazpen tradizionalei, baina ia ez zaigu horien aztarnarik iritsi. Hori dela eta, ziurtatzen denari jarraituz, muinera jo beharra dago, tradizioa sortzen deneko ingurunera, gertaeraren jatorria ulertuta alternatiba berriak aurkezteko eta modernotasunera egokitzeko. Horrela egin ezean, askoren iritziz, tradizio eta modernizazioaren arteko krisia ezin izango da inola ere saihestu.

Gogoeta hauen ildotik, tradizioa turistei saltzen zaien zerbait bailitzan aurkezten da, baina errealitatearekin bat ez datorrena: “ez da benetakoa, egiazkoa”. Tradizioari eutsi zaio eta pertsonek euren errealitatearen gainean duten ikuskeraren barruan ageri da; hala eta guztiz ere, ondokoa berresten da: “kultura askoz ere gehiago da, ez da folklore hutsa”.

Tradizioa aztertzean agertu den hirugarren alderdiak tradizioaren munduari, antza denez, gaur egun eragiten dion galeraren, gainbeheraren eta ezagutzarik ezaren sentsazioarekin zerikusia dauka. Kasu askotan onartzen da, errepresio epe garrantzitsua gainditu eta gero, euskal kulturaren normalizazioan nolabaiteko lasaitasuna nagusitu dela: gaur egun kezkatuago eta interesatuago gaude kanpotik datorren guztian. Horren ondorioz, kultura tradizionala krisian dagoela edo bertan behera utzi dela egiaztatzen da; gainera, krisi hori areagotzen da tradizioen jatorriaren eta garapenaren gaineko ezagutza faltagatik eta, batik bat, gazteek tradizio horiek ondorengoetaratzeko eta horiei eusteko erakusten duten interes faltagatik.

Ya no es nuestra cultura vasca, fue la de nuestros antepasados. Y no nos sirve, no nos gusta…

(Gazteak, ez euskaldunak, Vitoria-Gasteiz)

Egoera zail honetan ere sortzen dira tradizioaren barruan izaten diren eztabaiden berri ematen duten hainbat ahots; izan ere, hainbatek eztabaidatu ohi dute tradizioaren elementu garbien muintzat hartzen dituzten osagaiak zaintzeko eta horiei eusteko modurik edo biderik egokienaren inguruan.

Azkenik, tradizioari lotutako eta kultur eremuarekin zerikusia duen azken osagai baten berri eman behar da: euskararen presentzia. Kasu hauetan, diskurtsoek nabarmentzen dute euskararen eta baserri giroko tradizioaren artean askotan egin ohi den identifikazioa; hainbat taldek pentsatzen dutenez, lotura horrek estereotipo batzuk sendotzen ditu, esate baterako euskara ikustea ingurune mota zehatz batera, harreman eredu jakin batera eta oso bizimodu konkretuaren menpeko ohituretara mugaturiko hizkuntza modura, baserrietako edo biztanle gutxiko guneetako mintzaira bezala, alegia. Mundu horretan ere aldaketa sakonak ari dira gertatzen eta orain arte euren identitate zantzu nagusiak izan direnak gainbehera hasi dira edo, behinik behin, goitik behera eraldatzen.

Aipatu berri diren alderdiak ikusita, talderik gehienek tradizioaren bilakaeran eta etorkizunean sumatzen dituzten zailtasunak azpimarratu behar dira; gai honek, aurrerago ikusiko den legez, duda-muda eta zalantza handiak sorrarazten ditu.

Sorkuntza euskal kultura artikulatzen duen bigarren osagaia da. Horrela, kultur ekoizpena euskal kultura islatzeko eta irudikatzeko bidea ematen duen beste eremuetariko bat da. Baieztatzen denaren arioan, euskal kultu-

ra ez da folklorea eta tradizioa huts-hutsean, sorkuntzaren adierazpide desberdinek ere (literatura, musika, etab.) protagonismoa dute euskal kulturako eremuan. Adierazpide mota hauek duten garrantziaren erakusgarri dira taldeetan horien ezaugarriei eta berezitasunei buruz edota adierazpideok euskal kulturaren erreferente bihurtzeko duten aukerei buruz sortutako eztabaida biziak.

Gauzak horrela, sorkuntzaren euskal eremua aztertzeko lehenengo puntu gisa, nabarmentzekoa da kultur eremua aztertzean sortutako tentsioa, betiere euskal kulturaren erreferenteei eta definizioari dagokienez. Problematika honek berriro ere heltzen dio hizkuntzaren aferari, betiere "euskaltasuna" definitzeko ezinbesteko baldintza modura. Zer da euskal literatura? Zer da euskal musika? Euskaraz kantatzen dena baino ez?

Definizio honi laguntzen dion elementuetariko bat hizkuntza da, baina definizioaren barruan sartzen diren beste osagai batzuk ere aipatzen dira: izaera aldarrikatzailea, gai mota…

> *Definitzea oso zaila da, gehiena euskal kultura egiten delako logikoa edo arazo handirik ez dago. Arazo handia dago edozein kulturatik, Eva Forest… eta hor dago arazoa eta komertziala da. Eta lerro anbiguo bat dago, ez bada nagusitzen onartzen duzu. Musika arloan gertatzen dena, Barrikadak gehiago saltzen zuen Durangoko Azokan, Benito Lertxundik baino. Niretzat euskaraz sortzen dena da euskal kultura, eta beste hizkuntza batean zabaltzen badira, ba instrumentu bat izan daiteke, gaztelaniaz edo ingelesez. Hor badago kultura bat gure inguruan beste hizkuntza batean egiten dena eta hori da euskal herriko kultura, baina euskal kultura, hori da definizioaren arazoa…*
>
> *(Kultura eta sorkuntza taldea)*

Ez dugu atzera ere aipatu nahi dagoeneko aurreko ataletan azaldu den eztabaida. Nolanahi ere, kulturaren inguruan sortutako eztabaidarik gehienak baldintzatu dituen ardatz nagusia izan dela gogorarazi beharra dago; orobat, aurreikus daitekeenez, eztabaidak baldintzatzen jarraituko du, oraindik ere honako hau bat-bateko eztabaida delako, abiatzeko gogoeta argirik behar ez duena; gainera, gai zehatz honetan gizabanakoek aise aldatzen dituzte aldez aurretik dituzten jarrerak eta iritziak.

Hala eta guztiz ere, eztabaida mota hauek kontuan hartu arren, sorkuntzak eta, zehatzago, Euskal Herriko kultur industriak gaur egun dituen zailtasunek gainditzen dute eztabaida hori, hizkuntzak euskal kultura zer den mugatzeko jokatzen duen zereginaren gaineko eztabaida, hain zuzen ere.

Lehenengo alderdi orokor modura aipatu behar dira euskal kulturaren ekoizpen, hedapen eta kontsumoari buruzko arazoak. Kultura zentzu zabalean ulertuta (esan nahi baita, euskarazko eta gaztelaniazko ekoizpena kontzeptuaren barruan sartuz), taldeek zehaztutakoaren arabera, euskal kulturak hutsune larriak ditu ondoko alderdi hauetan:

- Ekoizpena: kasu honetan, kritikak euskarazko ekoizpenari zuzendutakoak dira; horrenbestez, ekoizpen hori urritzat hartzen da, sorkuntza arlo zehatzetan oinarritua (adibidez, musika eta literatura) eta gaztelaniaz eskaintzen dena baino kalitate txikiagokoa. Gainera, talde batzuek esandakoaren arioan, kultur ekoizpena sektore jakin batzuetara zuzenduta dago (haurrak eta pertsona helduak) eta beste batzuk alde batera uzten dira, esate baterako nerabeak eta gazteak orokorrean.

  > *Uste dut hogei urtetan gauza asko eta onak egin direla edo euskal gizarteak egin dituela, eta orain gure kezka da kalitatea edo zer egiten dugun. Euskarazko produkzioa bada eta lehen baina handiagoa, eta orain maila honetara ailegatu gara eta eseriko gara hemen eta hitz egin, zer egiten ari gara, ondo egiten ari gara, ez? ulertzen dugu gauza asko, eta beste mezu hori ere euskaraz egiten ari gara eta esaten dute. Nik uste dut oso gauza duinak egin direla. Kalitatezko gauzak badute soportea jendearen artean…*
  >
  > *(Hedabideen taldea)*

  > *Ni nahiko pesimista naiz, euskarazko telebista badugu egunkaria ere, baina euskarazko prentsan baina euskaraz egiten denean ere, esaterako Sorginen Laratza ikusteko ikusten dut kronikas marcianas, ez dakit hori den bidea, kopia kaskarrak egitea. Nik uste dut, euskarazko prentsa eta produkzioa bereiztu egin behar dela. Zuk ezin duzu konpetitu Estatu Batuetako ez dakit zer… beste era batera konpetitu behar duzu, kalitate aldetik…*
  >
  > *(Hedabideen taldea)*

- Hedapena: euskaraz eta gaztelaniaz egiten den kulturari men eginez, baiezta daiteke kultur erreferenteen hutsunea oso han-

dia dela. Ikerketak sustatutako eztabaida orduetan, oso gutxi izan dira taldeek kulturaren izenak edo protagonistak gogorarazteko erabili dituzten uneak. Gabezia horretaz ohartu diren pertsonek erakundeen hutsegitea salatu dute, kultura sustatzeko eta zabaltzeko orduan. Ziurtatzen denez, hutsegite hori agerikoagoa da euskaraz egiten den kulturaren kasuan.

> *Ez dakigula saltzen, alde batetik, baina bestetik, herri hau ez dela hain desberdina eta hemen ehuneko askok ikusten du Operación Triunfo. Eta badaudela elementu batzuk kontra kultura egiten dutenak. Telebistan bi ordu trikitixa entzuten... kontrako lana egiten da sentidu horretan...*
>
> *(Kultura eta sorkuntza taldea)*

> *Aurreratu da pila bat, material asko sortu da, normaltasun bide batean gaude... baina oraindik ere lotzen da asko ez natural bezala, eta horrek ez du erakargarri egiten. Eta nik uste dut gakoa hori dela, erakargarri egite horretan, erreferenteak bilatu behar dira...*
>
> *(Hezkuntza taldea)*

- Kontsumoa: aurreko guztiari lotuta, kulturaren kontsumoan gabezia handia dagoela sumatzen da, gehienbat euskarazko ekoizpenen kasuan. Euskal kulturak kontsumitzaileen merkatu mugatua daukala onartzen da, baina arazo hori askoz ere nabariagoa omen da kultur produktuak euskaraz eskaintzen direnean.

> *Euskal kultura, merkatu txikia dauka eta merkatu handiagoa behar du...*
>
> *(Helduak, euskaldunak, Donostia)*

Ekoizpen, hedapen eta kontsumoan dauden murrizketa hauek nahiko balantze negatiboa eragin dute taldeek egindako diagnostikoan. Sorkuntza garatzeko zailtasunak daude, ez da esportatzen (ziurtatzen denez, euskal produktuek, gainera, gaur-gaurkoz gatazka politikoak baldintzaturiko irudia dute hainbat testuingurutan) eta ez da protagonismorik lortzen. Azterketa honen haritik, ahots askok erakundeek aurrera eramaten duten kultur politika kritikatzen dute, euren esanetan, diru-laguntzetan oinarrituriko politika bat eta helburu argirik ez duena. Gainera, euskaraz garatzen den kulturari lotuz, eszenatokia askoz konplexuagoa dela ematen du: euskaraz ekoizturiko kultura ez da erreferente bat, zailtasun ugari daude normalizazio eta garapenerako eta, horren ondorioz, sorkuntzari nahiz kontsumoari eragiten dion makina bat konplexu ei dago. Kulturak duen izaera hiritarra eta garaikidearen aldean, euskarazko ekoizpenek landa inguruneko lorratza edo aztarna tradizionala izaten jarraitzen omen dute, taldeek adierazitakoaren arabera.

Iritzi orokor hauek alde batera utzita, taldeetan azaldutako kezka eta ardura zehatzetariko batzuei lotutako bi alderdi aipatu behar dira. Alde batetik, sorkuntza eta originaltasun faltari egiten zaion kritika eta beste toki edo testuinguru batzuetan arrakastatsuak izan diren produktuak, formatuak edo edukiak kopiatzeko joera. Kasu honetan gehien erabilitako adibideetariko bat euskal telebistarena da; taldeen zati batek programazioa, bai euskaraz bai gaztelaniaz, beste leku batzuetan emandako saioen kopiez betetzen duela adierazi du. Berezko identitate eta nortasuna duten produktuak sortzen eta egiten ahalegindu beharrean, beste kate batzuetan audientzia kopuru onak dituzten formulak inportatzearekin konformatzen da. Kopiarako joera euskaraz egindako kulturaren eremuan topa omen daiteke bereziki; horren ondorioz, pertsona askok bere buruari galdetzen diote ea zein den eskariaren atzetik abiatzera zuzendutako produktu mota hauen balioa. Gainera, berresten denaren arabera, beste leku batzuetan lortutako arrakastari begira besterik lan egiten ez bada, non geratzen da euskal kulturaren berezitasuna?

Beste alde batetik, talde batzuek euskal kulturaren eremua dinamizatzea ahalbideratzen duten goi mailako elementuak falta direla azpimarratu nahi izan dute; gainera, talde hauen ustetan, Euskal Herrian gaztelaniaz nahiz euskaraz garaturiko kultura biltzeko topaguneak sortu behar dira. Talde hauen esanetan, topagune hau abian jarri den adibide garbi bat musikarena izango litzateke.

Gazteen ikusmoldeari jarraituz, musika da euskal kulturaren barruan entzute gehien lortu duen adierazpidea. Gauzak horrela, musikak oso adin, hizkuntz profil edo ideologia desberdineko jendearekin komunikatzeko izan duen gaitasuna azpimarratu da; orobat, musikak askotariko ikuspuntu eta errealitateak harremanetan jartzeko zubiak eraiki dituela aipatu da.

Gainera, musika da euskal sorkuntzaren barruan denboraren poderioz gehien eboluzionatzen jakin duen eremua, korronte eta eskari berrietara egokituz eta kulturen, erritmoen, lengoaien eta abarren arteko nahasketa eta mes-

tizaje formulak abian jarriz. Horri erantsi behar zaio musika dela euskal kulturaren barruan gehien esportatzen den eta nazioartean onarpenik handiena duen adierazpidea. Musika ekoizpenaren munduak momentu honetan bizi duen egoeraren balantzea alde batera utzita, aipatzekoa da musikak azken urteotan eskuraturiko protagonismoa oraindik agerian dagoela eta horren indarra oso modu positiboan baloratzen dela. Talde askoren esanetan, musika kenduta, ez da egon eta gaur egun ere ez dago horren pareko gaitasunik edo jendea erakartzeko eta elkartzeko gaitasunik izan duen erreferenterik.

Taldeetan adierazi da musika izan dela beste kultura batzuetako osagaiak txertatzen jakin duen adierazpideetariko bat, euskal kultura gisara duen katalogazioa kolokan jarri gabe. Taldeek zenbat adibide jarri dituzte, besteak beste bertsolaritza, txalaparta eta abar.

Taldeek herrialde baten adierazpide eta isla modura **bizitzeko kultura edo bizimodua** aipatu dute euskal kulturako eremuaren hirugarren oinarri bezala. Hurrengo lerroetan erakutsi ahal izango denez, honako hau kulturaren bizipen kolektiboa egituratzen eta adierazten duen tresna edo lanabes nagusi legez ikusi behar den osagaia da. Kasu honetan, kulturari buruz hitz egiteak hainbat lan edo produktu gogora ekarri beharrean, pertsonen artean eta pertsonen nahiz ingurunearen artean ezartzen diren sentsazioak, harremanak edo loturak gogorarazten ditu. Bizitzeko kulturaren nozioaren esanahia ulertu ahal izateko, taldeek gai horren inguruan emandako ideia eta gogoetan sakontzeko ahaleginak egingo dira.

Lehenengo eta behin, kontuan hartzekoa da kulturaren, gizartearen eta ingurunearen artean dagoen eta diskurtsoetan hainbatetan aipatu den erlazio estua. Askok adierazitakoaren ildotik, kultura dena da, kultura da pertsonak inguratzen gaituen guztia eta pertsonek ekoizten dugun guztia: paisaia eta berarekin dugun erlazioa, lan egiteko era edo horretarako erabiltzen ditugun tresnak eta materialak. Taldeek emandako adibideak ugari izan dira eta orokorrean esan daiteke horiek guztiek laguntzen dutela pertsonen arteko lokarriak eta pertsonek ingurunearekin dituzten harremanak finkatzen eta sendotzen. Ziurtatzen denez, gizakiok egindako edozein gauza kulturatzat har daiteke.

Printzipio horretatik abiatuz, gizarte baten produktu guztiak ingurune horren berezkotasun edo bereizgarriak direla pentsa daiteke. Arestian esan bezala, produktuez mintzatzean, gai materialak ez eze osagai ukiezinak ere aipatzen dira, hala nola izaera, nortasuna, lan egiteko modua, antolaera… Taldeek zehaztu dutenez, askotariko elementuen multzo hori bil liteke bizimodutzat eta erkidego baten baloretzat hartzen ditugun horien barruan. Kasu askotan erkidego baten ezaugarriak ez dira gehiegi aldatzen auzokideek dituztenengandik, baina aldaketa txiki horiek izaten dira gizarte baten ezaugarri esanguratsu bihurtzen dituztenak. Eransten denez, berezitasun horiek, praktikan, herri edo erkidego baten kultura osatzen dute. Antza denez, oso txikiak diren bereizgarri horiek kultura desberdintzen amaitzen dute eta ingurune jakin horretako biztanleei jabetza sentimendu sakona ematen diete.

> *El bote no se hace en otras partes, se hace en Euskalherria. Lo del bote yo lo veo una fotocopia de lo del auzolan, siempre en común. Aparte la txapela que es distintivo de aquí y el color del traje de las chicas que es azul como el color del mar. Es el traje típico vasco…*
>
> *(Gizarte mugimenduen taldea)*
>
> *Hemen ohitura da denok eseritzea mahai inguru batean, bazkari bat, afari bat…*
>
> *(Gazteak, euskaldunak, Tolosa)*
>
> *Hemen asko azpimarratzen da asko ibiltzen garela kuadrilan eta beraiek baino gehiago, eta oso gutxi aldatzen dugu. Kanpoko jendeak aldatzen du, hemen itxiagoa* da…
>
> *(Gazteak, euskaldunak, Tolosa)*

Taldeek ohartarazi duten legez, EAEren kasu zehatzean kulturaz hitz egiteko bizimoduak eta baloreak aipatzeak identitate zantzuen gainean mintzatzea dakar eta, zehatzago, ondoko alderdiak jorratzea:

- Elkartasuna
- Izaera aldarrikatzailea[6]

6. Euskal gizarteari lotutako izaera aldarrikatzaileari dagokionez, aipatu beharra dago talderik gehienek (euskal kultura euskaraz egiten dena baino ez dela defendatzen duten taldeek ere) Euskal Herrikotzat jo daitezkeen gaztelaniazko kultur adierazpenen existentzia onartzen dute; gaiek eta sortzaileen jarrera aldarrikatzaileak euskaltasun hori ematen diete. Horixe gertatzen da “euskal rock erradikal” ezagunaren kasuan. Hori ez dago hain argi Euskal Herriko gaiekin zerikusirik ez duten gaiak jorratzen dituzten bestelako artisten kasuan.

- Taldeka antolatzeko gaitasuna eta lan bateratua aurrera eramateko tresnak sortzeko ahalmena
- Ekintzaile izaera
- Jendearen izaera itxia
- Agurtzeko eta hitz egiteko modua

Ziurtatzen denez, honako hauexek dira euskal gizartea definitzen duten eta inguruko beste gizarte batzuetatik bereizten duten ezaugarrietariko batzuk; horrenbestez, ezaugarriok berezko kultur ondasuna osatzen dute.

Ondasun horretan sakonduz eta taldeek adierazitakoa kontuan hartuz, aipatzekoa da euskal kulturaren barruan kolektibotasunarekin zerikusia duten adierazpenek daukaten garrantzia. Kolektibotasunak euskal kulturan duen gailentasunaren erakusgarri dira ondoko alderdi hauek guztiak:

- Gastronomia eta mahai baten inguruan biltzeko usadioa
- Familia
- Koadrila
- Poteoa (edo tabernetan kontsumitzeko egiten den erronda)
- Botea (taldeak egindako gastuetarako fondo komuna)
- Auzolana
- Jaiak
- Bizimodua, auzoetako giroa
- Gastronomi elkarteak

Kultura, taldeek "gure kulturatzat" hartzen dutena, adierazpen kolektibo hauetan islatzen da gehien: horiexek dira euskal kultura egin eta berregiten deneko eremuak, betiere zentzu zabal eta lotesle bati jarraituz. Taldeek baieztatutakoari jarraituz, kultura horren partaideak den-denok gara eta, hala denez gero, guzti-guztion kultura modura errespetatu eta berresten da.

Gauzak horrela, kulturak zerikusia dauka euskal herritarrak bizimoduan, harremanetan eta adierazpenetan bereizten dituen guztiarekin. Ez dira hainbeste aipatzen antzinako usadioak, baizik eta bizimoduak, gauzak egiteko erak, egunerokotasunean agerian jartzen diren nortasun zantzuak, hau da, egunerokotasunean, maila txikietan, pertsonalagoetan, gizabanakoen esperientzia subjektiboari lotuago dauden horietan azaltzen diren nortasun ezaugarriak. Konfiantza eta erosotasun eremu horietan jarrera integratzailea sumatzen da eta alde batera uzten dira haustura, krisia eta ezinegona sorrarazten duten osagai guztiak. Oztopoak eta arazoak kanpoan daude, baina gertuen sentitzen eta definitzen diren kultur alderdiak nabarmentzeko ahaleginak daude, gehienbat. Ikusmolde honek, gainera, berekin dakar "collage" identitate bati lotutako kulturaren kontzepzioa, zatiz eta atalez eginikoa, norbanakoari elkarbizitza erosoa ahalbideratzen dioten askotariko erreferentzia eta osagaiak hartuz. Identitate horrek desberdintasuna ("euskal herritarra izatea") dibertsitatearekin ("euskal herritarra izatea" eta gainera beste identitate batzuekiko elkarbizitzaren alde egitea) uztartzen du[7].

Horrela bada, pertsona bakoitzak uneanunean aukeratzen ditu bizi den ingurunean mugitzeko egokienak diren elementuak; hartara, praktikara joz, egunerokotasuna da nortasuna eraikitzen diharduena. Horixe da pertsonek egunero bizitzeko eta sortuz doazen gatazkak konpontzen ahalegintzeko erabiltzen duten bidea. Tentsio txiki horiek (edo beharbada ez hain txikiak) familiartean ere gerta daitezke. Adibidetzat har daiteke taldeetariko batean aipatutako kasua; izan ere, horretan gizonezko batek adierazi zuen berak ez zuela bere burua euskal herritartzat jotzen, ia bizitza osoa EAEn bizitzen eman arren, baina naturaltasunez onartzen zuen semeak bere burua euskal herritartzat hartzea eta ukatzen zuen horrek familiarteko gatazkarik sor zezakeenik.

Bizitzeko kulturatzat hartu dugun eremu honetan aritu dira taldeak, orokorrean, gustu handienez. Kulturaren gainean hobeto eta ondoen ezagutzen duten ideia da, azken batean euren bizimoduari, nahiei, gustuei, bizipenei... lotutako kultur nozioa da. Gainera, eremu irekia, malgua eta aldabera da eta bertan disolbatzen dira beste esparru batzuetan azaldutako desadostasunetariko asko.

7. Pertsona bakoitzak bere euskal izaera berregiten dihardu, hau da, euskal herritar gisa gizarteratu eta berriro gizarteratzen da, askotarikoak diren osagaien stock batetik abiatuz eta horiek modu ikaragarrian konbinatuz. Gaur egungo kultur mundua askoz mundu zabalagoa da, politikaren, sozio-ekonomiaren edo lanaren esparruak baino aldaberagoa. Euskal Herriaren kasuan, honako hau argi eta garbi azaltzen da.

Edozein kasutan ere, euskal kulturaren gaineko diskurtsoan eremu horrek hartu duen protagonismoa neurri batean mugatuta dago kontzeptu zehatzetan islatzeko dauden zailtasunak direla eta. Eguneroko kulturaren heterogeneotasunak ez dauka islarik izen eta erreferente jakinetan eta definizio hau osagai zehatzetan islatzeko ahaleginek euskal kulturak berak dituen zailtasunen berri ematen du, betiere eztabaida politikoaren eta horren dimentsio mediatikoaren inertzietatik aldentzen diren aurrerabideak aurkitzeko.

Horren ondorioz, baiezta daiteke bizitzeko kultura edo eguneroko kultura horren ezaugarri nabarmenena dela jaso eta aztertutako diskurtsorik gehienetan adostasunez onartzen dela; hain zuzen ere, besteak beste ondoren zerrendatzen diren ezaugarriak biltzen dituen esparru konplexua eratzeko ahalmena daukalako:

- Harreman eta elkarbizitza eremua: eremu horretan ez da kultura baten eta bestearen arteko mugarik bereizten; nahasketa eta bategitea nagusitzen dira.

- Bizipen eta egunerokotasun eremua: eremu honetan pertsonek kultura, batez ere bizi egiten dute; norbanakoek kultura bizi egiten dute eta horren zati dira.

- Etengabeko bilakaera, egokitzapen eta aberastasunaren eremua: zirkunstantziek ezarritako premien arabera mutatzen eta eraldatzen den eremua.

Globalizazioaren eta homogeneotasunaren kontzeptuak aldarazten dihardu eguneroko kultura eta kultur ohiturak. Batez ere belaunaldi berrien usadioak azpimarratzen dira, aldaketa horiek eragitean garrantzitsuenak direlako. Horrela bada, poteo tradizionala ordezkatzen dabilen osagai legez, botila tzarraren gaia aipatu da.

Honaino iritsi da euskal kultura osatzen duten elementuen gainean sortutako diskurtsoei buruzko ikuspegi orokorra. Jarraian, euskal kultura zedarritzean azaltzen diren ikuspegi desberdinen berri ematen duten ñabarduretariko batzuk jasotzen dira.

1.7.2. Ikuspuntuak

Euskaldunen eta ez euskaldunen arteko desberdintasuna da euskal kulturaren gaineko ikusmoldeak aztertzeko orduan ñabardurarik interesgarrienak ematen dituen aldagaia.

Desberdintasun hauek tradizioaren nozioan agertzen dira lehendabizi: tradizioaren nozioa. Tradizioarekiko eta berori ikusteko moduarekiko harremanen berri ematean euskaldunen eta ez euskaldunen arteko topagune eta antzekotasunak daudela egiazta daitekeen arren, argi dago batzuek eta besteek nabarmen aldatzen diren lotura mailak dituztela ohiturei edo folkloreari dagokienez.

Pertsona euskaldunen diskurtsoan, tradizioa euskal kulturaren barruan oso preziatua den osagaitzat hartzen da. Balio hori ematen zaio tradizioaren aberastasuna eta heterogeneotasuna onartzen delako eta batez ere historiako une askotan jasan behar izan dituen zailtasunei aurre egiteko eta bizirauteko gaitasuna izan duelako. Gauzak horrela, kolektibo honen ustetan, Euskal Herrikoaren antzeko beste gizarte batzuetan tradizioak indarra galdu eta desagertu den bitartean, Euskal Herriaren kasuan honek bizirauten jakin du, aurrera egiteko bidea eman dioten egokitzapen mekanismoak martxan jartzeko gauza izan delako. Horixe da tradizioaren defentsari indarrik gehien ematen dioten argudioetariko bat, errespetua eta nolabaiteko mirespena erakusten dituena.

Berresten denez, tradizioak bizirik dirau eta bizitasuna dauka berori zaindu eta garatzeko zereginean inplikaturik jarraitzen duten pertsona guztiek ematen dioten laguntzari eta eskaintzen dioten lanari esker. Pertsona horiek militantzia eta kemen dosi handiak dituztela aitortzen da, bestela oso zaila litzateke eta tradizioaren biziraupena ziurtatzea.

Azkenik, talde euskaldunek tradizioa dinamizatzeko eta zirkunstantzia berrietara zabaldu eta garatzeko erakutsitako interesa azpimarratu beharra dago. Ez tradizioa (landa ingurunean errotuago dagoena), ez eta orokorrean euskal kultura ere, ezin dira isolaturik egon; horrela bada, euskal tradizioaren nazioarteko izaera irudikatzen duten elementuen garrantzia azpimarratzen da (Kepa Junkera, esate baterako) eta irekiera ildo horretan ahalegin gehiago egitea eskatzen da, ez bakarrik kanpoko edo nazioarteko eremuari begira, barrukoari begira baizik. Horretarako, ikus-entzule berriak topatzen saiatu beharra dago (urrutiago joan gabe, ikus-entzule ez euskaldunak; izan ere, onartzen denez, neurri handi batean euskal tradizioaren ikur askotatik kanpo gelditzen dira).

Talde ez euskaldunek, ostera, bestelako jarrera dute, tradizioa eta berori osatzen duten elementuak desberdin baloratzea eragiten

duena. Horrela, diskurtso ez euskaldunaren arabera, mundu hori guztia iraganari lotuta agertzen da eta pixkanaka-pixkanaka indarra galtzen ari den eremutzat hartzen da. Baieztatzen dutenari jarraituz, euskal gizarte eta kulturaren bereizgarriak izan diren elementuetariko asko gero eta zaharkituago azaltzen dira. Horixe izan liteke oso erroturik eta sustraiturik dauden poteoa bezako ohituren edota erakunde batzuen kasua, hala nola gastronomia elkarteena. Tradizioa arian-arian albo batera uzteko joera hori ohiturak nahiz bizimoduak homogeneizatzeko dinamiken ondorioa ez ezik tradizioak eta gizarteak berak bilakatzeko duten izaeraren ondorioa ere bada. Baieztatzen denez, kultura eta tradizioa ere eraldatzen dira, ez dira irmoak.

Azkenik, tradizioaren indar galtzea azpimarratzeaz gain, diskurtso ez euskaldunak euskal kulturaren ohituren eta elementurik folklorikoenen eremuarekin zerikusia duen guztiari buruzko ikuspegi kritikoagoa du. Horrela bada, diskurtso batzuk kontuan harturik, tradizioaren irudi monolitikoa marrazten da eta, ziurtatzen denez, hausturarik gabeko tradizioa onartzeko betebeharra nabarmentzen da, inolako kritikarik edo zentsurarik onartzeke. Nolanahi ere, diskurtsoaren beste zati batek dioenari jarraituz, egia da tradizioaren gauza batzuk gustagarriak izan daitezkeela eta beste batzuk batere ez. Talde ez euskaldunetariko batzuek ziurtatzen dutenez, euskaldunek ez dute beti aukera hori onartzen. Gauzak horrela, nolabaiteko autokritika falta dagoela iradokitzen da, betiere euskal kultura ikusteko eta ulertzeko beste modu batzuk daudela berretsiz, sarritan aintzakotzat hartzen ez diren arren. Ildo honi jarraituz, hainbat ahotsek azpimarratu dute euskaldunek euren tradizioarekiko izaera obsesiboa dutela eta jarrera hori, orokorrean, kultura eta nortasunera zabal daitekeela. Hartara, pertsona hauetariko batzuen iritziz, gai hauekiko kezka eta ardura gehiegizkoa da –baita gogaikarriak ere– eta bakarrik justifika daiteke frankismo sasoian barrena bizi izandako errepresioaren ondorioz.

Hau guztiau gorabehera, adin gehiagoko jendea dagoen taldeetan ohituren eta tradizioen aldeko jarrera handiagoa dago (horien barruan euskal kultura ere sartuz), betiere globalizazioaren arriskuak aipatzen direnean.

Tradizioaren eremua alde batera lagaz eta arreta sorkuntzaren munduan jarriz, aipatzekoak dira hemen ere euskaldunen eta ez euskaldunen ikusmoldeen artean dauden desberdintasunak.

Lehenengo kolektiboa kontuan hartuz, adierazi beharra dago orokorrean euskal sorkuntzako unibertsoa eta, bereziki, euskaraz egindakoa, hurbilagotik eta sakonago ezagutzen duela. Espero zitekeenez, euskaldunak dira euskal kulturakotzat hartutako erreferenteen kontsumoaren alde argien agertzen direnak (euskarazko produkzioaren kontsumoan aldea are handiagoa delarik) eta sorkuntzako euskal unibertsoa hobeto ezagutzen dutenak. Gertaera hau azal daiteke kasu askotan tradizioaren eta sorkuntzaren munduaren arteko ageriko continuum bat dagoelako; horrela, biak elkar elikatzen duten eta elkarri eragiten dioten erreferentzi munduak dira: dantzaren edo musikaren kasua da; izan ere, taldeek ziurtatzen dutenari jarraituz, eremu horrek tradiziotik edaten duen arren (txalaparta, trikitixa…), bilakatzen eta era nahiz adierazpide berriak topatzen jakin du.

Talde ez euskaldunen diskurtsoa aztertuta, esan daiteke gutxiago kontsumitzen dutela eta ez dutela hain ondo ezagutzen euskal kulturako sorkuntza eta ekoizpen eremua. Euskal kulturako diagnostikoan oihartzunik txikiena duen esparrua hori bada, talde ez euskaldunen kasuan gabezia hori nabarmen handitzen da. Kontrapuntu modura, azpimarra liteke euskaldunen eta ez euskaldunen artean aski erakargarriak diren adierazpide batzuk daudela, esate baterako kirol adierazpenekin zerikusia duena (adibidez euskal pilota) eta, bereziki, musika; esparru horiek hedapen eta zabalkunde handiagoa izan dute edo gaitasun handiagoa ikus-entzule berrien eskarietara eta nahietara egokitzeko.

Halaber, talde ez euskaldunek euskal kulturako ekoizpenaren inguruan egiten duten azterketa albo batera utzi gabe, nabarmendu beharra dago kolektibo honi euskal kultura hurreratzeko euskal telebistak eta, batik bat, bigarren kateak bete duten oinarrizko zeregina; bestelako iritziak gorabehera, osagai honek benetako kultur leiho baten eginkizuna bete du euskal kulturaren eta haren adierazpideen errealitatetik urrutien dagoen kolektiboari begira.

Era berean, bizitzeko kulturari buruzko azterketari men eginez, aipatzekoa da talde ez euskaldunak (eta horien artean pertsonarik gazteenek osaturikoak) izan direla nozio hau eta haren adierazpide desberdinak gehien garatu dituztenak. Hori guztiori gauza logikoa da, baldin eta kontuan hartzen badugu elementu mota hauek euren nortasuna berezko modu batean eta eraginkortasunez finkatzea ahalbideratzen

dien ideia sendotzen dutela, horrelako funtziorik betetzen duen hizkuntzarik ez dagoelako. Ez dakiten hizkuntza edo gehiegi identifikatzen ez diren tradizioak albo batera utzita, bizitzeko kultura edo eguneroko kultura da euskal herritar gisa euren kultura eta nortasuna definitzeko loturak ezartzen dituena. Horrela bada, loturarik sendoenak ezartzen dira betidanik ikusi, entzun, usaindu, sumatu eta bizi izan duten guztiarekin, ingurunearekin, oro har.

Euskalduna edo ez euskalduna izateaz gainera, beste aldagaietariko bat adina da; faktore honek ñabardura interesgarriak sartzen ditu azterketan. Gehien nabarmentzen denetariko bat gazteek eta helduek kultura tradizio modura definitzean erakusten duten jarrera desberdina da. Euskaldunak edo ez euskaldunak izanagatik ere, nagusien taldeak ohiturekiko eta folklorearen adierazpideekiko atxikimendu handia azaltzen du, gorde beharreko gizarte ondasuntzat hartuz. Euren ustetan, neurri handi batean tradizioan daude herri baten muina, berezitasuna eta identitate zantzuak; horren ondorioz, tradizioa zaindu eta defendatu beharra dago. Gauzak horrela, euskal tradizioen defentsa ez euskaldunen artean ere garrantzirik gehien ematen zaion kultur esparruetariko bat da.

Gertaera horretan bi prozesuk eragina izan dutela dirudi: batetik hizkuntza eta euskal kultura normalizatzeko prozesuak (horrek, tradizioak diktadura eta transizio demokratikoaren garaian zituen konnotazio batzuk galtzen lagundu du) eta bestetik tradizioak belaunaldi gazteenen artean izan duen garrantzi galerak, bai erreferentziazko funtsezko balore gisa bai kontzeptu gisa ere. Horri guztiari erantsi behar zaio gazteriaren zati garrantzitsu batek ez duela behar beste ezagutzen kultura tradizionala, betiere gehien ikusten diren osagai folklorikoak salbuetsita. Egia da gazte askok tradizioez gozatzen dutela, baina, orokorrean, baiezta daiteke nahikoa kritiko azaltzen direla bertsiorik estereotipatuenarekin eta euren harremanen munduan eta egunerako ekintzetan sumatzen duten errealitatetik urrutien ikusten duten elementuetatik aldentzen direla.

Amaitzeko, aipatu behar dira landa edo hiri inguru batek kulturaren irudikapenetan txertatzen dituen desberdintasunak. Kasu honetan, desberdintasunik nabariena kultura bizitzeko eta ikusteko moduan sumatzen da. Hiri ingurunean kultura –batez ere kultura tradizio modura eta kultura sorkuntza modura– norbanakoarengandik kanpo eta bereiz dagoen zerbait balitz bezala ikusten da; landa ingurunean, aldiz, kulturaren kontzeptua, orokorrean, askoz estuago lotzen zaie pertsonen bizipenei, erlazio esparruari eta giza inguruneari nahiz ingurune fisikoari. Gauzak horrela, landa inguruneko biztanleen kultur historia identifikatuago agertzen da tokian tokiko tradizioekin, gastronomiarekin, herri pertsonaiekin, erlijio jardunekin, natur inguruneakiko erlazio estuarekin, bizimodu tradizionalekin eta elkarbizitza eremu garrantzitsuetan (tabernak, plazak, auzoak) izaten diren gizarte usadioekin. Landa ingurunean ohiturak, folklorea, biziago daudela ematen du eta gazte jendearen artean ere nolabaiteko kezka eta ardura dago tradizioak (dantzak, euskal pilota…) berreskuratzeko eta zaintzeko.

1.7.3. Alderdi ebolutiboak diskurtsoan

Euskal kulturak bere eremua eta garapenak zehaztu gabe jarraitzen du. Politikak euskal kulturaren osagai eta ezaugarrien definizioan duen eragina garrantzia galduz doala dirudi arian-arian, baina ideologiak duen eraginak oraindik ere desitxuratu eta baldintzatzen ditu eztabaidak. Gizarteak aurrera egin behar du kultura parametro berrien arabera berrinterpretatzeko zereginean. Horixe da, behintzat, talderik gehienek euren diskurtsoetan transmititzen duten mezua. Parametro horiek, besteak beste, kulturak etorkizuneranzko bilakaera izatea bilatu behar dute, erreferente berriak aurkeztuz eta kultur esparru partekatu baten estereotipoak, gabeziak, dikotomiak eta garapenerako oztopoak gainditzen laguntzeko erronka berriak azalduz.

Ildo honetatik, nabarmentzekoa da unibertso euskaldunari lotutako kulturaren (euskal kulturaren) eta euskaratik kanpoko eremuan kokatzen diren kultur adierazpenen arteko hurbilketa eta elkartrukea ahalbideratzen duten bideak eta bitartekoak bilatzeko premia, euskararik ez dakitenak, gaur egun ezagutzen ez dituzten euskarazko unibertsoko kultur adierazpenetara hurbiltzeko. Komunikazio formulak bilatu behar dira, bi unibertsoetako erreferenteek lekua izango duten kultur eremua, bi kolektiboek ezagutu eta kontuan hartzen dituzten erreferenteen kultur eremua sortu ahal izateko. Gaur egun, badirudi euskaratik kanpoko kultur unibertsoa ezaguna dela guztientzat, baina ez dela gauza bera gertatzen kultur unibertso euskaldunarekin. Kultur eremu horren sorkuntzak, hizkuntzaren gaineko minimoen akordio bat eskatuko luke. Izan ere, gaur-gaurkoz, oraindik ere, bizitzeko kulturaren edo eguneroko kulturaren esparruan haustura, gatazka eta tentsioa eragiten jarraitzen duen osagai nagusia hizkuntza da.

Ahaleginak egin behar dira euskararen inguruan sortzen den ezinegona eta larritasuna gainditzen lagunduko duten bideak eta baliabideak bilatzeko; izan ere, biztanleriaren zati bat ez dator bat orain arte abian izan den hizkuntz politikarekin eta herritarren beste zatiak zailtasunak izaten ditu hizkuntz eskubideak normaltasunez garatzeko.

Diskurtsoetan kulturaren gaineko jarrera eta iritzi desberdinetan azaldu diren eskaerak kontuan hartzen dituen ikuspuntu batetik abiatuz, jarraian azalduko dira euskal kulturaren gaur egungo eremuan aldarazpenak sartzera zuzendutako ideia eta gogoeta batzuk.

Lehenengo eta behin, euskal kultura eta haren adierazpide guztiak hedatzeko apustua egin behar dela berretsi beharra dago; gainera, horren ezagupidean sakondu behar da, ikerlanari eta esperimentazioari lagunduz. Antzeko eskaera egin da tradizioari dagokionez: taldeek azpimarratu dutenez, tradizioak bilakaera egokia izan eta kulturaren gainerako elementuekin bizitzeko bideak bilatu behar ditu. Hartara, diskurtsoetan azaltzen den jarduketa ildo bat tradizioaren osagaiak berreskuratzea da, modernitaterantz bilakarazteko kulturen arteko topaguneek eta gizarte garaikideetan ohikoak diren bategiteek eskatzen dituzten ardatzei jarraiki. Hori guztia euskal kulturaren berezitasunari eusteko egin beharra dago, oraingo eta etorkizuneko bilakaera eta egokitzapena erraztuz; horren bitartez, nortasun zantzurik tradizionalenak (hizkuntza, ohiturak, folklorea eta abar) desagertzeko mamuaren ideia ere desegingo da.

Hari honetatik, bada, komenigarria izango litzateke kultura erreferente berrien arioan zabaltzeko bidea ematen duten osagaiak bilatzen lan egitea; erreferenteok balio izan behar dute gaur egungo premiei erantzuteko eta egunerokotasunaren eremuetan izaten diren elkarbizitza eta elkarrizketa ahaleginak islatzeko.

Amaitzeko eta laburpen modura, euskal kulturaren kontzeptualizazioa hedatzeko eta handitzeko etengabeko eskaria berretsi behar da. Premia horrek kulturaren aberastasunari eta berezitasunari eusteko erronka aurkezten du; era berean, komunikazio eta elkartrukerako bideak bultzatzen ditu, ez bakarrik beste gizarte eta kultura batzuekin, baizik eta bere barruan dituen gainerako errealitateekin. Ildo horretatik, kolektibo ez euskaldunarengana iristeak helburuetariko bat izan behar du, garapen eta hedapenerako interes eta akuilurik handienetariko bat.

EUSKAL KULTURA OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK

Aurkezpen orokorra

Kultura tradizio modura

- **Tradizioak toki garrantzitsua betetzen du euskal kulturaren mugak definitzean.** Taldeek tradizioaren garrantzia azpimarratzen dute euskal kulturaren osagaiak zehazteko orduan. Egia esan, tradizioak jarraitzen du euskal kulturako esparrua kontuan hartzeko oinarrizko erreferentea izaten.

- **Tradizioak harreman nahasiak eta arazotsuak sorrarazten ditu**. Alde batetik, diskurtso politikoaren zati batek tradizioa bere egiten duela aipatzen da. Beste alde batetik, gaur egungo testuinguruan kokatzeko eta izaera garaikideagoa emateko zailtasuna aipatzen da.

- **Tradizioa eta taldeek azpimarratzen dituzten alderdiak:**
  - Izaera berezia.
  - Tradizioaren eta haren estereotipoen arteko erlazioa. Taldeek baieztatzen dute estereotipoak ez direla kultur eremua garatzeko onuragarriak; izan ere, sarri askotan kulturaren irudi zurrun eta zaharkitua ematen dute.
  - Tradizioa gaur egungo testuinguru eta errealitatetik ulertzeko premia.
  - Galera, gainbehera eta ezjakintasun sentsazioa; interes handiagoa sorrarazten du kanpotik datorren guztiak.
  - Tradizioak euskararen eta landa ingurunearen arteko lotura berresten du, hizkuntza garatzeko aukerak mugatuz.

Kultura sorkuntza modura

- **Sorkuntza euskal kultura egituratzeko osagai modura**. Taldeek kultur ekoizpenak eta sorkuntzak euskal kulturaren barruan duen garrantzia nabarmendu dute. Hori guztiori gorabehera, sorkuntzaren mundua (erreferenteak, protagonistak) diskurtsoetan duen garrantzi txikia azpimarratu beharra dago.

- **Sorkuntza eta taldeek azpimarratzen dituzten alderdiak:**
  - Euskal kulturaren ekoizpen, hedapen eta kontsumoari lotutako arazoak. Taldeek ondoko arlo hauekin zerikusia duten akatsak azpimarratu dituzte:
    - Ekoizpena.
    - Hedapena.
    - Kontsumoa.
  - Sorkuntza eta originaltasun falta kritikatzen da eta beste produktu batzuk kopiatzeko dagoen joera.
  - Euskal Herrian gaztelaniaz eta euskaraz garaturiko kulturek elkarrekin topo egiteko eremuak sortzeko premia. Talde hauetariko batzuen esanetan, musika bateratze eremu mota horien adibide modura erabil liteke.

EUSKAL KULTURA OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK

Aurkezpen orokorra

Bizitzeko kultura edo eguneroko bizimodua

4 **Eguneroko kultura eta gizartea, ingurunea eta kulturaren arteko harreman estuak.** Taldeek eguneroko kulturaren bereizgarri den izaera zabala aipatzen dute; ideia horrek bere gain hartzen ditu pertsonak inguratzen dituena eta beraiek ekoizten dutena. Horrela, elementu materialak eta inmaterialak sartzen dira, hala nola izaera, nortasuna, lan egiteko era, antolatzeko modua eta abar.

4 **Eguneroko kultura eta berori osatzen duten elementuak**:

- Elkartasuna.
- Izaera aldarrikatzailea.
- Taldeka antolatzeko eta batera lan egiteko gaitasuna.
- Izaera ekintzailea.
- Jendearen izaera itxia.
- Elkar agurtzeko eta hitz egiteko modua.

4 **Eguneroko kultura eta haren adierazpideak:**

- Gastronomia eta mahai baten inguruan biltzeko joera.
- Familia
- Koadrila
- Poteoa
- Botea
- Auzolana
- Jaiak
- Auzoetako giroa, bizimodua
- Gastronomia elkarteak

4 **Eguneroko kultura gure kulturaren sinonimo bezala.** Bizitzeko kultura edo eguneroko kultura guztiok partaide egiten gaituen euskal kultura kokatzeko eremua da.

4 **Eguneroko kultura, ondoko ezaugarriak dituen eremu konplexu modura**:

- Erlazio eta elkarbizitzarako eremu bat.
- Eguneroko bizipen eremua.
- Etengabeko bilakaera, egokitzapen eta aberaste eremua.

Ikuspuntuak

4 **Ikuspuntu desberdinen oinarrian dauden aldagaiak:**

- Euskaldunak/ez euskaldunak:

Tradizioari dagokionez, euskaldunen ikuspuntutik, tradizioa euskal kulturaren barruan oso preziatua den osagaitzat hartzen da eta aurkako egoerei aurre egiteko izan duen gaitasuna goresten da. Beste alde batetik, tradizioa garatzeko premia azpimarratzen da, garai berrietara egokitzeko eta kultura osoa zabaltzen laguntzeko. Ez euskaldunen ikuspuntuari jarraituz, tradizioa iraganari lotuta dago, gainbehera. Baieztatzen denez, arazoa handitzen da eremu euskaldunaren sektore jakin batek jarrera monolitikoa erakutsi eta tradizioari egindako edozein kritika baztertzen duelako.

Sorkuntzaren eremuan ere kolektibo euskaldun eta ez euskaldunaren arteko aldeak ikusten dira. Horrela, lehenengoak, orokorrean, hobeto eta sakonago ezagutzen du sorkuntzaren unibertsoa eta esparru horretatik gertuago dago. Ez euskaldunek, berriz, euskal kultura gutxiago kontsumitu eta ekoizpena ere gutxiago ezagutzen dute. Egoera hori nahikoa hobetzen da gazte ez euskaldunen artean.

EUSKAL KULTURA OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK

Ikuspuntuak

Bizitzeko kulturari gagozkiola, aipatzekoa da talde ez euskaldunak direla nozio hau eta beraren adierazpenak gehien garatzen dituztenak. Ez dakiten hizkuntza edo gehiegi identifikatzen ez diren tradizioak albo batera utzita, bizitzeko kultura edo eguneroko kultura da euren nortasuna euskal herritar gisa definitzeko bidea ematen diena.

- Gazteak/Helduak: **tradizioari** dagokionez, helduen kolektiboa da, orokorrean, ohitura eta adierazpide tradizional eta folklorikoenekiko lotura handiagoak dituena. Gazteek, aldiz, urrunago.
- Landa/hiri ingurunea: hiri ingurunean **tradizioaren kultura** gizabanakoengandik kanpo eta bereiz dagoen zerbait bailitzan ikusten da. Landa ingurunean, ostera, pertsonen bizipenei, ingurune fisikoari eta giza inguruneari lotuago dagoela ikusten da.

Alderdi ebolutiboak diskurtsoan

4 **Euskal kultura eta haren eremu nahiz garapena zehazteko premia**. Kultura parametro berrien arabera berrinterpretatzeko premia azpimarratzen da.

4 **Euskal kultura eta hurbilketak eta elkartrukeak sustatzeko beharra.** Euskaldun eta ez euskaldunen hurbilketa bultzatzeko beharra azpimarratzen da, betiere kultur eremu partekatuak sorraraziz. Eremu horietan hizkuntzak bete beharreko tokiari buruzko minimoen akordioak hartu beharko dira.

4 **Euskal kulturaren eta beraren adierazpideen hedapena eta haien ezagupidean sakontzea**; hori guztia helburu modura azaltzen da eta horretara iristeko aurrerapausoak eman behar dira ikerketa eta esperimentazioaren bitartez.

4 **Erreferente berriak bilatzeko beharra**. Kultura erreferente berrien bitartez zabaltzeko elementuak bilatu behar direla ikusten da.

4 **Euskal kulturaren kontzeptualizazioa zabaltzea eta handitzea**. Komunikazio eta elkartrukerako bideak uztartzeko premia ikusten da, betiere euskal kulturaren aberastasunari eta berezitasunari eutsiz.

1.8. EUSKAL KULTURAREN ETORKIZUNA

1.8.1. Aurkezpen orokorra

Euskal kulturaren definizioan inplizituki dauden alderdiak zehatz-mehatz aztertu eta osagai nagusitzat hartzen direnak –tradizioa, sorkuntza eta bizitzeko kultura– sakonki ikertu eta gero, ikerketa taldeak egoki iritzi zion elkarrizketaturiko talde eta pertsonekin etorkizunari begirako ariketa txiki bat egiteari; horrela, euskal kulturaren geroari begiratzea eskatu zaie.

Ez da gai erraza eta, horren inguruko erantzun argi eta sendoak lortu beharrean, duda-mudak eta zalantzak erdietsi genituen eta, kasurik onenean, batik bat nahi eta asmoen azalpena. Orokorrean esan daiteke etorkizunari buruzko diskurtsoetan baikortasun eta konfiantza giroa dagoela, baina onartzen da ez dela erraza izango. Euskal kulturak bultzada handia behar du, bai eta dinamizazio garrantzitsua ere. Txosten honetan agerian jarri den bezala, euskal kulturari irekiera, gaurkotasun, bilakaera eta, batez ere, garaikidetasun dosi handiagoak eskatzen zaizkio.

Ideia lauso eta zehaztugabe hauek taldeetan bi elementu giltzarri eta jakin topatu dituzte: globalizazioaren eta inmigrazioaren fenomenoak. Batak zein besteak euskal kulturari neurri handi batean egiten zaizkion eskaerak biltzen dituzte, bai eta XXI. mendeari begira azaltzen diren asmoak nahiz beldurrak ere. Hori guztiori kontuan harturik, azken atal honek gehienbat globalizazioaren eta inmigrazioaren azterketari heldu nahi izan dio, ikerketan esku hartu duten ahotsek diseinaturiko etorkizunaren eszenatokian izango duten protagonismoa aintzat hartuz.

Globalizazioa euskal kulturaren eztabaidaren inguruan arretarik gehien erakarri duten gaietariko bat izan da zalantzarik gabe. Hainbat unetan azaldu da kontu eta gai ugariri lotuta. Horrenbestez, euskal kulturaren etorkizunari ez ezik gaurkotasunari ere eragiten dioten kezka eta ardura askotan agertu da gai hau. Oro har adieraz daiteke globalizazioak bi irakurketa edo interpretazio mota sorrarazten dituela. Lehenengoak azpimarratzen ditu euskal kultura garatzeari begira positiboak izan daitezkeen hainbat alderdi; bigarrenak, ordea, nabarmentzen ditu globalizazioak euskal kulturaren eta nortasunaren eremuari ekar diezazkiokeen ondoriorik negatibo edo ezkorrenak.

Argudio positiboetarik ondokoak azpimarratzen dira:

- Ezagutza zabaltzeko aukerak: globalizazioaren gertakaria komunikazio tresna eta bideen gorakada izugarriari lotuta agertzen da; horren ondorioz, informazioa eman eta jasotzeko aukerak ere izugarri handitzen dira. Fluxu edo emari hori, printzipioz, positibotzat hartu beharra dago, kultura eta nortasuna aberasteko eta hazteko aukera garrantzitsua delako.

- Kulturen arteko harreman eta nahasketarako aukerak: globalizazioak eta aipatu berri den informazio nahi komunikazio fluxu horrek pertsonen eta kolektiboen arteko ukipen handiagoa eragingo dute eta hori guztia talderik gehienek oso modu positiboan baloratzen dute. Ezagutzaren bitartez beste errealitate batzuetara hurreratzea globalizazioak eskaintzen dituen aukeretariko bat da eta hori berariaz azpimarratzen da. Ukipen horretatik sor daitekeen nahasketa globalizazioak berez duen eta taldeek eta, batik bat, gazteek erakargarritzat jotzen duten potentzialitateetariko bat da. Ez dute zalantzarik nahasketa horretatik, orokorrean, euskal kulturak hainbat onura jaso litzakeela.

> *Yo creo que va a ser una Euskadi, Euskal Herria, como queráis llamarla, mucho más interesante que ahor., mucho más bonita. Yo soy muy optimista en este sentido, y yo creo que la sociedad vasca está avanzando hacia mejor, en todos los sentidos. Vamos a tener una sociedad muchísimo más plural, pero muchísimo más abierta y muchísimo mas integradora, muchísimo más tolerante.*
>
> *(Gazteak, mistoa, Gernika)*

- Kanpora zabaltzeko eta hedatzeko aukerak: globalizazioaren alderdi positiboak aztertzean aipatu ohi den hirugarren osagaia kanpora zabaltzeko eskaintzen dituen aukerak dira. Horrela bada, Euskal Herriak beste kultura eta identitate batzuek emandako informazio eta ezagutza jasotzen duen heinean, bere kultur produktuak eta, orokorrean, idiosinkrasia esportatzeko bidea jorra dezake. Taldeek baieztatzen dutenari jarraituz, beste toki batzuk, beste herrialde batzuk hobeto ezagutzen ditugu eta, hortaz, kanpora komunikatzeko eta gure buruaren berri emateko tresna eta lanabes gehiago ditugu.

Edozein kasutan ere, hasieran adierazi den legez, globalizazioaren alderdirik positibo eta onuragarrienak aipatuagatik ere, gertaera berberak eragiten dituen zalantzak eta kritika garrantzitsuak ere agerian jarri behar dira. Horien artean, ondorengoak azpimarratu dira, besteak beste:

- Globalizazioaren emaitzek eragiten duten mesfidantza: globalizazioa norbanakoen bizimoduan protagonismo handiarekin sartu da eta gertaera honen aurrerakada ezin arinagoa izan da. Mundializazioari lotutako aldaketen azkartasunak eta sakontasunak errezeloak eragin ditu eta, batez ere, duda-mudak eta nahasmena: norantz goaz? Zalantza izpirik gabe, horixe da taldeek globalizazioaren inguruan adierazten dituzten kritiken azpian dagoen galderetariko bat.

> *Aunque se vaya abriendo porque va a venir mucha gente de fuera, pero tiene que mantenerse como es. Pero es difícil…*
>
> *(Helduak, ez euskaldunak, Bilbo)*

- Globalizazioaren, ekonomiaren eta kontsumismoaren arteko loturak: taldeek globalizazioaren gainean gehien kritika-

turiko alderdietariko bat da negatibotzat hartzen dituzten jazokizun ekonomikoekin, esate baterako, kontsumismoarekin duen lotura. Pertsona askoren iritziz, globalizazioa eta kontsumismoa benetako sinonimoak dira eta horixe da, horien ustez, mundializazioaren helbururik nagusienetariko bat: baliabideen, produktuen eta ondasunen kontsumoa ahalik eta gehien garatzea, kosta ahala kosta. Gogoeta eta iritzi mota hauek duten pisuak bigarren plano batean uzten dituzte globalizazioari lotutako beste esparru batzuk, esate baterako kultur esparrua. Ikusmolde hauen arioan, globalizazioaren onura guztiak zalantzan jartzen dira, gertaera honek interes ekonomikoarekin duen lotura dela eta.

- Kulturaren homogeneizazioa: taldeek globalizazioari buruz egindako diskurtsoan kritikarik gehien eragiten duen beste alderdietariko bat da kultur eta identitate bereizgarriak desegiteko, ahultzeko eta bultzatzeko duen botere eta ahalmena. Mehatxu hori gehiago nabaritzen da herri eta komunitate txikien kasuan; jasotako diskurtsorik gehienen esanetan, herri txiki horiek zailtasunak izango dituzte euren berezitasuna globalizazioak bultzaturiko kultura eta nortasun homogeneizatzearen aurka defendatzeko. Komunitate horien artean, jakina denez, gurea dago; izan ere, kulturaren eta ekonomiaren arloan duen garapen maila gorabehera, oraindik ere ez du baztertu hizkuntza edo gainerako kultur berezitasunak desagertzen ikusteko arriskua.

  > *…gaur egungo gazteak oso pijoak dira eta horrekin lortzen dena da guztiak uniformizatzea eta gure identitatearen gauza berezi horiek galtzen dira. Eta pijoa dena da pijoa hemen edo han, naiz eta euskaraz hitz egin. Eta horrekin galtzen dira pertsonak, berezitasunak, beste aisi motak…*
  >
  > *(Bizitza-historia, eremu politiko soziala)*

- Bizimoduak, bizitzeko kultura mota bat desagertzea: aipatu berri denari men eginez, globalizazioari egindako azken kritika bat azaldu beharra dago; izan ere, komunikabideen indarra erabiliz, fenomeno honek desegiten eta desagerrarazten du egunerokotasunaren bitartez, mikro eremuetan eta harreman pertsonalen esparruan, eraikitzen den kultura, bizitzeko kultura. Maila honetan identitateei zentzua ematen dieten desberdintasun eta alde txikiak nahiz kultur adierazpideak daude eta gizabanakoek horiekin oso identifikatuta ikusten dute beren burua; horrenbestez, taldeek baieztatzen dutenez, globalizazioak modu serioan mehatxatzen du egunerokotasunaren kultura hori, jazokizun honen helbururik nagusienetariko bat bizimoduak bateratzea eta gizarte dibertsitatea desagerraraztea delako.

Ikus daitekeenez, globalizazioari buruz hitz egitea, oraindik ere, balorazio anbibalente eta lausoei buruz mintzatzea da. Egia da diskurtsoetan elementu negatiboek garrantzia handia dutela, baina ezin adieraz daiteke horren inguruko adostasunik dagoenik. Balantza oraindik ere ez da makurtu ez alde batera ez bestera.

Argi dago, hala ere, globalizazioa pertsonek euskal gizarte eta kulturaren gainean egiten dituzten irudikapenetan dagoen errealitate bat dela, eta ez bakar-bakarrik orainaz hitz egiten denean, baizik eta batik bat etorkizuna irudikatzen denean.

Puntu honen hasieran esan den legez, taldeek etorkizunari begiratzeko egindako lanean beste protagonista bat ageri da, globalizazioarekin batera: inmigrazioa.

Taldeek adierazitakoaren arabera, esan daiteke inmigrazioa ez dela arazo bat EAEn. Ildo honi jarraituz, ahotsik gehienek onartzen dute, estatuko beste leku batzuetako egoeraren aldean, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren inmigranteen kopurua nahiko urria dela oraindik ere. Honi erantsi behar zaio taldeek errealitate berri honen inguruan transmititzen duten ezjakintasun sentsazioa. Ez dago diskurtso argirik, ez dute etorkinen gaineko irudi zehatzik, ez dakite nortzuk diren, non dauden edo zer egiten duten. Are gutxiago dakite haien premien, arazoen edo asmoen inguruan. Orokorrean esan daiteke inmigrazioaz hitz egiten dela eta gertaera horrek euskal gizartearen garapenean betetzen duen zereginaren garrantzia sumatzen dela, baina diskurtsoek ez dute askoz gehiago sakontzen. Ezjakintasun hori ikusirik edo beharbada horrek eraginda, kezkak eta zalantzak sortzen dira inmigrazioak etorkizuneko eszenatokietan beteko duen zeregina aurkezteko garaian. Arazoak igartzen dira, gauzak uztartu eta elkar ulertzeko zailtasunak; taldeek jakin badakite hizkuntza, bizimodu, erlijio eta harreman desberdinak iritsiko direla, baina ez dira

argi ikusten aldaketen norabideak, ez eta horrek guztiak ekar ditzakeen ondorioak ere. Zehaztu berri den bezala, begirada honek inmigrazioaren izaera konplexua sumatzen du, bai eta hurrengo urteetan izango duen protagonismoa ere, baina ez doa askoz ere urrunago.

> *...Gero badago beste fenomeno bat, etorkinak, kulturartekotasuna, orain gaia da baina aztertu beharrekoa eta hor beren kultur guneak ekarriko dituzte eta aniztasun horretan Nafarroan ez zaigula aitortuko gure tokia hartzea, esan nahi dut aniztasun horrekin, anitza da, esan nahi dut herri horretan. Eta erabiltzen ari dira Nafarroako gobernuan aniztasunaren kontzeptu hori, etorkinak eta beraien kultura hitzetan, zergatik, euskal kulturaren aurka egiteko. Kultur aniztasuna...*
>
> *(Hedabideen taldea)*

> *Estoy un poco obsesionada con el fenómeno de la inmigración. Sabemos lo que ha pasado en Europa, y tenemos la obligación de adelantarnos a lo que pasará. Sabemos lo que ha pasado en Cataluña. Tenemos que buscar la manera de que para los que no son euskaldunes las manifestaciones euskaldunes no sean un gheto. No podemos vivir en un gheto. Tenemos que convencer a los castellano hablantes de que hablar euskera no es hacer política, es enriquecerse...*
>
> *(Gizarte mugimenduen taldea)*

1.8.2. Ikuspuntuak

Etorkizunari eta horren islari bi gertakizun orokorren inguruan (globalizazioa eta inmigrazioa) heltzeko orduan, aipatzekoa da diskurtsoak bi gai horien gainean aztertzean ez dela desberdintasun handirik ikusten, txosten honetan erabilitako aldagaiei dagokienez (euskalduna/ez euskalduna, adina, landa edo hiri ingurunea etab.). Ñabardurak ikus daitezke eta, ildo horri jarraituz, adina izan daiteke ikusmoldeen arteko alderik esanguratsuenak txertatzen dituena.

Gauzak horrela, gazteenen diskurtsoan munduari zabalduago dagoen begirada ikusten da; begirada hori baikorragoa da, aldaketarako prestatuago dago. Gazte horietariko batzuek baieztatzen duten legez, belaunaldi berriek iragan eta etorkizunaren arteko transmisio uhala izango dira, eta horretarako mentalitate zabala eta nolabaiteko ausardia behar dira: estereotipoak apurtzeko eta ideia berriak garatzeko ausardia. Ikusmolde horren arabera, globalizazioak edo inmigrazioak ekar ditzaketen erronkak ez dira hain handiak, bi fenomeno horiek euskal gizarteari helarazten omen dizkioten eskaerak gazteek egin ditzaketen ekarpenei lotuago daudelako: euren esanetan, egokitzeko, aldatzeko eta moldatzeko gaitasun eta ahalmena.

> *Yo creo que en el futuro hasta los rumanos que vienen ahora, aprenden. Yo creo que hay un buen futuro con el tema del euskera, y la cultura vasca no se pierde aquí...*
>
> *(Gazteak, mistoa, Gernika)*

> *Yo creo que va a ser una Euskadi, Euskal Herria, como queráis llamarla, mucho más interesante que ahora, mucho más bonita. Yo soy muy optimista en este sentido, y yo creo que la sociedad vasca está avanzando hacia mejor, en todos los sentidos. Vamos a tener una sociedad muchísimo más plural, pero muchísimo más abierta y muchísimo mas integradora, muchísimo más tolerante...*
>
> *(Gazteak, mistoa, Gernika)*

Pertsona helduagoen ikuskeraren arioan, globalizazioaren eraldaketek edo inmigranteen etorrera dela-eta sortu diren egoerek iraganera begiratzera bultzatzen dituzte; hartara, gertakizun horiek aldez aurretik bizi izandako egoerekin erkatzen dira eta beste garai batean ikasitako konponbideak aplikatzeko ahaleginak egiten dituzte. Kolektibo honetan zalantza edo nostalgiaren moduko sentimenduak agerikoagoak dira eta duda-mudek protagonismo handiagoa hartzeko dute etorkizuneko irudi gisa.

> *El vasco va a imponer, su ley, sus costumbres, se entremezclaran, pero va a seguir. Y tendrán que adaptarse los que vengan. Antes eran gallegos, andaluces y extremeños y se tuvieron que adaptar al País Vasco y va a seguir así.*
>
> *(Helduak, ez euskaldunak, Bilbo)*

Landa eta hiri ingurunearen arteko desberdintasunei dagokienez, landa ingurunean etorkizuna errezeloz eta mesfidantzaz ikusten da, inguru horren ezaugarriak diren identitate zantzuak desegin litezkeelakoan. Horrela bada, landa ingurunean dagoeneko aldatzen ari diren ezaugarriak azpimarratzen dira: natur ingurua, baserriak, auzoetako bizimodua...

1.8.3. Alderdi ebolutiboak diskurtsoan

Globalizazioak eta inmigrazioak aurreikusten dituzten aldaketak ikusita, taldeetan esku hartu duten pertsona askok honako hau galdetzen

diote beren buruari: noraino barnera daitezke aldaketak? Noraino egin behar zaie aurre eraldaketei? Noraino saiatu behar da irauten? Ildo honetan ere ez da erantzun argi eta sendorik sumatzen. Horren ordez, hainbat sentsazio eta irudipen iradokitzen dira, hau da, euskal gizarteak eta kulturak XXI. mendeko eskariei aurre egiteko dituzten indargune eta ahulguneak azaltzen dituzten hainbat osagai.

Indarguneen artean, azpimarratzekoa da euskal gizarteak aldez aurretik eraldaketa une zailak bizi izan dituelako sentsazio edo egiaztapena. Orain dela hamarkada batzuk estatuko beste lurralde batzuetako inmigranteen etorrera, zalantza izpirik gabe, gaur egungo euskal gizartea osatzeko giltzarritzat hartzen den momentuetariko bat da. Halaber, frankismo garaia ere epe kritiko eta garrantzitsutzat hartzen da EAEko gaur egungo gizarte, hizkuntz eta kultur egoera osatzeko orduan. Nolanahi ere, horrek gizarte eta kultur antolamenduaren maila askori ekarritako arazoak eta zailtasunak gorabehera, gizarteak aurrera egiten jakin du, talderik gehienek baieztatzen duten moduan. Lorpen hauen oinarrian jende askoren nahia, ahaleginak, borondate ona eta militantzia izan ziren. Talde askok galdetzen duten bezala, orain zergatik ezin izango da antzera jokatu? Zergatik ez dira tresna horiek erabiliko euskal kulturak aurrera egiten jarrai dezan?

> *El País Vasco ha acogido a media España. Ahora van a venir de más lejos, pero el carácter del País Vasco va a ser más familiar…*
>
> *(Helduak, ez euskaldunak, Bilbo)*

Hainbaten ustetan, ez dago inolako arrazoirik XXI. mendeari begira euskal kulturaren aldeko borondateak eta konpromisoak ez dutela indarrean jarraituko pentsatzeko. Edonola ere, ahots ezkorragoak ere badaude, gizartearen esparru guztietan eta mundu osoan izaten ari diren eraldaketen azkartasuna nabarmentzen duten ahotsak. Aldaketa horiek zeharo bortitz eta zailak direla pentsatzen duten ahotsak. Kasu horietan beti ekartzen da gogora Euskal Herriaren moduko erkidego baten tamaina txikia eta nazioartean duen garrantzi urria. Halaber, aipatzen den beste alderdi bat zera da: EAEra 1960etik 1970era bitartean iritsitako inmigrazioarekin dagoen aldez aurretiko esperientzia eta "bestearekin" topatzearen ondorioz sortutako zailtasunak; txosten honetan jasotakoaren arabera, esperientzia horretan oraindik ere konpondu gabeko hainbat kapitulu garrantzitsu geratzen dira.

Iritzi orokor hauek alde batera utzi eta globalizazioaren nahiz inmigrazioaren gainean etorkizunari begira egindako aurreikuspenak aztertuta, azpimarratzekoak dira, gai honi buruz egindako gogoen artean, ondorengo ideia hauek:

- Globalizaziori dagokionez: globalizazioak hainbat desafio dakarzkio euskal kulturari; erronka hauek giltzarri izango dira etorkizuneko garapen eta bilakaerari begira. Ildo honi jarraituz, ikerlanean parte hartu duten pertsona batzuek azaldutako ikuskera argia da: euskal kulturak berezko lengoaia bat aurkitu beharko du garatu ahal izateko. Berezitasunari eustea eta modernotasun kodeen arabera sendotzea etorkizunean nolabaiteko bermeekin aurrera egiteko aukera bakarra dela ematen du.

  Horretarako, tradizioari oratu behar zaio, horren ezagupidean sakontzeko eta esperimentazioan aurrerapausoak eman ahal izateko. Lehia ikaragarriko mundu batean, garrantzi handikoa da originaltasunari, berezkoari, bereziari eustea, baina betiere horren potentzialitateak ahal denik eta gehien ustiatuz.

  > *Hay partes que me pierdo, por el idioma… pero yo creo que tenemos que hacer… tenemos que ser inteligentes, tenemos que ser listos… sin perder nuestra esencia, yo creo que tenemos una esencia noble y honrada… pero tenemos que buscar, tenemos que vendernos, para conseguir atraer… lo primero a nuestros jóvenes, y luego a otras culturas… tenemos que mezclarnos… tenemos que intentar avanzar en muchos terrenos…*
  >
  > *(Bizitza-historia, musika eta sorkuntza eremua)*

  Hori lortzeko, erakundeen laguntza eta sostengu argia eta sendoa eskatzen da, eta gizarte kontzientziaren euskarria; esan nahi baita, gizarteak txikien balioan sinetsi behar du, hori berezi eta desberdin egiten duten erreferentzia eta zedarrietan.

- Inmigrazioari dagokionez: sumatzen denez, inmigrazioa atzerabiderik ez duen gertaera da. Aipatzen da egokitu behar izango dela, kulturaniztasunaren eta eleaniztasunaren gizarte batera abiatzeko trantsizioa errazten duten tresnak abian jarriz. Hizkuntza,

euskara, osagai giltzarria izango da etorkizuneko irudi horretan; giltzarria jatorri desberdineko pertsonen arteko komunikazio eta elkartrukerako funtsezko pieza izan daitekeelako. Taldeek diotenaren ildotik, pertsona guztiak euskararen inguruan bil daitezke; euskarak eta, orokorrean, euskal kulturak topagune, bilgune bat osa dezakete.

> *Pues lagundu esfortzu handia instituzioen partetik, gauza asko onartuta daude, musika mota bat egiten da... baina gero onartzea egiteko beste forma batzuk. Hori litzateke modu onena eta eraginkorrena elkarrekin bizitzeko. Ze badaude formula desberdinak antolatzeko, eta bizitzeko... orduan instituziotik horri ere lekua uztea. Alde batetik, dagoenari pauso eman eta mantendu eta elkar bizi horrekin. Eta bestetik, komunikabideek egin dezakete gauza asko eta erabiltzen da, eta erabili hori mantentzeko... integratzeko gauza guztiak, eta kanpotik dagoena ba hor dago eta kristolako indarra dauka...*
>
> *(Bizitza-historia, eremu politiko soziala)*

Pertsona batzuen iritziz, bilgune edo topagune hori egitura daiteke eta euren itxaropenak, batez ere, belaunaldi berriengan jartzen dituzte: ziurtatzen dutenez, pertsona helduek, beharbada, ez dute euskara ikasiko, agian ez dira ingurune berrira egokituko, baina etorkinen seme-alabek egin dezakete. Horrela bada, batzuek adibidetzat jarri dituzte orain dela hainbat hamarkada Gaztelatik edo Andaluziatik iritsitakoen seme-alabak, gaur egun euskal herritarrak direla sentitzen dutenak. Ikuspegi horren arabera, elkar ulertzea nagusituko dela uste dute, euskal gizartearen eta kulturaren barnean nahasketa beti egon delako.

Beste ikuspuntu batetik, egoera ez da hain argia eta etorkizuneko irudikapenak ezkorragoa da. Taldeek onartzen dutenez, euskal gizarteko partaide guztiak ez ei daude inmigrazioa ontzat emateko prest, ez behinik behin gabezia ekonomikoek bultzaturiko inmigrazio bat denean eta, ondorioz, jomugako kulturara gerturatzeko interesik ez omen duenean. Izan ere, hainbat ahotsek ziurtatzen dutenez, iristen diren pertsonak ez daude beti heldu berri diren lekuko arau edo ohituretara egokitzeko prest; izan ere, kasu askotan euren erritoei eusteko prest daudela ematen du, aurreiritzien eta ulermenik ezaren gainetik.

Ezinegona eta gatazka ere etorkizuneko balizko eszenatokiaren zati gisa azaltzen dira.

EUSKAL KULTURAREN ETORKIZUNA

Aurkezpen orokorra

4 **Euskal kulturaren etorkizuna ikuspuntu baikor batetik**. Orokorrean, euskal kulturaren bilakaeraren gaineko ikuspegi positiboa dago. Hala eta guztiz ere, berori gaurkotzeko eta modernizatzeko premia berresten da behin eta berriz.

4 **Euskal kulturaren etorkizuna eta globalizazioaren eragina**. Globalizazioaren gertaerak euskal kulturaren etorkizunari buruzko eztabaida bereganatzen du. Horrela, jazokizun horren garapenean sumatzen diren alderdi positiboak eta negatiboak zehaztu dira.

Alderdi positiboen artean, ondoko hauek zehaztu dira:

- Ezagutza eta komunikazio bideak zabaltzea.
- Kulturek harremanetan jartzeko eta nahasteko dituzten aukerak.
- Kanpora zabaltzeko eta hedatzeko aukerak.

Alderdi negatiboen artean, ondoko hauek zehaztu dira:

- Emaitz posibleek sorrarazten duten mesfidantza.
- Globalizazioaren, ekonomiaren eta kontsumismoaren arteko loturak.
- Kulturaren homogenizatzea.
- Bertako bizimoduak, bizitzeko kultura desagertzea.

4 **Euskal kulturaren etorkizuna eta inmigrazioaren eragina.** Inmigrazioa ez da arazotzat jotzen, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkinen kopurua oraindik ere urria delako. Horren haritik, etorkizunak zalantzen eta duden eszenatoki bat aurkezten du.

Ikuspuntuak

4 **Ikuspuntu desberdinen oinarrian dauden aldagaiak:**

- Adina. Taldeen diskurtsoetan jaso den aldagai esanguratsu bakarra adina da. Horrela, aipatzekoa da gazteen diskurtsoan etorkizunari irekiago dagoen diskurtsoa sumatzen dela. Pertsona helduagoek, berriz, errezelo handiagorekin ikusten dute inmigranteen etorrera eta iraganera begiratzeko joera izaten dute, aldez aurretik bizi izandako egoerak alderatuz edo beste garai batean ikasitako konponbideak aplikatzen ahaleginduz.

EUSKAL KULTURAREN ETORKIZUNA

Alderdi ebolutiboak diskurtsoan

4 **Euskal kulturaren bilakaera eta haren indarguneak, inmigrazioaren eta globalizazioaren gertaerari dagokionez:**

- Aurkeztutako arazoei aurre egiteko gaitasun sentsazioa. Horrela, taldeek azpimarratu dute euskal gizarteak dagoeneko une zailak eta eraldaketa momentuak bizi izan dituela eta horiei arrakastaz aurre egiteko gauza izan dela.

4 **Euskal kulturaren bilakaera eta haren ahulguneak, inmigrazioaren eta globalizazioaren gertaerari dagokionez:**

- Izandako aldaketen azkartasuna. Gertatzen ari diren bat-bateko aldaketak ikusita, eskari guztiak kontrolatzeko eta aurre egiteko zailtasunak azpimarratzen dira.

4 **Etorkizunari begirako proposamenak:**

- Globalizazioari dagokionez. Euskal kulturaren garapena berezitasunari eutsi eta modernotasun kodeen arabera egituratzen den berezko lengoaia bat bilatzearen ondorioa izango da. Horretarako, erakundeen bultzada behar da eta gizarte kontzientziaren euskarria.
- Inmigrazioari dagokionez Kulturaniztasunaren eta eleaniztasunaren gizarte bateruntz abiatzeko trantsizioa errazten duten tresnak abian jarri behar dira. Gauzak horrela, euskara jatorri desberdineko pertsonen arteko elkartruke horretarako giltzarri izan daiteke.

2. EUSKAL NORTASUNA ETA KULTURA NAFARROAN: Azterketa kualitatiboa

2.1. Sarrera 3

2.2. Euskal Herriaren kontzeptua 5

2.3. Euskal nortasuna 13

2.4. Euskara 20

2.5. Euskal kultura 27

2.1. SARRERA

2.1.1. Ikerlanaren abiaburua[1]

Hurrengo orrialdeetan aztergai dakartzagu Nafarroako Foru Erkidegoan egindako landa-lan kualitatiboaren ondorio nagusiak, beste lurraldeetan erabilitako ardatz berberen inguruan egituratuak.

- Euskal Herriaren kontzeptua
- Euskal nortasuna
- Euskara
- Euskal kultura

EAEn eta Iparraldean bezala, elementu horiek hizketarako gida izan dira Nafarroako ikerketan jardun zuten eztabaida-taldeentzat. Izan ere, hiru lurraldeetan berdinak izan dira eztabaida-taldeetan ukitutako gaiak, horiei ekiteko gidoiak eta taldeen baitan sortutako dinamika, beti ere, lekuan-lekuko errealitatea eta egoerari erreparatuta moldaketak izan badira ere.

Nafarroaren ezaugarriak kontuan harturik, komenigarri ikusi zen zonaldeen arteko hizkuntz eta kultur desberdintasunei erreparatzea sei eztabaida-taldeak osatzean.

Hortaz, eta lekuan lekuko bizipenen berri izatearren, sei taldeak ondoren adierazten den moduan banatu ziren:

- Bi talde Iruñan
- talde bat Altsasun
- talde bat Lizarran
- talde bat Otsagabian
- talde bat Tuteran

Hala, bada, taldeak osatzean tokia izan zen ardatz nagusia eta aintzat hartu ziren, halaber, ondoko beste aldagai hauek:

- Euskalduna/ez euskalduna: Bi talde egin dira (bat Altsasun eta beste Iruñean) pertsona euskaldunekin, hau da euskaraz dakitenekin.
- Euskaltzalea/ez euskaltzalea: Gainerako taldetan, euskararen ezagutzaren ordez, euskaltzaletasuna hartu zen irizpidetzat, zonalde batzuetan euskaldunekin harremanetan jartzeko egon zitezkeen arazoak aurreikusita. Euskaltzaletzat hartu dira, euskaraz jakin ala ez, euskara eta euskal kulturarekiko jarrera positiboa adierazten dutenak eta ez euskaltzaletzat euskara eta bere unibertsoarekiko aurkakotasuna edo gutxienez axolagabezia argia adierazten dutenak.
- Adina: EAEn bezala, Nafarroan ere hasieratik elkarrengandik nabarmen bereizita geratu ziren gazteak eta helduak (20-35 urte 36-55 hurrenez hurren). Hala ere, kasu jakinen batean pertsona bat edo beste aukeratu ziren berariaz osatutako *tarteko adinekoen* multzotik, geroago azalduko diren arrazoiengatik.

Horrenbestez, gorago aipatutako aldagaiei helduz (inguru edo eremu geografikoa, jarrera euskaltzalea/ez-euskaltzalea eta adina) eztabaida-talde hauek antolatu ziren:

TOKIA	JARRERA	ADINA
· Altsasu	Euskaldunak	gazteak (20-35 urte)
· Iruña	Euskaldunak	gazteak (20-35 urte)
· Iruña	Ez-euskaltzaleak	helduak (36-55 urte)
· Lizarra	Euskaltzaleak	tartekoak (25-50)
· Otsagabia	Mistoa	tartekoak (25-50)
· Tutera	Ez-euskaltzaleak	tartekoak (25-50)

Pentsatzekoa denez, taldeek nolako ezaugarriak, halakoa zen haien diskurtsoa, eta txosten honetan ikusiko denez lekuak azterketaren ondorio esanguratsuenak baldintzatu ditu. Izan ere, aldagaien artetik, taldeak banatzeko oinarri izan zenak, inguru geografikoak alegia, eragin handiena izan du, azken batean, azterketaren ondorioak antolatzeko eta aurkezteko orduan. Maila lokalaren protagonismoa gainjarri eta nahastu egiten da euskaltzalea/ez-euskaltzalea ardatzarekin, eta biek osatzen duten bikoteak maila apalagoan uzten dute beste aldagaia (adina).

Dena den, aurrerago ikusiko dugunez, errealitatean aldagai guztiek dute eragina aukeratu ditugun lau aztergai nagusietan (Euskal Herriaren nozioa, euskal nortasunaren kontzep-

1. Ikerketa kualitatiboaren antolaketari buruzko xehetasun gehiagotarako, ikus Metodologia atala.

tua, euskararen balioa eta euskal kulturaren garrantzia). Nafarroaren kasuan aztergai guztien ondorioak bi ataletan aurkeztu dira, eta halaxe agertzen dira lauetako bakoitzean.

Bi atal horietako lehenean labur aurkezten dira bai aztergaiak berak bai haietako bakoitza dela-eta talde guztietan azaleratu diren ardatz nagusiak ere. Bigarrenean, ordea, xehe-xehe arakatzen da nolako diskurtsoa izan duen talde bakoitzak lau aztergaien inguruan. Izan ere, bigarren atal horrek behar diren xehetasunak eta ñabardurak emango dizkio irakurleari, landalanean jaso diren interpretazio, ikuspegi eta gogoeta guztien berri izan dezan.

2.1.2. Testuingurua / Alderdi komunak taldeetako diskurtsoetan

Nafarroako Foru Erkidegoko taldeen diskurtsoetan atzematen diren ardatzei ekin aurretik, begiratu nahi izan dugu zertan datozen bat ikuspegi desberdinen adierazgarriak diren landalanean bildutako diskurtso horiek.

Alde horretatik badago ideia bat hasieratik Nafarroako diskurtsoa nolabaiteko koherentziaz janzten duena. Ideia horrek Juan Linz-ek bere liburu baten sarreran ("Periferia de la periferia", 1986) garatzen duen *periferiaren periferia* kontzeptura garamatza.

Liburu horretan euskal nortasuna botere zentrala den Estatuaren periferian ageri da. Horren aurrean Euskal Herrian beste zentro bat eratzen da, argi eta garbi Bizkaiak (batez ere Bilbo) eta Gipuzkoak osatua, egia bada ere azken lurralde hori hurbilago ikusten dela Nafarroatik, bai geografikoki bai sentimenduen aldetik.

Irudikapen hori, euskal nortasunaren muina Bizkaiarekin –batez ere haren hiriburuarekin– eta diskurtso abertzale tradizionalarekin lotzen duena, etengabe azaleratzen da diskurtsoan. Bilbo zentro sinboliko gisa ageri da, historian garrantzia izan duten beste leku batzuei (Gernika, kasu) nagusitzeraino. Irudi horretatik abiatuta baliteke planteatzea ez ote dagoen gatazka bat periferiaren periferian bertan eta nortasunaren zein instituzioen inguruan kokatua (horiek azalduko bailukete hobeto Bilboren zentraltasuna).

Nafarroatik mesfidati eta are susmo txarrez ikusi ohi dira EAEn abiatutako estrategia politikoak, helburua maiz Nafarroan esku hartze hutsa direlakoan. Nafarren joera politikoa edo nortasun-atxikimendua zein den ere, gehienetan ez zaie fidagarria iruditzen EAEren jokaera: batzuen ustez, paternalismoaren erakusgarri da, eta ez dio begirunerik Nafarroako euskal nortasunak duen berezitasunari. Beste batzuek, euskaltzaletasunetik urrutien dauden taldeek, uste dute joera hori tartean sartze guztiz bidegabea dela, haserrarazteko modukoa batzuetan.

Guztiek bere egiten dute, halaber, aurreko ezinegonarekin estu lotuta dagoen beste irudikapen bat, berau Nafarroan oso zabaldua, bestalde. Izan ere, herrialdeko bizi-maila altu samarra iruditzen zaie, bai inguruko probintzietakoaren aldean baita estatuko besteek dutenarekin konparaturik ere.

Egoera pribilegiatu hori galtzeko beldurrak eszeptizismoz begirarazten die, hein handi batez, EAErekin zerikusia duen guztia. Ez-euskaltzaleak gehiengo diren taldeetan esaten denez, Nafarroa eta EAE instituzio-multzo bereko partaide izango balira, herrialdeak bere pribilegioak galduko lituzke, Estatuko lurralde aurreratuenetako izatetik Euskal Herriko lurralde periferiko bihurtzeraino.

Alde horretatik ohartu beharrekoa da nolako jarrera duten tokian tokiko eliteek, berebiziko garrantzia eta bultzada baitute gizartearen bilakaeran. Nafarroan, hain zuzen ere, elite horiek nabarrismoaren militanteak dira, eta kolokan ikusten dute beren nagusitasuna oraingoa ez den beste egitura administratibo batean. Eztabaidataldeetan esaten denaren arabera, euskaltzale direnek maiz zailtasunak izaten dituzte botere postuetara iristeko, administrazioan nahiz gizartearen beste alorretan ere.

Nafarroa estatuko lurralde pribilegiatu bat dela dioen diskurtso horretan foralitatea nabarmentzen da. Sarritan diote Nafarroak haietan duela bere oraingo egoeraren abiapuntua. Esan behar da, dena den, foruen aipamenak oso zehaztugabeak izaten direla oro har, biztanle gehienek ezer gutxi –eta azaletik– dakite-eta gai horretaz.

Hala eta guztiz ere, foruak edukitzea da Nafarroaren berezitasuna eta berezkotasuna defendatzean euskarrietako bat. Areago, talde guztietan eta beste edozein arrazoi baino sarriagotan ageri den argudio bat azpimarratzekotan, nafartasunaren defentsa argia nabarmendu beharko litzateke.

Izan ere, euskaltzaleen zein ez-euskaltzaleen iritziz Nafarroak berezko nortasuna du, eta bestelako nortasunekin izan litezkeen ezaugarri ugariak gorabehera, Nafarroako biztanleek nafar ikusten dute beren burua beste ezer baino. Haietako batzuk euskal herritar-nafar edo nafar-euskal herritar sentitzen dira, beste batzuk nafar baino ez, eta beste batzuk nafar-espainolak, baina kasu guztientzat Nafarroa ardatz komun eta batzaile ageri da, norberaren ideiak, sentipenak edo nortasunak zein diren ere. Bakoitzak halako ñabardura edo ukitua emango dio bere buruaren definizioari, baina gehien-gehienak nafar sentitzen dira.

Pentsaera guztiek nafar sentimenduan bat egiten duten modu berean, egia da, halaber, ikerlan honetan jasotako testigantza guztiek euskal herritar aitortzen dute Nafarroaren zati bat gutxienez. Ildo horretatik, euskaltzale sentimendua apalduen daukatenek ere onartzen dute bere-berea ikusten duten Nafarroa, hein batean bada ere, euskal herritarra dela.

Era berean, azterketa nortasunaren kontuetatik kultur alor hutsera joan ahala, kulturak garrantzia galtzen du eztabaida edo hausnarketaren eragile gisa. Horren erakusgarri, Nafarroan euskal kulturaz hitz egiten den gehienetan eztabaida hizkuntz normalizazioaren inguruko jarreretara lerrokatzen da.

Neurri handi batean euskara gatazka-gune bilakatzen da nafar gizartearen baitan dauden jarrera desberdinentzat. Oro har, hizkuntz ereduen inguruko eztabaidak edo euskarari instituzioetan eman beharreko garrantziak zaildu edo eragotzi egiten dute bestelako kultur auziak ukitzea.

Edonola ere, eta hizkuntzak diskurtsoetan izan dezakeen papera gorabehera, euskara da solaskideen interesa pizten duen elementu bakarra, eta ia ez da egiten hizkuntzari buruzkoez gain beste kultur erreferenteen aipamenik. Batik bat, eta eztabaida-taldeen soslaia zein den ere, kulturaz hitz egiten denean haren alderdi tradizionalenak eta folklorikoenak izaten dira gogoan.

Hurrengo kapituluetan zehatzago aztertuko dira talde guztietan azaltzen diren auzi horiek eta azterketaren ardatz jakinekin zerikusia duten beste batzuk. Testuinguruari buruzko atal honekin hasierako ildo batzuk adierazteko asmoa baino ez dago, diskurtso orokorragoaren nondik norakoak erakutsi nahian.

Besterik gabe, hona hemen aztergaietako lehena: Euskal Herriaren kontzeptua Nafarroan.

2.2. EUSKAL HERRIAREN KONTZEPTUA

2.2.1. Euskal Herriaren kontzeptua Nafarroan: ohar batzuk

Nafarroan –espero zitekeen bezala– ia denek dakite zer den Euskal Herria, edo behintzat entzuna dute kontzeptua, eta EAEn gertatzen den bezalaxe, Nafarroan ere politikak egundoko garrantzia du kontzeptu horrek sortzen duen eztabaida sutsuan. Euskal Herriaren ideia euskal abertzaletasunaren proiektuari lotuta agertu ohi da, baina baita horren aurkari politiko nagusia denaren eskutik ere: nabarrismo espainolista; esparru ideologiko hau, beti sentibera Euskal Herriaren ideiaren aurrean.

Batzuek eta besteek (euskal abertzaleak eta nabarristak) jakitun dira Euskal Herriaren ideiak baduela zerikusirik Nafarroarekin, eta haien diskurtsoetan igartzen da zenbateraino den kontzeptu horren botere erreferentziala joera politiko desberdinek Nafarroa zer den edo zer izan beharko lukeen taxutzerakoan.

Taldeetan adierazten denari erreparatuta esan daiteke taldeetako kide gehienek onartzen dutela Euskal Herria aipatzean –modu batera edo bestera– euskal herritarren herria aipatzen dela. Hala ere, gehienentzat izen hori lausotu samar ageri da errealitatean: erreferentziak urri dira, harreman gutxi dago, ezagutza gutxi; zenbait tokitan ezer gutxi dakite beste toki batzuez, eta horienganako distantzia psikologikoa, ordea, luzea da, batez ere Iparraldeari dagokionez (alde horretatik beste horrenbeste esan liteke Bizkaiarekiko antzematen den distantziaz).

Talde guztietan oro har, eta ez-euskaltzaleentzat bereziki, ez dago oso argi zenbat lurraldek osatzen duten Euskal Herria, eta onartzen da, halaber, gutxitxo dakitela beste lurralde batzuez. Uste dute informazio gutxi etortzen zaiela beste lurraldeen inguruan, eta hori oztopo bat da euskal kidetasun-sentimendu kolektibo bat mamitu dadin.

Iparraldeari buruzko informazioa da, inondik ere, denetan urriena, zenbait hedabidetan lurralde hori ez baita aipatu ere egiten, politikoen agendan eta herritarren hizketa-gaietan gertatu bezala, hain zuzen. Eztabaida taldeetan beretan esaten denaren haritik, badirudi bi aldeak estatu banatako zati izateak nekez itzur daitekeen langa psikologikoa ezartzen duela. Horren adierazgarri, taldeetan ez da ia aipatzen Iparraldeko politika konturik, ezta ber-

tan zehatzagoa eta egungo hizpide den beste gairik ere, Euskal Departamentuaren defentsa, esate baterako.

Iparraldeaz ari direnean euskal folklorea oso agerikoa eta elementu sinboliko bezala indartsua den lurralde batez jarduten dira, baina era berean, nortasun frantsesa oso erroturik dagoena. Badirudi, alde horretatik, euskal herritar-frantsesekin izaten dituzten harreman iturri bakarra Nafarroara San Ferminengatik datozenak direla.

Ezin esan liteke, ordea, etorkizunean gauzak aldatuko ez direnik, eta inor gutxi ausartzen da hemendik hamarkada batzuetara zer gertatuko den iragartzen. Euskal Herriaren gauzatzea, era batera edo bestera gertatu ere, urrun ikusten da, baina talderen batzuentzat behintzat aukera honek ez du zergatik izan mehatxu bat.

Badago, nonbait, prozesu bat abian, zehaztugabea oraindik baina aldi berean ohargarria gizartean. Eztabaidak gehiago edo gutxiago desiratzen den balizko gertakizun bat dakar, eta taldeetan esandakoen arabera, gaur egun politikoki gorpuztea arazotsu izan daitekeena.

Gogoratzekoa da, edonola ere, Nafarroan Euskal Herriaren ideia ez dela funtsezko zerbait gisa ageri. Ideia hori gogokoen dutenek berek ere erakargarri eta lorgarri deritzote, baina gehienetan "etorkizuneko asmo" bezala ikusten dute.

Beraz, Euskal Herria irudi bat ez ezik helburu errealtzat ere badaukaten nafar euskaltzaleen iritziz, egitekoen zerrenda bat osatzekotan, lehentasuna eman behar zaio Nafarroa Euskal Herriko zati gisa defendatzeari, tamaina handiagoko beste zereginen aurretik.

Beren burua euskaltzale aurkezten dutenen artean, Nafarroan "euskal herritar izateak" edo "euskal herritar sentitzeak" zerikusia du, batik bat, "hemengo" ohiturekin eta hemen gertatzen denaz interesatu eta nolabait arduratzearekin. Hau da, herriaren alde eta haren onerako lan egin behar da, baita besteei lan egiten utzi ere. Atzerago geratzen dira adibidez botoa, euskal abizenak edukitzea edo euskaraz jakitea bezalako alderdiak; eta are urrunago Euskal Herria independente edo batua lortzea bezalako aukerak.

Beharbada, Euskal Herriaren ideiak erantzun biziagoak (kontrakoak, kasu honetan) eragiten ditu ez-euskaltzaletzat jo litezkeenengan. Izan ere, lehen aipatutakoek (euskaltzaleak) uste dute "oraindik asko dagoela egiteko", eta bigarrenen iritziz (ez-euskaltzaleak), berriz, "urrunegi joan da" auzi honetan. Lehenek askoz jarrera taxutu gabeagoa adierazten dute Euskal Herriaren gauzatzeaz; bigarrenek, aldiz, berehala erreakzionatzen dute, eta beren nafartasunaren aurkako eraso latza ikusten dute aukera horretan. Nolanahi ere, kasu batean zein bestean borroka politiko eta ideologikoaren alorrean kokatzen den gai labaina litzateke.

Iritzi orokor horietatik landa, taldeek Euskal Herriaren ideiaz egin duten gogoetak ez du biderik ematen gaiari buruz dauden ikuspegiak xeheago erakusteko. Maizenik, Euskal Herriaren ideiak aurrez aurreko jarrerak azaleratzen ditu: ideia horretan sinesten duten eta harekin guztiz bat datozenak mutur batean, eta aurkaritza eta mesfidantza bestean.

Esanak esan, zaila da ideia honen inguruan diskurtso osatuak edo borobilduak aurkitzea. Begiratu orokor bat emanda zera esan daiteke: zenbat eta hedatuagoa "euskal nortasuna", orduan eta konpromiso sendoagoa Euskal Herriarekin. Horregatik, espero izatekoa denez, atxikimendu hori nabarmenagoa da euskal hiztun gehiago dituzten eta euskal kulturari lotuagoak diren lekuetan.

Era berean, leku batek zenbat eta euskal hiztun gutxiago izan hainbat hurbilago dago beste muturretik, Tuteran gertatzen den moduan. Hor ere indarra du Euskal Herriaren ideiak, baina batez ere mesfidantzaz eta kontrako jarreren bidez azaldua. Leku horietan jaio edota bizi, bertakoen iritziz beren ohiturak, nolakotasuna eta kultura ez dira euskal herritarrak.

Ez diote onurarik antzematen Euskal Herriaren "barne" izateari, eta edozelan ere uste dute beti lurralde horretako periferia izango liratekeela. Uko egiten diote bat egite horri, nahiago dutelako harako esaera hark dioena: "hobe saguaren burua izatea katuaren buztana baino". Bestalde, biztanle gutxiago direla jakiteak eragina du batasunari begira, eta oro har, esan daiteke hala azalerazten dela Nafarroa osoko azterketan, horretan alderik badagoela ohartuta ere.

Gorago esan denez, Bizkaia eta Gipuzkoa Euskal Herriaren erreferentzia-gune bezala agertzen dira Arabaren aldean eta, batez ere, Nafarroarekin konparatuta, eta bi horiek, aldiz, periferian kokatzen dira. Zenbait zonaldetan

Gipuzkoa hurbileko lurralde gisa ikusten da, bai geografikoki baita afektiboki ere (udan nafar asko Gipuzkoako kostaldera joaten dira, eta era guztietako harremanak sortzen dira nafarren eta gipuzkoarren artean: ekonomian, familia aldetik, norbanakoen artekoak, etab.). Horregatik, hain zuzen ere, zonalde batzuetan gipuzkoarren eta nafarren izaeren artean antz handia antzematen da.

Gertukotasun hori, noski, agerikoagoa da ikerketak Foru Erkidegoko iparraldera eta Gipuzkoarekiko mugaldera egiten duen heinean. Gipuzkoarrenganako iritzi hori, atsegina eta lagunkoia, urrun samar dago Bizkaiarekiko ikuspegitik, berau askoz negatiboagoa baita gehienetan.

Bizkaia, eta batik bat Bilbo, urrutiko leku agertzen dira, batzuetan Iparralde baino haragokoak ere. Bizkaitarren jarrerak eta izaera aurkakoak izaten diren estereotipoen bitartez ikusten dira (handiusteak, nagusikeria, harrokeria…).

Bizkaia, hain zuzen, euskal nortasun tradizionalaren muina bide da, baina gogokoa ez den kutsu nabarmena egozten zaio. Lurralde hori euskal izaeraren adierazle nagusia da, nonbait, baina era berean, berea da EAEk Nafarroako kontuetan esku hartzearen erantzukizuna, eta zenbaiten ustez, handik bultzatu den euskal abertzaletasuna ororen berdintzailea da, eta ez ditu sekula aintzakotzat hartu nafarren berezitasunak eta benetako nahiak.

Deigarria da zein gutxitan azaltzen den aipagai Araba, soilik Erriberako taldeetako kideek sentitzen baitute arabarrek beste lurraldeetako herritarrek baino antz handiagoa dutela berekin.

Nafar askorentzat, Bizkaiarekin edo beste zenbait lurralderekin dagoen harreman ahula ez da lagungarria (euskal) komunitateko partaide sentitzeko. Baina urruntasun sentimendu hori eduki arren, EAEko biztanleekiko harremanetan badute bereizgarri komun bat Estatuko beste zonalde batzuetako biztanleekiko ez dutena: hizkuntza, eta dakitenak gai dira elkarri ulertzeko aparteko kode baten bitartez. Gainera, nafar askoren esanetan EAEko hiri edo herri batzuetan “etxean bezala” sentitzen dira, eta oro har, gauza bera gertatzen zaie Euskal Herriko edozein lurraldetara joanez gero.

Ildo beretik Euskal Herria euskaldunen **elkargunea dela** diote, euskaraz egiten den lekua delako, eta izan ere, **euskarak izugarrizko garrantzia du** bai Euskal Herria bai euskal nortasuna bera zer diren azaltzean. Hizkuntzari ematen zaion garrantzia nabarmena da EAErekin alderatuta, han badaudelako, hizkuntzaz gain, beste elementu batzuk (“eguneroko bizitzako elementu” deritzenak, adibidez) nortasun kolektiboko kidegoa erakusten dutenak. Hemen, ordea, euskara ia ezinbestekoa agertzen da: euskera faktore erabakigarria da.

Gainera, ia talde eta ideologia guztien iritziz **Euskal Herria Nafarroan sortu zen**, eta bai euskaldun edo euskaltzaleek, bai nabarristek, pertsona guztiek diote Euskal Herriaren ideiak Nafarroan eduki zuela sorlekua.

Ahots gehienek zalantzarik gabe agerrarazten dute **Nafarroaren berezitasuna**. Talde guztiak (haien artean Sakanakoa, sentimendu euskaltzale bizieneko kideak dituena) bat datoz Nafarroaren berezkotasuna aldarrikatzean. Beren burua euskal herritar, espainol edo euskal herritar-espainoltzat jo arren, horren gainetik nafar sentitzen dira, eta EAEko aldamenekoetatik desberdinak. Areago, euskal herritar bakarrik sentitzen diren horiei ere ez zaie atsegin besterik gabe EAEkoen pare agerraraztea, alegia, beren bereizgarriak kontuan hartu gabe (euskal herritarrak dira, baina desberdinak).

Azkenik, gehienek uste dute Euskal Herriko beste lurraldeetatik hangoen kide ikusten dituztela nafarrak, baina gaineratzen dute, halaber, zenbait tokitan (Bizkaia) sentimendu hori ez dela hain argia.

2.2.2. Euskal Herriaren kontzeptua Nafarroan: taldeen diskurtsoaren azterketa

Sakanan “euskal nortasunarekiko” atxikimendua beste inon baino biziagoa da. Taldekideei Euskal Herria zer den galdetuz gero, lurralde bateko kide izateaz gain “bizimodu” bat ere aipatzen dute. Azpimarratzen dutenez, gauzak ikusi, ulertu eta egiteko era bat da, eta lotura zuzena du Euskal Herriarentzat nahi dutenarekin. Lortu nahi den helburua, sei lurraldeen arteko mugak desagertzea bainoago, denek **gogoan eta gogoko duten gizartea** da. Horixe esan nahi du Euskal Herria eraikitzeak gazte askorentzat.

> *Euskal Herriaz hitz egiterakoan argi daukagu herri bat dagoela hor. Eta herri hori izan daiteke sei probintzia horiek, beraien kultura, jai, harreman, auzolanarekin, elkartasunarekin, borroka desberdinekin, emakumearen inguruko borroka…*

dena, gure helburu perfektu horretara iritsi bitarte. Ni igual zait ikurrina, arrano beltza… gauza bat, herri bat dagoela. Irlandan herri bat dagoen moduan, Bretainian, Kortzegan… Nik ez dut nahi besteak baino gehiago izan, nahi dudana da izan. Ez dut inposatu nahi ezer ez, nire herria utz dezatela erabakitzen.

(Gazteak, euskaldunak, Altsasu)

Gehienetan ingurukoen aldean dituzten kultur bereizgarriak azpimarratzen dira, bereziki "Espainiako gizartearen" ohiko irudiarekin erkatuz gero. Gizarte hori, hain zuzen, aurkakoa agertzen da, eta harekiko harreman latzak ondorio ugari dakartza. Gazte hauek uste dutenez, susmagarri eta bazter-nahasle gisa aurkezten, sumatzen eta etiketatzen dituzte, baita halakotzat hartu ere. Espainiaz duten irudia ez da samurra, aitzitik, desatseginena da, gizarte-kontrolari lotua. **Kritika gogor samarrak egiten** dizkiote nagusi diren politikei, horren barne sartzen dutelarik **EAEko instituzioen politika**.

Euskal Herria que sea un proyecto de una forma de vida que se escape de muchas cosas, no quiero el concepto que quiere el PNV de Euskal Herria, para eso no quiero nada. Quiero una forma de vida que se escapa de lo que hoy en día está en las calles. Porque nos lleva a vivir peor, con más tristeza, más problemas, otros valores… una forma de vida capitalista, que no es una forma de llegar a Euskal herria.

(Gazteak, euskaldunak, Altsasu)

Nafarroako gizarteari berari erreparatuta, maiz eskualde honetako biztanleek antzekotasun handiagoa sentitzen dute Gipuzkoarekin Nafarroako Erriberarekin baino.

Yo me siento más identificado con la forma de vida la cultura de Gipuzkoa que bajar a Falces… En esta zona está claro la gente lo que piensa, la cultura es totalmente diferente. Yo voy a Beasain y me siento como en casa, pero luego voy a Falces y me siento en España.

(Gazteak, euskaldunak, Altsasu)

Beren erkidegoaz mintzo direnean diotenez, Nafarroan bai eurek bai euren inguruak ere (Sakana) eragin motela dute, eta gainera ohizkotik aldentzen diren zerbait bezala agertzen dira. Horregatik, maiz Nafarroako orokortasunetik desberdinak sentitzeko joera dago. Ia esparru guztietan (Nafarroa eta EAE) gutxiengoa eta gutxitua den talde bateko kide sentitzea ez zaie batere goxoa, are gutxiago kontuan hartzen bada nolakoa den haien ingurua (Sakana), oso dinamikoa eta garatua, komunikabide onak dituena eta bizi-maila jasokoa. Hori dela eta, Sakanatik hitz egiten dutenak oso zorrotz azaltzen dira Nafarroako instituzioekiko.

Aipatzekoa da, bestalde, ez dutela batere gustuko euskal gazteei josten zaien "susmagarri" etiketa, euskal herritar sentitzeagatik eta euskaraz egiteagatik soilik jarria.

Beren burua euskal herritar ikusten duten **Iruñako** gazteek, alde batera utzirik Euskal Herria sei edo zazpi herrialdek osatua ote dagoen, lau elementuren inguruan egituratuta adierazten dute harekiko atxikimendua eta begikotasuna: 1) "euskaraz egiten den lekua"; 2) "euskal kulturaren lekua"; 3) "Euskaldunen Herria", eta 4) "euskal nazioa" ideia.

Baina Euskal Herriari bidezko kontzeptu iritzi arren, ez dute argi ikusten zenbateraino onartzen edo aitortzen zaion zilegitasuna Nafarroa osoan.

Más que Euskal Herria, un territorio donde está presente la cultura vasca… igual en la Ribera no lo tienen tan arraigado. Se está planteando como político…

(Gazteak, euskaldunak, Iruña)

Lekuan lekuko iritzi aldakorrek sortutako susmoak gorabehera, gazte horiek guztiena den nortasun bat aipatzen dute, kontuan harturik tokian toki era desberdinetan eta ukitu desberdinak emanda ulertzen dela. Nolanahi ere, garrantzi handia ematen diote besteren indarrak metatzeari eta erakartzeari.

Quizás la unión hace la fuerza, gente diferente de procedencia diferente al lado de esos franceses. Funcionamos mucho por dicotomías. Coincidir todos en un mismo objetivo da mucha fuerza.

(…)

Dentro de la Comunidad Autónoma Vasca, Navarra, Iparralde también hay divergencias. Dentro de cada comunidad también se aportará diferente.

(Gazteak, euskaldunak, Iruña)

Azaltzen da, behin baino gehiagotan, euskal esparruen artean desberdintasun handiak daudela. Nafarroak Euskal Herriaren nortasun kolektiboari zer ekarriko liokeen galdetuta, nafartasuna multzo horretako beste bereizgarri bat bezala aurkezten da, eta eus-

kal nortasunaren adierazgarri litezkeen ardatz batzuk agertzen dira, esaterako, kostalde/barnealdeko eta mendialde/Erriberako *izaerak* eta *bizimoduak*.

¿Y nosotros como navarros qué aportaríamos?

Nada en especial, igual como somos... la forma de ser no va con la frontera. Aportaremos el día a día.

(Gazteak, euskaldunak, Iruña)

Iruñako euskaldunen iritziz, Iparraldeko herritarrak euskal *jende* dira, euskal herritar sentitzeko berezko modua dute (folklorea) eta hein batez ezezagunak izan arren, jaiek, bidaiek eta txangoek haienganako irispide ugari ematen dituzte. Iparraldeak gizartean daukan irudia sentimenduzkoa da batik bat. Hizketan duten doinua eta bertako ohiturak gorabehera (udan 19:30ean afaltzea, adibidez) Iruñako euskaldunek nahikoa dute euskaraz aritzea leku abegitsuan sentitzeko, bertako solaskidea ere bihotzetik mintzatuko zaie-eta, italiar, errusiar edo iparamerikar batekin egingo lukeenez bestela segur aski.

Iparraldearen berezitasuna exotikotasunean ("urruneko hura") bezainbeste gauza maite bat izatean ("hemen bertan") datza. Atentzioa ematen du, bestalde, nola hangoek lortu duten beren burua "euskal herritar" agertzea eta hala instituzionalizatea, edo nola eutsi dieten ikurrinari eta beren ohiturei, eta aldi berean, frantses sentitu, alegia, Nafarroako egoera zailagoarekin kanporaturik interesgarri ikusten da hango nortasunen elkarbizitza negoziatua, hemen nortasunak elkarrengandik bereizita daudelako, elkarrekin bizi ordez, eta hala adierazten dute nabarristenek: "Nafarroaren alde edo haren aurka".

Iruñako talde ez euskaldunean, ordea, nolabaiteko hoztasuna –are arroztasuna (sentimenduen aldetik)– sumatzen da Pirinioez bestaldeko euskal herritarrengana. Euskal herritar sentitzen ez denak frantsestzat hartu ohi ditu Iparraldekoak, eta era berean, beste batzuentzat berealdiko lokailua den euskara ez da kontuan hartzen, ez komunikazio tresna gisa (erabilera) ezta hizkuntza balioetsi gisa ere (atxikimendua). Harremanak espainolen eta frantsesen artekotzat ikusten dira.

Jakitun dira zenbateraino dagoen erroturik Iparraldeko nortasunean euskal herritar-frantses izatearen sentimendua, baina zaila gertatzen zaie kasu hori kidetasun sentimenduaren kontzeptuarekin bateragarri egitea, eta aukeran, nahiago dute Iparraldeko biztanleak frantses gisa aurkeztea, eta era berean, mendebaldekoak euskal herritar, Iruñara bitartekoak euskal herritar-nafar-espainol eta hortik haratagokoak nafar-espainol.

Hainbeste nortasun toki berean –batzuetan nahasturik– ageri direla, galdera hauxe da: non da kidetasun sentimenduen arteko muga?

Si están hablando del País Vasco lo lógico es que el mapa (del tiempo) sea del País Vasco no que incluya a Navarra.

(Helduak, ez-euskaltzaleak, Iruña)

EAEtik nafarrak nola ikusten dituzten galdeturik, uste dute gehienetan estereotipoetara jotzen dela, baina oro har, nafarrekiko iritzia ona dela iruditzen zaie, nafar herritarrenganako begikotasuna antzematen dute.

Yo creo que tenemos un cliché de brutos, gente maja. Nos ven más bien de una manera positiva.

(Helduak, ez-euskaltzaleak, Iruña)

Aurrera begira, gauzak aldatuko direlako ustea dago: argituko dira kontzeptuak eta harremanak, eta lurraldeen arteko loturak ere hezurmamituz eta finkatuz joango dira.

Pirinio aldeko taldean (**Otsagabia**) eta Nafarroako erdialdeko toki askotan berezitasun esanguratsuak igartzen dira euskal nortasuna dela eta. Aurrenik Euskal Herriaren ideiak nolabaiteko ezinegona eragiten du. Taldean inork ere ez du ukatzen Nafarroako mendialdeak dituen euskal sustraiak, baina orobat, desadostasun nabariak ere azaleratzen dira horren inguruan:

Euskal Herria, ¿cómo lo véis?

– *Eso va muy relacionado con la lengua y con las ikastolas y eso que hemos estado hablando antes.*

– *Cada cual tiene su punto de vista.*

– *El sentimiento se pierde y cada uno se guía por el partido político que vota.*

(Tarteko adina, mistoa, Otsagabia)

¿La gente no se siente de Euskal Herria como (puede) sentirse un alavés?

– *Incluso más de Euskal Herria que un alavés.*

– *Pero vas a las elecciones y excepto ese pequeño sector, los demás no se sienten.*

– *Ahí ya no entra lo de vasco (versus) navarro que teníamos antes.*

– *Ahí quitaríamos el vasco, ya seríamos navarros.*

– *Aquí tenemos que explicar, mira yo soy vasco pero voto a este partido y no a no sé quién. Para mí es la dificultad de ser vasco aquí. Esto es así porque está todo muy politizado. Si vamos al sentimiento-sentimiento igual alguno... pues bueno... a lo mejor el corazón les dice que...*

(Tarteko adina, mistoa, Otsagabia)

Otsagabiako taldekoek adierazten dutenaren haritik, inguru horretan ia den-denek daukate Pirinioen barna antzinatik izan diren harremanen berri, eta horrenbestez, ezagunak dituzte Ipar Euskal Herriko lurraldeekin diren loturak.

– *¿Cómo véis a los del otro lado?*

– *Se ven muy cercanos, muy parecidos. Voy allá y necesito un sitio para comer y me desenvuelvo perfectamente, como si estuviese en un pueblo de por aquí, en Santesteban, o yo que sé... Muy cercano, muy parecido, pero muy alejado.*

– *Yo creo que se sabe que hay vascos-vascos, más vascos que nosotros, una minoría, y el resto se les ve muy afrancesados. Es la visión rápida de la gente de aquel lado, muy afrancesados.*

– *Bueno, pero según que otro lado. Porque hay pueblos que veo por allí que tienen un ambiente más euskaldun que el que hay por aquí. Más folkloristas porque son mucho de sacar la banderita, la ikurriña, y tal.*

(Tarteko adina, mistoa, Otsagabia)

Frantziako Euskal Herriaz dabiltzan irudiez gain, kontuan hartzekoa da nolakoa den ingurua bera eta nolakoak ere ibarren arteko harremanak. Oro har, oso zabaldua dago lurralde laueta-ra jotzeko joera, ekonomi nahiz gizarte arrazoiak direla eta. Inguru laua, betidanik, merkataritza eta dirua egiteko toki gisa ikusi izan da, eta ondorioz, ohiko aterabide moduan mendialdeko jende askorentzat.

Mendebaldeko euskal herritarren irudiari dagokionez, desberdina da lurraldearen arabera. Nolanahi ere, sentimenduzko hurbiltasun handia sumatzen da gertuen dauden lurraldeengana.

¿Cómo véis a la gente de la CAPV?

– *Creo que hay mejor sentimiento de ellos hacia nosotros que de nosotros hacia ellos, en general.*

– *Están como en casa, como nosotros cuando vamos allí. Vas a Bilbao a darte una vuelta y estás como si estuvieses en Pamplona.*

– *A los vizcaínos no se les ve demasiado bien aquí. A los guipuzcoanos por su forma de ser, de fanfarronería.*

(Tarteko adina, mistoa, Otsagabia)

Lizarra aldeko taldean ere Euskal Herriaren ideia irudizko xedea da, nahiko lausoa, gainera. Eremu ez euskaldun batean eskola sistema euskalduntzeko apustuak ahalegin asko behar ditu, eta berau bakarrik zeregin "nagusi" bilakatu da, beraz, bigarren mailara baztertu ditu, neurri handi batean, etorkizunari buruzko bestelako gogoeta batzuk, esaterako, Euskal Herriaren egituratzea, beste euskal lurraldeekiko harremanak, Iparraldearekiko loturak, etab.

Lizarrako nafarren euskaltzaletasuna ez da bakarrik etorkizunerako asmoetatik bizi, baizik eta unean uneko eskaeretatik (benetakoak eta zehatzak), eta horietan nagusi da kultur askatasunerako eskubidearena. Ildo horretatik, Lizarrako taldearentzat Euskal Herriaren ideia euskal auziarekiko leialtasunetik eraikitzen da, eta Nafarroan horrek euskal kultura basbestu eta sustatzea esan nahi du, euskara barne.

Gorago Euskal Herriaren kontzeptua dela-eta aipatu diren lau elementuetatik (euskara, euskal kultura, euskaldunen herria eta euskal nazioa) Lizarra aldeko euskaltzaleek garrantzia ematen diete, batez ere, 1.ari (euskara) eta 2.ari (euskal kultura), baina ez horrenbestekorik 4.ari (euskal nazioa).

Egitura soziopolitikoa, instituzioen antolaera, gauza arazotsu eta ez eroso bezala sentitzen da. Alde horretatik, etorkizunera begira gertakizun politikoak sumatzen dira, gerokoan ere kudeatu eta konpondu beharrekoak, baina ordurako utzi behar dira.

Hala ere, euskaltzaleen diskurtso horretan konfiantza eta baikortasun puntu bat antzema-

ten da, prozesu hori zentzuz eta gizartean arazo gutxi eraginda kudea daitekeelakoan.

Edonola ere, ohartaraztekoa da ez dagoela diskurtso taxuturik eta denek onarturik Euskal Herriaren ideiaren inguruan. Goraxeago esan denez, gizartean balore erakargarrienak (euskal) kultura eta euskara dira. Haien atzean Euskal Herriaren benetako egituratzea antzematen da (baina gogokoa izan arren badakite horren negoziazio publikoa zaila izango dela).

Diskurtsoari darion sentimenduzko tonuak zerikusi handia izan dezake goiko lerroaldean aipatu den asmo eta idealarekin. Antzekoa gertatzen da Pirinio aldean eta Iruñako gazte euskaltzaleen artean, ez aldiz, Sakanan.

Gutxitan esaten da *Euskal Herria* izena, ez da nortasunari buruzko erreferentzia zuzenik ("nortasuna, euskal nortasuna, gure nortasuna") erabiltzen, ezta izendapen etniko-nazionalik (euskal herritarrak, euskal jendea, euskal komunitatea) erabiltzen ere.

Argi dago Euskal Herriaren ideia izan badena, baina **aitzinsuposizio** gisa gehienbat. Aurretik –eta zehaztu gabe– sumatzen eta interpretatzen den zerbait da, arrazoi edo kausa bezala, ez ordea **predikazio** bezala, hau da, ez da taxuz, argi eta zalantzagabe jakinarazten edo adierazten Euskal Herria *zer den* eta *zertan gauzatzen den*, orain eta hemen. Bestela esanda: Euskal Herriaren ideia ez da erreferentzia nagusia diskurtsoan.

> *Yo me atrevo a decir que el miércoles pasado dieron en la televisión el programa este de la pelota vasca. Y me parece que en el último capítulo me parece que era Atxaga que decía que mas que Euskal Herria teníamos que hacer Euskal Hiria, porque Euskal Herria viene "lotuta" viene atado a conceptos de tradiciones de antiguo… de tal, y estamos moviendo en conceptos de actualidad, que "Euskal Herria" es muy bonito y que igual sólo se queda en el romanticismo.*
>
> *Tiene que ver más con la antropología que con un Estado moderno, […] aunque está diciendo también Álava que si hubiera independencia ella también se independizaba, le veo como cosa práctica muy difícil. Para trabajar como antropología si, pero de cara al futuro no sé hasta que punto, estaría representado como la Europa de los pueblos, que estaría representado como pueblo pues… me gustaría pero lo veo muy difícil porque los Estados tienen tanta fuerza ahora…*
>
> *(Tarteko adina, euskaltzaleak, Lizarra)*

Euskal Herriko lurraldeen arteko harremanei helduz, berriz ere geratzen da agerian gizartean Iparraldeko biztanleengana dagoen urruntasun sentsazioa:

> *Sobre todo el desconocimiento grande con Iparralde, se hizo una vez un **mapa**, el **mapa psicológico**, entonces preguntaban a uno de Bilbao o de Donosti, que está más cerca Pamplona o Baiona, y decía Pamplona, entonces el mapa psicológico era que Iparralde estaba allí lejos, cuando resulta que está más cerca. Entonces cruzar ya esa muga psicológica que hay allí. No sé, los de Baja Navarra tienen una barrera psicológica…*
>
> *– La barrera psicológica es ahora, porque antes era una barrera con todas las de la ley.*
>
> *– Sí, sí, que te pilla lejos.*
>
> *(Tarteko adina, euskaltzaleak, Lizarra)*

Euskal Herriko mapa mamiz eta gizarte harremanez bete beharko litzateke, kontzeptuak zentzua eduki dezan, espazioaren irudikapenez edo kartografi lanez gaindi.

Nafarroan (eta beste toki batzuetan) Euskal Herriaren kontzeptua Nafarroako Estatuarekin lotzen da, zehazki Nafarroako Erresumarekin (NE aurrerantzean). Nafarroako euskaltzaleen iruditegian (ez bakarrik bertakoenean) horixe izan da betidanik erreferentzia nagusia. Historia eta politikaren interpretazio horren adierazpen landuena historia eta kultur talde bat da, ***Nabarralde*** izenekoa. Ikuspegi horretatik Euskal Herria bat dator X-XII. mendeetako Nafarroako (Euskal) Estatuarekin.

Euskal Herri historikoaz dabilen eztabaida horren aurrean zalantzan jartzen da horrelako planteamenduak harira ote datozen, alegia, ahaleginak ez ote diren bideratu behar egingarria eta benetakoa den Euskal Herri bat lortze aldera.

Tutera aldeko Erriberan nafartasun sentimendua zerbait aparteko eta berezi bezala agertzen da. Nafar izatearen sentimendua ikaragarri indartsua da, eta badago Erribera/Mendialdea muturren arteko dikotomia bat. Pertsona batzuek bere burua Nafarroa unibertsalago bateko partaide ikusten dute, eta errealitate horren eragile edo moldatzaile nagusia Ebroko Ibarra litzateke:

> *Más nos parecemos casi a Aragón que a la Navarra Alta.*
>
> *(Tarteko adina, ez-euskaltzaleak, Tutera)*

Haatik, sentimendu sendoena hauxe da: "nafarrak gara eta kitto". Euren nafartasuna nafar izatearen eredu gisa jartzeko joera ikusten dute –Nafarroako beste toki batzuetan bezala, bestalde– baina kolektibo hau, gainera, Ebroko Erriberako biztanle sentitzen da.

Onartzen dute Nafarroa askotarikoa dela, eta hasieran beste ezer baino gehiago nafar sentitzen direla esan arren, azkenean onartzen dute nafarrak eta Erriberakoak sentitzen direla neurri berean, eta askotan Erriberarekiko atxikimendu hori eta nafartasuna elkarrekiko lehiaraino ere iristen direla beren baitan.

Nolabait, "Erriberakoek" osatzen duten berezko talde hori bat etorriko litzateke berezkoa ere baden "Nafarren" taldearekin. Xehetasun askorik gabe "Mendialdea" aipatzen dute, "Iruñatik gorakoak", hain justu.

> *¿Cómo os sentís vosotros?*
>
> – *TODOS (alto y claro): ¡¡NAVARROS!!*
>
> – *Yo me siento navarro, yo pienso que de Pamplona para abajo todo lo que sea la castellana, es todo Navarra pura, de siempre. Ha emigrado mucha más gente del norte de Navarra que del sur. La mayoría de los que conozco yo, había trabajado de pastores, en Francia, y ya es otra cultura más cerrada…*
>
> – *Más nos parecemos casi a Aragón que a la Navarra Alta.*
>
> – *Ha dicho cómo nos sentimos, no a quien nos parecemos.*
>
> – *Nos sentimos Navarros.*
>
> *(Tarteko adina, ez-euskaltzaleak, Tutera)*

Lehenbizikoan Erriberatik urrun antzean ikusten dituzte EAEko biztanleak, baina onartzen da, halaber, Nafarroak baduela zati euskaldun bat, eta beste lurraldeekin konparaturik, euskal herritarrekiko loturak ere baduela berezitasun bat:

> – *Yo a los vascos les veo igual que a los de Aragón, que a los de Soria, que a los de Pontevedra.*
>
> – *Yo me identifico más con un vasco que con un aragonés.*
>
> – *Yo les he considerado siempre prepotentes de cara a nosotros. Pues que han tenido siempre la industria y aquí en la Ribera hemos sido más de… Yo creo que se han considerado siempre más… Y por eso no me gustan especialmente.*
>
> *(Tarteko adina, ez-euskaltzaleak, Tutera)*

Erriberan nafar nortasuna irmoturik dago herritar gehienek bere eginda dituzten kontzeptuen bidez, lurralde oparoa dela, berezko instituzio publikoak –foruak– dituena… Nafarroako aberastasunaren oinarria, bertako egitura politikoaz gain, herritarren eta agintarien jarduteko era egokian datza:

> *…en Navarra, tenemos un peso específico importante y yo no quiero ser la hermana pobre de nadie, y me temo que si nos incluyen en Euskadi seremos los* ***hermanos pobres como han hecho con Alava****. La capital la vamos a poner en Vitoria por daros algo.*
>
> – *Es que si sale Euskadi en Navarra, la capitalía la pondrían en Pamplona porque es la más antigua.*
>
> – *La daría la capitalidad, pero guipuzcoanos y vizcaínos serían los que mandarían.*
>
> – *Yo creo que tendrían la sensación de como que nos han hecho un favor, es que esa es la sensación que a mí me da. Y no nos están haciendo un favor.*
>
> *(Tarteko adina, ez-euskaltzaleak, Tutera)*

Diskurtso honetan ez da Euskal Herriaren kontzepturik agertzen. Maizen azaltzen dena, begirada hotza da, kexa eta nolabaiteko ezinegona adierazten duena bai modu generikoan *Euskadiko Arazo* esan ohi zaionarekiko, baita beren esparrurako (Nafarroarako) hedatze "deseroso" horrekiko ere.

Horrela pentsatzen dutenen ustez beren egoera ekonomiko pribilegiatua (halakotzat daukate eurek) eta beren instituzioen egonkortasuna mehatxupean geratuko lirateke euskal instituzioen peko esparruan sartuz gero, zeren horrela gertatuko balitz puntako lurraldea izatetik periferiako lurraldea izatera pasatuko bailirateke.

Ondorio gisa, honaino azaldutakoaren ildo beretik, esan daiteke Euskal Herriaren ideiak ez duela garrantzi handirik taldeetan, ia ez delako –onerako edo txarrerako– haien diskurtsoetan ageri. Taldeetan azaleratzen diren aldeko jarrerak, atxikimenduak, ezaxolakoak zein ukoak ez

dira Euskal Herriaren ideiaren haritik eratzen. Geroago ikusiko denez, jarrera horiek euskal nortasunaren eta euskararen inguruan sortzen dira.

Hala ere, Euskal Herriaren ideiak jasotzen duen atxikimendua nabarmen aldatzen da talde batetik bestera. Haietako batzuentzat pisu handia du, eta beste batzuek, ordea, ez dute ia aztertu ere egiten. Zenbaitetan iraganari lotutakotzat hartzen da, eta bestetan uko ere egiten zaio. Horrelako aldaketek zerikusi estua bide dute euskal nortasunari Nafarroako toki desberdinetan ematen zaion garrantziarekin.

2.3. EUSKAL NORTASUNA

2.3.1. Euskal nortasuna Nafarroan: ohar batzuk

Gaurko ikerkuntza soziologikoak gogotik eta sekulako interesarekin heldu dio banakoaren, taldearen eta kolektiboaren nortasunarekin zerikusia duen orori.

Nafarroaren kasuan esan daiteke lurralde horretan euskal nortasunak ez duela, inondik ere, estatus finko bat iritsi. Talde desberdinetako diskurtsoen arabera, argi dirudi inork ez duela euskal nortasun bat dagoela ukatzen. Nafarroa bera ere ezin uler daiteke historia, kultura, gizartea eta ekonomia ukitzen dituen datu hori aintzat hartu gabe.

Taldeetan parte hartu zuten nafarretako batzuek aditzera ematen zuten era askotakoak senti litezkeela: aberats edo pobreak, kultur kapital handi edo murritzekoak, ezker edo eskuinekoak, kontserbadore edo liberalak... ia zernahi, baina inola ere ez euskal herritarrak. Ez dira euskal herritarrak ez dutelako beren burua horrela "sentitzen". Eztabaida-taldeetan esandakoei erreparatuz gero ez dago zalantzarik hori horrela dela, eta ikerlan honetarako esanguratsuagoa den zerbait ere zalantza gabekoa da: jarrera hori ("euskal herritar ez izatea") talde-bereizgarri nagusietako bat izateraino iristen da, "bestearen" fotokopia negatiboa balitz bezala.

Dena den, baliteke Nafarroan euskal nortasunaren pertzepzioak eta "Euskal Herrikoa izateak" ez izatea azaltzeko logika bera. Ez da gauza bera. Badirudi euskal nortasuna moldagarriago ulertzen dela, kontzeptu malguagoa dela.

> *Yo hice la mili en Valencia, y cuando haces la mili tienes que hacer unos amigos, yo tenía amigos de todas las clases, pero a la hora de merendar iba con los de la Ribera primero, pero después yo estaba con los de San Sebastián, con los de Bilbao, [...] en una palabra* ***con los del Norte.***
>
> *(Tarteko adina, ez-euskaltzaleak, Tutera)*

> *A mí me parece genial que se consideren vascos mientras que ellos no pretendan que yo me considere vasco.*
>
> *(Helduak, ez-euskaltzaleak, Iruña)*

Edonola ere, diskurtsoa aztertzean ikusgai geratzen dira elkarren paraleloak eta beti elkar ukiturik doazen jarrerak. Euskal Herriari eta euskal nortasunari buruzko diskurtsoak etengabe elkartzen dira. Gaur egun gai horiei Nafarroan eman (ez) zaien konponbide politikoa ez da batere lagungarria, aitzitik, etsipenaren eta kezkaren elikatzailea da.

Lehenago esan bezala, itxura batean inork ez ditu auzitan jartzen Nafarroako euskal ezaugarriak. Gaia **korapilatzen** da, ordea, **euskal nortasuna** eta **politika** elkarri helduta agertzen direnean, eta Nafarroan hori euskararen eta irakaskuntzako hizkuntz ereduen gaineko gatazkan gorpuzten da (beste lurralde batzuetan gatazka, hein handiago batean, instituzioen alorrean agertzen da, hizkuntz normalizazioa askoz aurreratuago dagoelako).

Azaldu denez, **Nafarroakoa izatearen sentimenduak** talde guztiak zeharkatzen ditu. Izan ere, beste ezer baino lehen nafar sentitzea atxikimendu gehien biltzen dituen adierazpena da. Denek adierazten dute harro beren nafartasuna, kasuan kasu bestelako nortasunekin (tokikoa, euskal herritarra, espainola) uztarturik.

Tokikotasun hori, hain zuzen, diskurtsoaren edukia ikusgarri markatzen duen aldagaia da. Norberaren ibarra edo herria funtsezkoak dira alde horretatik, nortasun sendoen eragile dira.

Aurreko hori gogoeta egiteko modukoa da, hortik abiaturik ezbaian jar litekeelako instituzionalizazio prozesu nafarrak benetan lortu ote duen nafar nortasuna muinez hornitzea, non eta ez duen horretarako etengabe jotzen Euskal Herriarekiko eta euskal nortasunarekiko desberdintasunetara.

Interpretazio batzuen arabera eratze prozesu berri hau ez da oraindik kontzeptu partekatu eta

egituratzaile batean gauzatu, eta horregatik tokian tokiko herritarrek beren nortasuna garatu behar dute hurbilen eta eskuragarrien dituzten atalekin.

Bestelako interpretazio bat ere egin liteke, horren arabera guztiz uztargarriak bailitezke nafartasun sentimendu irmo bat eta besteen desberdina den nafartasunarena. Hala bada, nahiz eta oraindik ez den erabat instituzionalizatu nafartasun ideia komun bat, gaur egun eraikitzen ari da, foruak, egoera ekonomikoa edota Euskadirekiko desberdintasunak oinarri hartuta.

Ikuspegi horretatik azaleratzen ari den nafar nortasuna duela gutxikoa da, eraikitzeko bidean oraindik, baina era berean, gero eta sendoagoa. Hala izan edo ez, argi dago hori etorkizuneko azterbideetako bat izan litekeela, geroko ikerlanek sakonago ekiteko modukoa.

Euskal hiztunetan agerikoa da **komunitate minorizatu bateko kide** izatearen sentimendua. Biztanle gehienak ez euskaldunak diren tokietan (taldeak antolatu ziren eskualde gehienak, Sakana salbu) euskal hiztunek, nolabait, ghetto moduko batean daudela sentitzen dute.

Eguneroko bizitzan euskaldun izatea oztopo bihurtzen da zenbait lanpostutara edo botere esparrutara iristeko orduan, horiek ia kolektibo nabarristen eskura bakarrik daudelako.

Gainera, beren burua aparteko azalpenak ematera beharturik ikusten dute, indarkeriaren edo muturrekoak omen diren jarreren aldekotzat har ez ditzaten. Nafarroan **euskal hiztun** izatea erradikalen bizimodu edo pentsaera jakin bati loturik agertzen da, eta hori, Nafarroan, **tradizionalki kontserbadorea den gizarte batean, ez da lagungarria gizarte horretako zati handienak kolektibo hori ongi har dezan**. Argi dirudi euskal hiztunen gaineko estereotipo bat dagoela, ezaugarri zehatz samarrekin irudikatua eta janzkera, pentsaera eta abar jakin batzuk eratxekitzen zaizkiona.

Izan ere, euskaldunen artean nolabait beldurra dago euskaraz egite hutsagatik ez ote duten pertsona hori ideia jakin batzuekin erlazionatuko, bereziki komunitate txikietan.

Euskaldunen ustez, bestalde, beste kolektiboek gutxietsi egiten dituzte beren kultura eta hizkuntza, eta herri gehienetan auzoko ez euskaldunak eduki arren, horiek ez dute ahaleginik egiten kultura euskaldunera hurbiltzeko, eta zenbaiten iritziz, begirunerik ere ez diote. Minduta sentitzen dira, euskal kulturarekin lotura zuzenik ez dutenek ez dakitelako ezertxo ere hari buruz.

Aurrekoaren ondorioz, **batek bere burua euskaltzale aurkeztea eta euskal herritar sentitzea askoz zailagoa da Nafarroan EAEn baino**. EAEn, ordea, gerta liteke euskal herritar sentitzen ez den pertsona batek bere burua gehiengoaren iritzitik aldendurik ikustea, ez lukeelako nortasun argirik izango helduleku gisa.

Zaila da EAEn nortasun espainola zer den garbi zedarritzea. Badaude beren burua lurraldearen arabera definitzen dutenak (galiziar, estremadurar, andaluziar edo gaztelar sentituko dira, baina oso gutxi dira argiro espainiar agertuko direnak). Hortaz, euskal herritar sentitzen ez denak zailtasun larriak izango ditu bere nortasuna kokatzeko.

Nafarroan egoera alderantzizkoa da: euskal herritar sentitzen denarentzat ez da samurra horrelakotzat agertzea, hala egiten dutenek zailtasunak dituzte-eta egunerokoan eta bere inguru hurbilean. Euskal herritar agertzen ez denak ez du arazorik bere nortasuna gutxi-asko garatuta dagoen nafar nortasun batean murgiltzeko, azken hori, lehen esan den bezala, biztanle guztiengan ageri delako.

Nafarroan, euskal herritar ez dena nafar sentitzen da, herritar guztiei, neurri batean edo bestean, gertatzen zaien moduan. EAErekin alderaturik, kontuan hartu behar da, halaber, Nafarroara ez zela etorri Bizkaiko eta Gipuzkoako industri aldeetara adinako migrazio korronterik, hortaz, lurralde horretan bereizgarria den nortasunaren aurrean ez da ia beste aukerarik eratu.

Ikerketa taldeak Nafarroako euskal nortasun kontzeptuan aurkitu duen tradizio kutsua askoz errotuagoa da EAEkoa baino. Euskal kultura eta nortasuna bilakatu beharraz esaten direnak oso azalekoak dira, Nafarroako ikuspegitik tradizioa bera delako euskal nortasunaren bereizgarri nagusia. Sakanan izan ezik –jarraian aztertuko da hango taldea– egunerokoaren elementuak ez dira euskal kulturaren osagaitzat hartzen.

Bestalde, etorkizunari begira hausnarketa egiteko modukoa izango da integratzen edo bazterretara lerrokatzen ote diren etorkinekin batera, eta ezinbestean, Nafarroara datozen nortasunak, ordura artekoak ez bezalakoak. Itxaron egin beharko da jakiteko zenbaterainoko

gaitasuna duten nafar gizarteak eta nortasunak nortasun berrien sortzaile horiek bere baitan hartzeko eta bera ere haietara moldatzeko.

Azkenik, ezin zonalde mistoak aipatu gabe utzi, haietan euskara belaunaldi gutxi batzuetan galdu baitzen, eta **malguago gertatzen da norbera nortasun bati atxikitzea**. Izan ere, belaunaldi aldaketa dela medio, euskara desagertu edo ahuldu zen, eta zenbaitetan euskal herritar sentitzea norbanakoaren aukera gisa agertu da (badaude euskal nortasunari uko egin zioten euskaldunen ondorengoak, eta horiek bezala, badaude jatorri euskaldunekoak ez diren beste batzuk, begikotasunagatik, jakin-minagatik, etab. euskara ikasteari ekin diotenak). Ez da harritzekoa, hain zuzen, familia berean nortasun desberdinak bizitzea.

2.3.2. Euskal nortasunaren kontzeptua: diskurtsoaren azterketa

Sakanako taldean euskal nortasuna "sasoi on-onean" dago gizartearen baitan. Taldeak bere burua aurkezten du, nolabait, inguru "berezi" baten partaide gisa. Esan liteke bazterturik sentitzen direla.

Sakanako euskal herritarrentzat euskal nortasunaren adierazgarri nagusia euskara da. Hizkuntza da bereizle eraginkorrena, eta antzera gertatzen da ohituren, bizimoduaren eta izaeraren bitartez. Hala, bada, euskal nortasuna eta euskal kultura baliokide dira.

Euskal nortasuna, Sakanako gizarte-jardueretan gauzatua:



Hizkuntzaren aldetik, hain zuzen, Nafarroako eta EAEko leku euskaldunenetan diskurtsoa oso antzerakoa da. Biztanle gehienek euskaraz egiten dutenean eguneroko bizitzako alderdi guztiak (azturak, gizarte ohiturak, harreman motak, aisialdia) euskal kulturaren adierazpidetzat hartzen dira.

Hala ere, hizkuntzaren erabilerak behera egiten duen neurrian egunerokoak diren elementu horiei lotura meheagoa antzematen zaie euskal kulturarekin, eta argiago ikusten dira tokian tokiko edo nafar nortasunaren adierazgarri gisa.

Azkenean, eta elementu bakan batzuk salbu (euskal pilota, kasu), ez dago ia beste elementurik taldeetako kide guztiek beretzat eta aldi berean euskal kulturakotzat hartzen dutenik.

Iruñan gazte euskaldunek euskal nafartzat aurkezten dute beren burua. Familiatik, eta harremanak eratzeko eta gizarteratzeko eraren bidetik euskal nortasuna esaten zaionaren eragina handia jaso dute. Egia da, bestalde, nortasun hori bizi diren lekuan (Nafarroa) zabaltzen eta "eraikitzen" dela.

Atxikimendu politikoagatik baino, "hemen" jaio izanak eta "mehatxupean" dagoen nortasunarekiko interesak sentiarazten ditu euskal herritar. Bere sentitzen duten nortasun hori defendatzea nortasunaren beraren osagai nagusietako bat da.

> *¿Qué es lo que nos hace sentir vascos?*
>
> – *Es muy personal. Desde que nací mis padres me encaminaron, ikastola…*
>
> – *Yo no he ido a la ikastola, ni políticamente no he tenido un núcleo cercano nacionalista… yo más nostalgia por el euskara y la cultura vasca, es una zona que me gusta mucho. Porque está apaleada.*
>
> – *Yo me siento vasco, porque mi familia siempre ha sido nacionalista. Lo que me han trasmitido. Yo soy muy poco folklórico, las danzas… no me dicen nada. Pero me siento vasco porque soy vasco.*
>
> – *Yo porque he nacido aquí. Y las cosas de aquí te hacen vivir de una forma, para toda la gente. El sentimiento patriótico lo crea los machaques que sufre.*
>
> *(Gazteak, euskaldunak, Iruña)*

Gehien-gehienak *gutxitua* dagoen nortasun baten partaide sentitzen dira. Ezinegon etengabea ekartzen die nortasun minoritario bat, berdintasun onarturik ez duen nortasun bat mantentzearen karga emozionalak.

Gorago esan denez, batzuetan komunitate euskalduneko kide izatea traba bilakatzen da zenbait lanpostutara, ardurako karguetara eta Nafarroako instituzio egiturara heltzeko:

> *Sabemos que nos van a etiquetar, en un ámbito profesional no nos podemos definir políticamente, salvo que seas un (gran) profesional… y eso es muy difícil, hay que tener mucho cuidado con lo que se dice.*
>
> *(Gazteak, euskaldunak, Iruña)*

Euskaldunek Nafarroaren euskal nortasunari eusteko konpromisoa sentitzen dute. Nahiz eta estresagarria izan euskal herritar-nafarrak direla eta halakotzat sentitzen direla "azaldu behar" izatea; nahiz eta –nahita edo gogoz kontra bada ere– beti banaketa politikoetan sartu behar, taldeen diskurtsoan baikortasun puntuak antzematen dira.

> *¿Cómo se vive en Navarra siendo vasco? ¿Cómo os sentís frente a los que no son vascos?*
>
> – *Si hablásemos con alguno de Bera, el ser vasco no te da miedo. Pero si vas a Tudela te da más miedo y más respeto, y puedes decir que eres más navarro. Depende de con quién hables*
>
> *(Gazteak, euskaldunak, Iruña)*

Bestalde, biziki interesgarriak gertatzen dira zenbait alorretan dituzten ohiturak, esate baterako kontsumitzeko modu desberdina, harremanetan jarduteko era (koadrilarekiko leialtasuna), aukera musikalak eta folklorearekiko gustua, aisi eta asti lekuak, eta beren burua aurkezteko janzkera eta itxura.

Goiko hori guztia talde honen *bereizgarri* da. Ez gara bizimodu jakin eta nahastezin batez ari, ezta euskal peto-petoa den bizimodu batez, baizik eta jarrera estetiko eta jokaera batzuei heltzeko joera handiago edo txikiago batez, gizarte-jokamoldeen artetik aukera egiteaz (adibidez: jaiak/diskoteka, "txupa"/jaka, kirol txamarra/parka, astialdia taldearekin/nork bere aldetik ematea…).

Uste dute, neurri batean, estereotipo hori beste oztopo bat dela bertako lurraldean eta egoeran; gazte horietako asko beldur dira ez ote dituzten nahasiko indarkeriaren munduko taldeekin edo horiengandik hurbil dabiltzanekin.

EAEko euskal herritarrek –haien iritziz– ez dute horrelako arazorik, han guztiz normala delako bere burua euskal herritartzat dutenak edozein aukera politikoren aldekoak izatea. EAEn, pertsona bat euskal herritar izateak ez du zertan pentsarazi harreman estuagoak dituenik, nahitaez, ezker errebindikaziogileenarekin edo erradikalenarekin. Euskal herritarren artean denetako aukerak bide daude: kontserbadoreak, apolitikoak, erradikalak... uste dute, azken batean, Nafarroan ez bezala EAEn ez direla uztartzen euskal nortasuna eta militantzia politikoa.

Horretaz gain, belaunaldien arteko etena izan den beste zonalde misto batzuetan bezala, euskal herritar sentitzea nahikoa librea da, eta familiaren tradizioak EAEko toki batzuetan baino eragin ahulagoa du aukera horretan. Taldeetako partaide batzuek bere egin dute euskal nortasuna gogoko dutelako edo horrela sentitzen direlako, nahiz horretarako joerarik ez heredatu familiatik.

Iruñako ez euskaldunen **taldean** nolabaiteko asperdura antzematen da euskal herritar sentimenduarekiko, baina horrekin batera elkar hartu beharra ere aipatzen da ("elkarri moldatu beharra dugu", "norbera nahi duena izan dadila, eta ez inork beste inor ezertara behartu").

Horietako batzuek diotenez, onargarria izan daiteke nafarrak euskal herritar izatea, baina ez gipuzkoarrak edo bizkaitarrak euskal herritar diren modu berean. Nafarroan –diote– euskal nortasuna Nafarroako moduan ulertu behar da.

Taldeko diskurtsoan beste ikuspegi bat ere agertzen da, **euskal nortasuna onartzearen aurkakoenek** daukatena, hain zuzen. Haien iritziz, horrek "nafar nortasuna" zapaltzea dakar. Giroa gaiztotu egiten da Nafarroako euskal herritarren eskaerak ukitzean, orduan elkarrizketa itsutu egiten delako, eta haren ordez urduritasuna eta susmo txarrak biziagotzen dira.

Euskal gatazka politikoa ere kultur gaien eztabaidarekin nahasten da. Kultura eta politika arlo desberdinak izan arren Nafarroako euskal herritarrek eskatzen dutena kaltegarri ikusten da Nafarroarentzat. Haien hitzetan igartzen da, nonbait, gai hau norberaren eta taldearen estimua ukitzen duen zerbait dela.

Nabarrismoaren aldekoen diskurtsoan ez da interpretazio lasairik ageri Nafarroako euskal nortasunaz jardutean. Kulturaren alorrean politikagintza zuzenak euskaltasuna eustea izan behar du helburu, hori kontrolatzea eta ahultzea, alegia. Ez dago, beraz, kultura eta politika elkarrengandik bereizterik.

Nafarroako euskal nortasunarekin zerikusia duen oro labainkorra gertatzen da, eta nolabaiteko ezinegona sorrarazten du taldeko partaideengan. Nafarroan auzi honetaz argi hitz egiteak eztabaida eta desadostasuna ekarri ohi ditu berekin. Batzuek aurretiaz eta oso murritz finkatutako azalpenetara jotzen dute:

¿Cómo se percibe lo vasco en Navarra?

– *Yo creo que Navarra será vasca siempre que la consideren vasca los navarros. ¿Se puede separar la identidad vasca de Navarra? Yo creo que no... Tengo amigos, gente que han sido vecinos que un día, como una evolución decidieron ser vascos. Y otros que éramos vecinos no tuvimos esa decisión. Tienen unos padres que no son vascos y ellos decidieron ser vascos.*

– *Para mí vascos son todos los que hemos nacido en el País Vasco. El País Vasco son las 4 provincias de aquí más las francesas. Por el hecho de haber nacido en Pamplona yo me considero vasca. Me siento vasca, me siento navarra, simplemente por el hecho de haber nacido aquí.*

(Helduak, ez-euskaltzaleak, Iruña)

Batzuk pixka bat larriturik agertzen dira, Nafarroa "gero eta euskal herritarragoa" izango delakoan.

– *Yo creo que vamos un poco hacia lo vasconavarro. Pero respetando a todo el mundo.*

– *Sí va a haber más gente que sepa euskara y que conozca, pero creo que Navarra va a seguir con su identidad.*

(Helduak, ez-euskaltzaleak, Iruña)

"Euskal gauzen" aurkako jokaera hori azaltzeko, euskaltasuna muturreko jarrera politikoen eta abertzaletasunaren pare jartzen da:

– *Porque se asocia al independentismo*.

– Se asocia al nacionalismo vasco y a las expresiones más radicales del nacionalismo vasco.

– *No nos gusta nada que se hable de que Navarra pertenezcamos a ellos.*

(Helduak, ez-euskaltzaleak, Iruña)

Esan liteke, **ondorio** gisa, biztanle multzo bat haserre samar agertzen dela bere ustez nafartasunaren aurkako jazarpena denagatik. Beste multzo batek alde nabaria ikusten du euskal eta nafar nortasunen artean, eta elkarrekiko errespetu eta begirunearen alde egiten du. Hirugarren diskurtso batek ez du ulertzen zergatik dauden nafarrak hain zatiturik gai honengatik, eta nortasunen manipulazioa aipatzen du. Azkenik, beste batzuek, nahiz eta adierazi badagoela alderik Nafarroako euskal herritarren eta kostaldeko lurraldeetakoen artean, uste dute izaera horrek markatuta dagoen talde batez ari direla, eta beraz, ez dute beren burua kidetasun-talde horretatik kanpo uzten.

Taldeko guztiak kezkaturik daude, haien ustez gaia *politizatuta* dagoelako. Diotenez, gizarte –eta politika– arazoak manipulatu eta karikaturizatu egiten dira, eta azken batean maltzur erabili ere, norberaren interesen arabera.

Pirinioetan (**Otsagabia**) eta Nafarroako erdialdeko toki askotan egoera askotxo aldatzen da, eta berezitasun nabarmenak azaleratzen dira. Inork ez ditu ukatzen Nafarroako mendialdeko euskal sustraiak. Oro har, bat datoz jatorria, zalantzarik gabe, euskal herritarra dela, bereziki hizkuntzan eta ohituretan oinarritua. Baina nortasuna, lehen-lehenik, tokian tokikoa da, ondoren nafarra eta, kasuan kasu, euskal herritarra:

¿Cómo os sentís vosotros, navarros, vascos, vasco-navarros?

– *Habitante del pirineo.*

– *Salacencos.*

– *Montañés.*

– *Yo vasco-vasco.*

– *Yo no sé lo que me siento.*

– *Yo vasco-navarro de Salazar.*

(Tarteko adina, mistoa, Otsagabia)

¿Esta identidad del Valle de Salazar (Pirenáica) cuánto tiene de vasca?

– *Todo, todo, si miramos hacia atrás. Todas las zonas tienen sus peculiaridades, el valle de Salazar tendrá la suya propia, y los de Cascante y... pero si generalizamos un poquito más, elementos vascos hay en todos los ámbitos de la vida. En las casas, los nombres, apellidos, los campos, las tradiciones... Como base tiene mucho. Mis padres son los dos de aquí, de Esparza, y mi padre siempre ha dicho: yo soy vasco navarro. Llegó un punto que el tema de la política que hoy mediatiza todo, él dice, yo soy vasco, sí, pero navarro también. La diferencia la marca teniendo en cuenta matices políticos.*

(Tarteko adina, mistoa, Otsagabia)

Hemen nortasun sentimenduak badu berezitasun bat, EAEko biztanleen kasuan ageri ez dena, EAEn familiaren hizkuntza edo jatorrizko lekua ez direlako, hain zuen ere, euskal nortasunaren eragile bakarrak.

Izan ere, Nafarroako alde honetan eta Erdialdeko toki askotan ere, hizkuntza galtzearekin batera euskal nortasunaren gainbehera ere hasi zen, erabatekoa edo, gutxienez, neurri batekoa. Gainera, mezu politikoetan euskal nortasunak bakarrik du zerikusia EAErekin edo, gehienez, Nafarroako euskal hiztunekin.

Norberak hala aukeratuta, batzuk euskal herritar-nafar sentitzen dira. Edonola ere, **Nafarroan euskal herritar izateak** edo **hala agertzeak aparteko azalpenak eta desgogoko egoerak** dakartza, beti ere politika kutsudunak; ez da halakorik gertatzen –dio taldeak– EAEn.

Que tienes que andar dando explicaciones de por qué has dicho que te sientes vasco, y le tienes que recordar a la gente lo que hablaba su padre y no hablaba su madre. Es que vas a Vizcaya y votes a lo que votes dices que ese tío es vasco. Y yo ¿porqué no? Yo tengo que demostrar que soy vasco y encima para que no haya una discusión sobre el tema tengo que dar argumentos.

(Tarteko adina, mistoa, Otsagabia)

Pirinio aldeko ibarretan badago euskal nortasuna sendo errotua duenik, baina beti tinkoagoa den tokitasun sentimenduari helduta. Egitura horretatik kanpora abiatuz gero, ordea, diskurtsoa nahasiago bilakatzen da, eta haren berezitasuna eta argudioak ilunago ikusten dira. Azkenean taldeko kideek aurre egin behar diete, lasaiago edo estuago, nahiko aukera korapilatsuei.

Ahí fuera nos presentamos como vasco-navarros, pero en el Valle en la vida dirán soy vasco-navarro. Tal y como están las cosas esa persona no repetirá en la vida en el valle, eso que dijo en Benidorm de que soy vasco-navarra.

(Tarteko adina, mistoa, Otsagabia)

Argi dago, haatik, inork ez duela bere burua nafar soilik aurkezten. Bestela uko egin beharko liokete beren lurraldearen euskal nortasunarekin duten loturari, berau tinkoagoa nahiz ahulagoa izan, eta aterabide horrek ez dirudi zentzuzkoa. Gehienek nortasunaren alderdi erosoena aukeratzen dute: zaraitzuarra; mendialdekoa; Zaraitzuko euskal herritar-nafarra. Batek baino ez du esaten: "ni, euskal herritarra baino ez". Mendialdekoek honela adierazten dute beren nortasuna: "Nafarrak bai, euskal herritarrak ere bai, baina ez horrenbeste; norbait euskal herritar izatekotan, lehengo jendeak bai euskal herritarrak. Orain, aldiz, bene-benetako euskal herritarrak Ipar-mendebaldeko nafarrak dira".

Lizarra aldean euskal nortasunak hasiera-hasieratik eutsi behar dio leporatzen zaion honi: zenbateraino den **Nafarroakoa bertakoa** eta zenbateraino EAEtik **ekarria**.

> *Sí, yo aquí, por ejemplo, en Estella, yo a la gente que está en contra del euskara, les veo que para ellos es algo que viene de fuera. O sea, ellos no entienden que un navarro pueda ser vasco.*
>
> *(Tarteko adina, euskaltzalea, Lizarra)*

Ez euskaldunak gehiengo diren lekuetan euskal **subkulturak** sortu dira; toki mailan eratuak, berezko erreferentziak eta ohiturak dituzte, bertako ez-euskaltzaleentzat ezezagunak. Lizarrako kasua horren erakusgarri argia da.

Lizarra aldeko euskaltzaleen artean euskara beren euskaltasunaren oinarri sendo bat da. **Euskararen bitartez batzen dira, elkar ezagutzen dute eta elkar bereizten dute besteetatik**. Berezko ezaugarria da kidetasun-talde "ez-euskaltzaleen" aurrean.

> *Yo pienso que sin querer nos agrupamos, o sea que muchas veces te vas dando cuenta que no puedes hablar de muchas cosas con mucha gente, además que toda la gente que somos afines al euskara nos hemos quedado agrupando por una cosa o por otra.*
>
> *(Tarteko adina, euskaltzalea, Lizarra)*

Indarkeria politikoaren ondorioak zinez kaltegarriak dira haien ustez, batik bat euskal kultura apalagoa den tokietan, behin eta berriz ezbaian jartzen denetan, hain zuzen ere.

> Me *acuerdo una vez que me dijo una señora: "Ay! Majica, majica, Itxaso, si tú eres vasca, pero tú eres vasca de las majas, verdad, de las buenas". A mí me pilla en la calle y yo le digo: "Bueno y usted qué entiende por un vasco bueno y un vasco malo, o a usted qué le parece o qué no".*
>
> *(Tarteko adina, euskaltzalea, Lizarra)*

Lizarra aldeko euskaltzaleak (euskararen aldekoak) baikor agertzen dira euskal nortasunaren bizirauteaz.

> *…somos más fuertes, como la historia lo ha demostrado.*
>
> *(Tarteko adina, euskaltzalea, Lizarra)*

Euskaltzaleak minduta ageri dira beren herriko batzuek gizabidez jokatzen dutelako abertzale sentitzen diren gipuzkoarrekin, baina kritikatu egiten dituzte sentimendu edo ideologia hori duten auzokoak. Ez dute ulertzen nola litekeen pertsona batek bere euskal nortasunari bizkarra ematea, edo zergatik herri bereko jendea muturreko jarreretan lerrokatzen den gai hori dela eta.

Uste dute batzuek kanpotik etorritako gauza arrotz bezala hartzen dutela euskaltasunarekin zerikusia duen zernahi, eta ahal diren oztopo guztiak jartzen dituztela euskarak eta euskal kulturak aurrera egin ezinik jarrai dezaten. Nortasunen gaiaren inguruan barrenak agindu ohi du, nonbait.

Nafarroako Erriberan diskurtsoak inon baino nortasun argiagoa adierazten du: lehenik nafarrak, gero espainolak. Ez dira batere euskal herritar sentitzen, baten batzuk salbu, eta horiek ia talde "marjinalen" antzera ikusita daude eta gutxi batzuk dira edonola ere. Bertakoen sentimendu nazionala espainola da, zalantzarik gabe. Euskaltasuna urruneko gauza da: auzoan dugu, baina desberdina da. Auzokidetza horrek, haatik, nabardura konplexuak azaltzen ditu. Ez dira berdinak, ezta guztiz desberdinak ere.

Alde batetik, Nafarroan bertan iparraldekoak euskal herritarrak dira, Erriberakoak nafar-nafarrak diren bezala eta iparraldekoak euskal herritar bezain nafarrak diren moduan. Erriberatarren nortasuna argi-argia da Nafarroako beste eskualde batzuetakoen aldean. Muga Iruñan dago: "Iruñatik gora"…

Diskurtsoan, bestalde, bertako kulturaren desagertzea azaleratzen da, tokiko ezaugarriak desagertuz edo besteekin berdinduz omen doaz. Erriberako gazteen ohiturak arin aldatzen ari dira.

Interpretazio bide beretik, Erribera Nafarroako iparraldearekin konparatzen dute. Iparraldea "benetakoagoa" bide da, ez duelako galdu bere sustraia den euskara:

> *yo a veces si que he echado en falta un pelín la lengua esa.*
>
> *(Tarteko adina, ez-euskaltzaleak, Tutera)*

Bestalde, nortasunen arteko nolabaiteko hurbiltasuna igartzen da, aitzinean guztienak ziren loturetara joz azaldua ("**Nafarroa osoa**"):

> – *¿Si a Euskal Herria lo llamásemos Navarra, querrías entrar con ellos, querrías agrupar las cuatro provincias?*
>
> – *Yo si hiciéramos el mapa de (*desde*) Navarra, yo estoy de acuerdo. Y que no se llame Euskal Herria, que se llame Navarra.*
>
> *(Tarteko adina, ez-euskaltzaleak, Tutera)*

Baina hori bezala familiako "ezinikusiak" ere azaleratzen dira: laidoak, zeloak eta susmoak, nortasunaren aurka egin litezkeen bortxak eta eskuartzeengatik.

> – *Dije, bueno nosotros somos navarros, navarros. La Historia que conocéis vosotros de Navarra no es la verdadera Historia. Los jóvenes no tienen ni idea de la Historia de Navarra. Se piensan que Navarra es una provincia que la ha colonizado el Ejercito español, pero es que les han inculcado, les han metido, les han hecho una especie de lavado de cerebro. Así, la juventud está muy equivocada.*
>
> *(Tarteko adina, ez-euskaltzaleak, Tutera)*

"Euskaltasuna" arazoei helduta eta atxikita ikusten da: protesta-zatiketa-gatazka-indarkeria.

> – *¿Con qué identificáis lo vasco?*
>
> – *Yo con violencia.*
>
> – *Sí.*
>
> – *Sea por una cosa o sea por otra.*
>
> – *Manifestaciones,… por lo menos es lo que se ve.*
>
> *(Tarteko adina, ez-euskaltzaleak, Tutera)*

Taldeen diskurtsoan e*rriberakoak euskal herritarretatik* bereizten dituzten ezaugarri batzuk ageri dira. Euskal herritarrek ez bide dute lekurik e*rriberatarren* nortasun kolektiboan, azken horiek desberdinak sentitzen direlako: ez dira berberak, eta ez dute inolako konpromisorik euskal herritarrengana, beren taldekide ez diren horiengana. *Erriberako jendeak* bakar-bakarrik dituen berezitasunak eta baloreek ia ez dute –edo ez dute– zerikusirik euskal nortasunarekin.

2.4. EUSKARA

2.4.1. Euskara nafarroan: ohar batzuk

Euskal hizkuntzari aitortzen zaion rola **funtsezkoa** da ikerlan honetako elementu asko interpretatzeko eta esanahiaz hornitzeko orduan. Talde gehienetan azaldutakoa onartzera, euskara ez da soilik hainbat nafarrek darabilten hizkuntza, aitzitik, "zerbait gehiago" ere bada. Euskara euskal nortasuna osatzen duten elementuen batzailea eta giltzadura da, eta horregatik da ezinbestekoa horiek aztertu eta ikertu ahal izateko. Euskara ez da nortasunaren adierazpide bakarra, baina hura gabe hemen aztergai daukagun irudikapen kolektiboa ustel geratzen da, zehaztugaberik.

Aurrekoarekin zerikusia du, beharbada, euskararen *nolakotasunak*. Izan ere, taldeetan azpimarratu egiten dira hizkuntza honek hain berezkoak dituen ezaugarriak, ikaragarrizko indar bereizgarria ematen diotenak. Ikerketa honetan azaldu izan dugunez, horrek berebiziko garrantzia du euskal nortasunean.

Nafarroan ere euskara auziaren muinean dago, eta askok euskal nortasunak gizartean duen indarraren adierazle gisa hartzen dute. Ikertutako beste elementuek bezala, euskarak gizartean pizten duen interesa bere ezarpenaren eta indarraren adinakoa da.

Gizarte-egiturazko alderdi batek –zenbat euskaldun dauden norbanakoen harreman sarean– eragin zuzena du erabileran eta gizarteak hizkuntzari nortasun-elementu gisa ematen dion garrantzian. Ez da ahaztu behar, horratik, hau ez dela bakarrik gertatzen Nafarroan, Euskal Herri osora zabal daiteke eta.

Azken bost urteotan nahiko eztabaida lakarra piztu da euskarak Nafarroan duen rolaz eta egoeraz, gizarteak ematen dion balioaz. Alde horretatik, esan beharra dago euskararen aldeko gizarte-mugimendua oso dinamikoa izan dela eta dela; badirudi euskararen aldeko erakundeek eta elkarteek eragin handia dauka-

tela Nafarroako gizarteak hizkuntzaz duen iritzia eratzean. Izan ere, taldeetan beretan ikusten denez, nafar ugarik (ez bakarrik euskal hiztunak) atxikimendu eta lotura handia adierazten dute mugimendu horrengana.

Onartu eta bere egiten dute *Lingua Navarrorum* izenekoa. Diskurtso batzuetatik ondorioztatzen denez, nahiz eta kontrakoa esan, euskara gero eta zabalduago dago nafar askoren egunerokoan bizitzan. Ñabardurekin, eten eta desberdintasunekin, baina gehiagora doala baieztatzen dute.

Ohartaraztekoa da ez dagoela zertan euskalduna izan euskarari gizarte-balioa emateko. Izan ere, ez euskaldun asko bat datoz eta ontzat ematen dute Nafarroako hizkuntza hau kalean eta egunerokoan agertzea.

Esaten denez, herritarren mentalitatea aldatuz joan da, poliki baina etengabe, eta euskara erabiltzen ez zuten edo jakin ere ez zekiten asko orain harro agertzen dira familian hitz egiten delako. Inbidia puntu batez begiratzen da nola dagoen euskara EAEn eta, batez ere, Gipuzkoan eta Donostian (sarritan hiri hori hizpide hartzen dute, euskararen erabilerak bertan izan duen susperraldiagatik).

Pentsatzekoa da euskal hiztunetako gehiengehienek gizarte-balioa ematen diotela beren hizkuntzari. Hala ere, izan bada oraindik bere ama-hizkuntza gutxiesten dutenei buruzko aipamenik ere (zahar jendea maizenik). Paradoxa horren giltza, beharbada, harako garai gorri eta latzetako bizipenetan egon liteke. Gainera, askok gaztelaniaz erosoago eta seguruago egiten dutela diote.

Hala, bada, sarritan egoerari autobus soziolinguistiko baten antza har dakioke. Batzuk (euskal hiztun zaharrak) autobusetik jaisten dira, eta beste batzuk (haur euskaldunak) igo. Autobusak bere ibilbidea betetzen du, eta azkenean bidaiariei eta euren arteko gorabeherei erreparatu behar zaie: bidaiariak zenbat diren, lehen baino gehiago edo gutxiago diren, orain denak eroso doazen, nolakoak diren (profilak), norberaren jokaera nolakoa den, autobusa *"etorri den edo ez"*, alegia, zein diren, "teorian", Nafarroako hizkuntz eremu ofizialen mugak.

Hizkuntzak duen hedaduraz eta haren erabileraz gain, gizartean ematen zaion garrantzia ere izan behar da kontuan. Euskara nafar askok estimatzen omen dute. Gizartean hizkuntzaren inguruan jarduteak ematen duen prestigioa eskuragarri dago kidetasun-taldeko edozein gizarte-eragilerentzat. Hots, euskal hiztunen eta euskaltzaleen komunitateko kide guztiek lor dezakete. Euskaldunak subjektiboki *multzo oso* baten gisa harturik, nolabaiteko elkartasunezko zirkulua eratzen da haien inguruan, eta inor ez da arrotza zirkulu horretan. Klase edo estatus aldeak gorabehera, inor ez da taldetik eta taldekide guztiena den gizarte-prestigiotik kanpo geratzen.

Hala ere, **politizazioak** ondorio nabariak ditu euskararen aldeko jarreretan, hizkuntzari aparteko garrantzia ematen diolako gatazka politikoan, kultur adierazpide hutsaren kaltetan, hain zuzen (haatik, ez dirudi oztopo handirik dagoenik betiko euskal kulturaren adierazpenak onartzeko). Nafarroan EAEko partiduen arteko tirabirak hizkuntz ereduen inguruko gatazka-eremuan planteatzen dira.

Zenbaitetan hizkuntzarekin zerikusia duena **tabu** bihurtzen da, haren inguruan tentsio gogorrak agertzen direlako. Euskarak oztopoak ditu aurrerako bidean, batetik instituzioekiko harreman zailak direla-eta, eta bestetik, toki batzuetan arazo larriak sortzen direlako esparru ofizialetan ere erabil dadila eskatzen denean (horren adibide, kale eta errepideetako kartel elebidunak eztabaida iturri bilakatzen dira, eta jaietan gauza bera gertatzen da pregoiarekin, ekitaldi publikoetan hasierako agurrarekin...).

Euskaldunen iritziz, ez euskaldunek euskararen kontra jotzen dute euskal nortasunaren beste elementu guztiak ere (kultura, ohiturak...) errefusatzen dituztela erakusteko, sinetsita baitaude euskal nortasunaren aldeko mentalitateak euskara erabiltzen duela Nafarroa osora zabaltzeko. Muturreko jarrera hori, ordea, gehienetan ez da talde ez-euskaltzaleek duten diskurtsoaren adierazgarri, horiek gizabide politikoaren diskurtsoa nahiago izaten dutelako, desberdintasunen, errespetoaren alde agertuz eta norberak nahi duen moduan bizitzeko eskubidea duela onartuz. Inork ez du argi esaten euskaraz egitearen aurka dagoenik.

Euskararen gaineko jarrerak ikusita, esan liteke euskarak Nafarroan aurrera egin dezan bide egokiena ez dela euskaltzale ez direnak hizkuntz normalizaziorako dinamikara hurbilaraztea (nahiko helburu urruna, bestalde), baizik eta euskarazko irakaskuntzak oztoporik izan ez dezan lortzea eta bizitza publikoan ager dadin bermatzea.

Euskararen aldekoak ez diren diskurtsoetan zalantzan jartzen da haren balio praktikoa (zenbait tokitarako oposizioetan baloratu behar ote den alde batera utzita), eta daukan kutsu politikoa aipatzen da. Gaineratzen da, halaber, haurrak ikastolara eramateak badituela arazo praktikoak ere, ezin zaielako etxerako lanetan lagundu, adibidez.

Kalean ez da euskararik entzuten, beraz haserretzekoa gertatzen zaie zenbait lanpostutarako kontuan hartu beharra. Haien iritziz inposaketa modu bat baino ez da.

Areago, zenbaiti sumatzen zaie ez zaiela atsegina beren herrian euskara aditzea. Tutera eta beste hainbat tokitan euskara urrun-urruneko kontua da, arrotza euren ingurunean.

Inguruan antzematen den kontrakotasunak berak ere akuilatuta, euskaltzaleek oso begi onez hartzen dituzte hizkuntzak bizirauteko egiten diren ahaleginak, baina ohartzekoa da, halaber, belaunaldi berriek, bidea hein batean errazago izan baitute, **motibazio eta partehartze eskasagoa** erakusten dutela, eta **horrek alarmak piztu ditu**.

Onartzen da militantziaren ahultze hori oraingo garaiek dakartela berekin, eta bestalde, hizkuntz normalizazioaren ondorioa ere badela, poliki bada ere aurrera egin delako. Batzuen iritziz, ordea, kezkatzeko modukoa da. Askotan euskara **irakasgai huts bilakatu da**, eta ez zaio loturarik igartzen ideia abertzaleekin.

Askok seme-alabak ikastolara eramaten dituzte instalazioak eta hezkuntza maila onak direlako, baina ez dute beste pizgarririk euskararako. Horren erakusgarri argia, ez da arraroa pentsaera nabarrista eta kontserbadorea daukaten aiton-amonak biloba ikastolara poz-pozik laguntzen ikustea: "txotxolo dabil hori bilobari euskaraz entzunda".

EAEn bezala, hizkuntzaren erabilera ez dator bat dakitenen kopuruarekin, askoz murritzagoa da, eta hizkuntzaren normalizazioa urrun ikusten da oraindik. Gazte askok eskola-orduetan baino ez dute erabiltzen, eta kostata egiten dute kalean. Gainera arazoak dituzte euskaraz egiteko euskaldun zahar bat begira dutela. Ez daude eroso haien ustez euskara hobeto dakien norbait azterketa modukoa egiten ari zaielakoan. Euskalkiak ere kontuan hartu behar dira, batzuek diotenaren arabera zenbaitetan eragotzi egiten baitute ikastea eta elkarri ulertzea.

2.4.2. Euskara Nafarroan: diskurtsoaren azterketa

Sakanako taldean euskara ezaugarri "oinarrizkoa" eta nagusia da euskal herritarren "desberdintasunean" (nortasuna). Hango eztabaida-taldean jardun zuen baten hitzetan:

> *Para mí el euskara más que algo tradicional, es una forma de no dejar absorberte por lo que hay fuera, es una forma de protegerte. Es una forma de mantener esa cultura vasca, porque no te vas a dejar absorber.*
>
> *(Gazteak, euskaldunak, Altsasu)*

Euskarak egundoko garrantzia du, garrantzitsuena da, euskal nortasunaren oinarria eta zutabea. Balio errotua da, elkartzeko gunea eta erreferentzia da. Berak batzen ditu lurralde desberdinetako euskal herritarrak.

> *Euskal kultura aipatzen dugunean, hizkuntzari ze garrantzi ematen diogu?*
>
> – *Lehen aipatu dut, niretzat da oinarria.*
>
> – *Agian da ezberdintzen gaituena besteekin.*
>
> – *Identifikatzeko gauza oso inportantea.*
>
> – *Lo más antiguo. Es lo que ha quedado, lo demás surgió después.*
>
> *(Gazteak, euskaldunak, Altsasu)*

Neurri batean, euskara –eta berari lotuta dagoen guztia– globalizazioari eusteko modu bat balitz bezala ikusten da. Sinbolikoki hizkuntza baino askoz gehiago da. Gazte hauentzat ia matxinatzeko era bat ere bada inguru berdintzailearen aurka.

Norberak zenbateraino erabiltzen duen planteatzen denean kontraesanak azaleratzen dira: euskaraz bizi edo ez, zenbateraino, nola. Horretan eragina duten alderdiak aipatzen dira: familiako aurrekariak, norberaren jokaera, ohiturak, gaitasuna, erraztasuna, beharra, gogoa, pizgarriak, baliagarritasuna, kontzientzia, etorkinen eragina… Erronka eta nahia aldi berean. Nork bere buruari ezarritako nahien eta betebeharren alorrean kokatzen da, eta hori errealitatearekin alderatzean emaitza ez da beti betegarria. Inkoherentzia sumatzen da ideologiaren eta egiten denaren artean.

Inkoherentzia hitza aipatu da, eta nola sentitzen gara inkoherentzia hitza horrekin?

– *Ba gaizki.*

– *Nik orain dela garai bat gutxiago egiten nuen euskaraz. Orain dela lau urtetik hona ni euskararekin nuen konplexua, eta orain hobe sentitzen naiz.*

– *Ni euskaraz bizi naiz. Baina ikusten dut udalekuetan, helburua da euskaraz egitea baina hori ez da horrela euskara izan behar da tresna eta erabiltzen dudala pertsona horiekin komunikatzeko. Gerta daiteke pertsona horiek ez erabiltzea euskara, zergatik?. Segur aski guraso erdaldunak dituztelako. Ni proiektu bat lantzen badut, ni euskalduna naiz eta erabaki dute leku batetara joatea non euskaraz diren udalekuak. Konturatzea euskaraz bizi daitezkeela eta euskara dela komunikatzeko tresna.*

(Gazteak, euskaldunak, Altsasu)

Iruñako gazteen taldean hizkuntza euskal nortasunak **ezinbestekoa duen bereizgarritzat** jartzen da. Itxura batean, mezua argi-argia da: "ezer ez euskararik gabe".

Un pueblo sin euskara no es nada. Perdemos nuestra seña de identidad.

(Gazteak, euskaldunak, Iruña)

Dena den, batzuek zehaztapenen bat egiten dute euskararen garrantzia dela eta. **Normalizatu** gabeko hizkuntza izanik, uste dute benetan duen baino balio handiagoa ematen zaiola.

El euskara tiene que tener el peso que tienen los idiomas... cuando el euskara esté normalizado.

(Gazteak, euskaldunak, Altsasu)

Iruñako gazte euskaldunen iritziz, "badago euskara dakien jendea, baina gutxi erabiltzen da". Arrazoia baldintza soziolinguistiko zailetan datza:

– *En Pamplona hay mucha gente que sabe euskara pero luego en la calle no se habla.*

– *Cada año se nota mucho que se habla más euskara.*

– *En la universidad la gente no habla en euskara.*

(Gazteak, euskaldunak, Altsasu)

Euskalduntzearen inguruan nolabaiteko porrot sentimendua agertzen da. Nafarroako baldintzek zerikusia dute horretan. Bestalde, inguru soziolinguistiko konplexu eta "arazotsuari" hizkuntz **gaitasun** hala-moduzkoa gehitzen zaio:

– *En Navarra está recuperando el tema, pero no hay condiciones para que siga adelante.*

– *Mucha gente que va a la Ikastola y que luego no sabe hablar en euskara.*

(Gazteak, euskaldunak, Altsasu)

Bat datoz egunerokoan sortzen diren kontradikzioetan. Aipatzen dira "lagunen artean hitz egitea" eta antzerako egoerak. Azpian komunikatzeko adierazgarritasunaren gaia agertzen da: lor daitekeen edo ez, natural lortzen den edo ez ("jarduketa artifiziala, bortxatua eta behartua"). Zerikusia du horrekin nola agertzen duen norbanakoak bere burua, eguneroko bizitzan, besteen aurrean, eta itzelezko garrantzia du norbanakoek zein kolektiboek nortasuna kudeatzeko darabilten moduan.

Cuando estás con tus amigos para expresar tus sentimientos es mas fácil hablar en erdara.

– *Muchas veces vas pasando de euskara a erdera, de erdara a euskara.*

– *A mí no me ha costado nada, yo que he estudiado todo en euskara, pasar al castellano porque no utilizamos el euskara para nada. Me doy cuenta de que no es útil. Ya sé lo que tengo que hacer para que me sea útil, hablarlo, pero...*

(Gazteak, euskaldunak, Altsasu)

Batzuek diotenez, euskaraz ari direnean beren hitz egiteko era aztertzen dutela iruditzen zaie. Horren atzean, euskaraz egitean duten segurtasun falta sumatzen da, nolabait, eta lotuta dago norberaren hizkuntz ez-gaitasunarekin, berez zaila den egoera soziolinguistiko batean.

– *No tenemos la confianza en nosotros para hablar en euskara.*

– *Y luego no nos damos cuanta de lo mal que hablamos castellano.*

– *Euskara hablamos pero siempre con miedo...*

– *En la Ikastola hablábamos más relajados en euskara.*

– *Eso de que te valoren en euskara… pero sabes que con alguien igual o peor no tienes ese problema. Lo tienes cuando crees que alguien habla mejor que tú.*

– M*uchas veces parece que te están valorando como hablas* en euskara. *Este es un* eus*kaldunberri, este un euskaldun zahar, este un ikastolero…*

(Gazteak, euskaldunak, Altsasu)

Antza, euskararen kasuan elkarturik doaz nortasun ikur gisa duen garrantzi handia eta, bestetik, hizkuntz gaitasun baxua, batere aldekoa ez den inguru batean eta hizkuntza bera gutxi erabiltzen delarik. Gauza bat da euskara zenbateraino dagoen erroturik eta zenbat erabiltzen den, eta bestea euskal nortasuna. Biak elkarri sendo helduta ageri dira, baina zeinek bere logika du, eta ez dira berdin eratzen. Euskarari ematen zaizkion balioak, ezagutza mailak eta erabilerak ez dute zertan elkarren pare egon. Izan ere, diskurtsoek jarrera desberdinen berri ematen dute: euskara baloratzen duten ez euskaldunak eta, hizkuntz gaitasun baxua izan arren, euskara baloratzen duten euskaldunak, baita beren hizkuntza baloratzen duten euskaldun osoak eta garrantzi handirik ematen ez diotenak ere (adibidez, euskaldunzahar helduak eta zaharrak).

Nafarroan –salatzen dute– zenbaitetan hizkuntz bereizkeria dago, eta denek ez dituzte aukera berak (euskaraz ikasteko, hainbat ogibidetan, hedabideen eskaintzan…). Hizkuntzak egunerokoan eta nortasunaren alderdi gisa duen errealitateari Nafarroako ezaugarri estruktural bat gehitzen zaio: balorazio publikoa eta, batez ere, gizartean eta ekonomiaren alorrean ematen zaiona.

Iruñean antolatutako beste taldea (**Iruñako ez euskaltzaleak**) bat dator iritzi batean: politizazioak bestelakoturik agerrarazten du euskararekin zerikusia duen guztia.

– *El euskara hay que disociarlo de la política… porque dices la palabra euskara y automáticamente fuera en otros sitios ya se piensan que somos etarras.*

– *Tengo que decir que hablo vasco. Ahora, no soy nacionalista. En Bilbao me ha pasado una cosa muy curiosa. He ido con mis hijos hablando en vasco, y una corriente de simpatía de gente que no tenía ni idea de hablar vasco, porque eran más fascistas que ni sé. Por oírme hablar vasco suponer que soy nacionalista.*

(Helduak, ez-euskaltzaleak, Iruña)

Ohartzekoa da haien ustez euskara hizkuntza zaila dela ikasteko, edo gaztelaniatik abiatuta, behintzat, ez dela batere erraza:

– *Yo no tenía ni idea. Partíamos de cero. Era una pasada porque era una dificultad enorme. Porque era el tonto del grupo. Nadie sabía euskara, pero todo el mundo repetía o tripitía, el único nuevo era yo. Entonces al de 3 meses me harté de ser el lerdo. Vi que aprender euskara es una pasada, no es como aprender catalán.*

(Helduak, ez-euskaltzaleak, Iruña)

Haserreak eta susmo txarrak agertzen dira euskaraz jarduten denean:

– *Yo a veces puedo llegar a sentirme incómodo, porque él procura que yo me sienta incómodo. La incomodidad a mí me la daban mis compañeros cuando yo entraba y se ponían a hablar en euskara.*

– *Una profesora delante de los padres, ante un auditorio que el vasco lo entendíamos un 15, un 20%, entre estudiantes y esto, hace una intervención de 12 minutos en vasco sin traducción y sin nada.*

(Helduak, ez-euskaltzaleak, Iruña)

Beste batzuk, ordea, **baikorrago** agertzen dira, jarrera irekiagoa dute kultur desberdintasunen aurrean. Zenbat eta aukera gehiago, hainbat hobe norberak hauta dezan. Kultur askatasuna lehenetsi behar da. Jakin-mina, begirunea eta balioespena adierazten dute herritarrak izateagatik beren pareko direnen desberdintasunekiko, baina era berean, argi uzten dute ez luketela inondik ere onartuko nortasun exijentzia edo agindutzat hartuz gero:

– *No relacionar lo que has vivido anteriormente con un idioma o con un partido político. Para mí lo importante es que las personas tengamos un abanico de posibilidades. Tanto a la hora de hablar, de elegir, de la enseñanza, de todo, cosa que antes no teníamos. Y que elijas lo que elijas no se te defina como de derechas ni de izquierdas.*

– *Pero a mí lo vasco me encanta, pero en cuanto me lo imponen, ¿no vas a aprender euskara? Y me lo decía gente que de euskalduna tenía lo que yo de Zaragoza. Pues decía me voy a apuntar a alemán, por joder. ¿Por qué me voy a apuntar a euskara? Me apuntaré cuando quiera.*

(Helduak, ez-euskaltzaleak, Iruña)

Kritikarik argiena, haatik, Nafarroako euskal nortasunaren aurkakoa da, uste baitute **itxurakeria hutsa eta bortxatua** dela. Onartzen dute euskal herritar sentitzen direnek beren nortasuna defendatzea, baina ez "nafarrak direnak euskal herritar *bihurtzea*", beren ama–hizkuntza ez den bat ikastea eta hori beren "izateko eta bizitzeko arrazoi" bilakatzea. Ez da zentzuzkoa, artifiziala da, ez da Nafarroarekin zintzo jokatzea. **Nafartasun *hutsaren* diskurtsoa** agertzen da.

Nafarroako **Pirinio aldean** badago nolabaiteko "**galera**" **sentimendua** hizkuntza dela eta. Galera hori, gainera, behin betiko "etena" bide da. Euskara desagertzearekin batera **bertako eta bertakoen euskal nortasuna ere galtzen hasi zen** –eta halaxe jarraitzen du–.

> *Y antes del franquismo por qué se perdió. Es que había una cosa de querer parecerse al médico, y las puertas se abrían al hablar castellano, y en las casas la gente dejaba de hablar por el bien de sus hijos. Alguno seguro que intentaba destruir esa lengua, pero la gente de los pueblos no creo que lo viese así. Igual que viven en Pamplona, igual vas a vivir aquí si hablas castellano. Esa envidia a aquellos que viven mejor.*
>
> *(Tarteko adina, mistoa, Otsagabia)*

Lehengoak euskal herritarrak ziren, eta haien ondorengoak, ordea, nafarrak, ez dakitelako euskararik eta gauzak aldatu omen direlako. Gainera, hangoek berezi egiten zuten euskaraz: "bertako" euskara ez da euskara *batua*.

Iritziak ez datoz bat euskararen bilakaeraren inguruan. Hainbatetan euskaldunak (eta euskaltzaleak) kexu dira aurrera egiten ez delako, eta nabarristek, aldiz, uste dute dezente aurreratu dela norabide horretan.

> – *Ahora se va adelantando mucho el tema del euskara.*
>
> – *Pues yo creo que va muy lento.*
>
> – *No, cada cosa lleva su tiempo. Ahora a los médicos se les está exigiendo unas clases de euskara. La cosa va, no queramos que en 4 días toda Navarra sepa hablar euskara. Yo por desgracia no creo que lo aprenda.*
>
> *(Tarteko adina, mistoa, Otsagabia)*

Errepresioa eta dekulturazio konpultsiboa (akulturizazio espainola) aipatzen dira.

> – *Es que antes casi hasta te daban capotes en la cabeza si hablabas euskara para que fueses un paleto, porque el médico te daba las explicaciones en castellano y tenía que ir el cura del pueblo para darte las explicaciones en euskara. También le cortaban las trenzas y le dejaban en medio del pueblo por hablar, en el año que tocase.*
>
> – *Es que lo que estábamos hablando es que hasta hace muy pocos años los padres, los hijos y María Santísima, teníamos la convicción de que con el euskara no se iba a ningún sitio.*
>
> *(Tarteko adina, mistoa, Otsagabia)*

Hala ere, berriz ere agertzen da euskararen politizazioa, eta gaia, batzuetan, tabu da. Batzuek beren hezkuntza eskubideak errebindikatzen dituzte.

> – *El que está metido en el tema del euskara está un poco mal mirado…*
>
> – *Yo aprovecho para quejarme de que lo del euskara aquí es muy difícil porque no hay derecho de que hoy en día para aprender euskara haya que hacer 50 kilómetros. Esto es un escándalo, nos tienen que poner cada tres pueblos algo. Esto es como en Siberia los niños, tener que ir a la ikastola.*
>
> *(Tarteko adina, mistoa, Otsagabia)*

Laburbilduz, euskaltzaleak kezkaturik daude euskararen egoeragatik, eta nabarristak, gehienbat, euskara ez aitortzeko politikaren alde agertzen dira, kontrolatze eta eustearen alde, politikoki bideratu behar delakoan. Bukatzeko, nahiz eta Nafarroan euskarak ez duen instituzionalizaziorik lortzen, mendialdekoek guztiena beharko lukeen sentimendua nahi dute **euskararentzat**, aurkaritzaren ordez harenganako **ulerkortasuna edo atxikimendua**. Hala ere, hizkuntzarekiko leialtasun eta konpromiso maila asko daude.

Lizarra aldean gaztelania da nagusi. Zail samarra gertatzen da euskara zabaltzea, eta **nortasunaren ezaugarri bat den aldetik, bi jarrera guztiz desberdinak daude gizartean izan beharko lukeen balioaz**. Galdetutako batzuek hizkuntzaren aurkakotasuna igartzen dute; haien iritziz, euskararen kontra jotzen dutenek "badakite beste guztiari ere erasotzen diotela, euskal nortasunari berari", hain zuzen ere.

> – A*tacan directamente al euskara, porque saben que de esa manera, atacan a todo lo demás. A la cultura y a todo lo que se pueda, sin más.*

Atacan a tu identidad y qué atacan: al euskara; no atacan nada más..., si desaparece el euskara, pues ya no somos nada.

– *En Estella, yo a la gente que está en contra del euskara, les veo que para ellos es algo que viene de fuera. O sea, ellos no entienden que un navarro pueda ser vasco.*

– *...yo trabajo en un bar a las noches de camarero, que no va gente muy vasca que se diga, y muchas veces, al principio porque no sabía si... no conocía a la gente, pues decía "agur y tal", hasta que le dijeron al jefe y dije: "les saludo y les digo Kaixo y agur, porque esa palabra en Estella la conoce todo el mundo y yo me saludo así con la gente". Y mi jefe: "pues no tienes que hablar así, no sé qué no sé cuantos..." Y le dije a mi jefe que yo respetaba pero con tal de que me respeten a mí. Porque si a mi la gente no me respeta por el hecho de que sepa euskara aunque hable con ellos en castellano, me parece que yo tampoco tengo que respetar.*

(Tarteko adina, euskaltzaleak, Lizarra)

Gaztelania nagusi den tokietan, Lizarran adibidez, euskal subkulturak sortu dira, batzuetan ez-euskaltzaleentzat ezezagunak diren berezko erreferentziez eta ohiturez jantziak.

Bertako euskaltzaleek, egundoko ahaleginak eginda, aurrera atera dute irakaskuntza euskalduneko nukleo sendo bat, eragile pribatuek (*Lizarra Ikastola*) zein publikoek osatua. Uste dute bete egin dutela Nafarroako euskaltzaleentzat ohikoa den erronka: norbanakoen eta guztien arteko ahaleginek emaitza onak ekarri dituzte horretarako gaitza den inguru batean eta instituzioen oztopo ugariei aurre eginda. Helburua gauzatu egin da, eta eurek ikusi egin ahal izan dute.

Haatik, orain ez dituzte sumatzen aspalditik beren lorpenen giltza izan zirenak: benetako ahaleginak, leialtasuna, konpromisoa eta ardura. Haien iritziz, gazteek dena aurkitu dute eginda, eta ez zaie igartzen eurek izan zuten konpromisoa, baina era berean, ulertzen dute belaunaldi berriek euren ilusio bera ez izatea, beren garaian dena zegoelako egiteko. Guztiak bat datoz oraingo egoera berrira *ireki* eta moldatu beharra dagoela, militantzia –hala diote– lehengo gauza delako.

Es un problema que yo creo que pasa en casi todas partes. La militancia ha pasado a la historia.

(Tarteko adina, euskaltzaleak, Lizarra)

Larrituta ageri dira gazte eta nerabe euskaldunen hizkuntz gaitasunagatik. Leku jakinetan izan ezik, kezka bera azaltzen da Nafarroa osoan. Guztiz ulergarria da kezka hori elebakarrak diren inguruetan, eta beste horrenbeste gertatzen zaie gizarteko alor desberdinetan euskara zenbat erabiltzen den aztertzean.

*...por desgracia, a pesar de que creo que han salido ya 2.000, (*de la ikastola*) me parece que han salido ya de la ikastola 2.000 personas o así, pues no se oye en proporción a eso el euskara en Estella.*

(Tarteko adina, euskaltzaleak, Lizarra)

Hortaz, ez da harritzekoa euskararik gabe Euskal Nortasunik ere ez dagoela pentsatzea, behintzat halaxe uste dute Lizarran.

– *Si desaparece el euskara, pues ya no somos nada.*

– *A mí lo que me gustaría que el euskara no se perdiese, y que evolucionara poco a poco, y que no lo pisen tanto desde arriba...*

(Tarteko adina, euskaltzaleak, Lizarra)

Tuterako Erriberako taldean euskara arrotz ikusten da, beraz ez du kidegorako edo gizarteko partaidetzarako balio. Taldearen diskurtsoan erdeinua antzematen da harekiko. Jarrera hori ez duten bakarrak kanpokoak dira, Iruñakoak, hain zuzen.

– *A mí no, yo igual por donde me he criado, no me deja fría el euskara. Yo soy pro-euskara, yo no lo hablo, hablo muy poquito pero porque soy la nulidad personificada para los idiomas. Mis padres no lo hablan, mis hermanos todos, mis sobrinos todos, todos son bilingües menos yo. Lo que no estoy a favor es de que politicen el tema del euskara, y yo me he sentido mal en Tudela, porque yo tengo apellidos vascos vascos Arrizibita Legarre, no soy Jiménez, Pérez*

(Tarteko adina, ez-euskaltzaleak, Tutera)

Argi dago, gutxienez, euskarak ez duela haiengan batere interesik eragiten. Elkarrizketatu baten hitzetan:

– *Yo creo que lo del vasco en toda la Ribera, ante todo el respeto, pero yo creo que en la Ribera de aquí el vasco no lo sentimos, yo no lo he vivido nunca. Lo respeto, pero no lo siento.*

(Tarteko adina, ez-euskaltzaleak, Tutera)

Batzuek, mesfidantza, urruntasuna eta are erdeinua ere adierazten dute, minorizaturik sentitzen direlako euskaraz egiten zaienean.

> – *Yo estuve en Gernika en una feria, porque yo tallo el alabastro. Yo contacté con el tío, y me llama, y viene no sé si la Euskal Telebista o a nivel local, y me puso de mala ostia, porque yo estaba el primero, y me hizo una pregunta en vasco, y allí ponía Corella (Navarra)… es un fascista el tío.*
>
> *(Tarteko adina, ez-euskaltzaleak, Tutera)*

Hala ere, hein batean euskararen falta ere sumatzen dute, hizkuntza berezi horretan nortasun erakusgarri sendo-sendoa ikusten baitute.

> *A mí el euskara no me dice nada, pero a veces pues los catalanes u otras lenguas me dan un pelín de envidia. Yo a veces sí que he echado en falta un pelín la lengua esa.*
>
> *(Tarteko adina, ez-euskaltzaleak, Tutera)*

Dena den, horrelakoak azaldu arren gehienek hoztasuna erakusten dute. Areago, batzuk mesfidati agertzen dira, nahiko deseroso, eta euskal kultura argi errefusatzen duenik ere bada.

> – *Hace poco había la polémica del euskara, que dicen que es la lengua Navarrona, la lengua de los navarros. Digo, ¡cuidado! La frase esa ponerla toda junta no pongáis solo dos palabras que son: Al norte de Navarra habitan unos bárbaros que tienen un idioma ininteligible, que se llama lengua de los navarros.*
>
> – *Pero no obligarnos, no es nuestra lengua.*
>
> – *Nos deja fríos.*
>
> – *Yo he oído aquí en la Ribera en fiestas, venir por la carretera de Zaragoza, ir andando, salir dos señores hablando euskara y decir uno en voz alta por si acaso tu padre también. Eso también es de muy mala educación, pero también empezar a hablar euskara habiendo gente.*
>
> *(Tarteko adina, ez-euskaltzaleak, Tutera)*

2.5. EUSKAL KULTURA

2.5.1. Euskal kulturaren kontzeptua: ohar batzuk

Kultura giza taldeen ezaugarri nagusietako bat da. Soziologiatik "Kultura" hitzari ematen zion esanahia ez da hizkuntza arruntak ematen diona bezain murritza. Kultura termino orokorra da, eta **ikasitako alderdi sinbolikoak** hartzen ditu bere baitan. Euskal Herriaren kasuan halaxe agertzen da, argiro.

EAEn bezala, Nafarroan egindako azterketan euskal kulturatzat hartu dira **komunitate osoaren gizarte-ohiturekin** zerikusia duten adierazpen guztiak, hala nola gizakiek, bizi diren taldearen ohiturek eraginda, dauzkaten jarrerak eta giza jardutearen ondorio diren produktuak (edo tresnak), horiek ere taldearen ohiturek moldaturik daude eta. Hala, bada, batez ere –baina ez bakarrik– materiala ez den kulturari erreparatuko zaio, sinboloen mundua aztergai nagusitzat harturik.

Kulturek era guztietako eraginak eta maileguak jasotzen dituzte, baita aldaketak eduki ere, eta batzuetan ongi egokitzen badira ere, bestetan ez da hala gertatzen. Kulturak, beraz, aldakorrak dira. Izan ere, soziologoek zatikatuta eta askotarikoa ikusi zuten gizarte industrialaren kultura, eta horregatik gehienek, gaur egungo gizartea interpretatzean, kultur sistema bateratuak bainoago bizitzaren agerpen askotarikoak nahiago dituzte azalpen gisa. Nolanahi ere, kulturak askotarikoak dira gizakiek kultur inguruetan sartuta ikasten dutelako.

Ikuspegi global batetik, euskal kultura tokiko kultur gisa agertzen da nagusiki. Nafarroako taldeen iritziz, egungo euskal kulturaren erdigunea kostaldeko lurraldeetan dago, Bizkaian eta Gipuzkoan, alegia. Kultura, Nafarroan, tanta batek putzuan sortutako uhina bezala zabaltzen da, hau da, euskal kulturaren formak eta baloreak nahiko handia den inguru batean agertzen dira, eta bertako gune nagusia Pirinioetako Mendebaldeko muturrean dago. Hortik urrundu ahala, noski, berezkoenak zaizkion ezaugarriak desagertzen doaz. Hala ere, geroago ikusiko denez, ez da orokortu behar, Nafarroan euskal kulturak konplexutasun berezia baitu.

Hala ere, diskurtsoak kultura ukitzen duenean atentzioa ematen du, batik bat, hizkuntz ereduen eta euskararen erabilpen publikoaren inguruko gatazkak ardura eta ahalegin guztiak bereganatzen dituela, gaiaren bestelako alderdiak bazter utzirik. Izan ere, taldeetako diskurtsoaren ardatz hau azaletik aztertuta, deigarriena da zein gutxitan aipatzen diren kulturaren edozein motatako adierazpenak eta elementuak (musikak eta dantzek bakarrik dute nolabaiteko garrantzia).

Hortaz, hizkuntzen erabilpenaz gain, taldeetako diskurtsoan kultura soilik agertzen da tra-

dizio gisa eta oso ikuspegi estereotipatutik. Sormena ez da kontuan hartzen kultur adierazpideen artean, eta musika salbu ez da literatura, eskultura edo beste edozein eratako arte adierazpiderik aipatzen. Alde horretatik EAEko diskurtsoa ahula bazen, Nafarroan ia ez da ageri.

Sormenak ez du lekurik Nafarroako euskal herritarrek euskal kulturaz duten sentimendu kolektiboan, non eta ez den folklore tradizionalenaren haritik. Inoiz zerbait entzuten da rock musika edo gastronomia direla-eta, labur samar, ordea. Ahalegin guztiak hizkuntza berreskuratzera bideratu dira, eta zenbait lekutan –Otsagabian, kasu– onartzen da azken urteotan bertatik ekarpen gutxitxo egin zaiola euskal kulturari.

Nafarroan euskal kulturaren muga **hizkuntzak zehazten du** beste ezerk baino zehatzago (gehienen ustez, euskal kultura euskaraz egindakoa da), eta EAEn, aldiz, muga hori ez da hain nabarmena. Ez dago kulturarekin eta nortasun nagusiarekin lehiatzeko adina den kultur adierazpenik edo nortasunik. Nahiz eta ez den xehe azaltzen **nafar kultura** zertan datzan, diskurtsoetan nafar askok bere egiten dituzten zenbait **ezaugarri** (sanferminak, zezenak…) agertzen dira, eta horiekin batera, Erriberako eta Nafarroako hainbat tokitako beste ohitura batzuk, Ebroz bestaldeko eskualde mugakideetakoak ere badirenak (jotak, dantzak, udan gaueko “freskuran” ateratzea –auzokoak berriketan biltzen dira udamineko gauetan–, inguru horietako hitz egiteko doinua eta hitz bereziak…).

Esan liteke badagoela ezaugarri multzo bat komun edo erkide dena bai leku batzuetan euskal kultura gisa definitzen denarentzat eta beste batzuetan nafar kultura esaten zaionarentzat. Lekuan leku euskal herritar edo nafartzat jotzen den hori, eguneroko bizitzari estu lotua, oso antzekoa da, eta gogoetara ekartzen du ez ote garen izen desberdinak dituen kultur batez ari. Horren adibide, pilota jokoari batzuetan “Nafarroako pilota” esaten zaio, nahiz eta ezertan ez aldatu.

Nafarroaren kasuan, benetako euskal kulturatzat hartu ohi den hori sakonago aztertu ahala haren definizioa irekiago agertzen da, eta azkenean Euskadirekiko zerikusia antzematen zaion oro euskal herritartzat jotzen da, nahiz eta euskarazkoa ez izan (adibidez, zenbait elementu eta jarrera, errebindikazio kutsua dutenak, kulturaren osagai gisa ikusten dira –rock erradikaleko taldeak…–).

Nafar kultura (edo Erriberakoa) deritzon hori sendoagoa den neurri berean murriztu egiten da euskal kultura esaten zaionak duen esparrua. Sakanan, esaterako, euskarazko kultura agertzen da nagusi, eta hizkuntzarekin batera euskal kulturaren zati hartzen dira eguneroko bizitzakoak diren beste elementu batzuk ere (koadrila, tragotan ibiltzea, jaiak…).

Euskal kulturak lehiakiderik ez izanik, Sakanan haren definizioa zabalagoa egiten da, eguneroko gauzak ere bere baitan hartuz, baina Nafarroako hegoalderantz jo ahala gutxiago dira euskal hiztunak, eta txikituz doa, horrenbestez, euskal kulturatzat hartzen den horren espazioa. Euskara gutxienen hizkuntza den tokietan eguneroko elementu horiek ez dira euskal kulturaren osagai ikusten, kultur orokorrago baten –nafar kulturaren– adierazpide gisa baizik.

Nafarroan bertako biztanleek euskal kulturari ematen dioten balioa eta garrantzia ulertzeko, lagungarria izan daiteke Euskadiko hedabide publikoekin (EITB) duten harremana aztertzea.

Euskal telebista publikoa maiz aipatzen da, eta horrek ere adierazten du nafarrek, euskaltzale sentitu nahiz ez, arreta handiagoz jarraitzen diotela EAEtik datorrenari beste lekuetatik heltzen denari baino. Azkenean denek onartzen dute EITB ikusten dutela, kate horrek ardura handia duelako Nafarroako berriei dagokienez eta Nafarroako pilotarien edo Osasunaren norgehiagokak ematen dituelako.

Batzuetan, ETBk Nafarroari ematen dion garrantzia tartean bidegabe sartzearen adierazgarritzat hartzen da, baina horrelakoetan ere gizartean baloratuta dago, interesa pizten duelako, hain zuzen ere (Tuteran diotenez, ETB aukeratzen dute beste kate batzuen ordez).

Euskal kulturaren definizioari dagokionez, eta lehen esan denez, erreferentzia nagusiak ohiturak eta euskara dira. Gaur egun tradizioa EAErekiko lotura bilakatuz doa, Nafarroan euskal kulturari ez diote-eta antzematen modernitatearen ezaugarri edo oinarririk, are gutxiago hirialdeko belaunaldi gazteentzat helduleku izan daitekeenik.

Nafarren iruditegi kolektiboan bertako euskal kultura antzinako berbera da, aldatu gabea, eta horrek hizpide jartzen du ez ote den beharrezkoa euskal kultura beste helmuga zabalagoetara eta beste ikuspegi batera begira jartzea, euskal kultura eta euskara ere egokiera hobean gera

daitezen etorkizuneko desafioen aurrean, itzuri ezineko erronkak datozelako globalizazioa eta inmigrazioaren eskutik.

Azken buruan, eta hor dabiltzan estereotipoak gorabehera, badirudi jendeak euskal kulturaren baitan ikusten duela bizitzarekin eta inguruarekin zerikusia duen guztia, eta horixe izango da, hain justu, beste kulturetatik datozenak harrera-lekura egokitzeko bidea. Herritarrak gai badira beren inguruan eratzen diren errealitateak berezkotzat hartzeko eta onartzeko, kultura ere gizartearen pare moldatuko da. Hala ez bada, kultura iraganekotik elikatuko da, globalizazioaren bultzadari eutsi ezinda.

Taldeetako partaideek iritzi desberdinak azaltzen dituzte etorkizunari begira, baina esan daiteke denek ala denek, bizitasun pixka bat falta dela onartu arren, sasoian ikusten dutela euskal kultura, edo behintzat bizkortuz doala, poliki bada ere. Horren adierazle, eredu euskaldunetako eskolatze datuak aipatzen dituzte.

Horretaz gain, euskal kulturak erakutsi duen bizirauteko gaitasuna ekartzen dute gogora, hondoa jota zegoenean ere eutsi egin zion eta. Euskara goraka doa gazte jendearen artean, nahiz eta instituzioek legeak baliatzen dituzten, etengabe, horren kontra jotzeko.

2.5.2. Euskal kultura: diskurtsoaren azterketa

Sakanako taldean euskal kultura eratxeki ohi zaizkion ezaugarriekin aurkezten da. Diskurtso horren arabera, euskal kultura osatzen duten elementuak –azken batean euskal nortasuna zehazten dutenak– ondoko hauek dira:



Horietako batzuk gehienbat sinbolikoak dira (folklorea, dantzak, herri kirolak...), beste batzuek zerikusia dute harremanen bidezko bizimoduarekin (koadrila, elkartegintza, txikiteoa...) eta hirugarren multzo batek (politika, gaztetxeak, txosnak...) baloreen munduarekin.

Erreferente baloratzaileei dagokienez, **euskara kultur bereizgarri** nagusitzat aurkezten dute, eta harengan babesgarri bikaina ikusten dute kulturaren globalizazioari aurre egiteko.

– *Lehen aipatu dut, niretzat da oinarria.*

– *Agian da ezberdintzen gaituena besteekin.*

– *Identifikatzeko gauza oso inportantea.*

(Gazteak, euskaldunak, Altsasu)

Aipatzen dira, halaber, euskaltasunari estuestu lotuta dauden ohiturak, bizimoduak eta musika motak.

– *Yo creo que la cultura es el día a día, la forma de vida que lleves.*

– *Euskal kulturaren inguruan hitz egiten dugunean, edo dantzari bat, trikitixa bat... Euskal kultura baino kulturaren definizioaz hitz egiten? Kultura baten oinarri nagusia hizkuntza da, orduan euskal kultura euskaraz egiten duena. Niretzako kultura da herri baten ohitura, bizitzeko era (adibidez, txikiteoa). Nola bizitzen dugun, gaua eta eguna... kultura oso anitza da.*

(Gazteak, euskaldunak, Altsasu)

Musikaren mezuak ere kontuan hartzen dira halako musika mota "euskal herritarra" den edo ez jakiteko.

Bai, noski badagoela. Imajinatu 90. hamarkadan, Kortatu... eta euskal kulturan kriston garrantzia eduki zuten. Ez dakit nola definitu beraiek definiziorik ez dutelako onartzen, rock erradikal basko. Hori hasieran jendeak zioen ez zela euskal kultura, baina nik uste kriston oihartzuna eduki zuen, eta euskal kulturan eragin handia eduki zuen. Zeren musika bakarrik ez zen ulertzen; trikitixa... baizik baxuarekin... eta gainera mezuak transmititzen zituzten, egoera politiko eta sozialaren inguruan. Eta bere garaian ia satanizatuak izan ziren. Eta hor egongo da Ez dok amairu... eta hau oso garrantzia handia, baina horrekin batera rock erradikal baskoko mugimendua atera zutenak, garrantzi berdina eduki zuten.

(Gazteak, euskaldunak, Altsasu)

Globalizazioaren eta kultur askotarikotasunaren inguruan iritzi kontrajarriak azaleratzen dira. Alde batetik, uste dute kultur askotarikotasuna aberasgarria dela, baina aldi berean tartean bidegabe sartze eta berdintze joera konpultsiboetarako arriskua igartzen diote. Globalizazioa gehienek kritikoki aztertzen dute, ez da gauza onuragarria, bereziki kulturari dagokionez, eguneroko bizitza aldaraz dezakeelako, eta azken batean, euskal kultura herrikoia suntsitu.

Mestizaiak eta kanpotik datozen korronteei irekitzeak ere bi ikuspegi eragiten dituzte: bata dinamikoa, aldekoagoa eta moldagarriagoa da, eta bestea, berriz, gotortuagoa eta sendoagoa, inposizio asmoa duen zerbaiten aurka adi.

Hortaz, bada, askoren ustez globalizazioak, "ezkutuko" eta "isileko" fenomeno horrek, era askotako ondorioak dakartza gu guztion barne bizitzara, eta eguneroko esperientziak aldarazten ari da, hots, norbanakoak bere buruaz eta besteekiko harremanez duen irudia aldatuz doa globalizazioaren ondorioz.

Kezkaturik daude eguneroko euskal kulturagatik, ez ote ditugun geure egingo gure Mass Medien kulturatik "ezartzen zaizkigun" kultur adierazpenak eta gizarte ohiturak (sarritan Estatu Batuetako herri kultura eta jokamoldeak). Baina horrekin batera onartzen da euskal kultura ez dela bakarrik nortasun tradizioa.

Gu mundu batean bizi gara, non mundua konektatuta dago. Ez dugu aukeratzen, gauzak ez datoz. Herri bakoitzak bere erara egingo du. Ez dugu biziko berdin hemen edo Andaluzian. Eta kultura ez da txistua. Eta kultura da orain guk nola azaltzen dugun.

– *Para mí la cultura vasca no tiene una definición... va evolucionando.*

– *Eta adibidea rock vasco, hori da aurrerapauso bat.*

– *Mi deseo de cultura vasca sería, es, que si a mí mañana se me rompe el techo de casa venga el vecino y me ayude. A mí eso sería una cultura, y la definiría con eso. Vivir a gusto. Cada uno tendrá sus peculiaridades.*

– *Nik hori ez dut ikusten kultura vasca bezala, ze hemen edo Bartzelonan berdina eman daiteke.*

– *Denok dakigu hau herri bat izan zela, hizkuntza bat dagoela... ukaezina da herri honek jasan dituen ukazio guztiak ere. Egia da herri batekin bukatzeko, identitate, kul-*

tura… oso zaila dela eta oso barneratuta dauzkan ohitura batzuk hor daudela eta oso sakonak direla.

(Gazteak, euskaldunak, Altsasu)

Azkenean, gai hau bestelako eztabaida bilakatzen da, alegia, zer hartu behar den kanpotik ("onena") eta zer ez ("okerrena"). Uko egin beharreko hori nahitaez ezarri nahi dena da, hain zuzen. Batzuek zalantza handiak dituzte gaztelania berezkoa ote duten. Horientzat euskal kulturak zerbait mitikoa eta sentimenduzkoa du.

Para mí la cultura vasca se basa mucho en sentimientos. Siempre se piensa en algo mítico y ese sentimiento de Iruñea para abajo no hay.

(Gazteak, euskaldunak, Altsasu)

Iruñako taldeak gaitasun handiena erakutsi zuen euskal kulturaz sakon hausnartzeko orduan. Talde horren iritziz euskal kultura libre eta hautazkoa da, norberak aukeratua. Arazoa kultura hori "mamiz" betetzerakoan sortzen da, zehaztu behar delako zein elementuk osatzen duten eta zenbateko garrantzia eduki behar duen haietako bakoitzak.

Elementu batzuk bat datoz euskal kulturaren interpretazio klasikoena edo ereduzkoenarekin: euskara, tradizioa, gastronomia, ohiturak, herri kirolak, kultur usadioa…

La cultura vasca deberíamos relacionar con tradición…

(Gazteak, euskaldunak, Iruña)

Eta horrekin bat, berriz eta gogotik eztabaidatzen da zenbaterainoko garrantzia duen gaur euskal tradizioak.

– *Parece que se relaciona con aizkolari, txapela…*

– *Está un poco esteriotipado.*

– *A la cultura vasca le falta un proceso de auto revisarse. A mí me parece limitado entender que la cultura vasca se asocia con lo tradicional, dejando al margen la cultura vasca más moderna.*

(Gazteak, euskaldunak, Iruña)

Taldean esaten denez, euskal kultura euskal abertzaletasunak halakotzat duenaz haratago doa. Gaur egun euskal kultura aberriari eta antzeko beste ideia batzuei atxiki gabe bizi daiteke, eta hori beharrezkoa ikusten dute euskal kultura aberastu dadin.

– *La cultura vasca, se tiende a pensar que todo tiene que ser de una manera.*

– *No todos los que promueven la cultura vasca tienen que ser nacionalistas.*

– *El concepto de patria es un concepto subjetivo, y a partir de ahí se puede vivir la cultura vasca como propia sin asentar la patria. Y lo creo necesario para el propio enriquecimiento de la cultura vasca.*

– *No nos podemos basar en lo tradicional, porque si no se muere.*

– *A mí me hace gracia la gente que relaciona lo vasco con los baserritarras.*

(Gazteak, euskaldunak, Iruña)

Euskal kulturaren kontzeptuak esparru euskaldunaren mugak gainditzen ditu, harantzago doa, eta horren haritik ahotara datoz euskal sukaldaritza, euskal zinea, euskal futbola, mendizaletasuna…

– *Con los cocineros, están vendiendo la cultura vasca.*

– *El fútbol vasco es "luchador" y que Osasuna y Athletic… son cultura vasca. Una cosa tan universal como el fútbol también se vasquiza y entra a formar parte de la cultura de Euskal Herria…*

(Gazteak, euskaldunak, Iruña)

Iruñako ez euskaldunen taldeak, ordea, ez dio horren sakon heltzen gaiari, ez dira aipatzen euskal kulturaren erreferentziazko elementuak eta haren gizarte-ohiturak, beharbada lehentasuna eman diotelako beren nortasuna zein den jorratzeari (euskal herritarrak? nafarrak? euskal herritar-nafarrak? espainolak?). Euskal kultura eta euskal nortasuna nahasturik agertzen dira, eta Nafarroaren eta EAEren artean litezkeen kultur harremanez hitz egiten da.

Nafarroako Pirinioetako taldean ere ez diote Euskal kultura definitzeari ekin. Hemen ere, taldekoek ezin izan dituzte euskal kultura eta nortasuna elkarrengandik bereizi beren diskurtsoan.

– *Aquí había una cultura vasca propia, o por lo menos es lo que quiero creer, y me parece que eso está prácticamente perdi-*

*do. Ahora, que queramos **crear una nueva cultura**, que cojamos raíces, pocas cosas porque no quedan tantas… Es una labor bastante difícil.*

– *No nos sabemos defender en nuestro idioma, y **nueva cultura** porque esto no vale para nada.*

(Tarteko adina, mistoa, Otsagabia)

Lizarrako taldean ere euskal kultura euskal nortasunarekin uztartzen dute, bereziki euskara(z) bizitzearekin. Dena den, diskurtsoa ez da guztiz zirrikitu gabea, onartzen baita euskal kultura kontzeptu zabala dela, elementu ugariek osatua.

– *Luego la cultura vasca, pues igual el euskara, pero luego tienes aquí cine, tienes teatro y todo otra serie de aspectos que habría que valorar también cómo funcionan.*

– *Lo que es cultura vasca hay veces que se asocia a no sé qué tipos de temas y hay mucha diversidad. Yo lo que quiero decir que hay mucha diversidad, que dentro de los euskaltzales que podamos ser, dentro de la cultura vasca…*

(Tarteko adina, euskaltzalea, Lizarra)

Tutera aldeko Erriberakoek ez dute euskal kulturaren gaia aztertzen. Ebroko Erriberako jaietan dauzkaten ohitura batzuk azaltzen dituzte, horien bizirauteko gaitasuna agerian jartzeko. Erriberak bere kultura du, berezko ezaugarriez jantzia. Aztertu ere ez da egiten zer ote den, kontzeptu gisa ulerturik, euskal kultura.

– *Una buena vaca que te dé juego en el encierro no tiene precio.*

– *Ya puedes suspender toda la cultura que quieras, todos los espectáculos, te puedes traer a Madonna, e irá toda la gente que quieras, pero echas vacas e irá más gente.*

– *Yo tengo 48 años, y yo cuando tenía 12 o 14 años, todos los tíos de 40 y tantos cantaban jotas, hoy en día con 40 y tantos no canta nadie.*

(Tarteko adina, ez-euskaltzalea, Tutera)

Ikusi denez, EAEko landa-lanari buruzko txostenean argiago, zehatzago eta sistematikoago jorratu da euskal kulturaren gaia. Berriz ere badirudi Nafarroan ez zaiola heltzen eztabaidagai osoari, oraindik ere horretara iritsi aurreko beste hausnarketa batzuetan dabiltzalako: tradizioa/berrikuntza, irekia/itxia, gehitu/kendu, bestelakoa dena onartu/errefusatu, kanpoan/barruan, eta abar. Salbuespenak salbu, bada, eztabaidaren muina da euskal nortasunak bizirik dirauen edo ez, eta euskarari dagokionez, bultzatu eta sustatu behar den –batzuk horren alde azaltzen dira– edo, beste batzuen iritziz, kontrol eta bideratze politikara jo behar den. Testuingurua horrelakoa izanik, euskal kultura eta euskal nortasuna elkarren sinonimoak dira.

Beste daturik eman ezinda ere, ikerketak agerian ekarri dituen zantzuei erreparatuz gero pentsa daiteke, aurrera begirako aukera bezala, Nafarroan euskal nortasuna euskal kultura garaikidearen bidez garatuko dela. Hala bada, horrek aukera ona emango du euskal nortasuna(k) eguneratzeko eta modernizatzeko, eta kultur askotarikotasuna aurrera doan honetan berebiziko garrantzia izango du euskal herritar-nafarren partehartzeak.

3. EUSKAL NORTASUNA ETA KULTURA IPAR EUSKAL HERRIAN: Azterketa kualitatiboa

3.1. Sarrera 3
3.2. Euskal nortasuna 7
3.3. Euskal kultura 16
3.4. Euskal Herria 23
3.5. Euskara 28
3.6. Etorkizuna 34

Landa lana: Stat'Adour eta Aldia
Analisia: Kualitate Lantaldea

3.1. SARRERA

3.1.1. Metodologia-ikuspegia

Jarraian Ipar Euskal Herrian (Iparraldean) gauzatu den landa-lanaren ondorio nagusiak agertzen dira. Hemen aurkezten diren emaitzak Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) eta Nafarroako Foru Komunitateari (Nafarroa) buruzko txostenek erabili azterketa-ardatz berberen inguruan antolaturik daude, baina herrialde honen ezaugarri bereziei kasu eginez.

Ikerketa-atal honen helburu nagusia Iparraldean lortu den diskurtsoaren analisia izan behar den arren, bildu emaitzak ikerketaren osotasunean kokatu beharko ditugu eta, horrenbestez, txostenean zehar aipatu diskurtsoaren eta beste euskal herrialdeetako (EAE eta Nafarroa) diskurtsoen artean dagoen lotura erakutsiko dugu.

Kontuan hartu behar dugu ikerketa-taldeak Iparraldeko errealitatearen bazterrean dagoen ikuspuntu eta posiziotik egin duela dokumentua. Txostenak agertzen duen ikuspuntua honakoa da: Hegoaldetik Iparraldeari buruz egiten den hurbilketa da, berea ez den errealitateari buruz; beraz, ingurunearekin loturik dauden zenbait zehaztasun gal ditzake. Datu hau kontuan hartu beharko dugu, batez ere, Iparralde eta Hegoaldearen arteko konparaketetaz hitz egiten dugunean.

Txosten honen, eta aurrekoen, egitura osatzen duten analisi-ardatzak honako hauek dira:

- Euskal nortasunaren kontzeptua.
- Euskal kultura.
- Euskara.
- Euskal Herriaren kontzeptua.
- Etorkizuna.

Aipatu osagaiak ardatz nagusiak izan dira bai eztabaida-taldeetako solasaldietan, bai Iparraldeko kulturgintza eta politika alorretako pertsona ospetsuekin egin elkarrizketetan ere.

Taldeen osaketa erabakitzeko orduan, informazioa biltzeko, ulertzeko eta aztertzeko egokiago diren zenbait aldagai hartu dira kontuan. Nolanahi ere, aldagai horien hautaketan herrialdearen berezitasunek pisu nabaria izan zutela azpimarratu nahi dugu.

Honela, ondoko aldagaiak aztertu ziren:

- Euskaltzalea / ez euskaltzalea.
- Kostaldea / Barnealdea.
- Adina: gazteak / helduak.

Euskaltzalea / ez euskaltzalea aldagaiaren inguruan, taldeak osatzeko orduan, euskal kultura, hizkuntza edo nortasunari buruz pertsona ezberdinek agertu duten lotura eta hurbiltasuna hartu dira kontuan. Honela, talde euskaltzaleetan parte hartzen dute, euskal edo euskaldun unibertsotik hurbil dauden esperientziak deramatzaten pertsonek, beren maitasun, harreman edo kultura ingurunean. Eta talde ez euskaltzaleetan, aldiz, horrelako esperientziarik ez duten pertsonek.

Talde ez euskaltzaleetan, aldiz, printzipioz bere burua euskal mundutik kanpo ikusten zuten pertsonak parte hartu zuten, euskal kulturaz agertzen zuten sinpatia-maila kontuan hartu gabe. Erran dezagun euskal sentimendua edo sentimendu horren gabezia izan direla taldeosaketaren oinarriak.

Geroago, euskal nortasunari eskaini atalean, sakonago aztertzen dira taldeetan ikusten diren nortasun-tipologia ezberdinak. Baina, hastapenetik, puntu honetan, frantses nortasun hutsa duten pertsonak eta euskal kulturaraz oso axolagabe eta fidagaitz direnak aurkitzeko izan ditugun zailtasunak aipatzea beharrezkoa ikusten dugu.

Taldeak biltzerakoan ez genuen aurkitu euskal kultura argi eta garbi ukatzen zuenik edo, behintzat, euskal kulturaz axolagabe agertzen zenik.

Ikerketaren metodologia-ikuspegitik ezin dugu baztertu diskurtso hori Iparraldeko errealitatean gertatzen dela. Baina taldeak biltzerakoan, holakorik aurkitzeko izan ditugun zailtasunek pentsa-bide asko irekitzen dituzte, diskurtso horrek Iparraldeko gizartean duen garrantziari buruz. Euskal kulturari buruzko axolagabea taldeetan ez agertzeak, jarrera horrek leku txikia duela erran nahi luke, bai eta ere une honetan jarrera hori ez dagoela sozialki ongi ikusia.

Ez euskaltzaleen taldeetan euskal kultura eta hizkuntzari buruz kanpoko ikuspuntutik hitz egiten duten pertsonak aurkitu ditugu, baina aldi berean, bestelako diskurtsoak baztertuz,

ezagutzeko interesa eta jakin-mina erakusten dutelarik. Berezitasun horrek, Iparraldean egin diren inkestetan, beren burua euskal herritar bezain frantses ikusten dutenen talde zabalean ikerketa oinarritzea ahalbidetzen du. Aipatu taldea, Iparraldeko lurraldeetan aldaketa garrantzitsuenak jasan dituen taldea da.

Euskaltzaleen taldeen diskurtsoak eta frantsesago denak, egonkortasun gehiago agertzen dute denboran zehar. Baina azken ikerketa honek, aipatu bi diskurtsoen artean dauden pertsonen diskurtsoaren muinean sartzeko ahala eman digu. Gune honetan prezia ditzazkegu azken hogei urteotan euskararen edo euskal kulturaren alorrean gertatu diren aldaketa handienak.

Aldagai geografikoari dagokionez, kostaldean, hiri-ingurune batean eta Iparralde barnealdean bizi direnen arteko ezberdintasunak kontuan hartzea erabaki genuen. Nahiz eta banaketa hau nabaria izan Euskal Herri osoan, Iparraldeko kasuan garrantzi handiagoa duela dirudi. Alabaina, administrazio eta erakundeen ikuspuntutik, euskal lurraldea, bi suprefetura ezberdinetan banaturik dago; hauek baitira estatuaren boterea herrialdetara hedatzen duten egiturak, kantonamenduak elkarretaratuz, kostaldekoak eta barnealdekoak, Lapurdi eta Nafarro Beherea Baionako suprefeturari lotuz eta Zuberoa Oloroekoari.

Era berean, euskal lurraldeen makrozefalia sozio-ekonomiko eta demografikoak, kostalde oso dinamikoa eta ahulduz doan barnealdea, berezko logikak dituzten hiru espazio identifikatzera eraman ditu tokiko garapen-estrategien arduradunak: kostaldea, barnealdea eta bitarteko espazioa; espazio honek bigarrenaren antzeko ezaugarriak baditu (laborantza-ingurunea, ekonomia-dentsitate apala) eta lehenengoaren antzekoak ere bai (gazteek etxebizitza aurkitu behar dute, gainezkaturik dagoen kostaldetik kanpo).

Edozein kasutan, azterketa egiteko, muturretako bi espazioak atxiki ditugu, bitarteko inguraldean bizi diren pertsonak ere eztabaidatalde etan sartuz.

Ikerketa kualitatibo guztiek dituzten mugetan (salbu zenbait makro-ikerketetan) ezin dira diskurtso guztiak sartu, eta batzuen presentziari lehentasuna ematea eskatzen dute, beste batzuen kalterako. Ikerketa hau Iparraldeko errealitatearen hurbilketa gisa sortu zenez, Zuberoako lurraldea gogoetatik eta hautatu metodologiatik kanpo utzi behar izan genuen halabeharrez, eta etorkizunerako uzten dugu lurralde horren inguruko ikerketa egitea.

Azkenik, nahiz eta taldeen barnean helduen eta gazteen arteko bereizketarik ez egin, partaideen gehiengoak 35 urte baino gehiago zituen. Halere, bai elkarrizketa gehienetan, baita eztabaida-talde gehienetan ere, gazteek azaltzen dituzten jarrera ezberdinak eta belaunaldien arteko ezberdintasunak maiz agertzen dira. Zeharkako osagai eta ezinbesteko faktore bilakatzen dira, esplikatzeko zein diren taldeen eta elkarrizketatu pertsonen etorkizunari buruzko ikusmoldeak.

Egia bada ere gazteen presentzia fisikoa eskasa izan dela, diskurtsoan garrantzi handia izan dute; gazteak nola ikusten dituzten, gazterian ikusten dituzten aldaketak eta beren garaiko gazteria eta gaurko gazteriaren arteko ezberdintasunak maiz izan baitira mintzagai helduen artean. Gazteen presentzia aipagarri izan da, batez ere, elkarrizketetan bildu diskurtsoetan

Ikusi ahalko dugun bezala, talde hauen sozializazio-ereduak bi muturretan bereizten diren logikak jarraitzen dituzte: alde batetik euskaldunak, frantses nortasunera hurbiltzen direnak, ama-hizkuntza utzi baitute berrogeita hamarreko hamarkadan; bestalde ez euskaldunak, bere gurasoek galdu zuten hizkuntza egun berreskuratzen saiatzen direnak, dagoeneko galdurik dauden nortasun eta ezberdintasun ezaugarriak lortzeko helburuarekin. Ikusiko dugun bezala, auzi honen azpian azken berrogeita hamar urtetan euskal kulturari buruz egon den pertzepzioaren bilakaera ikusten dugu: atzo, iragan eta zaharkitutako usadio baten espresioa; egun, modernitatean sartzeko aukera.

Euskal kultura eta nortasunak Iparraldean agertzen duten adierazpen-molde ezberdinak kontuan hartuz, taldeak banatzea erabaki genuen, Iparraldeko eskualde ezberdinetan dauden hizkuntza, kultur eta gizarte berezitasunen arabera.

Azkenean honako banaketa agertzen duten lau talde osatzea erabaki zen:

TOKIA	PROFILA
Baiona	Euskaltzalea
Baiona	Ez euskaltzalea
Baigorri	Euskaltzalea
Hazparne	Ez euskaltzalea[1]

Ikusmolde erreferentzial bat biltzeko, Iparraldeko kultur eta politika alorretako zenbait pertsona ospetsu hautatzea erabaki zen. Hain zuzen ere, 7 elkarrizketa egin genizkien honako profila duten pertsonei:

- Kultura-programatzailea. Ez euskalduna.
- Miarritzeko kultura-zerbitzuen arduraduna. Ez euskalduna.
- Euskaraz lan egiten duen aktorea eta abeslaria.
- Iparraldean gazteen lan-munduratzeari lotua den egitura baten zuzendaria. Euskalduna.
- Ardura politikoak (kultura arloan bereziki) dituen Frantziako alderdi sozialistako hautetsia. Euskalduna.
- Euskarazko hedabideetako kazetaria.
- Iparraldeko elkartegintzako ordezkaria. Urte asko daramatza gazteen arteko kultura-topaketak antolatzen eremu euskaldunenaren barnean. Euskara ulertzen du.

Landa-lan honetarik atera diren emaitzak Iparraldeko gizarte-errealitate konplexuaz egin den lehenbiziko hurbilketa bezala ulertu behar ditugu eta ikerketa-talde honen nahia da txosten honetan azaltzen diren ondorioak, hipotesi gisa ulertuak izan ditezen, bai eta ere, ondoko gogoetetara bultzatzen gaituen material gisa. Aipatu ondorioak zehaztu beharko lirateke, etorkizunean gauzatuko diren ikerketa osagarrien bitartez, ikerketa kuantitatiboak ala kualitatiboak.

1. Talde hau ez euskaltzale bezala definitu den arren, talde mistotzat ere har genezake, partehartzaileen profila nahikoa nahasia izan baita, eta partehartzaile batzuen profila euskaltzaletik ez-euskaltzaletik baino gertuago dagoela ere esan dezakegu.

Dokumentuan zehar hiru analisi-maila agertuko dira: alde batetik eztabaida-taldeen emaitzak, bestetik elkarrizketenak eta, azkenik ikerketa-taldearen iritziak, lehenago aipatu bezala, hipotesi moduan aztertu eta ulertu beharko direnak.

Egia da Iparraldeko errealitatea, bai eta ere ikusmoldeen, iritzien eta diskurtsoen aniztasuna ez direla ikerketa honetan antolatu diren taldeekin agortzen. Adibideak.

1) Lurralde honen erakunde-konplexutasun handia: onarpen eta integrazio falta Pirinio Atlantikoetako departamenduan, Biarnoko lurralde okzitanoekin juntaturik; barnezatiketa suprefektura ezberdinetan; euskal eta biarnes kantonamenduen integrazioa legebiltzarreko hautes-barruti berean.

2) Lurralde-zatiketa, aipatu garapen antolaketarako hiru eskualdeetan.

3) Konplexutasun soziala eta demografikoa: garapena kostaldean eta bitarteko eskualdean, aldiz biztanleriaren galera Nafarroa Beherean eta Zuberoan; bertako gazteen emigrazioa, hexagonotik datozen adin ertain eta handiko jendeen etorrera, lurraldez kanpoko gazteen etorrera gero eta handiagoa…

Osagai hauek, beste osagai batzuren artean, nortasun eta kultur errealitateari buruz egin hurbilbide guztiak zailtzen dituzte, baina, aldi berean, aberasten. Edozein kasutan, lan kualitatibo honen emaitzak, gure ustez, baliagarriak dira, Iparraldeko euskal nortasunak eta kulturak egunero agertzen duten egoera ulertzen lagunduko gaituzten zenbait gako eskuratzeko.

3.1.2. Diskurtsoa baldintzatzen duten zeharkako osagaiak

Txostenaren egitura osatu duten analisi-ardatzen garapenarekin hasi aurretik, egoki deritzogu tokia uztea jarraian, atal bakoitzean azalduko diren zenbait gai aurreratzeko, emaitzak ulertzeko ezinbestekoak ikusten baititugu.

Jarraian aipatzen diren faktoreak zeharkakoak dira, talde batetik bestera, eta egoki litzateke Euskal Herriko lurralde ezberdinetan egin den ikerketaren osotasunean sartzea.

- Ikuspuntu honetarik, kontuan izan behar ditugun lehen osagaiak dira Iparraldearen eta Euskal Herriko beste herrialdeen arteko ezberdintasunak (EAE eta Nafarroa).

Honela, azpimarratu beharreko lehen ikusmoldea da Iparraldeko emaitzek ezin direla ulertu, diskurtsoa beste herrialdeei dagozkien logikekin aztertu nahi bada.

Adibidez, bi itzulitan egiten den gehiengoko sistema politikoak notable sistemaren pisua agertzen du. Aipatu ezaugarri notabiliarrak ez dira lurralde honetara mugatzen soilik, beste euskal komunitateetan adibideak aurki baititzakegu. Halere, EAEn eta Nafarroan gertatzen denarekin alderatuz, bi itzuliko gehiengoko hauteskunde-sistemak hautetsiei pisu handiagoa ematen die. Honela, pertsona ospetsu batzuek funtzio erabakigarriak jokatuko dituzte, orain dela gutxira arte tokiko eta nazio mailako sarrera-ahalmen bikoitzarekin lotzen zena, kargu metaketak sustaturik (cumul des mandats).

Era berean, Iparraldeko onarpen instituzionalaren gabeziak herrialdearen ikusgarritasuna zailtzen du, ikusgarritasun hori nabaria den bitartean EAEn eta Nafarroan, erakunde egiturari esker. Halaber, konstituzioaren 2. atalak egun duen idazketak, Errepublikaren hizkuntza frantsesa dela esaten duenak, zailtzen du euskararen presentzia bizitza publikoan, oztopatzen ez badu.

Logikoa da, aipatu dugun bezala, Euskal herriko lurraldeak zatitzen dituen haustura instituzionala eta horrek dakarren guztia (ordutegi, hezkuntza-eredu, bizitza-estilo ezberdinak...) lehentasunezko osagaia bihurtzea lurralde honen ezaugarriak ulertzerakoan.

Horregatik, hasiera-hasieratik nabaria da Iparraldearen eta beste lurraldeen arteko ezberdintasunik nagusiena dela talde euskaltzaleetako eta talde ez euskaltzaleetako diskurtsoen arteko hurbiltasuna. Zenbaitetan diskurtsoak talde berberarenak direla dirudi, izan ere, batzuen eta besteen arteko ezberdintasuna beren proposamenak egiteko orduan agertzen dituzten ñabardura txikietan oinarritzen baita.

Hizkuntzaren ezagutza eta partaideen jatorria alde batera utzita, euskaltzaleek eta ez euskaltzaleek euskal kulturari eta nortasunari buruz agertzen dituzten jarrerak oso antzekoak dira.

Taldeen giro orokorra ez da oldarkorra, gizartearen eta kulturaren egoera naturaltasun handiarekin onartzen da. Iparraldean ez dira EAEn edo Nafarroan agertzen diren muturreko diskurtsoak errepikatzen. Ezta militanteagoak diren pertsonen edo euskal kultur eta hizkuntzaren alorretako mugimenduetan lan egiten dutenen artean ere.

Beren proposamenak askoz ere geldiagoak dira, agian beren itxaropenak eta lan-erritmoa askoz ere epe luzeagora zuzendurik baitaude, Hegoaldean baino. Alabaina bizi duten errealitatea eta frantses estatuaren jarrera oso ondo ezagutzen dute.

Azpimarratzekoa da, lehen aipatu dugun bezala, balizko kontrako muturrean ere ez dela frantses diskurtso garbirik ageri, euskal nortasunetik osoki bazterturik dagoenik. Gabezia horren zergatia lurraldean diskurtso horrek duen pisu eskasa izan daiteke edota egun jarrera hori ez dela sozialki onartua.

Badirudi ikuspegi orokor honek eskaintzen duen azken emaitza honako hau dela: taldeetako partaideen artean ikus daitekeen diskurtsoa askoz ere irekiago da besteen iritziei. Orokorrean, malgutasun handiagoa erakusten du gizarte honek euskalduna den guztiarekin. Aldiz, Hegoaldeko zenbait eskualdetan, beren urruntasuna erradikalismo gehiagorekin agertzen dute.

Nabarmendu beharra dagoen beste osagai bat da Iparraldean dimentsio politikoa askoz ere txikiago dela Hegoaldean baino, non ere politikak diskurtsoa asko baldintzatzen baitu, bai eta ere eragileek kulturaz duten pertzepzioa. Nahiz eta hain esplizitua ez izan, egia da ere dimentsio politikoak gai batzuren inguruan dagoen pertzepzioa baldintzatzen duela, hala nola euskararen presentzia eskola publikoan, estatu-botereak euskarari buruz agertzen duen jarrera, onarpen instituzionalaren aldarrikapena, adibidez. Ez da diskurtso politiko soilik aurkitzen, baina ikusmolde hori faktore askoren azpian aurki dezakegu, besteak beste, euskararen ofizialtasuna edo Euskal Departamendua eskatzen duten aldarrikapenetan.

Honela, gaur egun banaka galdezkatu pertsonen hitzetan, biztanleriaren %70a tokiko erakundeen aldekoa litzateke. Molde berean, euskarazko ikaskuntzarako egiten diren izen emateak goratzen ari dira etengabe; hortaz 1993. urteko “Pays Basque 2010” txostenak, (hau eremu, ideologia eta nortasun guztietako 500 pertsona ospetsuek idatzi zuten), paradoxa bat argi eta garbi azaldu zuen: “ez da inoiz horren euskara gutxi erabili eta ez da inoiz horrenbesteko ikasteko nahi handirik izan”.

Geroztik hizkuntza analisi guztietan euskara sartu da, tokiko garapena bermatuko zuen faktore gisa, beste batzuen artean.

Nabarmentzekoa da ere indarkeriak duen presentzia ahula bizitza publikoan eta herritarren diskurtsoan. Ez da kasik aipatzen taldeetan eta egiten dutenean, orokorrean, erakunde armatuak sortzen duen irudi txarra eta estereotipoak gaitsezteko da. Elkarrizketetan indarkeriari buruzko aipamen gehiago agertzen dira, euskal kulturak bere bidean dituen oztopoen artean; halere ez du pisu handirik diskurtsoaren baitan.

Nabarmendu nahi dugun azken ikusmoldea da turismoak ikerketaren osotasunean hartzen duen garrantzia. Alabaina, turismoa lurraldearen gizarte-dinamikaren partaide gisa agertzen da; bizitza-modu berezi baten bila datorren inmigrazio-mota baten etorrera ere onartzen da. Asko hitz egiten da Frantziako beste eskualdetarik etorri diren maila ertain-gorako pertsonetaz, oporrak udan hemen pasa eta gero Iparraldean bizitzen gelditzen direnak.

3.2. EUSKAL NORTASUNA

3.2.1. Diskurtsoaren alderdi orokorrak

Taldeetako diskurtsoaren lehen hurbilketa batean, euskal nortasunak lotura tinkoa agertzen du euskararekin Iparraldean. Hain zuzen ere, biztanleriak, orokorki, euskalduntzat onartzen du hizkuntza ezagutzen eta erabiltzen duen oro. Halere, geroago ikusiko den bezala, lehen definizio hau, praktikan, askoz ere malguagoa bilakatuko da.

Honela, partaideen artean nortasun-tipologia ezberdinak bereizten dira:

– Frantziako beste eskualdetarik etorriak diren jendeak, bai eta ere beste herrialdeetarik, lurralde honetan aurkitzen duten bizitza-mailaren ondorioz etorri direnak eta beren jatorrizko lekuetan ezin dutena aurkitu, diotenaz.

  Mota honetako pertsonek aipatzen dituzte klima, segurtasuna, bizitza-maila, bazterrak edo euskal kulturaren adierazpenen erakargarriak bezalako faktoreak.

  40 urtetik goragoko pertsonak dira nagusiki Iparraldean gelditzen direnak, beste lurraldeetan bizitzen egon-eta, Parisen, Afrikan, eta beste.

  Profila hedatuena dugu bigarren etxebizitza Iparraldean erosi-eta, azkenean, ingurune orokorrak erakarririk bertan bizitzen gelditu diren pertsonena.

  Maila ertain-gorako immigrazio mota honek ezaugarri oso ezberdinak ditu, Hegoaldeko lurraldeetan aurki daitekenarekin. Han 1950 eta 1970eko hamarkadetan etorri ziren ekonomia-baldintza hobeak lortu nahian. Immigrazio horren kasuan argi dago aberaste kulturala eta integrazioa ez zeudela bere lehentasunen artean, baina bai aukera berriak bilatzea.

  Iparraldeko kasuan, taldeetan argi eta garbi ikus dezakegu nola kanpotik etorri diren jendeak oso hartzaile agertzen direla euskal kulturaren adierazpenei begira, baina, orokorrean, ikusle huts gisa hitz egiten dute kulturaz. Biziki atsegin sentitzen dira Iparraldean eta, Estatu frantseseko beste lurraldeekin alderatuz, xarma berezia eta ezberdina duen lurraldea dela diote.

– Iparraldean bizi diren jendeak dira, euskal nortasunarekin nolazbaiteko lotura zuzena sentitzen dutenak. Kasu gehienetan beren familiek jatorri euskalduna izan zezaketen, baina egoera ezberdinengatik, euskararekin eta euskal ohiturekin zaukaten lotura galdu zuten.

  Pertsona hauen artean maila ezberdinak aurki ditzakegu, galdu zuten euskal nortasuna berreskuratzeko duten nahiari dagokionean. Alde batetik, beren jatorria berreskuratzeko eginahalak egiteko prest daudenak, bestalde hizkuntzarekin eta kulturarekin harkor agertzen diren pertsonak, baina euskararen nahitezko irakaskuntza eskola publikoan ukatzen dutenak ere aurki ditzakegu.

– Euskaldunak. Euskara beren eguneroko bizitzan erabiltzen duten pertsonak edo bederen alor berezi batzutan. Euskal kulturari buruzko atxikimendu-maila handia agertzen dute. Taldekideen kasuan, horietako askok euskara eta euskal kultura babesten duten erakunde eta elkarteetan parte hartzen dute, aipatu atxikimenduak bultzaturik.

– Atxikimendu frantses hutsaren diskurtsoa ez da argi eta garbi nabaritzen taldeetan. Horrek adieraz dezake diskurtso hau

eztabaida publikotik desagertu dela, edo Iparraldeko biztanlerian duen pisu eskasarengatik, edo sozialki ez delako ondo onartzen.

Taldeetan aurkitu diren nortasun-tipologien arteko mugak oso nahasiak dira eta, askotan, bitarteko eremuak agertzen dira batzuen eta besteen artean. Ezaugarri berdin gehiegi daude, mugak argi eta garbi definitu ahal izateko.

Honela, erraza da bi nortasunak (frantsesa eta euskal herritarra) onartzen dituzten pertsonak aurkitzea, nortasun bat ez baitzaio besteari nagusitzen. Beren burua "bikulturadun" daukate, nortasun osoki integratuarekin.

Frantses estatuaren instituzionalizazio-prozesuak indar handia izan du eta horren froga da, bai taldeetako partaideek, salbuespen gutxirekin, bai eta ere elkarrizketatuak izan diren lekukoek, beren nortasun frantsesa onartzen dutela. Hegoaldean ez da gauza bera gertatzen, biztanleriaren kopuru handi batek bere nortasun espainola ukatzen baitu.

Beren burua euskal herritar soil gisa ikusten dutenek ere frantses kutsu nabaria onartzen dute beren ohituretan eta orokorrean beren nortasunean, eta kultura frantsesak beren bizipenak asko baldintzatzen duela adierazten dute.

Nortasunen arteko elkarbizitza hori naturaltasun handiarekin onartzen da eta, gizarte mailan, ez da gatazkarik sentitzen bien artean. Egia da euskal nortasunarekilako atxikimendua agertzen duten pertsonek administrazio-errealitatearen aldaketa aldarrikatzen dutela euskal kulturen eta euskararen alde, baina aldarrikapenek ez dute tirabirarik sortzen gizartean.

Hortaz, nortasunaren kontzeptu askoz ere irekiago eta malguago baten aurrean gaude. Euskaltzaleek beren itxura frantsesa konplexurik gabe onartzen duten bezala, ez euskaltzaleek eta bitarteko egoeran daudenek, ezaugarri berdin asko aurkitzen dituzte ikuspuntu euskaltzaleenarekin.

Alde batetik, kanpotik datozen taldeetako lagunek errespetuz, baita mirespenez ere, ikusten dute lurralde honen errealitate kulturala. Sinpatia edo begikotasuna senti dezakete globalizazioari aurre egiteko gai izan den kulturaren aldera, ezin badute ere beren burua ikusi kultura horren partaide gisa. Euskal gaien adierazpenak errespetuz ikusten dituzte baina kanpotik, nahiz eta zenbait kasutan euskal kultura esperientziak partekatzen dituzten.

Kanpotik etorritakoek, dantzak bezalako kultura adierazpenak miresten dituztela eta horren ondorioz dantza-ikastaroetan beren izena ematen dutela aipatzen da, besteak beste.

Aldi berean, euskal jatorria duten jendeak ere aurki ditzakegu, baina belaunaldiak joan ahala, nortasun horren zati bat galdu dutenak. Belaunaldien arteko hausturarik nabariena, mundu gerlak jasan zituzten pertsonen (70 urtetik gora) eta beren seme-alaben belaunaldiaren artean gertatu zen. Erran den bezala, haustura handia egon zen bi belaunaldi horien artean, nortasunaren transmisioari dagokionean. Bitxi bada ere, gazteen belaunaldia da egun ahalegin handienak egiten ari dena, galdu zen nortasuna berreskuratzeko.

Ulergarri da bi mundu gerlek adineko gizonemakumeen bizitza hain sakonki markatu zutela. Beren ama-hizkuntza euskara izanki, osoki frantsesa den jarrera kontserbadorearekin bat egiten duten adineko pertsonak aurkitu ditugu talde eta elkarrizketetan. Horren arrazoia esperientzi traumatikoa da: Frantzia osoko lagunekin "kanpoko" etsai baten aurka borrokatu behar izatea.

Lur zuloetan sortu nortasun horren oroimen kolektiboak, gerlari ohien diskurtsoaren pisuak eta elizaren garrantziak nagusiki kontserbadore den gizartean, bereziki barnealdean, faktore horiek ulertaraz dezakete gehiengoaren ideologia-atxikimendu hori.

Agerian gelditu da ere aipatu belaunaldia ondoko urteetan konplexuz beterik bizi izan zela eta, horren ondorioz, bere nortasuna eta euskara familiartean mugatu zituela.

Frantziatik kultur berdindua inposatzen entsegatu ziren, baina tokiko nortasun bat aurkitu zuten Ipar Euskal Herrian, ingurunearekin lotura tinkoa duena eta Frantziako beste lurraldeetan baino askoz indartsuago zena, Korsika, Rosella eta Bretainia bezalako lurraldeak salbu.

Hortaz, ikerketa-taldearen ustez, nortasunen mapa bat sortzen da nortasun horiek bat bestearen gainean ezarriz, euskal kultura erreferentziazkoa eta biltzailea delarik, nortasunen artean lotura ezberdinak sortuz: alde batetik, euskara ez jakin arren, euskal nortasunaren partaide sentitzen dena eta kulturaren garapena

lagundu nahi duen pertsona; bestalde, euskal kultura kanpotik, interes handiz eta mirespenez ikusten duen pertsona; bai eta ere, euskara globalizazioaren aurkako borrokaren ikur gisa ulertzen duen pertsona. Irudia honako hau da: erdigunetik hedatuz doazen uhin ezberdinena.

Elkarrizketek eskaintzen duten ikuspegitik, garbi ikusten da euskaldungoak betetzen duen lana aipatu uhinak hedatzea dela, hasierako gunetik kanpo dagoen jendea hurbiltzen entsegatuz, kultura-esperientzien eta partekatzen ditugun baloreen barneratzearen bidez; modernotasunarekin zerikusia duten baloreak dira.

Elkarrizketa hauetan euskal nortasuna gazteen artean zabaltzeko urraspidea azaltzen zaigu, euskal rock erradikala bezalako kultura-adierazpenetarik abiatu den urraspidea.

Rock erradikala estakuru bat izan zen, gazteria euskal kulturara hurbil zedin. Gazteen beharrak, kezkak eta harremanak zuzenean konektatzen zituen mintzamoldetik abiatuz, dinamika oso bat gauzatu zen eta horren emaitza izan da euskal kultura eta sinboloak hedatzea, biztanleriaren sektore zabalagoetara.

Urraspide horrekin batera beste urraspide paralelo bat jarri zen martxan eta helburua zen pestak euskalduntzea afixa elebidunen bidez eta antolakuntza aldatzea, parte-hartzea sustatzen zuten eskemak bilatuz.

Gaur egun euskal irudikapen kolektibo erakargarriarekin bat egiten duen gazteriaren zati handi baten presentzia egiazta dezakegu, nahiz eta gazteek euskara ez jakin.

Badirudi egun euskara eta euskal mundua balore garaikide bilakatu direla gazte askorentzat, modernotasunaren seinale diren beste baloreekin zuzenean konektatzen den balorea alegia: globalizazioaren aurkako borroka, interkulturalitatea, gizarte eta kultura-mugimenduen antolakuntza solidarioa.

Gazteriak euskal ikurrekin eta nortasunarekin erakusten duen hurbiltasuna ezin dugu goretsi, gazteria osoa hartzen duela pentsatzeraino. Baina, ikerketa-taldearen ustez, badirudi Iparraldeko gizartearen baitan gertatzen ari den bilakaeraren adierazle gisa ulertu behar dugula.

Zentzu horretan, elkarrizketetan aipatzen da sektore euskaltzaleek lanean dihardutela Baiona iparreko hizkuntzen pesta bezalako ekintza ezagunekin. Bertan jatorri ezberdineko hizkuntzek parte hartzen dute eta euskarak lehentasunezko presentzia du. Euskara eta euskal kultura, nolabait, interkulturalitatearen buru bilakatu dira. Eta, aldi berean, beste lekuetarik etortzen diren kulturei beren espazioa eskaintzen diete, elkarrizketa aberasgarria planteatzeko aukera ematen duten esperientzia partekatuen espazioa.

Tokiko erakundeen arrangurekin loturik dagoen gaia da, frantses eta euskla herritar nortasunetarik kanpo sentitzen diren etorkinak barneratzen lagunduko duten formulak bilatzea. Beraz, Iparraldeko nortasunen panorama are korapilatsuago agertzen da.

Gune euskaldun horrek egin lanaren beste ondorio bat da bere aldarrikapenak hedatzea Iparraldeko gizartearen zati handi batean zehar.

Iparraldeko testuinguru sozialak adierazten digu departamendu berezi baten aldeko aldarrikapena edo euskaren ofizialtasuna, gune euskaldunetik kanpo atera direla eta gaur egun alderdi frantsesen babesa dutela. Egia erran, alderdi frantsesak zatitzen dituen gaia dugu hau, eta tokiko agenda noizean behin markatzen duen departamenduaren aldeko mugimendu anitza sortarazten du.

Halere, berriz ere, elkarrizketetan argi gelditzen da gizartearen sektore askotan egin taldelanak kontraesan eta tentsio ugari sortarazi dituela mugaren bi aldetako ezker abertzalearen baitan. Erritmoari eta helburuen definitzeari lotuak diren barneko kalapitak sortu dira, ez direnak herritarren eguneroko gogoetaraino hedatu, ez eta ere taldeen diskurtsoetan ageri.

Dimentsio politikoago batean sartuz, biziki bitxia da ikustea, taldeetako diskurtsoari begiratuz, zer nolako eragin politiko txikia duen, Iparraldeko biztanlerian, Hegoaldeko nazionalismoaren politikak. Halere, badirudi oraindik eragin horrek, praktikan, formazio politikoen lana baldintzatzen duela. Hauteskunde-indar hain txikia duen mugimenduaren zatikapen sakona sortzen du, nahiz eta bere eragina gizarte, kultura eta ekonomia mailan askoz ere handiago den.

Nolanahi ere, garrantzizko ezberdintasuna dago Nafarroako kasuarekin, zeinek desadostasun jakin bat agertzen baitu Bizkaiko eta Gipuzkoako nazionalismoak duen zeregin nagusiaren aurrean. Zenbait ahotsek salatzen dute

aipatu nazionalismoak Nafarroako berezitasuna ez duela errespetatzen. Iparraldeko herritarren baitan ez da halako gogoetarik aurkitzen eta, ondorioz, Hegoaldea ametsezko eredua dela dirudi, erakunde-mailan erreferentzia politikoa baino.

Egin den lana aztertu-eta, eta elkarrizketatuengandik atera informazioek adierazten duten bezala, badirudi Iparraldeko mundu euskaltzalearen lan militantea askoz ere gehiago gauzatzen dela kultura mailan, ezinez eta maila politikoan edo linguistikoan. Militantziak eguneroko eginbideetan ezartzen du arreta, helburu (diotenaz!) errealistak finkatuz (Euskal departamendua bezalaxe), eta honela aldaketak poliki-poliki sentitzen dira. Egoera honetan, zenbaitek diote beste alderdi batzuek, abertzaleen diskurtsoaren osagai batzu barneratu dituztela eta gero, abertzaleek bildu ezin duten errentagarritasun politikoa ateratzen dutela.

Ikerketa taldearen ustez, dimentsio politikoak euskararen ofizialtasuna aldarrikatzerakoan agertzen da gehienik, bai eta ere, neurri txikiago batean, onarpen instituzionalaren inguruan. Baina, nortasunen arteko elkarbizitza horretan, norbaitek ofizialtasuna eskatzen duenean nahitezko ikaskuntzari loturik, oldarra sortarazten duen egoera bakarra agertzen zaigu. Orduan bakarrik besteak atzera eginen du. Hori da talde euskaltzaleen eta ez euskaltzaleen artean ikus daitekeen ezberdintasun handiena, euskal kulturari eta nortasunari buruzko jarrerei dagokionean.

Lehenago aipatu dugun bezalaxe, euskal nortasunaren kontzeptua aski malgua da. Nahiz eta hasiera batean iruditu euskal herritar nortasuna euskal jatorriarekin eta euskaraz mintzo denarekin identifikatzen zen, definizio hori aldatzen da diskurtsoa sakondu ahala.

Helduago direnek euskal nortasuna eta euskara jakitearen arteko lotura egiten dute. Gazteek eta adin ertaineko pertsonek, aldiz, dirudienez euskal nortasuna modernitatearekin lotzen dute eta kontzeptu hau ikusten dute gizartean hedatzen. Aipatu kontzeptuaren gauzatze-faktoreak honako hauek dira: lurraldea (departamenduaren aldarrikapenarekin bat egitea), ikurrak ("Gora Euskadi" dioten txapelak, ikurriñak autoetan), kirolak (Biarritz Olympique-Pays Basque, Euskal Herriko Surf Federazioa), aisialdia (Baionako eta herrietako pestak, Euskal Herria Zuzenean, Baionako Jazz Jaialdia) eta "igarobide-errituak" (euskaltegietan izen-emateak, euskarazko inprobisazio ñimiñoak elkarrizketak hasterakoan eta bukatzerakoan...).

Dena den, ikusten dugu balore-hedatze hori ez doala euskalduntze-urraspidearen erritmo berean. Zeren eta praktikan, gainditu beharreko zailtasun handiak baitira: oztopo horiek hizkuntzari eskaini atalean zehaztuko ditugu.

Nolanahi ere, taldekideek eta elkarrizketatu helduek erran digute euskara ez dakiten gazte asko euskarari eta euskal kulturari biziki hurbil sentitzen direla, eta euskaltasunaren alde kartsuki agertzen direla, horrekin batera beste zenbait aldarrikapen hartzen badituzte ere.

Eztabaidan zehar, nortasun-kontzeptu malgu honek dakartzan abantailak eta desabantailak agertzen dira. Elkarrizketatuek baikor baloratzen dute, alde batetik, malgutasun hori hasierako muin euskaldun horren hedatze-modurik hoberena dela, eta bestalde, etorkinak integratzeko modu bakarra dela, aipatu baloreak barneratuz. Honela, beste lurraldetarik etorri direnak integratzeko dagoen formula bakarra interkulturalitatearen lidergoa hartzea dela azpimarratzen da. Estrategia honekin, euskal mundua, beren kultura ahantzi gabe, beste kultura bat ikastea ahalbidetzen duen espazioa izanen da etorkinentzat.

Argi da malgutasunak ateak irekitzen dizkiela beste kolektiboei. Baina zalantzak sortarazten dituzten arriskuak ere ekartzen ditu. Kezka handia adierazi da Estatu frantsesak euskal kulturari buruz hartu duen jarreraz. Taldeetako partaideak asko kexatzen dira Estatuak ez baitu deus egiten euskara babesteko eta zalantzak agertzen dituzte euskal kulturak erakundeen sustengurik gabe irauteko izan dezakeen gaitasunaz.

Egia da, gazteriaren alorretan lan egiten duten pertsonen elkarrizketetan, engeiamendua ikusten dela gazte askoren aldetik eta mugimendu euskaltzalea bizirik dagoela. Baina arrisku handiak aurreikusten dira, ez badago politika-aldaketarik gobernuaren aldetik.

3.2.2. Taldeen diskurtsoaren analisia

Lehenago aipatu dugun bezala, talde bakoitzeko analisi sakona egiterakoan, kasu eman beharreko lehenbiziko faktorea dela euskaltzaleen eta ez euskaltzaleen diskurtsoaren arteko berdintasuna.

Halere, materiala sakonki aztertu-eta ondoriozta dezakegu ñabardura ñimiñoak daudela nortasuna ulertzeko eta, bereziki, sentitzeko orduan. Talde euskaltzaleek hizkuntzaren funtzioa nortasunaren muin gisa hartzen baitute, euskaraz mintzatzearen eta euskal herritar izatearen arteko lotura azpimarratzen dute. Aldiz ez euskaltzaleek zabaltze handiagoa eskatzen dute, kultura iraunarazteko. Erraten dute nortasuna eta kultura ez direla hizkuntzan mugatzen.

Talde euskaltzaleetan euskarak garrantzi handiagoa dauka nortasunari buruzko diskurtsoan talde ez euskaltzaleetan baino. Azken hauek, nahiz eta askotan hizkuntzarekin sentsibilizaturik izan, garrantzia ematen diete aitzinatzeko eta kanpora irekitzeko beharrari.

Euskaltzaleek hizkuntzari eskaintzen dioten garrantziarekin loturik, **Baionako euskaltzaleen taldean** indar handirekin agertzen da hizkuntzaren inguruko "belaunaldi-traumatismoa". Traumatismo horrek euskararen galera ekarri du: hiztunek euskaraz mintzatzeaz ahalke dira, besteen aurrean laborari ezjakin gisa agertzen baitira. Eta, horren ondorioa da euskal kulturaren eta nortasunaren galtzea.

> *Même mes grands parents qui ne parlaient que le basque entre eux et dès que l'on entrait dans la pièce, ils continuaient en français, (le peu) qu'ils savaient.*
>
> *(Baionako talde euskaltzalea)*

Berentzat euskara euskal nortasunaren muina da. Euskal herritar izatea zer den definitzeko orduan, denek onartzen dute hizkuntza garrantzitsua dela, besteekin dugun ezberdintasuna markatzen duen ezinbesteko adierazlea baita.

Horrenbestez, hizkuntzak beraientzat posizio nagusia du baina, aldi berean garrantzitsuak dira ere bizimoldea, gauzak ulertzeko eta herria maitatzeko moldeak, elkarteetan parte hartzea, ekintza kulturalak, nahiz eta euskara ez jakin: "Ezin zaio inori euskaldun izatea debekatu". Halere, euskal munduarekin zinez identifikatu nahi bada, euskara jakitea beharrezkoa da.

> *Je pense que si vraiment il se sent réellement basque, s'il a envie de s'affirmer en tant que basque, c'est quand même qu'à l'intérieur de lui-même il y a une grande réflexion, il a dû se poser quelques questions.*
>
> *(Baionako talde euskaltzalea)*

Iparraldean badago euskaraz ekoizten den kultura bat: antzerkia, dantza, euskararik gabe partekatu ezin diren ohiturak. Beraz, zergatik ez ikas euskara? Ez da behartu nahi, erakarri baizik. Baina uler dadila euskaraz egiten den euskal kultura bat badagoela.

> *Il faut aller dans des endroits où le basque est pratiqué (…) pour, à partir de là, commencer à pouvoir l'aimer ou à se plonger dedans et à partir de là prendre vraiment la décision : "J'ai envie de l'apprendre parce que je le sens bien et il faut que je puisse communiquer". Mais ça ne se fait pas du jour au lendemain. On ne peut pas vous dire en suivant : "Allez, il faut que tu apprennes". C'est, des fois, personnel.*
>
> *(Baionako talde* euskaltzalea*)*

Zenbaitentzat euskal nortasuna, egun, euskaldun izatea da "eta zertxobait militantea"; gauza atsegina eta sakona da. "Gizarte-egitasmo" bat da, mundu berri bat bilatzen da, baina ohiturekin moztu gabe eta beste nortasunak ukatu gabe. Mundua ikusteko eta ingurunea sentitzeko moldea baldintzatzen duen egitasmoa.

> *Je me sens basque, j'ai beaucoup réfléchi depuis le plus jeune âge sur ce projet là. Je suis basque, ma langue maternelle était le basque, j'ai grandi comme ça et je m'efforce de faire ce que l'on me demande. Je ne renie ni les Français ni les Espagnols.*
>
> *Je pense que c'est une manière un peu différente de voir les choses, comme un Français, un Turc voient les choses différemment.*
>
> *(Baionako talde euskaltzalea)*

Aipatu egitasmoak hizkuntzaren gaia eta lurralde-auzia hartzen ditu; alde batetik hizkuntzaren koofizialtasuna eta onarpena, bestalde nahiko hedatua den Euskal Departamenduaren aldarrikapena adierazten dute: "Ez gara biarnesak bezalakoak".

> *Notre problème est justement que vous n'êtes pas obligés de savoir le basque. Je crois qu'au niveau de la langue il faudrait qu'on soit beaucoup plus radical. Que moi j'appelle ma banque et je parle en basque. On me dit : "Non, non on ne parle pas basque". (je réponds :) "Mais vous me trouvez quelqu'un qui parle en basque".*
>
> *Il y a une première revendication qui est le Département Pays Basque qui est assez populaire et assez facilement accessible si l'Etat français, bien sûr, voulait le reconnaître. Mais ça va encore plus loin pour moi, c'est une institution spécifique*

pour le Pays Basque Nord, c'est quelque chose qui est peut être utopique, mais il faut aussi avoir des rêves qu'un jour il y ait un Pays Basque indépendant. Mais il faut donner à la population ce projet là. Bon, c'est pas avec les bouquins et les abertzale. C'est amener la population à lui faire comprendre justement tout ce qu'on vient de dire, qu'il y a une culture, un territoire.

(Baionako talde euskaltzalea)

Talde honen barnean bikulturalitatearen ideia agertzen da, elebitasunarekin loturik nahitaez. Pertsona batek hizkuntza bat edo bestea bizitzaeremu berezieran erabiltzen du. Euskara gehienik familiartean mugatzen da eta frantsesa lan eremurako eta gizarte harremanetarako uzten da.

Déjà il faut dire qu'on est bilingue dans la tête, c'est-à-dire que nous parlons deux langues, ce qui suppose qu'il y a des choses que vous pensez dans une langue et d'autres choses dans une autre langues. L'affectif par exemple ça ne peut être qu'en basque pour moi parce que l'affectif est transmis pour moi par ma famille. Donc déjà ce bilinguisme fait aussi qu'on est biculturel.

(Baionako talde euskaltzalea)

Baigorriko talde euskaltzalean oso diskurtso lasaia agertzen da, nahiz eta partaideak, neurri handi batean, euskararekin loturik dauden kultura-elkarteetarik etorriak ziren.

Baionako talde euskaltzalean bezalaxe, egia da euskarak leku garrantzitsua duela nortasun-diskurtsoan eta ezinbesteko oinarria dela nortasunarentzat. Halere aldagai geografikoak ere pisu handia dauka.

Gogoeta askoren arabera, argi ikus dezakegu heientzat oso garrantzitsua dela, nortasuna eraikitzeko orduan, Iparraldeko barne herrialde baten ideia izatea, kostaldearengandik bereizten dena, beren errealitate ekonomiko eta sozialarekin.

Hastetik euskal nortasunaren borroka-espiritua agertzen da. Espiritu honi esker barnealdea bere hartan egon da eta ez da beste lekuetako barnealdeek eta laborari inguruek pairatzen duten krisi-egoeran sartu. Euskal nortasunak duen erresistentzia-ahalmen horrek laborari munduan oinarritu ekonomia-bizitza sendo baten iraupena ahalbidetu du.

Je ne sais pas si c'est tout à fait la culture basque mais moi ce qui m'a frappé dans les années 70/80, quand j'ai débarqué dans ce milieu, c'est l'esprit de rebellion. C'est-à-dire une certaine insoumission à un avenir justement tout tracé du duclin de la campagne ; enfin ces choses-là font que les gens se sont beaucoup engagés. Ils se sont engagés de façon plus ou moins violente, mais après cet engagement des années 75, quand les gens ont été en âge de créer des entreprises, il me semble qu'il y a eu quand même toute une génération qui a essayé de faire des choses. (…) Il y a quand même un je ne sais quoi, une plus grande propension à se lancer, à prendre des risques. Alors, est-ce que c'est lié à la culture basque?

(Baigorriko talde euskaltzalea)

Baserri-giroan oinarritu ekonomia-egiturak sanoki iraun dezan, eta beste eskualdetan galdu diren giza-baloreak atxikitzeko, kultura-nortasunaren indarra ezinbestekoa dela adierazten dute. Etorkizuneko belaunaldiei ondasun hori emateko beharra azpimarratzen dute. Puntu honetan, eskualde honetako etxaldeek eta landetxeek duten garrantzia ikusten da. Etxea, erresistentziaren ikur gisa agertzen zaigu.

C'est également l'Etxe, cet attachement à la maison qui a permis de conserver longtemps, qui la conserve encore, mais plus difficilement, l'activité agricole. Donc ce territoire reste aujourd'hui très humanisé grâce à l'activité agricole liée à cette identité, qui se crée autour de l'Etxe.

(Baigorriko talde euskaltzalea*)*

1975-1980. urteetan bizitza publikoa dinamizatzeko eta euskararen alde lan egin zuen belaunaldiaren espiritua aldarrikatzen da. Espiritu hori joera globalizatzaileen aurka oldartzeko beharrarekin eta eskaerarekin loturik dago.

Taldeak euskara babesten duten pertsona-profil ezberdinen definizioa egiten du. Profil horietan sartzen dituzte, bai euskara dakiten eta erabiltzen duten pertsonak, bai eta ere beren babesa eskaintzen duten pertsonak, nahiz eta euskara ez jakin.

Ipar Euskal Herriak, Frantziako beste herrialdeen artean agertzen dituen berezitasunak ere azpimarratzen dira, beste lurraldeen aldean oso ezberdina agertzen baita.

Il y a un coté affectif avec la langue, que je ressens très fort. Quand je suis arrivée, ce qui m'a frappée d'entrée de jeu, c'est l'impression de n'être pas en France, d'être à l'étranger. Parce que j'ai vécu beaucoup en France et en Côte d'Ivoire aussi, j'ai un petit peu voyagé.

(Baigorriko talde euskaltzalea)

Erlijio-baloreek euskal ohitura atxikitzeko orduan izan duten garrantzia ere aipatzen da. Iparraldean biziki garrantzia handia duen gaia da, iraultzaren ondotik Estatuak martxan jartzen duen makineriaren gainetik euskal kulturaren eta ohituren iraupena ulertarazten duena.

Gaia bere testuinguruan ezarriz, Elizak tokiko aginteekin egin zituen akordioak, iraultzako eta XX. mende hasierako estrategia laikotzaileei aurre egiteko. Akordio honek, XIX. mendean zehar hizkuntzak zuen indarra esplikatzen du. Honela, 1868. urtean Iparraldeko biztanleen %68a euskalduna zen oraindik. Baina, apurka-apurka, elizak Estatuaren eraikitze-prozesua bereganatu du eta hortik aurrera, Arbelbide, Xarriton edo Goyhenetchek erakusten duten bezala, tokiko kulturak desagerrarazten dituen tresna bilakatzen da, denbora berean euskararen zaindari bezala agertzen delarik.

Orduan euskarak eta euskal kulturak beren iraupena bermatzeko gai diren eliteak galtzen dituzte, eta krisia handi batean sartzen dira.

Barnealdearekin eta laborantza-giroarekin lotua den euskal kulturaren kontzeptua, ahal den neurrian, aldatzea eskatzen dute, uste baitute bere iraupenerako ezinbestekoa dela euskara hiri-giroarekin ere uztartzea.

Kanporatu behar izan zuten euskaldunak taldekide hauen gogoetetan agertzen dira. Ikusten da Euskal Herriko lurretatik kanpo ohitura nola atxik daitekeen eta nola, nahiz eta zenbait kasutan euskara galdu, erbesteratuek euskaltasun-sentimendu handia begiratzen duten. Ondorioz, taldearentzat argi gelditzen da nortasuna ez dela bakarrik hizkuntzaz osatzen.

> *Ils ne sont jamais revenus en France. Ils ont oubliés le français et oubliés le basque. Ils ont oubliés les deux mais ils avaient un sentiment d'appartenance au Pays Basque incroyable. Et quand maintenant leurs enfants viennent périodiquement, ce sont des chiliens, des argentains, des mexicains, surtout des brésiliens qui viennent et qu'est ce qu'ils demandent ? D'aller à la maison natale, là ils pleurent un bon coup, ils emportent un petit cailloux et repartent dans leur pays. L'identité vraie, elle est faite de beaucoup de choses. Elle est faite de la langue. Eux ils ne la parlent pas. Mais elle est faite aussi de beaucoup d'autres choses.*
>
> *(Baigorriko talde euskaltzalea)*

Taldeen diskurtsoen inguruko analisiaren hasieran esandakoari jarraikiz, talde ez euskaltzaleetan hizkuntzak garrantzi txikiagoa dauka euskal nortasunaren osagai nagusi gisa eta elkarrizketek aipatu nortasunaren aitzinarazteko beharrari garrantzi gehiago ematen diote: hein batean, hain segur, pertsona hauek kontzeptua ahalik eta zabalagoa izateko duten beharraren ondorioz, honela berek ere, eta beren seme-alabek, nortasun horretan parte har baitezakete.

Baionako ez euskaltzaleen taldean euskal kulturaren independentzia atxiki ahal izateko besteei ezagutarazi behar zaiela adierazten dute. Zenbaiten ustez euskaldunak ez dira behar bezain irekiak beren burua besteei ezagutarazteko: askotan euskaraz egitea aukeratzen dute eta, horren ondorioz, ulergaitz bilakatzen dira.

Bitxia da gogoeta hauek euskal munduan egin diren elkarrizketekin bat egiten dutela. Azpimarratzen da euskaldunek aski irekiak izan behar dutela, hizkuntza ikasten ari direnekin "elkarlanean aritzeko", honela ikasle hauek ez baitira lotsatuko hizkuntza erabiltzeko duten ahalmen mugatuaz. Bai eta ere aski irekiak hizkuntza ikasteko griña sentitzen ez duten pertsonak euskararantz erakartzeko.

> *Déjà ce serait nécessaire pour défendre leur cause, parce que rien ne sert d'expliquer sa cause si on ne la partage pas avec les autres ; pour comprendre les autres points de vue il y a déjà un barrage entre nous (la langue). L'entité d'un pays indépendant et qui veut préserver son indépendance culturelle, il faut qu'on puisse la faire connaître à d'autres, comprendre pourquoi ils ont fait telle ou telle chose.*
>
> *(Baionako talde ez euskaltzalea)*

Ez euskaltzale hauek diote ere euskaldunak eboluzioari buruz uzkur izan direlakotz euskal kulturak iraun duela. Alde batetik, eboluzionatzeko beharra aldarrikatzen dute baina, bestetik, horrek dakartzan arriskuak ere ezagutzen dituzte eta badakite eboluzioaren falta garrantzitsua izan dela euskal kulturaren eta nortasunaren iraupenerako. Halere, gaur egun badirudi ezin dela ulertu, errealitate berrietara egokitzen ez den euskal nortasunaren etorkizuna. Disoluzioaren eta eboluzioaren arteko eztabaida mahai gainean dago.

> *D'un côté je dis ce qu'on disait tout à l'heure, c'est-à-dire que je pense que s'ils s'ouvrent trop, la culture peut se diluer par le brassage, et donc à ce moment là sur 50 ans, je ne sais pas, il restera peu de chose.*
>
> *– Ce serait une dilution ou une évolution ?*
>
> *(Baionako talde ez euskaltzalea)*

Berentzat hizkuntzak garrantzi gutxiago duela adierazten duen froga da, taldeak hizkuntzaren inguruan agertzen dituen zenbait ezjakintasun: erraten dute euskarak hizkuntza ezberdinak badituela, bizi zaren tokiaren arabera bata edo bestea erabiltzen dutela; egiten duten kritika bat da euskarak dauzkan zailtasunak euskaldunek berek sartu dituztela, eta beste.

> *Euskaldunek dira hizkuntza zailtzen dutenek, gutxi gora behera denek dakigun hizkuntza bat.*
>
> *(Baionako talde ez euskaltzalea)*

Beren ustez, euskal kultura ezagutzea edo ez aukera pertsonala da, indibiduala, hautuzkoa. Kontsumo pertsonal gisa. Askok ez dute nortasun-sentimendua gai honekin lotzen.

> *Est-ce que vous pensez que (le basque) mérite d'être mieux connu ?*
>
> – *Oui, mais c'est personnel ça, c'est personnel comme question.*
>
> *(Baionako talde ez euskaltzalea)*

Bi jarrera agertzen dira: euskal kultura ezagutarazteko indar handiagoa egin behar dela uste dutenak, adibidez, eskola publikoan ez baita Euskal Herriko historia irakasten; eta nahi duen orok bakarrik ikasi behar duela uste dutenak.

Erraten dute euskal kultura eta historia ezagutzeko aukera izatea gustatuko litzaiekeela, baina frantsesez, hau da, hizkuntza ezagutzeko beharrik gabe; ez dute onartzen euskararen ikaskuntza inposatzea.

Euskal kultura definitzeko erraten dute "herrialdekoa, sortzetikakoa, adopziokoa" dela. Euskal kultura herrialdekoa da, frantsesa, aldiz, nazionala. Biak ezberdinak dira eta bat bestearen osagarriak.

> *C'est dire que la culture française est mélangée à la culture basque et vis et versa ?*
>
> – *Non, la culture basque est imprégnée d'une partie de la culture française.*
>
> – *Et la culture française, s'est imprégnée de la culture basque ?*
>
> – *Non, je ne pense pas ça.*
>
> *(Baionako talde ez euskaltzalea)*

Taldeak hizkuntza eta kulturaren alde eramaten diren ekimen ezberdinak azpimarratzen ditu, betiko euskal giroa atxikitzeko egiten diren eginahalak: afitxa elebidunak ezartzea, euskal literatura, euskaraz ezarri iragarkiak (Leclerc zentroa aipatzen dute), pestak. Aurrerapen hauetaz duten pertzepzioa oso urrun dago talde euskaltzalearen pertzepzioarengandik.

> *Il y a beaucoup de panneaux bilingues (…) quelques rayons avec quelques ouvrages écrits en basque. Alors on sent bien que ce sont des efforts. Et les fêtes de Bayonne même si ce n'est pas basque.*
>
> *(Baionako talde ez euskaltzalea)*

Halere, berresten dugu, nahiz eta ezberdintasunak izan, eta beti ere talde honen errefusa sortarazten dituzten osagaiak (nahitezko ikaskuntza) baztertuz geroz, euskal nortasunaren inguruko kontzeptua irekia eta baikorra dela. Egia erran, nahiz eta hasiera batean partaide zenbaitek bere burua euskal herritartzat ez eman, geroago, inplizituki, euskal herritartzat onartzen dute.

Ondorioz, ez da arraroa talde honetan aurkitzen dugun euskal kulturaren nolabaiteko mirespen-espiritua, zenbaitetan urrun, bestetan hurbilago, erresistentzia-aro batekin lotzen baitute: Estatuaren uniformizazioaren eta globalizazioaren aurkako erresistentzia. Ohiturak, eta hizkuntza aspaldi galdu dutenek, sorterriaren mirailan dirdiratzen dute beren mirespena.

Elkarrizketetan bildu den hizkuntzaren etorkizunari buruzko materialaren arabera, badirudi "basamortu berdindu" frantsesak sustatzen duela euskal kulturaren eta hizkuntzaren aldeko atxikimendua, euskaldunak oldartzen baitira. Horregatik, orain dela 40 urte, euskal nortasuna eta hizkuntza iraganarekin lotzen baziren ere, orain berezitasun moderno bilakatu da. Halere, erran behar dugu ikuspuntu hau gizarte-sektore batzuri dagokiela eta jende askok ez dutela onartzen euskal kultura eta hizkuntzaren ikuspegi moderno hori. Oraindik ere badira sektoreak osoki axolagabe direnak euskarari buruz, nahiz eta taldeetan ez diren agertu.

Hazparneko ez euskaltzaleen taldean, Baionan bezalaxe, euskarak garrantzi txikia du nortasuna definitzeko orduan eta beren gogoetek beste norabide bat hartzen dute: euskal kulturak, une honetan, kanpoan dauden pertsonak nola erakar litzakeen.

Euskararik jakin gabe euskal herritarra izan zaitezkeela aldarrikatzen da eta euskal nortasunaren irekitasun handiagoa eskatzen dute,

euskal herritarrago sentitzeko ahalmena emanen dien nortasuna. Hortaz, euskal nortasunaren barnean sartzeko prest agertzen dira.

> *Je communique par le sport, tous les sports : le rugby, la pelote et là je me sens Basque, alors que je ne parle pas basque. Je ne suis pas bascophone du tout. J'apprécie la culture basque. Je suis d'accord, l'essentiel est la langue. Je fais partie d'une génération qui s'est trouvée dans une famille où on n'a plus parlé basque ; ça a été comme ça, mais je pense que l'on peut être Basque sans, on peut apprécier la culture basque, on peut participer à la culture basque sans la langue aussi. Je pense que c'est là justement que l'ouverture est basque.*
>
> *(Hazparneko talde ez euskaltzalea)*

Egia erran, Ipar Euskal Herritik kanpo ateratzen direlarik, orduan beren burua euskal herritarrago sentitzen dutela eta beren erroekin handizki identifikatzen direla erraten dute.

> *Nous nous sentons Basques, souvent, quand nous sommes à l'extérieur. Quand nous sommes déracinés nous cherchons nos racines et là, nous sommes plus fiers de dire que nous venons d'ici, que nous sommes d'ici.*
>
> *(Hazparneko talde ez euskaltzalea)*

Zailtasunik gabe uztartzen diren nortasun ezberdinak agertzen dira, bata bestearen gainean: euskal nortasuna lehenik, gero frantsesa, bai eta ere eskoziarra taldekide batentzat, eta azkenik europarra. Nortasunak metatuz doaz integrazioan oinarrituz eta ez, ordea, batek bestea baztertuz.

> *Finalement, j'ai trouvé personnellement, je me suis tout à fait réconcilié avec mes identités superposées et maintenant je me sens tout à fait Basque, c'est ma première identité. Et puis je suis Française d'adoption. J'ai fréquenté l'école française dans mon petit village, à l'école publique. J'ai appris la littérature en langue française, etc. et puis après je me suis ouverte à d'autres. Je suis Ecossaise d'adoption et je me considère petite Ecossaise aussi. Finalement Européenne et du monde. Maintenant j'ai trouvé, mais longtemps ça a été difficile ; ça c'est personnel.*
>
> *(Hazparneko talde ez euskaltzalea)*

EUSKAL NORTASUNARI BURUZKO DISKURTSOAREN OSAGAI NAGUSIAK

- **Euskal nortasunaren** kontzeptuak **lotura** agertzen du, hasiera batean, **euskararekin** baina diskurtsoa **sakondu** ahala ideia hori **irekitzen** da: euskaldun izateko ez da baitezpada euskara jakin beharrik.
- **Kontzeptu irekia eta malgua** da. Euskal herritarren eta euskal herritar ez direnen arteko mugak ez dira zehatzak eta oso irazkorrak dira. **Nortasunen arteko elkarbizitza** dago eta frantses-euskal nortasun bikoitzeko kasuak ugariak dira.
- **Dimentsio politikoa** Hegoaldean baino askoz ere ahulagoa da: ardura osoa **euskararen ofizialtasunean** ematen da. Gainera, Hegoaldeko nazionalismoak ez du eragin handirik Iparraldeko **gogoeta politikoan**, zeinek bere logikak kontuan hartzen baititu.
- **Kexu** agertzen da jendea **etorkizunari begira:** Estatu frantsesak duen jarreraren ondorioz, Departamendua eta euskararen ofizialtasunaren inguruan Iparraldeko gizarteak egiten dituen aldarrikapenei ez baitie kasurik ematen.
- Talde **euskaltzaleek** hizkuntzaren funtsezko funtzioa euskal nortasunaren muin gisa, eta euskara eta euskaldun izatearen arteko lotura azpimarratzen dute. Talde **ez euskaltzaleek**, aldiz, irekitasun handiagoa eskatzen dute kultura iraunarazteko: onartzen dute hizkuntza kulturaren eta nortasunaren osagai bat dela beste batzuren artean.
- Barnealdean eta bereziki Baigorrin ikus dezakegu zer garrantzia duen kostaldeari konparatuz **oso ezberdina den ingurune** batean bizitzea, laborantza giroan. Euskal nortasun orokorrean, barnealdeko nortasuna aldagai geografiko honek markatzen du.

3.3. EUSKAL KULTURA

3.3.1. Diskurtsoaren alderdi nagusiak

Lehenik eta behin, ez euskaltzaleen begikotasun (sinpatia) eta hurbiltasun handiak azpimarratzekoak dira, euskal kulturak eta nortasunak Iparraldean bizi duten edozein momentutan. Badago ere, euskal kulturara hurbiltzeko nahia, berezia delakotz, bitxia eta folklorikoa. Taldeetan ikusi denaren arabera, badirudi hastapen batean jendeak euskal kultura ezagutu nahiko lukeela, ez euskaldunei errealitate irazkor gisa agertzen zeiena.

Zentzu horretan ezberdintasun handia markatzen da Hegoaldearekin: Iparraldeko ez euskaltzaleek euskal kulturan sartzeko nahia agertzen dute eta sarrera hori oso beren baitarikakoa da. Gogo baikor hori oinarriturik dago eguneroko zereginetan eta beren inguruan ikusten dituzten kultura-ekintzetan, erakargarriak baitzaizkie.

Elkarrizketetarik atera denari jarraikiz, egunerokotasun horretarik, hain zuzen ere, abiatzen dituzte beren eginahalik handienak euskal kulturaren alde lan egiten dutenek eta hor lortzen dituzte emaitzarik hoberenak. Pestak bezalako ekintza hedatuekin jende asko erakartzen da.

Pesta hauek, Maskarada, Pastoral, dantza, feria, eta beste, euskaldunek euskal nortasunaren mugak zabaltzeko erabiltzen dituzten "erritu" bilakatzen dira, bai jendea beren espazioetara erakarriz, bai jende hori euskal herritar-frantses nortasun bikoitzean sartzera gomitatuz. Honela, hizkuntzatik harantz, kultura-adierazpen zehatzak biztanleriaren sektore berri batzuri gustatzen zaizkie, malguagoak baitira, ondorioz erakargarriagoak eta politagoak, baina bai eta ere manipulagarriagoak. Agian iraganeko euskal kulturaren krisia bukatuko delakoan!

Elkarrizketatu diren adituen arabera, euskal kultura gazteen artean arrakasta handia ardietsi duen balore modernoa bilakatu da: eginahalak egiten dituzte euskara erabiltzeko, nahiz eta eguneroko bizitzan hitz gutxi erabili eta elkarrizketa bati jarraitzeko gai ez izan. Ez balin badira ere elkarrizketa bati jarraitzeko gai, halere beren inguruan dagoenarekin identifikatzen dira. Euskal sinbologia edo ikurrina bezalako osagaiek gero eta presentzia handiago dute jantzietan, puskiletan eta beste.

Nahiz eta gazteriaren artean ikusten diren euskal kulturaren inguruko ikuspuntu itxaropentsuak, elkarrizketatuen artean ere ados ez diren ahotsak entzun ditugu, aipatu ikuspuntua zehazten dutenak: uste dute hirietan, orokorrean, euskal kulturaren irudia zaharkitua agertzen dela, hots laborantza-girokoa. Herrietako kultura litzateke, hirietako kulturaren ordez.

Gazteriaren zati batek bereganatu dituen ikurrek, euskal kulturak erakarririk, euskaltzaleen guneetan sartzea errazten duten osagaiak dira: edo euskal nortasunean oinarritzen den gunean, edo euskal herritar-frantses nortasun bikoitzarenean. Gazteek berezitasuna agertzen dute, bai Biarnoarekin, bai Frantziarekin edo gero eta globalizatuago den munduarekin. Gazte horiek ez dute "osoki mulgildu" nahi bi partaidetza-sentimenduen oinarrian dagoen gunean: errespetatzen duten hizkuntzara hurbiltzen dira, baina lotsaz beterik.

Ikerketa-taldearentzat, Euskal kulturaren egungo izaera moderno eta bereizle hori, tokiko-nortasunak ahuldu zituen akulturazio frantsesaren urraspideak esplika lezake neurri batean. Urraspide horren aurka, biztanleriak zirrikitu bat aurkitzen duen bakoitzean, irekidura horrekin identifikatzen da. Hori gertatzen da Iparraldean sortu gazte askorekin: haien gurasoek beren hizkuntza galdu baitzuten, ez diete beren semealabei erakutsi. Bai eta ere kanpotik etorri diren askorekin gertatzen da, inoiz ezagutu ez zuten ama-kulturaren falta sentitzen dutenekin.

Beste argibide bat da euskal kultura eta hizkuntza erreferentzia bilakatu direla globalizazio-prozesuen aurkako erresistentzian. Euskaltasuna erresistentzia-ikur bilakatu da eta erakarpen-botere indartsua bilakatzen da Frantziako beste lurraldeetako biztanleentzat. Ondorioz, ohiturak berdintzeari aurre egiteko beharra agertzen da.

Egungo egoera oso ezberdina da, 1980ko hamarkadan zegoen irudiarekin konparatuz, non ere Iparraldeko politika-aginteek edozein kultura-garapenen aurka zeuden; gaur, aldiz, bereganatu dute iraganean euskaltzaleek soilik erabiltzen zuten diskurtsoa.

Ez da alferrik izan. Tokiko erakundeek, adibidez Euskal Herri 2010 gogoetetan, euskararen eta euskal kulturaren aldeko apustua egin dute eta hizkuntza antolaketa neurri zehatzetan gauzatu da. Neurri hauek, nahiz eta zailtasun asko izan heien garapenerako Departamendutik, Eskualdetik eta Estatutik etortzen diren baliabideak eskasak baitira, eragile guztien aldetik berenganatuak izan dira: Iparraldeko gizarte, politika, ekonomia eta kultura-ordezkariak, beren ideologia eta nortasuna edozein bada ere.

Taldekideen arabera, politikak ez ditu kultura-esperientziak baldintzatzen eta gai honetan Hegoaldearekin ezberdintasunak badira. Iparraldean kultura naturalki sortzen da, Hegoaldean ez. Ez dirudi errealitate politikoak errealitate kulturala estaltzen duenik. Baina elkarrizketatuen artean ahotsak badira erraten dutenak politikak zenbait pertsona euskal kulturatik urrundu dituela. Halere, eztabaida politikoen inguruan dagoen interes falta ez da erabakigarria dirudienez.

Gai honekin jarraikiz (kultura-esperientzien baldintzatze politikoaren absentzia), eztabaida taldekide batzuk uste dute jendea dela, elkarteak direla ekintza eta egitasmo ezberdinak aurrera ateratzen ari direnak, auto-antolakuntzari esker. Haiek dira kulturaren alde lan egiten dutenak.

Zentzu honetan, elkarrizketatu pertsonek ikuspegi hori osatzen dute eta adierazten dute gazteek euskal kulturaren alde folklorikoetarik urrundu direla eta, askotan, pestak eta antzeko pesta-giroko ekitaldiak antolatzen dituztela.

Kultura-elkarteetan murgildurik dauden pertsonetan, batez ere gazteetan, mugimendu dinamikoa eta aipagarria aurkitzen dugu. Honek eragin zehatza dauka, Iparraldean ematen den kultura-kontsumoari begira, Frantziako beste herrialdetakoa baino handiagoa baita, bidean oztopo handiak izan arren: baliabide falta, irakurketamaila ahula, euskararen ezagutza txikia eta, gainera, merkatu mugatua, besteak beste.

Taldeetan zehar biziki garrantzi handia hartu duen gaia da kulturaren eta folklorearen arteko bereizketa. Etengabeko tentsioa ikus daiteke turismo-ikuskizunekin lotzen den eguneroko kulturaren, eta ohiturarekin lotzen diren adierazpenen artean. Turismo kulturak oso irudi txarra dauka.

Halere folklorikoago den kultura horrek badu bere alderdi positiboa, beste lekuetarik datorren jendea euskal kulturara hurbiltzen baitu eta, praktikan, osagai erakargarri gisa aritzen baita. Hegoaldean, aldiz, dimentsio politikoak baztertzen edo zailtzen du, euskal herritar sentitzen ez diren pertsonen sarrera euskal kulturara.

Folklorearen irudi txarra turistentzat sortzen diren ikuskizunekin egiten den loturatik dator: “turistentzako zirkoa” deitzen dute. Nahiz eta osagai erakargarria izan daitekeela onartu, jatorritasuna galtzeko arriskua dakar: kultura-adierazpen guztiak, turismo-maila handiak bultzaturik, publizitate-helburuekin eskaintzen den iraganaren oroimen batera mugatzeko arriskua ere hor dago.

Gainera, gai honen azpian turismoak dakartzan ondorioak badaude, mozkin ekonomiko garbiak ekartzen dutenak. Halere etxebizitzen prezioaren igoera bezalako nahigabeko ondorioak ere dakartza, eskaeraren handitzeagatik eta kanpotik datozen pertsonen erosteko ahalmen handiagoarengatik, Iparraldean baitute beren bigarren etxebizitza.

Azkenean, kulturaren iraupenerako Iparraldean dagoen arriskurik handiena honako hau da: tokiko biztanleriak bere etxebizitza inguruetako beste lurraldeetara eraman behar izatea, etxebizitzen prezioa askoz ere lorgarriago delako.

Honela, bai taldeetan bai elkarrizketatuen iritzietan ere, abertzaleek beren diskurtsoaren ardatz nagusi gisa erabili dituzte bi argumentu, turismoa ukatzea eta gazteria Iparraldetik kanporatzea baztertuko duen garapenaren beharra. Lurraren espekulazioagatik bi argumentuak elkarretaratzen dira. Ondorioz, etxearen aldeko borroka gai nagusia bilakatzen da barnealdeko zenbait taldekideen diskurtsoan. Etxea kulturaren funtsa hartzen duen simbolo-balorea du, eta erresistentziaren bermea bilakatzen da, bai eta ere eskualdeko garapenaren oinarria.

Izan ere, ikerketa-taldeak ateratu duen ondorioa da kultura-adierazpenak, bereziki barnealdean, osoki erroturik daudela biztanleen eguneroko bizitzan: kantuak, janariak, jokoak eta, bereziki, dantzak eta inauteri-paradak (xaribariak, toberak, maskaradak) eta antzerkiak (pastoralak) naturalki gizarteratzeko tresnak dira. Iparraldean ez da ageri EAEko hiri-inguruetan nabari den kontraesana: laborantza-giroaren falta sentitzen dute eta gero badirudi modernitatearekin jasaten duten aldaketekin zerikusirik duen kulturaz nazkaturik gelditu direla. Iparraldean, barnealdean bereziki, kultura eta ohitura eskuz esku doaz, naturaltasun osoz. “Kanpokoentzat” egiten den folklorea da bakarrik betikoa eta zaharkitua.

Molde berean, eboluzionatzeko beharrak, iraganean mugigaitz ez gelditzeko, Iparraldean presentzia txikiago du EAEn baino. Egia da euskal kultura aldatzen ari dela, baina nagusiki gazteen eguneroko zereginetan aldatzen ari da. Nahiz eta kulturan eta bere balorazio sozialean gertatu diren aldaketak argi izan elkarrizketatu pertsonen ikuspuntutik, ez dira nabari taldeentzat.

Ohitura ezberdinen egunerokotasunak bilakaera ahalbidetzen du eta bizitasuna eskaintzen dio euskal kulturari.

Nolanahi ere, bilakaerarekin zerikusia duen guztia ez da problema bezala ikusten, aldaketa hori osoki naturala baita. Gazteek (horrela adierazten dute elkarrizketek eta taldeek gazteriaren jarreren inguruan) arrakastatsuak diren euskal kulturaren eta nortasunaren espresio berriak bereganatzen dituzte eta modan jartzen ari dituzte. Mugimendu bizia eta indartsua da.

Erreferentzia berriek izaera oso dinamikoa agertzen dute, pestak ikuspegi oso ezberdinetarik antolatzeko gai dira. Fenomeno hori antzerki edo musika-taldeetan antzeman daiteke, euskal kultura berritua eta rapa bezalako adierazpen modernoak uztartzeko gai direnak.

Euskal kulturaren ezaugarri gisa lehenagoko izaera, jatortasuna eta irauteko ahalmena agertzen dira. Molde berean, euskaldunak kanpotik datozenekin hetsiak ote diren inguruko eztabaida ere entzuten da. Lagun bat baino gehiagok aitortzen du zaila dela eta denbora behar dela gizarte-harremanen gunean sartzeko. Integrazio-prozesua ez da erraza.

Elkarrizketek eskaini ikuspegiak agerian ezartzen du euskal kulturak eta musikak izan dituzten abangoardiako mugimendu gehienak, Iparraldean sortu direla. Halere, aipatu egoera ikonoklasta hori ez da kasik adierazten taldekideen gogoetetan.

Iraganean kulturak lotura gehiago zuen folklorearekin, baina hori aldatu nahian dabiltza orain. Belaunaldi berriak ez dira euskal munduan sartzen ohizkoenak diren espresioengatik, baizik eta modernitatearen balore berriengatik.

Kezkak eta ahuleziak, beste behin, erakundeen aldetik dagoen babes ezak ekartzen du. Errealitatea konplexua da: baliabiderik gabe ezin da etorkizuna bermatu. Euskarazko irratiaren inguruan dagoen zalantza da, zer gertatuko den emankizunak entzuteko gai den publikoa desagertuko denean. Adineko pertsonetaz osatua da oraingo publikoa, eta hizkuntza-gaitasun aski duen ordezko belaunaldirik ez da.

Kezka hauek euskararen aldeko militantzian sarturik dauden pertsonetarik datoz bereziki, beren eguneroko eginkizuna zailtasunez betetzen baitute. Kanpotik, aldiz, errealitatea baikortasunez ikusten da.

Hedabideek duten garrantzia eta izanen duten funtsezko funtzioa asko errepikatzen da. ETB ikusi ahal izateak eta hedabideek Euskal Herriari buruz informazioa emateak duten garrantzia ere azpimarratzen da. Halere, hedabideen eta euskal-kulturaren egoera –antzerkiarena, besteak beste– oso larria da eta bakoitzak berak diru-sarrerak bilatu behar ditu, inolako babesik gabe.

Itxuraz elkarrizketatuen artean badago adostasuna parte-hartzea beharrezkoa dela alor ezberdinetan: adibidez, euskal literatura sustatu beharko litzateke, irakurketa-maila ahula baita. Molde berean, antzerkia ikastetxeetan sustatu beharko litzateke ere.

Beren ustez, gazteak harberagoak dira euskal kulturarekin eta euskararekin. Baina harmen hori eta gazteen artean ematen den hizkuntza-gaitasun eskasa oso bestelakoak dira.

Elkarrizketetan ere ezberdintasuna ikus daiteke, ohituretarik datorren eusko-kulturaren eta Euskal Herrian egun egiten den euskal kulturaren artean. Hirugarren definizio bat legokeela ere erraten dute, folklorearekin zerikusia duten gauzen inguruan.

Taldeek garrantzitsutzat ematen dituzten kultura-ohituren artean honako hauek aurkitzen ditugu:

- Kirola: errugbia eta Donostian (Anoetan) bizi izan zitekeen esperientzia Aviron Bayonnais klubak Frantziako Kopako finala jokatu balu azpimarratzekoak dira. Azpimarratzen da, aldiz, jende asko joan zela Parisera beren ikurriñekin eta guzti. Elkarrizketetan ere kirola funtsezko osagai gisa agertzen da. Errugbiak eta pilotak Iparraldeko gizartean duten garrantzia azpimarratzen dute. Hori adierazteko, erraten dute ezin dela eskola bat ulertu pilota-lekurik gabe.

- Musika: bereziki, euskal rocka eta bertsolaritza. Askotan, kantua ere aipatzen da euskal kulturaren ezaugarri berezi gisa.

- Antzerkia, nahiz eta ez zehaztu, baina gure ustez pertsona guztien buruan pastoralak zeuden.

- Funtsezko osagai bat pestak dira, batez ere 1980. urtetik aurrera euskaltzaleak antolakuntza-batzordeetan sartzen bai-

tira: euskalduntze lanak egin dituzte, afixa elebidunak ezarriz eta beste. San Ferminak ere garrantzi handia dute, urtero Iparraldeko gazte asko hara joaten baitira eta Hegoaldeko gazteekin jartzen baitira harremanetan.

– Artea. Taldeetan ez da gehiegi sakontzen, baina elkarrizketa batek euskal kulturaren kontzeptua kolokan jartzen du, solaskideak kultura unibertsala dela uste baitu. Ideia honen inguruko eztabaida agertu da, noizean behin, taldeetan. Ikuspuntu honen arabera, ez dago Iparraldeko artista baten lana "euskaltzat" emateko balio duen ezaugarririk. Besteak beste, Pantxita Telleriaren kasua aipatzen da. Munduan zehar dabil bere ikusgarriak eskaintzen. Baina beste tokietako ikusleak ez doaz ikusgarria ikustera euskal kultura delakotz, baizik eta kultura orokorraren ikuspuntutik. Ikusgarria ikusi eta gero ez du inork erranen ikusi duena euskal kultura denik.

– Paisaia osagai berezi gisa, jatorrizko arkitektura eta eraikuntza tipikoak ere (etxea).

– Kantua ere erreferentzia-osagaia da bai taldeetan bai elkarrizketetan, eta Iparraldeko ezaugarri berezia bilakatzen da.

3.3.2. Taldeen diskurtsoaren analisia

Euskaltzaleen eta ez euskaltzaleen artean ikusten den ezberdintasunik handiena da euskaltzaleentzat kultura bizitzen den zerbait dela, ingurunearekin eta egunerokotasunarekin lotzen den zerbait, bereziki Baigorrin; ez euskaltzaleek, aldiz, kanpotik hitz egiten dute kulturaz eta, aldi berean, euskaldunen jarrera hetsiaren ondorioz dauden integrazio-zailtasunak ere aipatzen dituzte.

Euskal kultura errealitate irazkor agertzen da, egunerokotasunaren esperientzietarik, ez euskaltzaleentzat: hauek jakin-mina agertzen dute euskal kulturaren adierazpenen inguruan, hain jakin-min handia non, zenbaitetan, euskaltzaleen diskurtsoarekin nahasten batitugu.

Zentzu honetan, **Baionako euskaltzaleen** taldean, euskal kultura lotzen dute ohiturarekin, lurraldearekin, erroekin eta historiarekin. Eguneroko gertakizuna da eta, ez euskaltzaleen taldean ez bezala, bizitzen den gertakaria bezala ikusten da, eta ez irakurriz ezagutzen den gertakari miresgarri bezala. Euskarazko antzerkiaz hitz egiten da. Euskaltzaindia aipatzen da botere-iturri "nazional" gisa, Iparralde eta Hegoaldea hartzen dituena eta hizkuntza gobernatzen duena.

Comment vous percevez la culture basque ?

Quotidiennement. Tous les jours. Par exemple j'ai une fille à l'ikastola et ma femme lui parle constamment en basque. Donc il y a une immersion totale que ça soit à l'ikastola ou à la maison.

(Baionako talde euskaltzalea)

Ohitura jatorrizkoa den zerbait da, paregabea eta harro sentitzeko modukoa. Ohitura horien barnean sartzen dira dantzak, euskal kantuak, mahaian kantatzea, pilota, mus partidak, besteak beste.

Aipatzen dituzten euskal kulturaren ikurrak ohiturekin loturik daude: lauburua, pilotaria, sokatira, pottokak... Halere, jarrera ezagun batzuek adierazten dute horrelako irudiekin ez daudela batere ados, hauek postaletako klixeak besterik ez baitira, turistei saltzeko eta jada berenak ez direla sentitzen baitute.

Et c'est dommage parce que les Basques font partie du spectacle mis en avant. En été, par exemple, il va y avoir une soirée danses basques, une soirée pelote, qui n'ont rien à voir avec la culture, parce que ce ne sont pas des championnats, ce ne sont pas les meilleurs joueurs qui vont se rencontrer, c'est pour montrer quelque chose aux touristes, c'est pour gagner des sous. C'est la nature qui veut ça et qui, entre guillemets, "pourrit" ça un petit peu, mais à la base c'est quand même…

– *Comme aller au zoo… quand vous voyez les Basques danser et les gens qui jettent des cacahouettes.*

(Baionako talde euskaltzalea)

Identifikazio-hierarkia aipatzen da osagai horien artean: ikur-funtziorik txikiena dutenetik (pilotaria) sinbolismorik handiena dutenetara (ikurrina). Estereotipatuak diren osagaiek euskal lurraldetarik kanpo oraindik identifikazio-ikur bezala balio dutela onartzen da. Adibidez, erraten da euskal herritar bat identifikatzen dela lauburua eramanez edota euskaraz hitz eginez.

Vous voyez ? Vous hiérarchisez vous aussi. Quand vous voyez la croix basque…

– *Non, moi ça m'énerve la croix basque parce que c'est devenu un cliché.*

– *C'est des clichés oui. Mais moi je pense, enfin je ne sais pas, quand vous allez dans une autre ville je pense que c'est pareil. Vous tombez sur un gars qui a une croix basque autour du cou ou qui parle le basque en Afrique, je pense qu'il va y avoir à un moment donné une petite question où l'on se dit…*

– *Même si c'est un cliché, que c'est vu très folklore.*

(Baionako talde euskaltzalea)

Kultura zailtasun handiz definitzen den gauza da, "ahapeko kodeak" baitira eta, hitzik gabe, ohiturak eta hizkuntza batzu besteekin erabiltzeak, elkarren arteko ulermena ahalbidetzen baitu.

Puntu honetan integrazioaren eztabaida sortzen da, integrazioa, edo/eta gatazka: alde batean euskaraz egiten dutenak eta euskal kulturaren adierazpenak bizi dituztenak, eta bestalde euskara ikasten ez dutenak, ez baitute tokiko kulturaz interesik agertzen.

Quand les gens vous regardent danser en disant qu'est-ce que vous faites, c'est le côté zoo à la limite, mais vous avez envie de le faire partager.

– *Oui, on le partage ! On peut très bien danser le fandango et les gens peuvent très bien se dire : "Tiens, j'ai envie d'apprendre çà. - Eh bien alors, venez !" Il y a des cours pour apprendre.*

– *Je pense que c'est à eux de faire la démarche et l'effort de s'intégrer dans la culture.*

(Baionako talde euskaltzalea)

Adierazten da Frantsesek ez dutela ulertzen euskaraz hitz egiten denean behar natural baten eta gizarte ohitura baten ondorioa dela. Euskaraz hitz egiten duzunean "zure kultura eta nortasunaren baitan zaudelako" egiten duzula eta ez, ordea, euskaraz ez dakitenen inguruan gaizki hitz egin nahi duzulako. Bestalde, badago kanpotik datorren pertsona eta erraz integratzen dena kultura-praktika ezberdinak ikasiz, dantzak adibidez, edo beren seme-alabak ikastolara igortzeari esker.

Badago atsekabe, etsipen eta haserre txiki bat erraten denean euskal herritarrek urrats gehiago egin dituztela frantsesekin integratzeko, alderantziz baino. Kezka horren arabera, frantsesek ez dute euskara kontuan hartzen herrialde honen berezko hizkuntza gisa. Hortik dator euskaldunak hetsiak direla erratearen estakurua. Euskaldunek adierazten dute elebidunak direla eta frantsesak, aldiz, ez.

Souvent on nous accuse qu'on parle en basque pour que les Français ne comprennent pas. Et tout ce qu'on fait, en tout cas moi depuis 42 ans, c'est juste le contraire. Dans ma culture et mon identité, de temps à autre, je mets de l'eau dans mon vin pour aller vers les Français. Par contre les Français font beaucoup moins ce geste là d'essayer d'apprendre le basque, de comprendre la problématique de la langue…

(Baionako talde euskaltzalea)

Erraten da ere kultura-dimentsioaz gain, garrantzitsua litzatekeela euskara hizkuntza erabilgarria izatea erakundeetan, seinaleetan. Ikusten denez, talde hau euskararen dimentsio folklorikotik urrunago doa, hizkuntza bati bere balioa handituko duen eguneroko erabilgarritasunaren ikuspuntuan murgiltzeko.

Baliabideak falta dira, egitura instituzionalak kultur gaientzat, unibertsitateak. Azken batean agertzen dutena da ez dela onartzen berezko hizkuntza, berezko kultura bat dagoenik; horrexegatik, borondate onez lan egiten duten pertsonen beharra bada oraindik (Herri Urrats ekimena aipatzen da), militanteen beharra.

Au niveau de la culture, du théâtre par exemple, du théâtre basque, nous n'avons aucune aide, il n'est pas reconnu. Si une troupe de théâtre monte une pièce, il y a le Centre Culturel, oui, qui donne deux sous parce qu'il ne peut pas non plus donner plus. Mais c'est de notre poche, il nous est arrivé, à nous les acteurs de payer nos costumes.

(Baionako talde euskaltzalea)

Ondorioa ateratzen dute azpian dagoen gaia politikoa dela eta, hori frogatzeko, erraten dute Alsaziako eskoletan alsaziera irakasten dela, Euskal Herriko eskola publikoetan, aldiz, ez dela euskararik irakasten.

Barnealdean **Baigorriko** euskaltzaleen taldean, euskal kulturaren definizioan sartzen da inguruan duten guztia. Talde honen kideekin gertatzen da EAEko eta Nafarroako eremu euskaldunetako taldeetan gertatzen dena, hau da, euskal kultura ingurune guztiarekin eta egunerokotasunarekin lotzen dela: eguneroko ekintzak, kantuak, dantzak. Diotenaz, kulturak presentzia handiagoa dauka barnealdean kostaldean baino.

…Cette vie de tous les jours qui était dans les petits villages, dans cette petite école, dans ce petit magasin et que la vraie culture basque englobe tout, non seulement le chant ou la danse, mais aussi la vie réelle de tous les jours.

Je dis que la langue est un véhicule essentiel dans la culture basque, mais ce n'est qu'un véhicule. La culture est faite de valeurs bien plus importantes et beaucoup plus variées.

(Baigorriko talde euskaltzalea)

Folklorizazioaren inguruan aurkitzen den kezkaren arabera, oso larria dela iraganean zegoen harrotasuna galdu izatea eta harrotasun hori egungo kultura-adierazpenetan ez aurkitzea.

…tout comme mettre des danseurs à la descente d'avions pour accueillir quelqu'un, etc. Cet aspect carte postale, à mon avis, a fait perdre beaucoup de la fierté que ressentaient les gens, à l'époque, tout comme le danseur qui s'habillait pour se montrer sur la place du village.

(Baigorriko talde euskaltzalea)

Euskal kulturaren kontzeptua berritzeko eskaera agertzen da. Kultura laborantza-girotik ateratzea eta hirietara ere eramatea beharrezkotzat ematen dute. Bestela, nor bere barnera biltzeko arriskua badago, eta aro berrien kontra doan jarrera inmobilista hartzeko arriskua ere. Bilakaera-adibide gisa "Garaztarrak" konpainia aipatzen da, euskal dantzak eta hip-hopa uztartzen dituena.

Norbaitek euskal kulturaren jatorritasuna ere erlatibizatzen du, Biarnoko kultura oso antzekoa dela esanez.

Et autour de çà, j'étais pratiquement sauvage, pratiquement pas sorti, et je me suis rendu compte qu'il y avait des Béarnais qui avaient presque la même culture que nous. Voilà, on n'est pas uniques au monde.

(Baigorriko talde euskaltzalea)

Kantua indar handiz agertzen zaigu euskal ezaugarri berezi gisa. Erraten dutenez, euskal kantu herrikoien ohitura zertxobait galdu da, baina kantuaren kultura oso garrantzitsua da oraindik ere inguralde honetan (abesbatzak). Honela diote "Frantsesek ez dakitela kantatzen".

Puis par ailleurs il y avait une seule chose où je me retrouvais bien, c'étaient les chants. Alors quand on se retrouvait avec les gars du Sud Ouest, du Sud Ouest hein, je ne dis pas seulement les Béarnais, mais aussi des Landes, et tout çà, nous les Basques on chantait et on chantait bien. Dès qu'on allait avec les autres c'était des braillements, c'était affreux. Et là j'étais fier d'être Basque. On chantait bien à deux voix, çà c'était clair… Pour moi il y a un certain respect même dans la chanson.

(Baigorriko talde euskaltzalea)

Baionako ez euskaltzaleen taldean entzuten dugu euskal herritarrrak "jatorrak" eta "harrera onekoak" direla, baina "hetsiak".

La gentillesse, c'est un terme qui revient souvent à propos des Basques, quand on écoute les gens : "Qu'est-ce qu'ils sont gentils !".

– Et vous disiez tout à l'heure qu'ils passaient pour des gens un peu fermés.

(Baionako talde ez euskaltzalea)

Ez euskaltzaleek kanpoko posizio batetik hitz egiten dute euskal kulturari buruz; kanpotik mintzo dira. Kultura bizitzeko artea da eta bere baitan dauzka historia, iragana, oraina eta etorkizuna, antzinakoa, erroak, kultura-ondarea, ohiturak. Hori guztia ez dute lotzen lurralde zehatz batekin. Kultura-praktika ezberdinak aipatzen dituzte: musika, pintura, eskultura, antzerkia, zinema, ideiak, sinesmenak.

Euskal Herriak Pirinio Atlantikoen eta Frantziaren aldean bere kultura berezia duela diote. Taldekide batek, (atzerritarra da, Iparraldean finkatua) Euskal Herriaz duen mirespena agertzen du, egoera historiko ezberdinetara moldatzen jakin baitu, bere berezitasuna atxiki baitu, autonomiari buruz joaten entsegatzen delakotz eta bere kultura babesten duelako. Erraten du ere Frantzian egoera, "zoritxarrez", ez dela berdina, Espainiarekin konparatuz: hemen autonomia lortu dute.

Ce que je trouve très joli c'est que le Basque a, depuis son existense jusqu'à aujourd'hui, continué ses rites, ses cultures, tout cadré…

– Qu'est-ce que vous voulez dire par joli ?

– C'est très joli. C'est à la fois une culture originelle et originale par rapport à l'Espagne et bien originale par rapport à la France. C'est un pays, quoi.

– C'est un pays ?

– C'est un pays, ce n'est pas pareil qu'une région, c'est quelque chose de plus.

(Baionako talde ez euskaltzalea)

Kultura originala da Espainia eta Frantziaren aldean. Euskal kultura da, zati bat Espainian eta beste zatia Frantzian. Horrexegatik, norbaitek dio lurraldea baino garrantzitsuago dela kultura bat izan dadin. Atzerritar batek bere mirespena adierazten du, hain zuzen ere, nahiz eta bi herrialdetan zatiturik dagoen kultura izan, herri bakar bat delako.

Lurraldearen alde erakargarriak izendatzeko orduan, aipatzen dira eguraldia, herritarren nortasun sendoa, kultura, eta beste. Kultura hobeki zaindu dela, jatorrago dela, eta berezko kultura atxitzeko eta transmititzeko borondate indartsua dagoela pentsu dute. Horrekin batera, integrazioaren problema agertzen da: berriz azpimarratzen da kanpokoen integrazioa oso zaila dela eta hori, hain zuzen, kultura biziki indartsu baten ondorioa izan daitekela.

> *Mais les gens qui débarquent à 25 ou 30 ans pour travailler, ils ne disent pas que les relations avec les autres sont faciles, mais par contre, qu'il y a beaucoup du mal à s'intégrer.*
>
> – *Ceux qui viennent d'ailleurs, qui viennent travailler, qui viennent vivre ici. J'ai beaucoup d'amis qui dissent : "Oh là là ! Qu'est ce qu'on en a bavé au début pour avoir des amis". Après, au bout de 20 ans, ça va beaucoup mieux.*
>
> *(Baionako talde ez euskaltzalea)*

Kultura hobeki zaindu da, industriarik ez dagoelako. Surfa edo turismoa ekonomiaren bultzatzaile nagusienak dira. Turismoa ekonomia-ekintza bakar gisa bultzatzen duen politikak kritika handiak jaso ditu, horrek ekartzen baitu sektore bakar baten menpekotasuna.

> *Il ne s'agit pas de rester entre nous, mais je trouve scandaleux ce qui se fait au niveau politique. Il y a eu un choix bien précis et ce depuis près 50 ans, de ne rien faire pour que le Pays Basque puisse vivre, hormis avec le tourisme… Tout est fait pour le touriste et peu à peu c'est devenu catastrophique.*
>
> *(Baionako talde ez euskaltzalea)*

Izan ere, bi kontzeptu bereizten dira: alde batetik hitz baikorra, "atzerritarra", hemen gelditzea erabaki duena; bestalde "turista" edo "udatiarra", ingurugiroa zaintzen ez duena eta kontsumismo-profil ezkorra hartzen duena.

> *Non, non, ce n'est pas la notion d'étranger, c'est la notion d'estivant qui me dérange le plus, c'est le côté : "je viens, je ne bosse pas pendant 15 jours, je me casse, je laisse la plage dégueulasse et j'en ai rein à faire". C'est çà qui m'enrage. Et nous on est là, tous les gens qui travaillent, qui vivent ici. On paye des impôts colossaux pour pouvoir proposer à ces messieurs-dames quelque chose de potable. Et après, il faut, il faut… c'est çà, c'est l'aspect consommateur. On vient au Pays Basque, j'ai vu çà, j'ai vu les stèles et gnagnagni et gnagnagna, et puis basta, on a tout laissé crade ; ça me met hors de moi.*
>
> *(Baionako talde ez euskaltzalea)*

Euskal kultura oso ezberdina, aberatsa, erakargarria eta interesantea da: dantzak, jaiak, musika, erromatarren aurreko hilarriak, hondartza, mendia, herrietako ohiturak, historia, hizkuntza, jatorri ezezagunaren irudi mitikoarekin.

Hazparneko talde ez euskaltzalean euskal kultura berezkotzat hartzen dute eta kultura barneratzen entsegatzen dira. Haientzat kultura-gaiak garrantzi handia dauka eta zuzenean sartzen dira analisi-ardatz honen eztabaidan. Honen inguruan gogoeta zabalena egiten duen taldea dugu.

> *Je ne suis pas bascophone, mais enfin, il y a une chose, je suis enseignante. Mais il m'arrive souvent de leur parler de ce que je sais en basque. Et c'est vrai, ils apprennent à compter en basque. Je ne leur apprends pas le basque. Mais c'est vrai, la chose que je sens sur les élèves qui sont bascophones, c'est que çà leur fait du bien d'avoir quelqu'un. Ils sont persuadés que je suis bascophone parce que je leur sors trois mots en basque. Au bout de deux ans, ils se rendent compte que je ne le parle pas. J'ai les mots, mais c'est tout.*
>
> *(Hazparneko talde ez euskaltzalea)*

Beren gogoetetan azken 30 urtetan zehar arteak izan duen bilakaera aipatzen dute; mugimendu handia egon da: "Iraganean arkuekin dantzatzen zen, orain beste gauza bat da". Michel Labeguerie bezalako olerkariak aipatzen dira.

> *Je trouve qu'il y a eu une évolution extraordinaire par rapport à quelques années. Ce qui a changé c'est le goût de l'art, de la culture au niveau de la peinture, de la musique. On voit que ça bouge, parce qu'il y a trente ans on parlait de danses basques avec les arceaux, mais nous n'avions pas autre chose, nous en sommes restés là. Et je trouve qu'il y a un grand mouvement au niveau de la culture basque, un grand mouvement au niveau de l'art que je trouve extraordinaire.*
>
> *(Hazparneko talde ez euskaltzalea)*

EUSKAL KULTURARI BURUZKO DISKURTSOAREN OSAGAI NAGUSIAK

- Euskal kultura **modernotasun-balorea** bilakatu da, erresistentzia mugimenduekin loturik agertzen dena: globalizazioaren aurkako mugimendua. Mugimendu **bizkorra da eta indartsua**, gazteekin hurbiltasun handia azaltzen duena, heientzat mintzamolde egokia baita.
- Bizi den **bilakaera naturaltasun osoz** onartzen da eta taldeen aldarrikapen garrantzitsua bilakatu da. **Dimentsio politikoak** ez ditu kultura-esperientziak baldintzatzen, Hegoaldean ez bezala.
- **Ezberdintasuna** ikusten da **ohituraren** eta **folklorearen** artean: ohitura jatorrizkoa da eta folkloreak konnotazio ezkorrak dauka, turismoari lotua baita.
- Ohizkoak diren **ekintza kulturalen artean daude** kirolak, antzerkia, pestak (garrantzi handia daukate), besteak beste. Musikak ere funtzio garrantzitsua betetzen du, du kantuak gizartean duen ezinbesteko garrantziarengatik, eta euskal rock erradikalak lortu duen oihartzunarengatik.
- Ez dira **egungo kultura-erreferentzia** asko agertzen diskurtsoan. Erakundeen partaidetza handiagoa eskatzen da euskal kultura sustatzeko, gehienetan prekaritatean bizi baita eta kulturgintza taldeen auto-kudeaketari esker.
- Euskaltzale eta ez euskaltzaleen taldeen arteko ezberdintasunik nagusiena da euskaldunentzat **kultura bizi duten** zerbait dela eta **egunerokotasunarekin lotzen dena** (bereziki Baigorrin). **Ez euskaltzaleen** kasuan, aldiz, kanpotik hitz egiten dute kulturari buruz; euskaldunen jarrera hetsiaren ondorioz dauden **integrazio-zailtasunak** aipatzen dituzte.
- Euskal kultura errealitate **irazkorra** da erdaldunentzat, eguneroko esperientzietan: erdaldun hauek euskal kulturaren adierazpenen inguruko **jakin-mina** agertzen dute.

3.4. EUSKAL HERRIA

3.4.1. Diskurtsoaren alderdi orokorrak

"Euskal Herri" kontzeptuaren inguruan, lehen galdea litzateke zein den ezagutza-maila.

Erran behar da Euskal Herriko mapak, bere lurraldeekin, presentzia handia duela Iparraldeko biztanleen artean. Harro eta partaide sentiarazten dien ideia da maila ezberdinetan. Orokorrean, EAEn aurkitzen dugun identifikazio-mailaren oso antzekoa aurkitzen dugu.

Taldeetan Euskal Herria, automatikoki, zazpi lurraldeekin lotzen da. Zentzu honetan, ez da EAEn ikusi zen eztabaidaren parekorik ikusten, non ez euskaldunentzat ez zen batere garbi Euskal Herriko lurraldeak zazpi, lau edo hiru ote ziren: zenbaitek Euskal Herria EAEren lurraldearekin lotzen zuten, besteek EAE eta Nafarroarekin.

Ikerketa-taldeak, informazioa bildu eta gero, honako ondorioa atera du, Iparraldekoentzat hurbil den kontzeptua dela, eta harro direla partaide izateaz. Halere, badira ezberdintasunak EAErekin kontzeptu hori errealitate instituzional batean gauzatzeko orduan. Iparraldean osagai birtualago bat da eta afektibotasunean oinarritzen dena, alde politikoan edo praktikoan baino.

Egia erran, Euskal Herriaren balizko instituzionalizazioa ez da agertzen, ez eta behin ere, Iparraldeko taldeen diskurtsoan. Kasik eztabaidarik sortzen ez duen aukera da, oso urrun ikusten baita. Bai sektore euskaltzaleen aldetik, egun onarpen instituzional minimo bat aldarrikatzeko borrokan ari direnak. Bai eta ere euskal nortasunetik urrunago dauden sektoreen aldetik: nahiz eta aldarrikapen hori onartzen duten, praktikan, kulturaren edo ohituren definizio lasaietan soilik gauzatzen dute. Ikus dezakegun bezala, Iparraldean eztabaida hau, nagusiki, eguneroko eginkizunean eta kultura-mailan kokatzen da. Molde berean, bai taldeetan, bai eta elkarrizketetan ere diskurtsorik txikiena lortu duen ardatza izan dela azpimarratu nahi dugu.

Lurraldeen arteko harremanen inguruan, batzuk "Bilbotik Parisetik baino" hurbilago sen-

titzen direla adierazten dute. Baieztapen hori, hasiera batean, eragin frantses handia duen nortasun bikulturalaren ideiarekin kontraesanean sar daiteke. Dena dela, ikerketa-taldearen ustez, kontraesana uler daiteke Iparraldeko lurralde geografikoan ikusten den hutsunearengatik, non bakarrik Landesetako lurralde hutsa dagoen, Biarnoaz aparte. Eta, aldiz, Euskal Eurohiria bezalako erakundeek jarraipen bat asmatzen dute dagoeneko hegoaldera, nahiz eta hein handi batean sinbolikoa izan. Molde berean, EAEren eta Nafarroaren ekonomia eta konpetentzia erakargarriek onargarriago egiten du hurbiltasun hori eta, bereziki, lankidetza-itxaropenak. Frantziako beste lurraldeetarik sentitzen den bereizgoaren ondorioa da, mugaz bestaldeko lurraldeekin sentitzen den hurbiltasuna.

Iparraldeko gizarte testuinguruak ere markatzen du garrantzitsua dela kontuan hartzea Baiona eta Paueren arteko lehia, Paue Pirinio-Atlantikoetako departamenduaren hiriburua da. Nolanahi ere, Euskal Herriko ideia babesten duen inolako egitura instituzionalik ez da, Udalbiltza bezalako ekimenak ez dira kasik aipatzen taldeetan eta elkarrizketetan. Beraz pertsonek bere esku dagoenarekin lotzen dira eta, neurri batean, horrexegatik sortzen dira afektibitate-lotura horiek.

Hegoaldeari buruzko aipamenak asko dira taldeetan eta, neurri batean, beren miraila da bereziki EAEn bizi den errealitateari dagokionean. Gauza hau askoz ere nabariago da gazteen artean, gero eta harreman tinkoagoak baitituzte Hego Euskal Herriko gazteekin.

Elkarrizketen arabera mugaren bi aldeetako gazteek gero eta hurbilago daude, pestak bezalako kultura-adierazpenei esker: San Fermingo pestek garrantzi handia dute, udaz uda, Iparraldeko gazte asko hara joaten baitira pesta horietako ohizko arropekin eta guzti.

Surfaren munduak ere garrantzi handia izan du eta geroz eta Iparraldeko surfista gehiago Gipuzkoako hondartzetara joaten dira eta alderantziz.

Beste lurraldeekin atxikitzen diren harremanak naturaltasun handiarekin bizitzen dira, bereziki Gipuzkoarekin. Baigorriko taldeak Nafarroarekin duten harreman oso tinkoa azpimarratzen du.

Bizkaia eta Bilbo urrunago daude afektiboki, baina halere oso atsegin sentitzen dira hara doazenean, askotan Guggenheim eraginak bultzaturik.

Euroaren etorrerak garrantzi handia izan du bi aldeetako lurraldeen arteko harremanak gehitzeko, trukaketak lotzeko eta muga gainditzeko, urte luzeetan zehar eraiki ziren oztopo mentalak kentzen laguntzen baitu. Elkarrizketek erakusten dute 90eko hamarkadaren hasteratik edozein motako trukaketen handitzea ikusi zela Iparraldearen eta Hegoaldearen artean: harreman ekonomikoak, pertsonalak, eta beste.

Hegoaldean gertatzen denari buruz eta egoera politikoaz, geografikoaz edo sindikalaz duten informazio-maila askoz ere handiago da, Hegoaldean Iparralderi buruz dakitena baino, nahiz eta informazio hori klixe askorekin kutsatuta egon daitekeen, adbidez erraten da “Hegoaldean denek dakitela euskaraz”.

Halere, elkarrizketek azpimarratzen dute dagoen ezagutza oso azalekoa dela eta turismo-interesekin loturik dagoela bereziki. Baina egia da ere lurraldeei buruzko informazio-maila orokorra, mugaren bi aldetan, handiagoa dirudiela Iparraldean Hegoaldean baino.

Elkarrizketatuen ikupuntuaren arabera, hedabideek lurraldeen eta gure historiaren ezagutza hedatzean funtsezko funtzioa bete dezakete. Zentzu horretan, hedabide publikoek Iparraldean duten garrantzia eta oihartzuna azpimarratzen da eta, besteak bete, albistegian egunero Euskal Herriko maparekin euskarazko minutu bat sartu izanak duen eragin handia ere aipatu dute. Espazio txiki horiek garrantzi handia dute gizartearentzat, erreferentzia Estatu frantsesetik Euskal Herrira pasatu baita.

Mota honetako ekimenak garrantzitsuak dira, baina beste elkarrizketatu batzuen ustez, ezin dugu espazio horiek edo euskarazko irratiak Iparraldean duten ahalmena gehiegitu, hizkuntza menperatzen duen oso jende gutxira heltzen baitira. Errealitateak erakusten du pertsona bat Biarritzen bizi daitekeela, Irunen gertatzen denaz deus jakin gabe.

Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanek, elkarrizketen arabera, zailak dira askotan hizkuntza eta ohitura ezberdinengatik. Adibidez, taldeetan kexu dira muga gainditzen dutenean nehork ez baitaki frantsesez, eta erraten dute Hegoaldean ez dutela berek egiten duten bezelako elkar komunikatzeko ahaleginik erakusten.

Euskal Herriko egituraketaren arazoari dagokionean, Iparraldeko lurraldean soilik ematen den azken osagai bat agertzen da, baserri eta hiri-eremuen arteko ezberdintasuna, Iparraldean

kostaldea eta barnealdearen arteko ezberdintasuna dena. Esan dugun bezala, gai hau funtsezkoa da lurralde hauen eztabaida politikoan, eta taldeetan egon diren eztabaidak ikusita, esan genezake biztanleriak ere kezka berdina agertzen duela.

Honela, taldeetan ikusten dugu barnealdetik mesfidantzarekin begiratzen dute kostalderantz, bere dinamismo handiagoaren eta kontzentrazio demografiakoaren ondorioz barnealdea zokoratzeaz beldur baitira.

Barnealdeak lotura handia dauka laborantzarekin eta ohiturekin, eta kostaldea euskaldun gutxien duen eskualdea da. Kulturaren jatorrizko osagaiak barnealdean daude, eta kostan osagaiak folklorikoak dira, ezkorki ikusiak direnak.

Hain segur horrexegatik kostaldean sortu da euskal kultura osagaia moderno bilakatzeko beharra, joera berriekin lotuz eta gazteekin konektatzea ahalbidetuz.

Kostaldea da ikurrina gehien erakusten dituen eskualdea, barnealdean bizi den eguneroko erreferentzia hori ez dutelako bizitzen. Barnealdean, aldiz, ez dute modernotasunarekin identifikatzeko beharrik.

3.4.2. Taldeen diskurtsoaren analisia

Taldeen diskurtsoa, Euskal Herriko kontzeptuari dagokionean, oso berdina da. Ez da kasik ezberdintasunik euskaltzaleen eta ez euskaltzaleen artean. Beharbada, hurbiltasun gehiago ikusten da Euskal Herriko kontzeptuari buruz talde euskaltzaleetan.

Iparralde-Hegoalde harremanei dagokionean ere, diskurtsoak berdintsuak dira, nahiz eta Baigorrin harreman berezia izan Nafarroarekin. Baina Iparraldearen baitan eskualdeen arteko harremanei dagokionean, barnealdearen eta kostaldearen arteko bereizketak garrantzi handia hartzen du.

Baionako euskaltzaleen talde osoak Euskal Herria zazpi euskal lurraldeko herrialde gisa ulertzen duela ikusten dugu. Edo sei, partaide baten ustez, Nafarroa bakarra baita eta Nafarroako bi lurraldeen artean ez baita mugarik. Hegoaldeari buruzko aipamenak hurbilekoak dira eta familiartekoak, Baigorrin gertatzen den bezala. Besteak beste Bilbo, Baiona eta Biarritz, bere ezaugarri bereziekin, euskara, ohitura eta kultura berdinak partekatzen dituztela erraten da.

> *Moi, je me sens plus proche, je me sens mieux quand je suis au Sud que, honnêtement, quand je vais à Bordeaux, à Paris, à Toulouse. Je n'y suis pas à la maison alors que je peux aller à Bilbao et je suis chez moi.*
>
> *(Baionako talde euskaltzalea)*

Euskarari buruz hitz egiten dutenean esaten dute kanpotik euskalkien gaia sakabanaketa bezala ikusten bada ere (maiz entzuten da euskara ez dela bakarra, zazpi direla), hizkuntza beraren adierazpen desberdinak direla.

> *Que c'est des différences d'accent, de prononciation selon les lieux mais le français d'ici parle avec un « chtimi », il va peut-être pas tout comprendre, il y a les différentes régions qui font qu'on a pas le même débit, le même accent, on n'a pas la même utilisation exacte du mot, donc c'est le même basque, c'est la même langue, c'est ce que j'essaie d'expliquer à mes amis français et aux espagnols.*
>
> *(Baionako talde euskaltzalea)*

Ez dute aurkakotasunik ikusten baserri-giro eta hiri-eremuetako euskaldunen artean: ohiturak ezberdinak direla onartuz, denak euskaldunak direla adosten da. Baigorrin, ordea, ezberdintasunak markatuagoak dira.

> *Vous savez, les Basques qui vivent à Bayonne ou à Biarritz, moi qui suis d'un petit village à côté de Saint-Jean-Pied-de-Port, eh bien ! on est pareil.*
>
> *Ce n'est pas une histoire d'urbain ou de rural, il ne faut pas exagérer, quoi.*
>
> *(Baionako talde euskaltzalea)*

Ezberdintasuna ezartzen da, ordea, Iparraldeko eta Hegoaldeko historien artean: Hegoaldean, frankismoaren garaian, errepresio asko egon zen eta, ondorioz, erantzuna bortitzago izan zen. Iparraldeko euskal herritarrek, frantses bezala bizi behar izan dituzte gertakari historikoak: bi mundu gerlak, Aljeriako gudua, eta horiek nortasun frantsesa indartu dute.

> *Je pense que le répression au Sud a été plus violente, la contre-réaction aussi plus dure. Les gens, quand ils se sentent réellement enfoncés dans le seau, ils se révoltent plus facilement. Alors que quand ça c'est fait, les Français ont beaucoup plus modalisé l'histoire, ça a été plus ou moins soft.*

C'est vrai qu'il y a eu des choses, les Français ont souffert ; ça dépend des gens : il y a des gens qui devant la difficulté et l'adversité vont exploser et puis il y en a d'autres qui vont lever la tête, qui vont avancer sans regarder en arrière.

(Baionako talde euskaltzalea)

Baigorriko talde euskaltzaletik esperantzaz begiratzen dute Hegoalderantz, non Espainiako beste lurraldetarik etorri gurasoen seme-alabak euskara ikasteko eta naturaltasun osoarekin hitz egiteko gai izan diren. Fenomeno hau jarraiki beharreko eredu gisa hartzen dute. Hegoaldea erreferentzia bilakatzen da, etengabe, garapenaren urraspideak aztertzeko orduan.

Et moi, ce qui me donne beaucoup d'espoirs, c'est quand j'entends, quand je rencontre des gens, je rencontre beaucoup de gens au Pays Basque Sud, des jeunes dont les parents sont, ou l'un ou l'autre bascophone, ou souvent pas du tout (…). Et je vois que ces jeunes dont les parents sont, je ne sais pas ou Galiciens ou autres, parlent le basque, vivent en basque. Je me dis que cette culture elle peut être vivante. Il n'y a aucune raison. Mais je ne sens pas que cette dynamique existe ici. Il y a individuellement des gens qui viennent d'ailleurs et se mettent à apprendre le basque, mais massivement je n'ai pas l'impression qu'ils sont rentrés là-dedans.

– Mais je me demande si ce n'est pas un peu d'amabilité, parce que chaque fois que j'observe un phénomène ici, j'essaie de l'analyser au Pays Basque Sud. Est-ce que ça se passe pareil là-bas ?

(Baigorriko talde euskaltzalea)

Hezkuntza-eredu frantsesean Euskal Herriko historia irakatsi ez izanaz dolu dute, ondorioz gure historiaren ezjakina gizartean zehar hedatu baita. Halere, ezagutza handia agertzen dute Euskal Herria osatzen duten lurraldeei buruz. Herriaren mapak presentzia handia du.

J'entends bien que le Pays Basque allait jusqu'à Bordeaux, jusqu'à l'Indre, mais nous on l'a pas connu. Pour moi c'est le Pays basque tant que je suis dans les 7 provinces. Maintenant je ne me sens plus en Pays Basque à Pampelune. Là où c'est débasquisé, j'ai l'impression d'être moins en Pays Basque, qu'en Gipuzkoa où c'est resté vraiment.

(Baigorriko talde euskaltzalea)

Familia sentimendu handia agertzen dute Nafarroarekin, eta harreman bereziak atxikitzen dituzte. Zenbaitek uste dute Nafarroa lurralde bakarra dela, administrazio-banaketaren gainetik, eta hortaz Euskal Herriak ez dituela zazpi lurralde, sei baizik.

Onartzen dute ere kultura espainolak eta frantsesak eragin ukaezina dutela mugako bi aldeetan, jarrera eta bizitza-ohitura berezietan gauzatzen dena: ordutegiak, otorduak eta beste.

Lehenago aipatu dugun bezalaxe ez euskaltzaleek "Euskal Herri" kontzeptua ezagutzen dute baina esanahi ezberdina izan dezakete. Zenbait taldekidek kanpoko urruntasunetik hitz egiten dute, gehiago Baionako kasuan Hazparneko kasuan baino.

Baionako ez euskaltzaleen taldean ez da loturarik ikusten Euskal Herriaren eta lurraldearen artean. Egiaz, eztabaida sortzen da lurralde kontzeptuaren inguruan. Gaia gehiago nahasteko, terminologia arazo bat ere gehitzen zaio: Euskal Herria erraterakoan Iparraldea soilik (Pays Basque) edo Euskal Herri osoa (zazpi lurraldeak) uler daiteke; molde berean, frantsesez "Pays Basque" erraten denean Iparralderi dagokiola edo zazpi lurraldetara dagokiela uler dezakegu. Eta beharbada talde euskaltzaleak, politizatuago direlakotz, toki izenen egiazko esanahitik hurbilago daude eta esanahia errazago ulertzeko aukera badute, "Euskal Herria" kontzeptua erabiltzen denean. Talde ez euskaltzaleak eztabaida hutsaletan sar daitezke eta, beraz, beren ezagutza "Pays Basque" esamoldeari buruz eskasagoa da.

Nolanahi ere, esanahiaren inguruan adostasuna lortzen denean, Baionako talde ez euskaltzalean ondoriozta dezakegu zenbait kidek ez dutela Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko ezberdintasunik kausitzen. Holakorik ikusten duenak erraten du Hegoaldean engaiamendu handiagoa dagoela Iparraldean baino: kasik denek euskaraz dakitela, euskara eskola publikoan dagoela, euskara beren hizkuntza dela.

Ce que je ne comprends pas c'est justement que les Basques, à ce que j'ai pu comprendre, ne font pas de différence entre le Nord et le Sud, c'est un peuple. Et ça c'est un exemple extraordinaire parce qu'ils sont divisés en deux pays et c'est quand même un seul peuple qui est toujours là.

Donc le territoire, c'est pour ça que je ne l'ai pas bien compris.

– Je crois qu'il y a une grande différence entre le Pays Basque français et espagnol. Tous les petits (villages) sont restés authentiques et ils le resteront, du moins je le crois, c'est çà la différence.

(Baionako talde ez euskaltzalea)

Hazparneko talde ez euskaltzalean espresuki onartzen dute Hegoaldeak eman duen bultzada euskal kultura eta nortasuna Iparraldean zehar heda dadin eta, aldi berean, berek Euskal Herri osorentzat egin ekarpenak ere azpimarratzen dituzte.

> *C'est vrai qu'ils nous ont aidés en cela. Mais c'est qu'on réagit aussi, c'est qu'on ne se laisse pas manger. Enfin, je ne sais pas comment le dire, on ne se laisse pas manger par eux, on apporte de nous-mêmes, notre caractère d'ici, de la Basse Navarre ou de la Soule. On a su rebondir, on va avec eux. Je crois que ces échanges ont beaucoup apporté au Pays Basque…*
>
> *(Hazparneko talde ez euskaltzalea)*

Beren ustez batasun politikoa pentsatzea utopia hutsa da, maila askotan dauden ezberdintasunengatik, baina ororenak diren osagaiak badaude ere (euskara bereziki). Ezberdintasun gehiegi dago nortasun bateratua lortzeko baina badaude ere lotura-puntu asko.

> *C'est vrai que politiquement on est un peu à part. Il n'y a qu'à voir le Conseil de Développement, des choses aussi uniques qui se passent simplement au Pays Basque, mais on veut que la côte soit d'accord avec l'intérieur.*
>
> *– Je ne connais pas bien la Navarre, le Gipuzkoa, la Biscaye. C'est vrai que, quand on y va, au début il y a des différences. Et quand on y reste un peu, on se rend compte qu'il y a une identé basque, enfin, plusieurs identités basques.*
>
> *(Hazparneko talde ez euskaltzalea)*

Kultura-aniztasunaren defentsa egiten dute gizakia aberasten baitu. Nork bere ohiturak eta berezitasunak atxikitzeko beharra azpimarratzen dute.

> *C'est vrai que c'est une richesse extraordinnaire parce que vous avez, moi j'appelle ça le Pays Basque jaune : la Navarre, le Sud de la Navarre, les Bardenas. C'est un paysage lunaire. Vous avez le Pays Basque gris: avec tout ce côté Hegoalde avec la Communauté Autonome qui est assez industrialisée. Vous avez aussi le Pays Basque bleu, vert. En mettant des couleurs vous avez énormément de diversités.*
>
> *– La langue c'est la même. Le paysage, la culture, il y a des différences.*
>
> *(Hazparneko talde ez euskaltzalea)*

EUSKAL HERRIARI BURUZKO DISKURTSOAREN OSAGAI NAGUSIAK

- **Lurralde-mapa** etengabeko erreferentzia da (zazpi lurraldeei buruzko atxikimendu automatikoa agertzen da).
- Kontzeptuari buruzko identifikazio-maila **beste lurraldeetan aurkitzen denaren hein berdinekoa** da.
- **Hurbileko kontzeptua da,** baina afektibitate-mailan egonez: **instituzionalizazio politikoaren** aukera ez da diskurtsoan agertzen.
- **Hurbiltasun gehiago dago Hegoaldearen aldera,** Frantziako beste lurraldeekin baino.
- **Hegoaldea etengabeko erreferentzia da,** bereziki gazteen kasuan, gero eta trukaketa esperientzia gehiago baitaude surfari eta herri pestei esker. Iparraldean Hegoaldeari buruz agertzen duten informazio-maila Hegoaldean Iparralderen inguruan agertzen dutena baino askoz ere handiagoa da. Nahiz eta ezagutza hori klitxez beterik egon: besteak beste, uste dute Hegoaldeko biztanleria osoak euskara dakiela.
- Harreman **tinkoagoak** daude **Gipuzkoarekin eta Nafarroarekin**, Bizkaiarekin eta Arabarekin baino.
- **Kostaldearen eta barnealdearen arteko ezberdintasunak:**
  - Barnealdean mesfidantza handia agertzen dute kostaldeko indarraz.
  - Barnealdean jatorrizko kulturgaiak aurkitzen dira; kostaldean, aldiz, folklorea da nagusi turistentzat. Horrek esplikatzen du kostaldean bilakaerabeharra handiagoa izatea: mintzamolde berriak aurkitu behar dira gazteei hurbiltzeko, ez baitira folklorearekin ados.
- **Taldeen diskurtsoa oso antzekoa da.** Ez da ezberdintasunik ikusten euskaltzaleen eta ez euskaltzaleen artean: euskaltzaleen taldeek afektibitate-hurbiltasun handiagoa erakusten dute "Euskal Herri" kontzeptuarekin.

3.5. EUSKARA

3.5.1. Diskurtsoaren alderdi orokorrak

Taldeek euskarari buruz sortzen duten diskurtsoa aztertzerakoan, ageri den lehenbiziko gauza da hizkuntza-gaiak, garrantzitsua izanik ere, ez duela euskal kultura edo nortasunari buruzko eztabaida sortzen duten gogoeta eta analisi-maila berdina sortzen.

Egia da talde guztiek gaia hunkitzen dutela eta azkarki gainera, baina bere pisua Hegoaldean ematen dena baina zerbait txikiago da. Hegoaldean eztabaida-osagai nagusia bilakatzen da eta emozio-adierazpen eta diskurtso sutsuenak sortarazten ditu.

EAEn eta Nafarroan egin ziren aurreko ikerketetan ikusi zen bezalaxe, egiten diren eztabaidarik sutsuenek eta elkarrengandik urrun dauden jarrerek euskara erabiltzen dute, euskal kulturaren eta nortasunaren ikuspegi ezberdinak bideratzeko tresna gisa. Dimentsio politikoa hartzen duen aldagaia dugu: taldeek hizkuntza-problema erabiltzen dute desadostasun politikoa erakusteko.

Iparraldean, aldiz, euskarak ez du hartzen eztabaida politikoa oinarritzen duen espazio hori, ez behintzat EAEn eta Nafarroan bezain molde nabarian.

Taldeen diskurtsoa aztertu eta gero ikerketa-taldeak ondorioztatzen du Iparraldeko euskaltzaleentzat eta ez euskaltzaleentzat, hizkuntzak lehentasunezko tokia duela itxuraz, baina ikuspegi askoz ere pertsonalago batetik. Taldeetan askoz ere gehiago hitz egin da bakoitzak euskararekin izan dituen bizipenei buruz (traumak hizkuntza galtzeagatik, eguneroko zereginetan sortzen diren zailtasunak, eta beste), hizkuntzari eman liezaiokegun balio kolektiboaz baino.

Eremu pertsonaletik kanpo dagoen gogoeta, oinarrizko gai batzutara mugatzen da, besteak beste, hizkuntzaren ofizialtasuna eta bere lekua hezkuntza-ereduan, hizkuntzaren erabilera, iraganean euskaldunek pairatu zuten laidoek ekarri duten belaunaldi-trauma.

Aipatu osagaietarik kanpo (ofizialtasuna, hezkuntza elebiduna, eta beste), kasik ez da diskurtsorik. Baina gauza hau perspektiban ikustea egoki da, taldeek euskarari ematen dioten pisua konparatzeko orduan.

Hizkuntzaren egoera denboraren testuinguruan ezartzea egoki da eta gogoraraztea ere orain dela 15 urte agenda publikoan ez zegoela inolako eztabaidarik euskararen inguruan. Ez zen gai horretaz hitz egiten, beraz normala da gai honen inguruan ageri den diskurtsoa ahulago izatea. Baina abiapuntuan den erradiografia kontuan hartzen badugu, gai honek, inplikatuak diren eragileen artean, hartzen ari duen garrantzia geroz eta handiago dela ondoriozta dezakegu.

Egin diren elkarrizketetarik atera dezakegu bilakaera bat ikusten dela pertsona askoren sentimendu kolektiboan. Orain dela urte batzu baino euskara babestearen aldeko kontzientzia askoz ere nabariagoa da eta euskarari buruzko jarrera aldatu da. Egia erran, nehork ez du euskara ukatzen, elez bederen.

Bilakaera horren adierazle gisa, ikusten dugu gero eta errazago dela euskarazko irratian beren iritzia eman nahi duten pertsonak aurkitzea, orain dela 15 urte zailtasun asko zeudenean. Ez zen ulertzen nola euskara erabil zitekeen familiatik edo etxetik kanpo.

Baina aldaketa horiek izan arren, ezin dugu ikuspegi triunfalistegia hartu, euskararen egiazko egoerari dagokionean. Euskararen erabilera sozialaren inguruan hitz eginen dugunean, ikusiko ditugu presentzia publiko handiagoa lortzeko diren zailtasunak (euskarazko ekintzak oso eskasak dira). Eta, gaur egun oraindik, oso erraza da euskararik gabe bizitzea, euskararentzat neholako interesik gabe.

Halere, taldeek erakusten dute euskara partaide guztiek onartzen duten gizarte-balorea dela: defentsarik sutsuena austriar batek egin zuen. Ez euskaltzaleentzat ere funtsezko gaia da eta maiz aipatzen dute. Nola euskaltzaleak hala ez euskaltzaleak ados dira euskara oso positiboki baloratzeko eta euskal herritarren nortasun-ikur gisa zaintzeko.

Ez euskaltzaleen artean ez da agertzen, nehondik nehora, euskararen aurkako jarrerarik. Alderantziz, uste dute euskara sustengatu behar dela lurraldeari eskaintzen dion kultura-aberastasunarengatik eta lurraldeak dituen kultura-adierazpen berezien oinarria delakotz.

Talde ez euskaltzaleetarik sortzen diren iritziak urrunetik abiatzen dira. Gero mirespenetik interesera edo harmenera doazen jarrerak agertzen dituzte.

Gainera, taldekideen arteko solasaldietan, argi gelditzen da gazteen artean euskara modernotasunaren balorea bilakatu dela. Badirudi euskara "modan" dela; egun, euskaraz hitz egiten ez duena "modaz kanpo" dago.

Euskara, euskal kulturaren funtsezko osagai gisa, ikuspegi bikoitzetik ulertzen da. Alde batetik, aurki daitezkeen kultura-adierazpenak bultzatzen dituen ezinbesteko motorra da taldeentzat. Baina, aldi berean, euskara oztopo gisa ere agertzen da bere garapenerako, ikasteko duen zailtasunarengatik eta jende asko euskal kulturaren muinetik kanpo uzten duelako.

Orain arte aipatu dugu gai honek ez dituela agertzen Hegoaldean aurkitzen dituen inplikazio politikoak. Baina gako politikoa osoki ezabatzea ez litzateke bidezkoa, eragile ezberdinek hartzen duten jarrera erakusterakoan.

Aldagai politikoa ezin baztertua dela frogatzen duen gertakizuna da, Iparraldean ez dela sekulan izan historian zehar orain arte, euskararen ofizialtasunaren eta administraziobabesaren aldeko hain aldarrikapen garbirik, gizartearen sektore ezberdinetan hain hedaturik dagoena.

Hain zuzen ere, aipatu ofizialtasunaren gaia da euskaltzaleen eta ez euskaltzaleen artean desadostasun bakarra sortarazten duena.

Euskaltzaleentzat argi da euskararen eta euskal kulturaren iraupena bermatzeko bide bakarra hizkuntzaren ofizialtasuna dela, eta beraz eskola publikoan irakastea beharrezkoa dela. Beldur handiz ikusten dute euskarak egun bizi duen egoera eta, beren ustez, erakundeen laguntza ezinbestekoa da egungo joera aldatzeko.

Ez euskaltzaleek, halere, ez dute euskara ikastearen beharra onartzen, baldintzapen politikoetan sartzea suposatuko bailuke, behar gabeko tentsioa ekarriz. Euskara ikastea pertsona edo familia bakoitzaren askatasunaren menpe uztearen alde agertzen dira. Biziki ongi ikusten dute euskara eskoletan irakastea eta ikastearen alde dira. Baina derrigortasuna ez dute batere gustukoa.

Erabileraren inguruan ere diskurtso handia sortu da taldeetan. Bizitza pertsonaletik hurbil dagoen gaia da eta taldekideei adierazpen naturalenak sortarazten zizkiena.

Euskararen erabileraren errealitatea oso konplexua dela aipatu da. Taldeetan erraten da gutxi hitz egiten dela eta hizkuntzaren kalitatea oso ahula dela. Adierazten dute normalean euskaraz egiten duten pertsonek euskara eta frantsesa nahasten dituztela, eta euskarazko bi hitzen artean hiru erabiltzen dituztela frantsesez. Zorigaitzez dagoen mailak ez du hobera egiten, beren hitzetan.

Adineko jendearen belaunaldiek euskara galdu zuten eta belaunaldi berriek ez dute espaziorik, ez eta solaskiderik ere, euskaraz mintzatzeko. Eta horren ondorioz transmisioproblema handi bat sortzen da, aterabide zaila duen problema. Adineko jendeak desagertuko direnean, gazteek ez dituzte euskaraz komunikatzeko gai diren solaskiderik izanen.

Euskara galtzeagatik belaunaldi zaharrek agertzen duten traumak eta euskaraz mintzatzeagatik pairatu zuten estigmatizazioak sakonki markatzen dute taldeen diskurtsoa. Aipatu pertsonak, denbora luzez, ez dira euskara publikoki erabiltzera ausartu, baztertze sozialaren beldurra zutelakotz, eta "laborari" bezala ikusiak izatearen ahalkea.

Orain bakarrik, estigma hori desagertu da, eta euskararen erabilera familiara eta eremu pribatura mugatu zuten pertsona horien semealabek hizkuntza galduaren nostalgia dutenean, hizkuntza berreskuratzeko prest agertzen dira eta eginahalak eginen dituzte horretarako. Euskaltzaleak ez diren taldeek doi-doia baloratzen dute gai hau, baina bazen norbait naturaltasun osoz esplikatu zuena bere alabek, harrigarria bada ere, interesa agertu zutela euskararentzat eta ikastolara eraman dituela izena ematera.

Ez dago espazio publikorik euskara erabiltzeko. Aipatzen dute zenbait tokitan euskaraz hitz egin ahal izateko bilaka joan behar dela, ea euskaraz badakiten edo ez galdezka. Ikastolaz aparte, ez dago leku zehatzik non euskararen presentzia bermatua dela erran daitekeenik.

Elkarrizketetan erraten digute euskaraz mintzatzea fede eta militantzia ekintza bat bilakatu dela. Euskara kalean erabiltzen dutenek, beren printzipioengatik egiten dute, naturaltasunez baino gehiago. Honela, euskara etxetik ateratzeko beharra sortzen da, euskara dakien oro, ez dadin euskara erabiltzerako ahalke izan.

Hizkuntzaren erakundeek egiten duten lana, Euskaltzaindiak, besteak beste, baikortasun osoz baloratzen da eta, beren ustez, biziki laguntza ona da euskararen ikaskuntza errazteko orduan, baina ez da aski. Diotenaz, eguneroko eginkizunean lan gehiago egin behar da euskara karrikara ateratzeko.

Ikaskuntza problemak badira hizkuntzaren zailtasunaren ondorioz, baina zenbaitek irakaskuntzaz arduratzen diren irakasleen prestakuntza eskasa kritikatzen dute ere: heien metodologia eta jarrerak gaitzesten dituzte.

Elkarrizketek eskaintzen duten ikuspunturaren arabera, hedabideek funtsezko funtzioa betetzen dute, euskararen presentzia publikoa eta karrikako erabilera sustatzeko. Bereziki ezinbestekoa da telebista hedatzea.

Etorkizunerako hizkuntzari buruz planteatzen diren zalantzen artean, Hegoaldean iraganean gertatu zen bezalaxe, euskal kulturaren iraupena euskararik gabe posible ote den ala ez eztabaida agertzen da.

3.5.2. Taldeen diskurtsoaren analisia

Lehenago aipatu dugun bezala, talde euskaltzaleen eta ez euskaltzaleen artean ikusten diren ezberdintasunik handienak ofizialtasunean aurkitzen dira: batzuentzat euskal kulturaren iraupena bermatzeko molde bakarra da, eta besteentzat ez da beharrezkoa. Aukera pertsonen askatasunaren esku utzi beharko litzateke, nahiz eta euskararen irakaskuntza eskoletan babesten duten.

Baionako euskaltzaleen taldean euskara da euskal kulturaren erreferentzia nagusietako bat, edo bakarra. Etxeko giroa eta eskola-sarea aipatzen dira hizkuntzaren inguruan: familia funtsezko transmisio tresna da euskaldunen artean.

> *Oui, ça fait bien longtemps qui n'y aurait plus de langue basque sans les ikastola.*
>
> *(Baionako talde euskaltzalea)*

Zentzu honetan, aurreko belaunaldian, beren gurasoek egin zuten hizkuntza-haustura aipatzen dute; irri egiten zieten, bai eta eskolan zigortzen ere euskara erabiltzen zutenei. Taldekide batek, hain zuzen, euskara ikasiz "berreskuratu" duela erraten du, bere gurasoek ez baitzioten euskara irakatsi, berek pairatu zutena ez zezan jasan, hots estigma edo ahalke soziala. Beraz aurreko belaunaldiak hautsi katea jarraitzen du eta, dioenaz, bere seme-alabek aitatxi-amatxien historia ezagutuko dute eta berriz errepika ez dadin "borrokatuko" dira.

> *Il y a aussi un certain traumatisme. Quand je suis arrivé à 15 ou 16 ans en secondaire, eh bien les rares filles qui venaient de l'intérieur savaient presque mieux parler basque que français. Mais c'est comme un complexe.*
>
> *(Baionako talde euskaltzalea)*

Eskola-sarea ere aipatzen da: ikastola, euskaran murgiltzeko lekua, edo sare publiko elebiduna. Zenbaitentzat eskola publikoak ikastola bilakatu beharko luke, hezkuntza integralagoa eskainiz euskaraz. Zentzu honetan, taldeak euskarak sare publikoan duen balizko maila apalagoa eztabaidatzen du.

> *Moi je pense que ça dépend... il y a beaucoup d'enfants qui sont dans les écoles bilingues et ils ont un niveau très bas : ils ne comprennent pas les enfants.*
>
> *(Baionako talde euskaltzalea)*

Taldekide batek erraten du ez zuela bere burua gai ikusten "ikastolako guraso" izateko, ez duelako normalean euskaraz hitz egiten eta, horrexegatik, beren seme-alabak eskola publikora joan ziren, "behintzat elebidunak" izateko.

Zehaztasun bat agertzen da ikastolaren eta eskola publiko elebidunaren artean eta ikastolatik ateratzen dena euskaldunago dela, euskara hobeki dakiela, azpimarratzen da. Baliabideen eta irakaslegoaren gabezia aipatzen da, bai ikastoletan bai irakaskuntza publikoan.

Euskara da "sarrera-giltza kulturarako", euskal dantzarako, euskal kantuetarako, "euskal gauzak egiteko". Euskara "kultura-aberastasuna" da eta "osoki pertsonala".

> *Enfin ce n'est pas la langue qui transmet mais le fond, celui qui tient, c'est la langue basque. Moi je pense que dans deux cents ans, si la langue est morte tout va petit à petit partir avec (...). Moi je suis persuadée que si la langue basque meurt tout va suivre. Pour moi, sachant ça, forcément la langue basque il faut tout faire pour que les gens l'apprennent.*
>
> *(Baionako talde euskaltzalea)*

Euskararen bi dimentsio azpimarratzen dituzte taldean: kultura-dimentsioa eta nortasun-dimentsioa. Taldean badirudi biak loturik daudela, nahiz eta nortasuna ez den bakarrik euskal herritarra sentitzearekin nahasi behar. Halere, euskara euskal nortasunarekin bat doa, bai eta ere euskal herritar eta frantses sentitzen direnentzat.

Taldeak ez du onartzen hizkuntzaren dimentsio utilitarista: hizkuntzak ez du deus ikustekorik baliagarritasunarekin. Baina bai kulturaren aberastasunarekin, eta nortasunarekin ere. Nortasuna ez da baitezpaba bakarra.

> *Si vous voulez, pour moi la langue ne doit pas servir à quelque chose ; vous pouvez être très bien avocat à Londres et tant mieux si l'enfant sait parler le basque. Je pense que c'est une richesse culturelle et en plus totalement personnelle. D'autant on connaît beaucoup de langue, d'autant on a les visières qui s'ouvrent. Une langue ça ne doit pas servir à quelque chose, pourquoi ça devrait servir à quelque chose ?*
>
> *(Baionako talde euskaltzalea)*

Euskara, batzuentzat, beren eguneroko bizitzaren %90a da, besteentzat gutxiago da lantokiaren, lan-motaren arabera, eta beste. Hizkuntzak beste estatus politiko bat izan behar duela pentsu dute denek. Egiaz, ofizialtasunaren beharra badela diote, euskara ikasteko, ikastera erakartzeko. Jendea euskararengana hurbiltzeko giroa aldekoa izan dadila, eta ez militanteentzat bakarrik.

> *C'est le seul pays d'Europe, ce qui est paradoxal avec la France, c'est le seul pays qui fait ça, alors que la France elle-même n'a jamais eu une langue unique. En plus du français il y a une dizaine de langues, voire plus, dans toute la France.*
>
> *– L'article 2 de la Constitution c'est très important. Si cet article est modifié et que notre langue est reconnue, on va avoir beaucoup plus de parents qui mettront plus facilement leurs enfants dans l'enseignement basque.*
>
> *(Baionako talde euskaltzalea)*

Euskararen beharra sentiarazi behar da, denborarekin, euskaraz mintzatzen entzunez, pestetan, elkarteetan. Taldekide batentzat euskara ikastea ala ez gai pertsonala da. Beste batzuentzat legearen eta erakundeen babesgabezia problema bat da eta erradikalago izan beharko ginateke: bankuan, postan, ez dute deus eskaintzen euskaraz.

> *Il faudrait changer la signalétique, il faut qu'elle soit reconnue.*
>
> *– Moi je n'arrive pas à lire les noms en basque qu'il y a sur certains panneaux.*
>
> *– Que la signalitique soit bilingue c'est quelque chose qui est faisable. Je vous donne un autre exemple : pour la banque qu'on ait le choix entre le basque et le français, tout comme pour s'acheter un billet de train à la SNCF, pour aller à la Poste»…*
>
> *(Baionako talde euskaltzalea)*

Baigorriko euskaltzaleen taldean, nahiz eta elkartegintzan dauden pertsonekin osatua izan, ez da diskurtso indartsurik edo aldarrikatzailerik entzutzen.

Aldagai geografikoak bere garrantzia du taldearen diskurtsoan eta kideek laborantza-giroaren kontzeptua kontuan hartzen dute. Euskararen iraupenean izan duen funtsezko funtzioa aldarrikatzen dute. Baina hirietako gazteekin hitz egiterakoan "baserritarra" sentiarazten zieten nerabetasun-konplexuak, eta nola heldutasunera heldu arte ez zuten nortasun sentimendurik sentitzen. Familia askotan gertatzen den kasua, aitatxi-amatxiek doi-doia frantsesa dakiten bitartean beren bilobek euskaraz ez dakitela, tristuraz ikusten dute.

> *J'ai eu un professeur qui ne cessait pas de nous parler en basque. Et comme les nouvelles générations, les moins de 40 ans, n'ont pas connu les tiraillements auxquels on était exposé, je pense ça va se normaliser.*
>
> *(Baigorriko talde euskaltzalea)*

Ez euskaltzaleengandik bereizten dituen beste ezaugarri bat da lurralde berean bizi diren bi hizkuntzen arteko ustezko errespetu hori norabide bakarra duelaz damu direla: euskaldunek frantsesa sakonki errespetatzen dute eta euskaratik frantsesera pasatzen dira solaskide batek euskara ez badaki. Baina, beren ustez, gauza bera ez da gertatzen euskaldun ez direnen aldetik.

Euskararen ofizialtasunaren eta normalizazioaren inguruan, kezkati agertzen dira etorkizunari begira eta, beren iduriz, urte asko iragan beharko dira hizkuntzaren normalizazioa ardietsi arte. 25 urteren buruan, urrats txiki batzu ikusten dituzte Hegoaldeko egoeran.

J'ai fait un séjour de quatre mois à côté de Guernica et je me suis rendu compte qu'il n'y avait pas cette chose là-bas. C'est-à-dire que même si vous allez dans un commerce, si vous parlez mal le basque, on continuait à vous parler basque. Alors, je ne sais pas à quoi c'est dü. C'est vrai que par le fait de l'institutionnalisation, la langue a été réhabilitée, elle a pris une valeur.

– C'est cette officialisation qui fait aussi qu'elle a retrouvé sa place et sa valeur qu'elle n'a peut être pas encore ici. Après il y a aussi le fait que les gens ne se reconnaissent pas dans l'euskara.

(Baigorriko talde euskaltzalea)

Euskaldun askoren axola falta kritikatzen dute. Ikasteko eginahalak egiten dituztenei lagundu beharrean, irri egiten diete eta gutxiesten dituzte zuzenki ez hitz egiteagatik

Moi je trouve que c'est très bien, seulement nous qui parlons couramment le basque, on est un peu responsables car quand quelqu'un essaie d'apprendre le basque et qu'il le parle mal, on va rigoler au lieu de l'aider. Que des adultes et des jeunes apprennent le basque c'est très bien.

– Je pense que les personnes jeunes ou moins jeunes qui apprennent la langue basque ont beaucoup de mérite. Car s'ils s'adressent aux bascophones, c'est souvent du mépris, des médisances, on se moque d'eux.

(Baigorriko talde euskaltzalea)

Euskara batua oso baikorki baloratzen dute, modernotasuna irudikatzen duelako eta, azken batean, euskaldun guztien arteko komunikazioa errazten duelako.

Lehen ikastolen espiritu oldarkorra aldarrikatzen dute. Bai eta ere Ameriketara joan ziren pertsonek hizkuntza zaintzeko egin zituzen ahalegin goraipagarriak, euskara eta euskal nortasuna etxetik milaka kilometrotara bizirik atxikitzeko.

J'étais dans la première ikastola ouverte en primaire à Mauléon avec quatre élèves. Donc on avait cet esprit de rébellion, on y croyait (…). Il y a eu une époque, quand on était jeune, il y a 18 ans, on prenait les sacs à dos et on allait à Saint Sébastien, à Bilbao. On allait rencontrer les gens, on allait aux premières universités basques etc. Donc cette curiosité a fait qu'on s'est sentis (fiers), on est sorti de cette ruralité. Il y avait beaucoup à construire, on allait de l'avant.

– J'ai, moi aussi, dans ma famille l'expérience d'émigrés en Argentine. Des gens à qui ici on a fait comprendre qu'ils n'avaient pas leur place, car ils étaient des enfants naturels comme on disait. Tout de suite quand ils sont arrivés en Argentine, ils ont été capable de construire, de créer des entreprises.

(Baigorriko talde euskaltzalea)

Talde ez euskaltzaleen artean euskarak pisu txikiagoa du. Askotan euskara ez ezagutzeaz damu dira eta interesa agertzen dute hizkuntzari buruz. Horrela gertatzen da **Baionan**, taldekideek hizkuntza ez jakiteagatik zerbait galtzen ari direla sentitzen baitute.

A la limite même-moi je souffre de ne pas avoir eu connaissance ni de la culture ni de la langue. On ne m'a jamais enseigné çà, et ça ça m'aurait intéressé.

(Baionako talde ez euskaltzalea)

Iraganean euskaraz hitz egitea gaizki ikusita zegoela gogoratzen da, baserritarraren eta ezjakinaren irudia ematen zuelako.

Et puis c'est vrai que quand j'étais petite, on ne mettait pas les enfants à l'ikastola. Au contraire on freinait des quatre sabots, il ne fallait surtout pas parler basque.

(Baionako talde ez euskaltzalea)

Jarrera ezberdinak daude euskararen aurrean; alde batetik, euskara ikasi nahi dutenentzat hautuzko ikastaroak egin beharko litezkeela uste dutenak daude, behintzat "murduskatzeko" gai izateko. "Proposamen sistematikoa" egon dadila pertsonek, gurasoek, haurrek hautatzeko aukera izan dezaten, une honetan aukera hori ez baita posible, eskola guztiek ez baitute euskara eskaintzen eta beren seme-alabek etxetik oso urrun igorri beharko lituzketelako. Azkenik, badaude batzuk ere ikaskuntza behartzearen kontra agertzen direnak.

Euskara eta berarekin zerikusia duen guztia estilo berri bat ari dela hartzen aipatzen da: euskara ez badakizu modaz kanpo zaudela. Eta "baztertze" sentimendu horrek atsegabea ematen du.

Le phénomène est tellement fort actuellement que si on ne parle pas basque ce n'est pas bien. Maintenant on est obligé d'entrer dans un truc où

il faut parler basque, ça fait bien. Si on s'inscrit dans une ikastola, si on parle basque c'est toujours bien. Et alors ça, ça m'agace un peu.

(Baionako talde ez euskaltzalea)

Euskara desagertzea ez dutela nahi erraten dute denek, baina ikaskuntza planteatzeko orduan ingelesarekin eta gaztelaniarekin lehiatzen du erabilgarritasunari dagokionean, atzerrian lan egiteko eta beste, eta, lehia horretan, euskarak maizenik galtzen du.

C'est très utile de parler anglais et, les Français, on est nuls dans les langues, on est vraiment nuls. Et le basque on ne le parle pas quand même.

(Baionako talde ez euskaltzalea)

Komunikazio problema ikusten da euskaldunen eta ez euskaldunen artean: alde batetik, euskaldun osoa euskara dakiena da; euskara "euskaldun oso batekin" komunikatzeko balio duela erraten da taldean. Bestalde, onartzen dute euskaldunak oso jatorrak direla, elkartu-eta euskaraz hitz egiten dutenean salbu, hirugarren solaskidea baztertuz. Horren ondorioz, euskalduna hetsia dela erraten dute ere. Beren kasuan euskarak baztertzen ditu, euskara ez jakitearen ondorioz ezin baitute partekatu egiten ari dena. Bestalde, euskaraz mintzo direnak baina frantsesez ere mintzatzea onartzen duten euskaldunak "ireki" gisa definitzen dituzte. Bitxia da ere hasieran euskara ez jakiteagatik beren burua euskal herritartzat hartzen ez duten zenbaitek geroago, zeharka, euskal herritarren taldean sartzen direla.

Ed/Ee	**0**	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Ondoko elkarte motetako kidea zara edo izan nahiko zenuke?

	GUZTIRA	LURRALDEA				SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		Iparkostaldea	Hegokostaldea	Lapurdi barnealdea	Nafarroa Beh.-Zuberoa	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
TALDE, MUGIMENDU EDO ALDERDI POLITIKOA														
Ez eta ez nuke nahi	**96**	95	99	97	96	95	97	93	97	96	98	97	97	93
Ez, baina nahi nuke	**1**	2	0	1	1	1	2	1	1	1	2	2	1	1
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	**2**	3	1	2	3	3	1	5	2	2	1	1	2	5
Ed/Ee	**0**	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
GAZTE ELKARTEA														
Ez eta ez nuke nahi	**95**	92	99	97	92	95	94	86	94	98	98	95	87	95
Ez, baina nahi nuke	**3**	4	1	1	2	3	3	5	4	1	2	3	4	2
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	**3**	3	0	2	5	2	3	8	2	1	0	2	8	3
Ed/Ee	**0**	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
ETXEJABEEN EDO ALOKATZAILEEN ELKARTEA														
Ez eta ez nuke nahi	**97**	94	99	98	99	97	96	96	96	96	98	96	98	97
Ez, baina nahi nuke	**2**	3	0	1	1	2	2	3	2	1	2	2	1	2
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	**1**	2	1	1	0	1	1	1	2	2	1	2	1	1
Ed/Ee	**0**	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
ONDARE ELKARTEA														
Ez eta ez nuke nahi	**98**	96	100	99	98	98	97	97	98	98	97	98	96	98
Ez, baina nahi nuke	**2**	3	0	1	1	1	2	3	1	2	2	2	1	2
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	**1**	1	0	0	1	1	1	0	1	0	1	0	3	1
Ed/Ee	**0**	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
GUDARI EDO SOLDADU OHIEN ELKARTEA														
Ez eta ez nuke nahi	**97**	97	99	96	99	96	98	98	98	98	94	97	98	97
Ez, baina nahi nuke	**2**	3	0	1	0	1	2	2	1	1	2	2	0	1
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	**1**	1	1	3	1	2	0	0	0	0	5	1	2	1
Ed/Ee	**0**	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
BESTE ELKARTE MOTA BAT														
Ez eta ez nuke nahi	**95**	95	94	95	95	95	95	94	95	94	95	95	96	93
Ez, baina nahi nuke	**1**	2	0	1	1	1	1	2	1	1	1	2	0	1
Bai, kidea naiz	**4**	4	6	4	4	4	4	4	4	4	4	3	4	6
Ed/Ee	**0**	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

5. EUSKALTASUNARI ETA EUSKAL KULTURARI BURUZKO PERTZEPZIOAK INTERNETEN

5.1. Sarrera 3
5.1.1. Helburuak 3
5.1.2. Metodologia 3
5.2. Iritzien Jatorria 5
5.3. Aipatutako gai orokorrak 6
5.3.1. Hizkuntza 6
5.3.2. Beste kultur adierazpide batzuk 15
5.3.3. Nortasuna eta beste gizarte gai batzuk 25
5.4. Ondorioak 32

Landa lana: Sistemas Judo

Analisia eta txostena: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

5.1. SARRERA

Txosten honek berritasuna dakar gaur egungo ikerketa soziologikoaren ildoei dagokienez: alde batetik, azterketa esparrua dela medio eta, bestetik, ikerketa egiteko erabilitako metodologia dela medio.

Kontuan hartu behar da mundu mailan komunikazio sarea ohiz kanpo hedatu dela, batez ere internet bidez. Izan ere, gero eta jende gehiago dago elkarrekin konektatua mundu osoan zehar. Gizarte ikerketak ezin dio muzin egin informazio olde horri, ezin die muzin egin egunero sarean dabiltzan iritziei. Iritzi hauek, zuzen ala oker, asmo onez ala txarrez jendea informatzea dute helburu, iritzi-korronteak sortu,... Azken finean, harremanetan jartzen dituzte munduko edozein bazterretan bizi diren eta elkarren ezezagunak diren pertsonak.

Ikerketa eremu berriak zabaltzen zaizkigu begien aurrean. Horregatik, sartu-irten bat egin dugu ikerketa soziologikoarentzat horren ezezaguna den mundu horretan. Ildo hori da jarraian aurkeztuko dugun txostenak marrazten duena.

5.1.1. Helburuak

Txosten honen helburua da euskaltasunaz eta euskal kulturaz zer ulertzen den jakitea, baita zerekin jartzen den harremanetan eta zer irudi duen ere. Hori guztia, internetetik dabiltzan iritzietatik ondorioztatua.

Analisi honek albo batera utzi ditu egungo egoera politikoari eta ekonomiari buruzko erreferentziak (erabilitako metodologia aztertzeko puntuan aurrerago zehaztuko den moduan). Erreferentzia hauek, zalantzarik gabe, ugarienak dira euskaltasuna aipatzeko orduan. Salbuespen gisa, analisi honek aintzat hartu ditu iritzi horiek, baldin eta kulturarekin, bizimoduarekin edota historiarekin (kultur ondaretzat ulertua) harremanen bat baldin bazuten. Datu entziklopedikoak, historikoak edo estatistikoak ere albo batera utzi dira, iritzirik agertzen ez dutelako, nahiz eta datu batzuk aipatzeak eta ez besteak, iritzia edo ikuspuntu subjektiboa dakarren.

Gainera, aintzat hartu diren iritzi eta balorazioak norbanakoenak izan dira, eta ez erakunde, instituzio edo kolektiboenak. Iritzi eta balorazio hauek mundu osoko herritarrek egin dituzte, eta kontuan hartu den bakarra euskaltasunarekin edo euskal kulturarekin lotura izatea izan da. Ez da aintzat hartu iritzi horiek errealitatearekin bat datozen ala ez, egia diren ala errealitatea manipulatzen ari diren... hau da, mota guztietako iritziak eta iruzkinak bildu dira, norbanakoek eginak badira. Agian pertsona horiek ez dira inoiz Euskal Herrian izan eta bere erreferentzia guztiak beste iturri batzuetatik datoz baina, edozein kasutan ere, iritzia eman dute edo iruzkin bat egin dute. Baztertu egin dira, beraz, komunikabideetatik datozen iritziak (egunkariak, aldizkariak, berri agentziak,...), salbu eta norbanakoek emanak badira (esaterako, zuzendariari gutunak, zutabeak, iritzi artikuluak...).

Zentzu honetan, ezin dugu ahaztu iritzi-emaileek hainbat lanbide dituztela, hainbat jatorri, hainbat interes, iritzi kontrajarriak... Baina ezaugarri komun bat dute: internautak direla, hau da, komunikaziorako teknologia berrietara sarbidea dutela eta, gainera, boluntarioki hartzen dutela parte foroetan, web-orrietan, posta zerrendatan... beraz, suposatzen da sarean parte hartzeko zaletasuna dutela.

Gainera, ikerketa soziologiko gehienetan ez bezala, aztergaia ez da pertsona batzuek galdera batzuei emandako iritzia, baizik eta internet bidez boluntarioki iritzia eman eta hedatzeko asmoa dutenen iritziak.

Hortaz, ikerketak honakoak aztertzen ditu:

1) Beren iritziak interneten bidez zabaltzen dituzten.
2) Pertsona arruntek.
3) Euskaltasunari eta euskal kulturari (edo horrekin lotutakoari) buruz.
4) Emandako iritziak.

5.1.2. Metodologia

Azterketa honetan erabilitako metodologia, oro har, eduki azterketa izan da. Azterketa honek gai zehatz baten inguruan emandako iritzien kategorizazioa egiten du. Gaia, esan bezala, euskaltasuna eta euskal kultura da.

Txostenean zehar zenbait kasutan kuantifikazioren bat egin bada ere –aztertutako testuen jatorrizko hizkuntzaren inguruan, adibidez– analisiaren muina da euskaltasunarekin eta euskal kulturarekin lotura duten hainbat gai, termino eta alorren azterketa kualitatiboa. Termino hauek

ez dira hain zabala den gai honen terminorik zehatz eta berezkoenak, baina une zehatz batean sarean bildutakoak dira.

Horretarako, aurretik aipatu bezala, kontuan hartu dira norbanakoek emandako iritziak eta baztertu dira, beraz, komunikabideen albisteak, erakundeen web-orrriak,... Txostenak abiapuntutzat hartu ditu foroetan, iritzi artikuluetan eta, oro har, sarean dagoen edozein iritzi, baldin eta iritzia subjektiboa bada eta iritzi-emalea iritzi bat ematen ari denaz kontzientea bada.

Sarean testuak bilatzeko termino edo erro batzuk hartu dira oinarritzat. Erro hauek bilatze parametro gisara sartu eta agertzen diren testu guztiak bildu dira. Erro hauek hizkuntza desberdinetan euskaltasunari erreferentzia egiteko moduei dagozkie:

- Eusk...
- Vasc...
- Basq...
- Bask...

Hau da, bildu nahi da zeri buruz ematen duten iritzia eta, zehazki, zer iritzi dituzten erro horiek dituzten testuak idatzi dituzten pertsonek.

Erro hauek erabiltzeak mugapen garrantzitsua dakar: makina bat pertsonak eman dezake iritzia euskaltasunarekin eta euskal kulturarekin zerikusia duten hainbat gairi buruz erro hauek dituzten hitzak erabili gabe, eta iritzi horiek, beraz, ez dira hona bildu. Adibide bat emate aldera, bertsolariak aipagai dituen testu batek ez badu aurreko erroak dituzten hitzak erabili, nahiz eta iritzi-emaleak berak bertsolariak euskal kulturarekin lotu, iruzkin hori ikerketa eremu honetatik kanpo geratuko litzateke.

Mugapenak mugapen, ikertzaile taldeak uste du erro generiko hauek erabiltzea metodo garbiagoa eta irekiagoa dela. Izan ere, mugapen hau ekiditeko, ikertzaile talde horrek aurretiaz zehaztu behar izango luke zer ulertzen duen euskaltasunaz eta euskal kulturaz, euren ideia eta aurreiritzien arabera. Ikertzaile taldearen balizko definizio horrek ez luke zertan bat egin iritzi-emaileek emandako definizioarekin. Aukeratutako metodoan, berriz, iritzi-emaileak eurak dira euskaltasunaz eta euskal kulturaz zer ulertzen duten edo zerekin jartzen duten harremanetan zehazten dutenak.

Hortaz, erro generikoak mantentzea erabaki dugu. Horrela, mota guztietako iritziak jaso ditzakegu eta, ondoren, iritziak bahetu. Horrela, ezabatu ditugu, alde batetik berriei edo iritzirik gabeko datuei dagozkien iritziak (datu historikoak, estatistikoak,...) eta, beste alde batetik, ekonomia eta politikari buruzko iritziak. Politikari buruzkoak ugarienak izan dira, alde handiz. Hala ere, jaso dira ikuspuntu historikotik abertzaletasunari lotutako iritziak, baita gizartearekin edo gizarte arazoekin lotutakoak ere, beti ere euskaltasunaren edo kulturaren transmisore bezala ulertuak.

Iritziak bildu ondoren eta euskaltasunari eta euskal kulturari lotutako iritziak sailkatu ondoren (500 testu baino gehiago), gaika sailkatu ditugu iritziak, euskaltasunari lotuta zein gai dauden ikuste aldera. Gai hauek aztertzerakoan aintzat hartu behar da gai hauek ez direla gizartean garrantzia dutenak, baizik eta interneten garrantzia dutenak. Hori dela eta, sarritan aurkitzen ditugu Euskal Herrian gaurkotasun txikia duten gaiak, baina interneten erabilera gaur egun, batez ere, Amerikako Estatu Batuei lotuta dagoela kontuan hartu behar dugu.

Era berean, aztertu da iritzi-emaileek euren iritziei emandako zentzu positiboa edo negatiboa. Edonola ere, gai hau tentu handiz hartu beharra dago. Izan ere, termino bat iritzi negatibo bati lotua egoteak ez du esan gura termino horrekin lotuta dagoena kritikatzen ari denik. Kontrakoa izan daiteke, adibidez zerbait positiboari egindako aipamena kritika orokor baten barruan.

Txostena irakurri bitartean, kontuan hartu beharreko beste gai garrantzitsu bat hauxe da: iritzi bera edo jatorrizko testu bera gai edo termino bati baino gehiagoari lotua egon daitekeela, edukiaren arabera. Horren ondorioz, datuak kuantitatiboki aztertuz gero, gaizki-ulertuak sor daitezke. Izan ere, erreferentzia asko iritzi bakar batetik etor daitezke. Beraz, aipamenak zenbatuz gero edo horien arabera estatistikak ateraz gero, gaizki-ulertuak sor daitezke iritzi batzuei pisu handiagoa ematen zaielako (termino bati baino gehiagori erreferentzia egiten diotenak) beste batzuei baino (termino bakar bati erreferentzia egiten diotenak).

Metodologia honek (txostenaren irakurleek epaitu beharko dute egokia den ala ez) bideratzen ditu hurrengo ataletan agertuko diren sailkapenak.

Azkenik, aipatu behar da informazioa SISTEMAS JUDO enpresak bildu duela. Urtebeteko epealdian bildu da informazioa. Zehazki, 2004ko uztailaren 1etik 2005eko ekainaren 30era bitartean interneten eskegitako edo sartutako aipamen guztiak biltzen ditu. Hortaz, ez dira kontuan hartu 2004ko uztailaren 1a baino lehen sartu eta epealdi horretan oraindik interneten zeuden iritziak. Ezin da ahaztu epealdi honek, aldez edo moldez, eragina izan dezakeela jasotako iritzien gaiei dagokienez.

5.2. IRITZIEN JATORRIA

Kasu gehienetan ezinezkoa da iritzi-emaileen jatorri geografikoa identifikatzea. Izan ere, gehienetan iritzi-emaileak ez du zehazten bere jatorria zein den. Baina bai identifikatu ahal da euren iritzia zein Interneteko ostatatze motatan eman duten eta zer hizkuntzatan. Gainera, bestelako zantzu batzuek ere lagun dezakete iritziak nongo jendeagandik datozen identifikatzen.

1.- Aztertutako iritzien **Interneteko ostatatzea**ri dagokionez, nabarmendu behar da norbanakoen weblogek dutela erabateko nagusitasuna, euskaltasunari eta euskal kulturari buruz emandako iritzien artean. Honakoak dira ostatatze moten eta horietako bakoitzari buruzko datuak:

- Weblog pertsonalak: %40,0
- Orotariko posta zerrenda: %13,9
- Espezializatutako foroa: %12,6
- Orotariko foroa: %11,9
- Atari espezifikoa: %8,7
- Weblog kolektiboa: %4,5
- Orotariko egunkaria: %3,3
- Orotariko ataria: %1,7
- Espezializatutako aldizkaria: %1,3
- Egunkari digitala: %0,7
- Web pertsonala: %0,6
- Erakundeen web-a: %0,4
- Berri agentzia: %0,4

Ostatatze hauek munduko batzer guztietakoak dira. Oso leku ezberdinetatik jaso dira iritziak: Israel, Filipinar uharteak...

2.- Aztertutako iritzien **hizkuntza**ri dagokionez, kontuan hartu behar da jatorrizko lekua gorabehera eta iritzia ematen duen pertsonaren arabera (eta, zenbait kasutan, iritzia nori zuzendua dagoenaren arabera) testuak hainbat hizkuntzatan idatziak izan daitezkeela. Hauek dira hizkuntza desberdinetan idatzitako iritzien ehunekoak:

- Gaztelania: %39,4
- Euskara: %33,3
- Ingelesa: %20,0
- Frantsesa: %5,6
- Beste hizkuntza batzuk: %1,7

Aztertutako bi aldagaiak gurutzatuta (eta euren osagai batzuk elkartuta kategoria kopurua murriztearren) honako taula hau lortzen dugu:

BILDUTAKO IRITZIAK, JATORRIAREN ARABERA BANATUAK*

	Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Frantsesa	Beste hizkuntza batzuk	OROTARA**
Weblog	20,4	14,6	6,1	2,2	0,9	44,2
Foroa	4,8	11,3	6,9	1,3	0,4	24,7
Posta zerrenda	0,7	9,6	1,7	1,7	0,4	14,1
Ataria	5,9	2,0	2,4	0,0	0,0	10,3
Komunikabidea	1,3	1,7	2,4	0,4	0,0	5,8
Weba	0,2	0,2	0,5	0,0	0,0	0,9
OROTARA	33,3	39,4	20,0	5,6	1,7	100

* Taularen kopuru osoari dagozkion ehunekoak.

** Datu hauek ez datoz guztiz bat lehen azaldutako ostatatze informatikoari buruzko datuen batuketarekin (aldea dezimala da). Izan ere, zenbait kasutan iritzia hizkuntza batean baino gehiagotan idatzia baitago (hizkuntza batean hasten da eta beste batean amaitu). Lehen iritzi bakar bat bezala hartuak izan badira iritzi hauek, taula honetan erabilitako hizkuntza biak zenbatu dira. Beraz, emandako iritzien ostatatze motari buruzko datuak zertxobait aldatu egiten dira aurreko datuekin alderatuz.

Ondorioz, esan ahal da euskaltasunari eta euskal kulturari buruz 2004ko uztailaren 1etik 2005eko ekainaren 30era arte Interneten sartutako iritzi gehienak weblogetan idatziak izan direla eta gaztelaniaz edo euskaraz.

3.- Aipatzekoa da halaber, ondoko emaitzek desoreka esanguratsu bat adierazten dutela Hegoaldeko (EAE eta Nafarroako) eta Iparraldeko erreferenteen artean, erakundeak, antolamenduak, hezkuntza ereduak, hizkuntzak etab. aipatzen direnean. Hau da, Interneten euskaltasunaz eta euskal kulturaz hitz egiten denean, askoz gehiago dira Hegoaldeari egindako erreferentziak Iparraldeari egindakoak baino.

5.3. AIPATUTAKO GAI OROKORRAK

Euskaltasunari eta euskal kulturari buruz interneten emandako iritzi gehienak hiru gairi buruzkoak dira: hizkuntza, beste kultur adierazpide batzuk (gastronomia, artea eta kirola, besteak beste) eta, azkenik, nortasuna eta beste gizarte gai batzuk.

Aurretik aipatu bezala, iritzi bakar batek gai askori buruzko erreferentziak sor ditzake. Hortaz, jarraian egingo dugun zenbaketak erreferentzia egiten dio gai bakoitzari lotutako testu kopuru osoari (nahiz eta, testu bera gai bakar batekin baino gehiagorekin lotuta egon; horregatik, gai bakoitzari lotutako testuen ehunekoen batuketa 100 baino handiagoa da):

- Hizkuntza da iritzi-emaileek gehien aipatzen duten gaia: testuen erdiek (%51,7) gai honekin dute zerikusia.
- Gastronomia, arteak edo kirola bezalako beste kultur adierazpideak testuen %31,6k aipatu dituzte.
- Iritzien %30,3k aipatzen dituzte nortasuna eta beste gizarte gai batzuk.

EUSKALTASUNAREKIN LOTZEN DIREN GAIAK



Jarraian aztertuko da aipatutako gai orokor bakoitza zer azpigai edo terminorekin jartzen den harremanetan.

Gogorarazi behar da gai hauek aztertzerakoan sarean dauden iritziak deskribatzen ari garela, eta ez ikerketaren egileen iritziak. Izan ere, ikertzaileek Interneteko gizarte giroa aipatzeko asmoa baino ez dute.

5.3.1. Hizkuntza

Hizkuntzari, hau da, euskarari egindako aipamenek honako azpigai hauei egiten diete erreferentzia: hizkuntzaren estatusa, transmisioa, erabilera, hizkuntza politika, eremu geografikoa, euskarari lotutako erakunde, gertaera edo pertsonaiak, baita (historiari lotutako ikuspuntu batetik) euskararen jatorria, euskarak jasotako eraginak eta haren berezitasunak ere.

Nabarmendu behar da gai honi lotutako testuetan euskaraz idatzitakoen ehunekoa (%49) batez bestekoan baino handiagoa dela (%33).

Jarraian, gainetik bada ere, aipatutako kategoria bakoitzean hizkuntzari buruz egindako aipamenak aletuko ditugu.

5.3.1.1. Hizkuntzaren estatusa

Kategoria honen barnean jasotzen dira honakoei buruzko iritziak: hizkuntzaren egoerari buruzko kezka, ezagutza, desagertzeko arriskua, berreskuratzea, garapena, euskararen gizarte babesa,...

Atal honetan bildutako gaietan oinarrituta, euskararen gaur egungo egoera ulertzeko ibilbide historikoa egin daiteke. Horretarako, eta txostenaren beste ataletan bezala, gaiari buruz iritzia eman dutenen artean bildutako adibide esanguratsuak aipatuko ditugu.

Lehenik eta behin, euskarak urte askotan bizi izan duen desagertze arriskua aipatzen da.

> *Mucho se ha debilitado el euskera, son dos mil años de acoso y presión, y han hecho que pierda bastante.*

Dena den, hizkuntza berreskuratzeko eta sustatzeko egin diren lanak aitortzen dira. Internauten iritziz, lan hauek aurrera egin behar dute eta laguntza handiagoa eskatzen da:

Respeto plenamente el euskera, es más, estoy totalmente de acuerdo con su promoción y recuperación pero tú sabes perfectamente si vives donde vives que es en todo caso un proyecto a largo plazo.

Basque is more and more alive, which is definitely good news for people who love languages.

…euskararen munduan sortzen diren gauza askok diru laguntza behar dute, bestela denak hilko lirateke.

Horren harira, euskalduntze prozesua azpimarratzen da. Arlo hau aurrerago jorratua izango da.

Azpimarratutako beste arlo bat da (eskolan, euskaltegietan,…) irakatsitako euskararen eta kalean hitz egiten den euskararen artean dagoen aldea:

Batuera dagokionari ikerketa egin ondoren erraz konturatu nintzen idazteko hizkuntza zela eta horretarako garatua, hitz egiteko hizkuntza bateratua kasualitatez bihurtu zela eta zerbait erabili behar zelako planifikazioa martxan jartzeko. Gainera atzeman nuen euskaltegian ikasten nuen euskara ez zela kalean erabiltzen zena (Bizkaia kasuan). Hori hizkuntza guztietan gertatzen da baina ez maila honetan. Eta horrek, ikasteko prozesuaren porrot kopuru handiarekin eta erabiltzen den euskararen kalitatearekin zerikusi handia dauka.

Honi lotuta, euskara batua eta euskalkien arteko ezberdintasunak ere aipatzen dira. Euskalduntze prozesuak, hezkuntza sistemaren irakaskuntzaren bidez zein euskaltegien bidezko irakaskuntzaren bidez (baita komunikabideetan izaniko estandarizazioaren bidez ere), euskara batua bultzatu du euskalkien kaltetan.

Testuek aipatzen dute euskara batuak, hasiera batean eta bere izenak dioen bezala, oinarrizko funtzio bateratzailea zuela, denok ulertzeko moduko euskara bultzatzea zuela helburu, denek partekatua, araututako gramatika duena,…

Euskara batua euskara estandarra da, Ipar Euskal Herriko zein Bizkaiko edozein euskal hiztun ulertzeko gai izan daitezen ahalbidetzen duen euskara eredua da. Euskara batuaren sorrerak helburu argia izan zuen, alegia, arautzea…

Aipatzen da euskalkiak galtzeko eta gutxiesteko joera indartu egin dela. Kexa gehienak, bereziki, mendebaldeko hiztunek egiten dituzte, euren euskalkia batuaren eredutik gehiago ezberdintzen baita, esaterako, gipuzkera baino.

Beste errealidade bat euskerean aldetik dagoen arazoa da, euskera estandarra edo euskera batua dalako erabilten dana. Mendebaldean eta iparreldeko ekialdean batueraz ikisi dugun gazteok bai, baina beste guztiek euskera barri hau aituteko arazoak deukiez.

Nere herriko euskalkia indartzeko egin asmo degun telebista programa horretarako, zaharrei eskean jundakoan, alkarrizketatuak izateko, ia denek aipatzen duten erretolika da: beren euskerak ez duela batere balio. Oso gauza larria da. Zaharroi harrotasuna berreskuratzen saiatu behar luke gizarteak, eta horixe da gure asmoetako bat, euskalkia indartzeaz harago.

Orain dela 15-20 urte inguru pekatua zan herri hizkerak edo ahozko euskara aitatzea. Sakrilegio hutsa. Hori egiten gendunak batuaren aurkako gurutzadan ei geunden. Badirudi batzuen bildurrak baretu dirala, eta Euskaltzaindia bera be konturatu dala ahozko euskeran sekulako altxorra daukagula.

Horregatik, euskalki hauetarako gizarte babesa eta estatusa eskatzen da. Izan ere, uste dute babes hau galdu dutela euskara batuaren mesedetan.

Sarri askotan euskararen barneko bereizketa egitera jotzen dugu, euskara batuaren garrantziaz aritzen dira asko eta asko, euskalkien nagusitasun historikoaz beste asko. Nik uste biak, bata zein bestea direla beharrezko, are gehiago, bata bestearen osagarritzat joko nituzke nik.

Oro har, euskararen gizarte babesari buruz (euskalkiena ez ezik, hizkuntza osoarena ere), beste hizkuntzekiko berdintasuna eta eskubide osoko aitortza eskatzen da, baita errespetua ere:

…el euskera… merece todo el respeto de los españoles a cuya cultura aporta su diversidad y singularidad.

El euskera a nivel de lengua como tal es del mismo rango que cualquier otra (no un capricho), es una lengua para usar en sociedad, en instituciones y en medios de comunicación. Ni más ni menos que cualquier otra lengua independientemente de su número de hablantes.

Audientzia Nazionalean euskararekiko errespetu bila joatea eta Europako Parlamentuan euskararen ofizialtasunaren bila aritzea gauza absurduak dira, Euskal Herrian bertan ez badago euskararekiko errespeturik…

Areago, eskubide berdintasunaren aitortza eta euskararen aitortza ez ezik, euskaraz egindako ekitaldi edo jardueren aitortza ere eskatzen da.

Euskaraz gertatzen den guztia, espainiarrentzat ez da gertatu…

Dena den, ez da falta aitortza "folklorikoa" baino egiten ez dionik. Areago, hauek "inposatutako" hizkuntzatzat hartzen dute:

Era una lengua para un contexto agrario como correspondía a los habitantes del PV (País Vasco) hasta que lo industrializamos. De hecho, era considerada una lengua muerta hasta que la metieron en un laboratorio, agitaron la probeta y salieron palabras como telefonoak, presoak, manifestapena, etc,… y al parto se le llamó batua.

Yo veo muy bien la posibilidad de escoger estudiar o no un idioma local, pero no imponerlo, y con ello limitar las opciones (de trabajo) del resto de ciudadanos.

…otro fracaso más del euskera, el cual sólo es sostenido a base de talonario del departamento.

edo uste dute abertzaleen esku dagoen bitarteko politikoa dela:

Entre los factores de supervivencia de una lengua… es importante su eficiencia como medio de comunicación…; …es indicativa de las limitaciones expresivas de la lengua (el euskera) *ya sean inherentes debido a la antigüedad de sus estructuras, ya sea debido a que no es la lengua materna de muchos de sus hablantes actuales… Si consideramos que la lengua surge y sobrevive porque satisface alguna necesidad deberíamos preguntarnos cuáles son las cubiertas por el euskera en exclusiva. La respuesta es inmediata, si atendemos las recientes manifestaciones de los políticos nacionalistas, se trata de la necesidad de sentirse miembro de una comunidad…*

…el euskera es una herramienta de exclusión.

Azpimarratu behar da (euskararen estatusari dagokionez) euskaraz idatzitako aipamen gehienek hizkuntzaren gaur egungo egoeraren salaketa kutsua dutela (hizkuntzari emandako laguntza falta, babes falta,…). Hauek hizkuntzaren erabileraren eta sustapenaren alde egiten dute nabarmen. Beste hizkuntzetan idatzitako iritziak, ordea, anitzagoak dira.

5.3.1.2. Hizkuntzaren transmisioa

Diskurtsoetan sarritan agertzen dira hizkuntzaren transmisioarekin harremana duten aipuak. Aitortzen da lehen (orain dela urte gutxi arte) transmisioa familia bidezkoa baino ez zela,

…quienes en las zonas vascófonas lo hablan por transmisión oral o familiar.

Gaur egun, ordea, hezkuntza sistemak garrantzi gehiago du. Sistema honen bidez, guraso euskaldunen seme-alabei zein ez euskaldunen seme-alabei ere euskara transmititzen zaie.

…generaciones que han tenido la oportunidad de acudir a ikastolas privadas primero y a los modelos educativos B/D después.

Most basques speak basque because they "must" learn it at school.

If it was not for the little basque that they learn at school, the language would get lost.

Batzuek zalantzan jartzen dute hezkuntza sistemaren zenbait eredutan lortutako hizkuntza gaitasuna:

Hezkuntzan ereduak ditugu aukeran, baina euskaraz moldatzeko ez-gauza diren gazte andana ateratzen ari dira oraindik eskoletatik.

Edozein kasutan ere, transmisioaren zama guztia eskolaren bizkar uztea ere akatsa dela nabarmentzen da, haur eta gazteak eskolaz kanpoko beste zenbait esparrutan ere aritzen baitira.

Eskoletan irakasleek haurrak-gazteak euskaraz hezitzeaz gain (…) niretzat arazoa da euskalduntzea eskolak bakarrik egin dezakeela pentsatzea.

Eskolak zenbait lurraldetan euskara irakatsi eta maila batean behintzat hizkuntzaren ezagutza ziurtatzen duen arren, transmisioa ez dago erabat bermatuta kolektibo horiek (haur eta gazteek) hizkuntza eguneroko bizitzan erabili ezean, aztertutako hainbat iritzitan honako salatu den bezala (hurrengo atalean aztertuko dugu honako hau).

Nolanahi ere, ikuspegi ezkorrak gorabehera, badago hezkuntza politika honi esker (B eta D ereduak indartzeari esker, hain zuzen ere) euskararen etorkizun hurbila bermatuta ikusten duenik:

Esango nuke euskarak ziurtatua daukala, jadanik, beste mende bat edo bi baino gehiagoko biziraupena. Gure belaunaldiak gutxienez, hori ahalbidetu du.

Transmisio bideak aipatzerakoan, eskolaz gain euskaltegiak ere aipatzen dira. Azken hauek euskalduntze prozesuaren eragile garrantzitsuak direla esaten da, baita euren lana goratu ere:

Euskaltegiak sekulako lana egiten ari dira euskararen normalizazioan: euskararen erabilera bultzatzen dute, gizartea motibatzen dute, euskal kultura zabaltzen dute, belaunaldien arteko euskarazko transmisioa errazten dute, erdaldunei mundu berri bat aurkitzen laguntzen die, euskaldunei haien mundua hobeto ezagutzen erakusten die, euskara maitatzen irakasten dute. Baina honetaz guztiaz gain, helduak euskaldundu eta alfabetatu egiten dituzte.

Hala ere, euskaltegiei dagokienez, kritika kutsua ere sumatzen da, bai jasotako emaitzei dagokienez,

Beti egon naiz kezkatuta, diru eta denbora asko xahutzen dela euskara irakasten eta emaitzak benetan eskasak izan ohi direla…

baita euskararen didaktikari dagokionez ere:

Libururik gabe irakatsi behar litzateke euskara… Ezin al da transmisio oral hutsa gaur praktikan jarri?

Hizkuntzaren eskola bidezko transmisioari dagokionez (familia bidezkoa alde batera utzita, beraz), aipamen bakar baina interesgarria dago euskaldun zaharren (euskara familia bidezko transmisioz, lehen hizkuntzatzat jaso dutenen) eta euskaldun berrien (bigarren hizkuntzatzat iksasi dutenen) arteko ezberdintasunari buruz. Bereizte hau sarritan egiten da, baina iritzi-emailearen ustez, garrantzitsuena da euskara erabiltzea, non eskuratu den edo zein euskara mota (batua edo euskalkia) egiten duen gorabehera.

Euskaldun berri terminoa bakarrik erabili beharko litzateke estatistiketarako, bestela ez diot zentzurik ikusten pertsona bati bizitza osorako etiketa hori jartzeari. Beste hizkuntzetan ez dute bereizten hiztunak etxean ikasitakoak diren ala ez.

Azken finean, kolektibo biak bakartzat hartu behar dira: euskaldunen komunitatetzat.

5.3.1.3. Euskararen erabilera

Aztertutako testu askok kritikatzen edo salatzen dute euskararen erabilera ez dela zabaldu euskararen ezagutza (hezkuntza eredu elebidunei edo murgiltze ereduei esker) beste,

Euskara dakitenen kopurua hazi da Euskal Herrian; erabilerak, ordea, oso gutxi egin du gora.

Éste es, al día de hoy, el auténtico "quid" de la cuestión: el euskera se sabe, pero no se habla.

besteak beste, bi arrazoirengatik: alde batetik, euskara erabiltzeko oztopoak daude, euskara ezagutzen ez duten (edo erabili nahi ez duten) solaskide asko baitago,

Niri bai inposatu didate hizkuntza bat: gaztelania… Administraziora noa eta erderaz egin behar dut kasu gehienetan, unibertsitatean berdin, dendetan berdin,…

Erdara guztirako da. Euskarak toki batzuetan bakarrik balio du.

eta, beste alde batetik, hizkuntza dakitenek maiz ez dute erabiltzen (erosoagoa baitzaie gaztelaniaz hitz egitea[1], motibazio faltagatik,…). Egoera hau da kritikatuena.

…gehienek erdaraz egiten dute errazago egiten dutelako.

Beti gabiltza euskalduna ez dena noiz euskaldunduko, eta bitartean euskaldunak gaztelaniaz jo eta ke!!! Ordua da euskaldunok gure ardurak hartzeko.

Donostia honetan, ogiak edo jakiak erostera nonbait sartu, mostradoreaz bestaldera hiruzpalau saltzaile topatu. Eta askotan: nirekin denak aisa euskaraz, baina beren artean denak erdaraz.

I lived there for 14 years and I'll tell you that most Basques (people who live in the Basque Country) don't speak Basque. Just a little percentage of people there speak it but everybody speak Spanish there.

Euskara deituretan eta bihotzean baina erdara ezpainetan.

Euskara dakigunok beti erabiliko bagenu, ahal dugun toki guztietan erabiliko bagenu, ez zen egin beharko ekintzarik hizkuntza bultzatzeko.

Kritika hauek gazteei zuzentzen zaizkie bereziki. Lehen aipatu bezala, gazteen kolektiboak du euskararen ezagutza mailarik handiena, hezkuntza ereduen bidezko euskararen irakaskuntzari esker:

Gazteek ez dutela euskaraz egiten. Hori unibertsitatean bertan ikusten dugu. 14.000 bat ikasle ditugu hemen eta euskaraz jakin arren, eskuarki beraien artean erdaraz egiten dute.

1. Atal honen hasieran aipatu bezala, iritzi gehienek Hegoaldeko egoerari egiten diote erreferentzia, eta beraz gaztelania aipatzen da euskararekin elkarbizitzen den hizkuntzatzat, ez frantsesa.

Denok dakigu haurrek erdaraz egiten dutela patioan.

…umeek-gazteek euskaraz (egitekotan) eskolan baino ez dutela egiten. Gero joaten dira musika klaseetara, entrenamenduetara, telebista ikustera, etxera,… eta erdera da nagusi.

Todos mis amigos y yo sabemos hablar perfectamente en euskera, pero siempre hablamos en castellano, no me preguntéis por qué…

Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago egiten duen kolektibo euskaldunak jaso ditu kritika gehien, ikusi dugun bezala. Kolektibo honek defentsa kutsuko adierazpenak egiten ditu. Hauek aipatzen dute gaztelania erabiltzen dutela euskara ez dakitenei dieten begiruneagatik:

…si estamos unos cuantos y hay gente que no habla euskera pues se habla en castellano por respeto.

edo zenbait kolektiborekin gaztelania erabiltzeko duten joeragatik:

Askotan pasa zait inertzia hutsez, euskaraz jakingo ez duelakoan, kastellanora jotzea hainbat jenderekin. Askoz gehiagotan administrazioko edo eta oro har zerbitzu publikoetako langileekin (dela medikua, dela jueza, dela seguru etxeko bulegaria, dela polizia bera).

Edozein kasutan, erabilera faltaren aurrean kezka nagusia hauxe da: zer etorkizun izan dezake euskarak dakitenek ez badute erabiltzen?

Ez dakitenek ez dute euskaraz egingo eta dakitenek ez badute egiten, hor ez dago segidarik.

Hainbat esparrutako euskararen erabilerari dagokionez, Interneten gero eta euskara gehiago erabiltzen dela aipatzen da. Izan ere, internet erabiltzen duen jendea, batez ere, gaztea da eta ikasketa maila altukoa. Eta kolektibo honetan euskara dakitenen ehunekoa batez bestekotik gora dagoela suposa dezakegu:

Badirudi gehiago erabiltzen dela euskara Interneten kalean bertan baino.

Halaber, kritikatu egiten da beste zenbait esparrutan euskara gutxi erabiltzen dela, batez ere erakundeei dagozkien esparruetan (politika edo administrazioa) edo esparru ekonomikoetan:

…un artículo… publicado en el diario Berria da cuenta de la disminución porcentual, la pasada legislatura, del uso del euskera por parte de todos los grupos parlamentarios en la Cámara vasca, exceptuando a Sozialista Abertzaleak.

Denok egin dugu negar gure politikoen hizkuntza maila entzun eta ikusitakoan.

Oro har, mundu sozio-ekonomikoa gazteleraz bizi den mundua da, alor formalean bereziki.

Era berean, esparru horietara hedatzeko beharraz hitz egiten da,

Nere ustez euskararen garapenerako esparru guztietan euskaraz egitea beharrezkoa da…

Aipatu behar da atal honetan bildutako jatorrizko iritzien bi herenak euskaraz idatziak izan direla.

5.3.1.4. Hizkuntza politika

Hizkuntza politikaren gainean hitz egiterakoan, honako gai hauek aipatzen dira: hezkuntza ereduak berriro ere, normalizazioa, sustapena, finantzazioa eta diru-laguntza politika, ofizialkidetasuna edo elebitasuna, hizkuntzaren ezagutza maila ziurtatzeko sistemak, gobernu eta herri aginteei buruzko aipamenak, baita, zentzu negatibo samarrean, euskara ezagutzeko derrigortasuna ere.

Lehenik eta behin, hizkuntza politikaren helburua ahalik eta herritar gehien euskalduntzea dela aitortzen da:

…hizkuntza politikaren egokitasunaren ikuspegitik argi dago zein den lehenetsi behar dena, bera baita nagusi eta oinarrizko: euskaraz hitz egiteko gai diren pertsona helduak kaleratzea eta hauek euskara erabiltzea.

alabaina, zentzu politikoagoa ematen dionik ere ez da falta:

…una política lingüística de "campo de exterminio".

El hecho de que hoy se hable ese idioma es fruto únicamente del empecinamiento nacionalista y su imposición a base de mentiras y engaños…

…lo que tampoco puede hacerse es cultivar la lengua vasca como forma de barrenar la unión con España y justificar el independentismo.

Normalizazio prozesuari eta hizkuntza politikari gaztelania-hiztunek egindako kritiken artean euskararen inposaketa aipatzen da[2]:

2. Berriz ere, Interneten topatutako iritziek Hegoaldeari egiten diote erreferentzia.

…para que una cultura "asiente", lo mejor no es ir imponiéndolo "por huevos", como queréis hacer los vascos… En el País Vasco se intenta… imponer un idioma propio que sólo unos pocos conocen y "blindarlo" para que nadie que no conozca el idioma pueda trabajar en el País Vasco.

…cada vez hay más profesores vascos que se van a Cantabria… porque en el País Vasco les exigen saber euskera.

…en lo que nadie puede estar de acuerdo es en que se obligue al pueblo a tener que conocerlo (el euskera) y mucho menos a tener que usarlo. Si hacemos esto estamos haciendo lo mismo que Franco prohibiendo el euskera.

Nabarmendu behar da kolektibo honek ez duela euskara bera arbuiatzen, bai ordea, zenbait arlotan euskara ezagutzeko derrigortasuna, batez ere lan mundura sartzeko.

El euskera hace años ha sido adoptado por la sociedad como algo guai, bonito, moda, cariñoso, pero claro…se le ha dado la mano y ya van cogiéndose el brazo y más.

Beste ikuspuntu batetik, ostera, euskara ezagutzeko derrigortasuna justifikatzen da, bai gizarte eskariari erantzutearren.

Pues yo conozco a profesores que se han tirado 2 ó 3 años sin dar clase y cobrando con la excusa de aprender euskera. Y me parece normal que obliguen a aprender euskera, ya que el modelo A cada vez tiene menos gente y tiende a desaparecer a favor de los modelos B y D.

bai legeak bete eta hizkuntza ofizial gisara euskarak benetan joka dezan:

Hezkuntza-sisteman ezartzen ez bada, lanpostuetan exijitzen ez bada, nola nahi duzu hizkuntza bat ofiziala izatea? (eta ez ahaztu ofiziala dela). Hori ez da inposizio bat, hizkuntza bat ofiziala izan dadin neurriak jartzea baizik.

Horrela, euskarak gaztelaniaren pareko aitortza izan dezan hizkuntza politika egokiaren beharra aipatzen da:

…en Euskadi el idioma que se impone "por huevos" es el español, que… es el único que obligan a conocer… para cualquier trabajo… Y eso contando con que ambos cuentan con el estatus de cooficiales.

Ugariak dira, zentzu honetan, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikari nahikotasunik eta eraginkortasunik ez duela eta egindako kritikak. Eraginkortasunik ez duela aipatzen da, jarritako euskalduntze helburuak lortu ez dituelako eta hizkuntzaren ezagutza bermatzen duten tituluetan oinarritzen delako. Titulu horiek ateratzeko azterketak sektore askok arbuiatzen dituzte (euskara ez dakitenek ez ezik, euskaldunek ere arbuiatzen dituzte). Beste alde batetik, hizkuntza politikak nahikotasunik ez duela aipatzen da, ez dituelako euskararen sustapenera zuzentzen euskalduntze plana burura eramateko beharrezkoak diren baliabide guztiak:

EAEko hizkuntza-politikak birplanteamendu eta eztabaida sakonak behar dituela…

Behin eta berriro euskalduna naizela aitortzen duen titulu bat ateratzen saiatu arren, ezin izan dut lortu.

Proposamen txiki, erraz, posible egin nahi dizkizuet zuen eginkizuna hobeto betetzeko: 1. Euskalduntze prozesuari dagokionez, azterketei dagokienez, hain zuzen ere, azterketaren proba bakoitzaren emaitzak gordetzea. 2. Euskaltegiei dagokienez, diru laguntzak handitzea.

Eusko Jaurlaritzak "produktuari" begiratzeaz gain, "prozesuan" ere parte hartu behar du euskaltegien kalitate proiektuak garatuz, materialen kalitatea zainduz eta abar… Jaurlaritzak uste badu helduak euskaldundu eta alfabetatzea beharrezkoa dela euskararen normalizaziorako, lan hori duintasunez ordaindu behar du.

Eusko Jaurlaritzaren diru politikak eskuak lotuta uzten ditu euskaltegiak.

Gainera, hizkuntza politika beste arlo batzuetara hedatu beharra ere aipatzen da.

Funtsezkotzat jotzen dut mundu sozio-ekonomikoan euskararen normalizatzean aurrerapauso nabarmenak egitea.… Orain enpresa eta erakunde askotan euskararen normalizazio-plangintzak dituzte. Alabaina, ozeano handi batean ttantta batzuk baino ez dira.

Nabarmen-nabarmenak dira Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikari egindako kritikak:

Ahora le ha tocado a la Dirección General de Política Lingüística y, más concretamente, al Consejero de Educación y Cultura del Gobierno de Navarra al justificar lo injustificable defendiendo que la política lingüística no tiene por qué referirse únicamente al euskera, sino que debe fomentar el conocimiento de los demás idiomas oficiales de la Unión Europea… Es preocupante que nuestros políticos vayan decretando poco a poco el exterminio de su propia lengua. La lengua vasca. En este caso concreto utilizando el artilugio de la modernidad europea.

…(UPN) no han dejado de repetir que son los guardianes del vascuence, que son los verdaderos defensores de este idioma en Navarra. Cuando en realidad no hacen nada por su mantenimiento y recuperación.… se debe dar la posibilidad a todos los navarros de recuperar el euskera, una de las señas principales de nuestra identidad, y cómo mejor que poniendo en marcha una legislación que permita a nuestros hijos estudiar el idioma desde pequeños, sin esfuerzo y con naturalidad. No tiene por qué existir un conflicto entre el euskera y el castellano, deben ser dos idiomas propios de toda Navarra.

Hizkuntza politikari buruz aipatutako iritzien erdiak jatorriz euskaraz idatziak izan dira. Nabarmendu behar da euskarazko eta gaztelaniazko testuek duten kutsu ezberdina: gaztelaniaz idatzitako testu gehienek, oro har, euskararen derrigortasuna kritikatzen dute; euskarazko testuek, ordea, salatzen dute euskara sustatzeko laguntza gutxi dagoela edo hizkuntza berreskuratzeko politikak egokiak ez direla. Salbuespena Nafarroatik datozen testuak dira. Foru komunitatearen hizkuntza politikari egindako kritikak gaztelaniaz idatzita baitaude.

5.3.1.5. Erakundeak, gertaerak eta pertsonaiak

Hizkuntzari lotutako gaiak aipatzen dituzten testuetan euskarari lotutako erakunde, gertaera edo pertsonaiei buruzko erreferentzia puntualak ere agertzen dira.

Banan-banan aletuko ditugu.

5.3.1.5.1. Erakundeak

Erakundeei buruzko aipamenetan, euskararen sustatzean (ala sustatze ezan) erakundeek betetzen duten funtzioaren araberakoa da tratamendua. Aipamen hauek, zenbait kasutan, kutsu positiboa dute,

…como el euskera, se recuperan ahora por la decidida acción del Gobierno Vasco.

…en Pays Basque nord Seaska représente la structure la plus avancée dans le mouvement de rebasquisation en cours. Nous sommes une structure privée capable de former des bascophones, eux-mêmes capables d'assurer le travail de transmission qui s'iimpose compte tenu de la situation actuelle de la langue.

…(Euskaltzaindia) desde su fundación y en el día a día de su trabajo responde a consultas, expide documentos y canaliza la riqueza dialectal del euskera en Navarra.

Baina, gehienetan, euskara gutxi zaintzeagatik eta gutxi lantzeagatik egindako kritikak dira. Zentzu honetan, beste hainbat arlo aipatzen da (bereziki komunikabideak), modu orokorrean

Gure herrietako kioskoetan daukagun euskarazko prentsa eskaintza urria da.

Ikaragarria da, kasurako, erdararen nagusitasuna hedabideetan.

edo aipamen zehatzen bidez:

Askotan entzuten dira euskaltzaleen artean Vocento taldeko egunkarien kontrako kexuak eta erretolikak. Ez arrazoi faltaz, euskarari ezikusi… egiten baitiote sarri.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Diario Vasco egunkariak elkarrekin antolatu dute "blog&roll" izeneko lehiaketa… Blog horiek gaztelaniazkoak izan beharko dira.

Aspalditik ari zaigu ETB argi eta garbi azaltzen euskarari ez zaiola erdarari (gaztelera, noski) bezalako trataera ematen.

unibertsitatea:

Nik EHUn "euskaraz" ikasten dut, eta hori bai dela benetako fartsa. Gure fakultateko idazkaritzan dauden langileetatik bakarrak daki euskaraz, eta informazio eta fotokopia guneetan inork ere ez… Gure irakasle asko lehen badira txarrak, gainera euskaraz ez badakite, zer ikasiko dugu?

Deustu unibertsitatean esaterako, 100 ikasgaitik 7 baino ez dira euskaraz irakasten. Gazteleraz aldiz %100.

Gure hizkuntza, beraz, berriro ere krisian dago Nafarroako Unibertsitatean.

edo instituzioak eta administrazioa:

Gaur goizean Osakidetzara joan naiz, Donostian. Kaixo! Egun on! Nik. ¿Cómo dice? Takilaz bestaldeko emakumeak… Ehunka, milaka funtzionari erdaldun elebakar onartu dituzte Osakidetzan autonomia omen dugunez geroztik.

Kasu honetan ELA, CCOO eta OMA salatzen ditugu, izan ere, erakundeok funtzionarioei outlook-en bidez egun hauetan emandako informazioa gaztelania hutsez dago.

EAko legebiltzarkideetatik zazpitik hiruk ez dute euskara ezagutzen.

5.3.1.5.2. Gertaerak

Aurreko puntuari lotuta, gertaera batzuei buruzko aipamen puntualak ere egiten dira. Kasu honetan ere, kutsu positibodun, aldeko aipamenak daude:

> *Amaitu da hamalaugarren KORRIKA… Amaitu da eta denok hunkitu gara gure herrian agertu denean.*

> *Ni sarritan izan naiz Durangoko azokan eta gustuko dudan azoka da.*

eta kutsu negatibodunek, berriz, gertaera edo ekintzei eurei baino, horiek egiteko moduari edo horien alderdi zehatzei egiten diete erreferentzia:

> *Blog&roll lehiaketa printzipioz gaztelania hutsez izan behar zelako.*

> *Euskararen Kontseiluak atzo egin zuen Donostiako Kursaalean "Bai Euskarari ziurtagiria"ren banaketa ekitaldia… Aurkezle eta hizlari batzuek denbora gehiagoz aritu ziren erdaraz euskaraz baino.*

> *Aspaldiko euskarazko itzulpen negargarriena ikusi nahi? Bilbao Urban Circuit lasterketaren antolakuntzak banatu duen hau ikus ezazue.*

Hala ere, ekintza horien hasierako helburua ahultzen ari dela ere kritikatzen da, eta horren eraginez euskararen sustapen lana kaltetzen ari dela:

> *Eni iruditzen zait frantses giroa ari dela gero eta gehiago nagusitzen euskal bestetan. Badut beldurra jende horiek ez ote diren garagarnoa prezio merkean edateaz euskararen egoeraz baino gehiago axolatzen.*

5.3.1.5.3. Pertsonaiak

Pertsona publikoei buruzko aipamenen artean, aipamen positibo, negatibo eta neutroak daude: positiboak (eta neutroak), batez ere, kulturari lotutako pertsonei buruzkoak dira

> *Beti bezala euskal kultura eta, batez ere, euskal hizkuntza altxor berezi eta ezingalduak direla igortzen du (*Bernardo Atxagak*).*

> *…euskaltzale sutsua eta, batez ere, gizontasunaren eta euskalduntasunaren eredu imitagarria (*da Martin Ugalde*).*

eta negatiboak, batez ere, politikari lotutako pertsonei buruzkoak dira.

> *…Europako Parlamentuan euskararen ofizialtasunaren bila aritzea gauza absurduak dira… Josu Ortuondok ez badaki euskaraz.*

> *Azkuna, ezelango lotsa barik gure hizkuntza gora eta behera, oso garrantzitsua hau eta bestea. Dena espainiera goxo eta txukunean, jakina.*

> *Miguel Buen-ek jatorra ematen du tratuan. Baina ez daki euskaraz. Nola ausar daiteke euskaraz ez dakien pertsona bat Euskal Parlamentuko Lehendakarigaitzat aurkeztera?*

> *San Gil-ek beti egiten ditu adierazpenak español hutsez. Ibarretxek behin euskaraz bakarrik eta berak esaten du hori mespretxua eta diskriminazioa dela. Aurpegia behar da gero!*

5.3.1.6. Eremu geografikoa

Atal honetan, zenbait esparru geografikotako euskararen erabilera aipatzen da. Udalerri txiki eta ertainetan, edo landa tradizioari lotutakoetan euskara gehiago erabiltzen dela nabarmentzen da.

> *Si vas por la calle en Donosti, en la mayoría de los sitios te hablarán de primeras en castellano… Pero si por ejemplo te vas al resto de Gipuzkoa en muuuuuchísimos sitios te hablan de primeras en euskera.*

> *El euskera se ha hablado históricamente en los pueblos. Las ciudades siempre han sido castellano parlantes.*

> *Euskera is only spoken by about 30% in Basque population, and even less percentage in cities.*

Lurralde historikoen arteko ezberdintasunak ere nabarmentzen dira:

> *Aquí en Bizkaia, sobre todo en la zona del gran Bilbao, muy poca gente habla en euskera… En Álava más de lo mismo. En cambio, en Gipuzkoa la cosa cambia…*

Edonola ere, azken urte hauetan euskararen erabilera hirietan igo egin dela nabarmentzen da

> *Euskal Herriko hiriburuetan… gero eta gehiago iristen delako nire belarrietara euskara.*

> *…y el euskera se habla más en las ciudades, cosa que antes no se hacía.*

Atal honetan aipamen gehiago izan dira gaztelaniaz euskaraz baino. Horrez gain, nabaria da ingelesez idatzitako aipamen asko dagoela, batez ere Euskal Herritik kanpoko pertsonek idatziak eta Euskal Herrian bizitakoa kontatuz.

I agree that the percentage of Basque speakers in cities like Baiona, Biarritz, Vitoria-Gasteiz and even Bilbo is low… In small cities and rural areas the presence of Basque is bigger…

5.3.1.7. Jatorria eta beste hizkuntzen eraginak

Euskararen jatorriari dagokionez, aho batez onartzen dute jatorri zaharra eta ezezaguna duela hizkuntza honek.

Bitxia da euskararen jatorriari buruzko testu gehienak Euskal Herritik kanpoko pertsonek idatzi dituztela. Gainera, jatorriari buruz idazterakoan pasadizo bezala idazten dute, euskal kulturan murgiltzean eskuratutako ezagutza historiko-folkloriko berri bezala.

They have their own language… one of the oldest languages.

The Basques original language is one of the most bizarre in the world, having no obvious origins.

Basque language is a complete mystery to linguists who are unable to determine where the language came from.

Basque is a very old language with an unknown origin.

…one of the oldest languages in the world, and maybe the oldest tongue in Europe. This language comes from "nowhere". Well… not really from nowhere, but actually no one knows exactly where and when it comes from.

Le pays basque est un vrai pays, avec sa langue non-indo-européenne de la famille caucasienne, bien plus ancienne que toutes les autres langues d'Europe.

Nei Paesi Baschi, quasi un milione di persone parla basco, una lingua che non viene dal latino, e la cui origine è, a tutt' oggi, ignota (è proprio questo il bello!!!). Il basco è definito, da alcuni linguisti, l'idioma più aberrante e storicamente inspiegato di tutta Europa.

Beste hizkuntzetatik jasotako eraginei buruz, ez dago iritzi argirik. Hala ere, askok uste dute euskarak bere inguru geografiko hurbiletik eraginak jaso dituela (hitzak, egiturak,…). Era berean, euskarak beste hizkuntza batzuei maileguak egin dizkiela onartzen da.

Hay señales muy sutiles de contacto no sólo con el celta, sino con el gascón y el occitano anterior y, posteriormente, con el latín.

Le lengua del país vasco es muy original –no se sabe de dónde viene– pero tiene las influencias del árabe, germano, celta y latín.

En sus fronteras (del País Vasco) los dialectos y derivaciones populares del latín vieron nacer en La Rioja y Burgos al castellano. Ambos tuvieron influencias mutuas. El euskera recibió palabras latinas que en el español de hoy ya tiene perdidas o cambiadas. Arcaismos como "pakea" (pacis-pacem/paz) y muchos otros. El castellano en cambio recibió algunas palabras y sobre todo una pronunciación (pérdida de la f inicial), brusquedad en la erre doble y las vocales más básicas, que lo diferencian claramente del resto de sus vecinas y hermanas latinas (francés, catalán, gallego, portugués,…).

The word "bizarre" has been a favourite of mine since I learned a bit about the Basques. The origins of this word are usually attributed to the French but in actuality it appears to be a basque word.

Berriz ere, iritzi-emaile euskaldunek (edo, zehatzago esanda, euskaraz idazten duten iritzi-emaileek) gai honen inguruan interes gutxi-edo dutela dirudi. Izan ere, badirudi hauek interes handiagoa dutela euskararen gaur egungo egoeraz eztabaidatzeko, jatorriaz eztabaidatzeko baino.

LABURBILDUZ

- Ematen du jendeak hizkuntza, hots, euskara euskaltasunaren eta euskal kulturaren erdiguneko osagaitzat hartzen duela, beti ere gai honen inguruan dagoen aipamen kopuruari erreparatuz gero.
- Testuetan bi jarrera kontrajarri nabarmentzen dira besteen gainetik: alde batetik, euskararen sustapen handiagoa eta eragile politiko eta sozialen inplikazio handiagoa eskatzen dutenak. Hauek, gehien bat, euskaraz idazten dituzte iritziak. Gainera, kritikatzen dute euskararen normalizazioa eta gaztelaniarekiko parekidetasuna (ez ofiziala, benetakoa baizik) lortzeko jarduera gutxi (edo indar gutxikoak, behinik behin) dagoela. Beste alde batetik, euskara arrotz bezala ikusten dutenak, inposatutako zerbait bezala ikusten dutenak. Hauek ere hizkuntza politika kritikatzen dute, baina oso bestelako arrazoiengatik, hala nola, euskararen irakaskuntzaren edo ezagutzaren derrigortasunagatik (batez ere lana lortzeko betekizuna denean).
- Kasu bietan onartzen dute euskara gutxiengo baten hizkuntza edo hizkuntza gutxitua dela, iritzi-emaileak egindako interpretazioaren arabera. Euskararentzat laguntza gehiago eskatzen dutenek gutxitutzat hartzen dute eta egoera hau konpondu beharra dagoela esaten dute. Aitzitik, euskara arrotza edo inposatua dela uste dutenek hizkuntza minoritariotzat edo gutxiengo baten hizkuntzatzat hartzen dute, egoera hau euren aldarrikapenak zuritzeko erabiltzen dutelarik, horien ustez, eguneroko bizitzan euskara ez baita inola ere beharrezkoa.
- Hirugarren talde bat badago, baina honek eragin txikiagoa edo garrantzi txikiagoa du sareko eztabaidetan. Talde honetako kideek euskara goresten dute eta ondo baloratzen dute euskararen sustapena. Baina ez dira gaian inplikatzen eta ematen du ez dutela mehatxutzat hartzen. Badirudi (emandako iruzkinen arabera) talde honetako kideek ez dakitela euskaraz, baina bere kultur balioa onartzen dutela eta ez direla Euskal Herrian bizi edo euskara jakiteko esijentziak ez diela eragiten (euren lanagatik…).

5.3.2. Beste kultur adierazpide batzuk

Euskaltasunak eta euskal kulturak euskararekin duten harremana aho batez onartua da eta hainbat aipamen jasotzen ditu. Horregatik, kapitulu berezia eman zaio. Atal honetan jasotako aipamenak, ordea, kulturaren definizioari dagozkio, baita kultur adierazpide zehatzei ere. Adierazpide hauek lau multzotan sailka ditzakegu (sarean dagoen aipamen kopurua aintzat hartuta): arteak, gastronomia, kirolak eta herri tradizioak.

Kultur adierazpideei buruzko aipamena egiten duten testuak gaztelaniaz (%33) eta ingelesez (%34) idatziak daude, batik bat. Euskaraz testuen %24 daude idatziak, frantsesez testuen %7 eta beste hizkuntza batzuetan %1.

Jarraian banan-banan aletuko dugu azpimultzo bakoitza.

5.3.2.1. Kulturaren definizioa

Sarean bildutako iritzien artean, ez dugu topatu euskal kulturaz zer ulertzen den zehatz-mehatz eta argi adieraziko duen definizio edo deskripziorik (“definizio” hori txostenean zehar egindako aipamenetatik ondorioztatu beharra dago).

Batzuek euskal kultura folklorearekin eta ohiturekin lotuko dute. Beste batzuek, aldiz, baztertu egingo dute honako hau, beraien ustez, kultura hori baino gehiago baita eta dinamikoa eta etengabeko garapena duela defendatuko baitute:

> *…herri honetan askotan badirudi kultura folklorearen sinonimoa dela, eta ni horren aurka nago. Hemen gauza berritzaileak sortzen dituen jende gazte eta ez hain gazte asko dago.*

Dena den, badago kritikarik ere honen inguruan. Izan ere, batzuek uste dute gehiegizko ahalegina egin dela kultura ez-zaharkitua eta modernoa frogatu nahian eta ahalegin horretan, sarritan, tradizioa gogorarazten duen guztia errefusatzera jotzen dela diote:

> *Euskal kulturaren munduak badu azken urteotan modernitatearekiko obsesio moduko bat. Kultura moderno bezala homologatu nahi du bere burua, zaharkinak eta folklore usaina dariotenak zulora eta berri itxura duen edozein aldarera.*

Beste alde batetik, euskal kultura propioa existitzen ez dela adierazten duenik ere bada. Hauen ustez, euskal kultura mendebaldeko Europako kulturaren aldaera bat baino ez da eta honekin duen alde bakarra hizkuntza da (euskara):

> *I perceive current day Basque culture and society as just a tiny variation of Western/ European social mores... we try to be realistic about what that famed specific basque culture might be. And the end result, all things considered, is that the really unique aspect of Basque culture is the language.*

Badago, halaber, euskal kulturari politikarekin lotuegi dagoela leporatzen dionik:

> *Una cultura subvencionada es –suele ser– una cultura de partido. Una cultura al servicio del nacionalismo que vive de ella.*

Edonola ere, euskal kulturari egindako aipamenak ugariak dira. Eta, horien artean, nagusi dira kultura laudatzen dutenak:

> *Basque culture is one of the prides of Spain.*

5.3.2.2. Kultur adierazpide zehatzak

Interneten bildutako testuetan aipatzen diren kultur adierazpideak lau multzo nagusitan sailka daitezke:

- Arteak: literatura, musika, dantza, arte plastikoak (pintura, eskultura,...), eta abar. Kulturari eta kultur adierazpideei buruzko testuen %47k arteei erreferentzia egiten diete.
- Gastronomia, tradizionala zein "euskal sukaldaritza berria". Kulturari dagokion atal honetako testuen %36k egiten diote erreferentzia sukaldaritzari.
- Kirola, bereziki aipatzen dira futbola, txirrindularitza eta pilota. Gutxiago aipatzen dira euskal kirol tradizionalak (herri kirolak), errugbia eta surfa. Kirola atal honetako testuen %21k aipatzen dute.
- Herri tradizioak. Atal honetako testuen %2k bakarrik aipatzen dituzte tradizio hauek.

EUSKALTASUNAREKIN LOTZEN DIREN KULTUR ADIERAZPIDEAK



Jarraian, zehaztuko ditugu aipatutako kultur adierazpideei buruz azpimarratutako alderdiak.

5.3.2.2.1. Arteak

Arteei buruzko atal honetan testu gehienak euskaraz idatziak izan dira (%44), ondoren gaztelaniazkoak datoz (%38) eta gero beste hizkuntzetan idatzitakoak (ingelesa %15 eta frantsesa %3).

Aipatuko dugu jarraian atalez atal bildutakoa.

5.3.2.2.1.1. Musika

Azpiatal honetan, nagusi dira musikariei edo musika taldeei buruz egindako aipamenak (baita kanta zehatz batzuei edo musika disko batzuei buruzkoak ere). Zentzu honetan, azpimarratzen dira kantautore tradizionalak (Mikel Laboa edo Imanol, kasurako), baita modernoagoak ere (Mikel Urdangarin), euskal rock erradikaleko talde batzuk (Eskorbuto, La Polla Records,...), musika estilo berriak jorratzen dituzten talde berritzaileak (Fermin Muguruza, Kortatu edo Negu Gorriak), edo folkari lotutako artistak (Kepa Junkera edo Oreka TX).

Ez dago musika klasikoari buruzko aipamenik, ezta beste musika estilo batzuei buruzkorik ere. Euskal musika tresnei buruz ere ez da aipamenik, txalaparta izan ezik:

> *As I once heard Luis de Pablo (composer of serious music, born in Bilbao, if my memory does not fail me) say, the only originally, distinctively basque contribution of note to musical traditions is the txalaparta.*

Txarangei bai egiten zaie erreferentzia, euskal tradizio musikal gisara:

> *…banda vasca de música… Me dijeron que no eran una banda, sino un tipo de agrupaciones que abundan en el País Vasco que se dedican a hacer este tipo de música alegre, para divertirse… Me contestaron que ellos no hacían lucro sino que se lo gastaban todo en instrumentos…*

Beste alde batetik, hemen egindako musikak gure eremu geografikotik kanpo duen esportazio edo eragin eskasa kritikatu egiten da. Are gehiago, musika horrek euskarazko hitzak badaramatza:

> *…más allá del País Vasco tiene prácticamente nula repercusión y es ignorado por la mayoría de los medios…*
>
> *Euskaraz kantatzeak dituen mugen gainean eztabaidatu izan da askotan. Gure talde eta kantariak milioika disko ez saltzera kondenatu ditu hizkuntzak hainbat kasutan… Hala ere, hemengo musika esportagarria da…*

Kanpoan euskarazko produkzioa onartzen denean ere, arrakasta hori euskaraz (neurri batean edo bestean) lan egiten duten komunikabideek baino ez dutela aipatzen ere kritikatu egiten da:

> *"Zaharregia, txikiegia agian" poesia diskoa urteko onenen artean dagoela esan dute New Yorkeko Bowery Poetry Clubeko kideek, hain zuzen ere munduko 6. postuan… seguru nago albistea ez dela inon agertuko, seguru nago ez zaiola merezi duen inportantzia emango albisteari. Gaur Berriak eta Garak eman dute albistea, eta atzo arrastian Euskadi Irratian ere aipatu zuten… Baina, momentuz, besterik ez, nik dakidala.*

Beste alde batetik, salatzen da euskaraz abesten duten artistak etengabe susmopean daudela, euren ideia politikoei dagokienez beti ere:

> *Parece que cantar en ese idioma te obliga a posicionarte políticamente. Y si no te posicionas ya eres poco menos que un cómplice…*

Musika ekitaldiei edo musikari lotutako gertaerei dagokienez, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaz gain, Ertz jaialdia (musika esperimentalari buruzkoa) aipatzen da, baita Eresbil, euskal musikaren dokumentazio zentroa, ere.

5.3.2.2.1.2. Literatura

Literaturari dagokionez ere, musikaren inguruko joera bera agertzen da: aipamen ugari dago artistei buruz edo lan zehatzei buruz. Nabarmenak dira Bernardo Atxagari buruzkoak eleberrigintzan eta Kirmen Uriberi buruzkoak poesian. Horiek gaur egungo idazleei dagokienez. Euskarazko literaturako "klasiko" deituko genituzkeenei dagokienez, Lauaxeta eta Gabriel Aresti ere aipatzen dira.

Edozelan ere, euskarazko literatur tradizio handirik ez dagoela aipatzen da:

> *While basque is a very old language with an unknown origin, as a written language, basque is relatively new. Thus, there isn't a great body of literature written in basque.*

Iritzi-emaile askok kritikatzen dute iritzi hori;

> *…la literatura en euskera no es de ayer.*

dena den, aho batez aitortzen da gaur egun inoizko produkzio mailarik altuena dagoela:

> *…euskal letrek ez zuten aurretik sekula hainbat aukera eskaini… euskaraz sekula ekoiztu den baino gehiago ekoizten da.*

Bertsolariei buruzko aipamenik ere bada, ahozko literatur tradizio errotua den heinean. Dena den, kanpoko bisitari batek jasotako irudia da eta errealitatetik apur bat desbideratua dago:

> *…a bertsolari, whose profession is to sing improvised songs in taverns.*

Euskal literaturak kontsumo handirik ez duela azpimarratzen da:

> *…euskal literatura ez da negozioa.*
>
> *Algortan Liburu azoka jarri dute… harrigarria egin zait ikustea ia ez zeudela euskarazko nobedaderik. Ia mahai oso hartzen zituzten erderazko liburuek.*
>
> *Pentsatu behar dugu ea euskal kulturgintzak zertan huts egiten duen urte osoan zehar hain salmenta apalak izateko.*

Euskarazko literaturaren salmentak bi data nagusi dituela azpimarratzen da: Liburuaren Eguna eta Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka:

Euskal Herrian bi data esanguratsuenak Liburu Eguna eta Durangoko azoka dira.

Urteko euskal kontsumorik handiena bertan izaten da.

Eta esaten da, berez, argitaletxeek bi data hauei begira egiten dutela lan:

Durangorako nola, Liburuaren Egunerako ere estrategia berezia dute Euskal Herriko argitaletxeek: aurreko hamabost egunetan liburu mordotxoa aurkeztu zuten, batzuk ospaklzunaren bezperan. Beraz, liburu horiek harrapatzen dute hedabideen arreta.

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka nabarmentzen da, euskarazko musika eta literatura salmenta gune bezala ez ezik,

Azoka oso ondo dago euskal literatura eta musika plazaratu eta bultzatzeko.

euskal kultur produkzioaren eta kontsumoaren adierazgarri nagusi bezala ere:

Durangoko azoka nire ustez ezinbestekoa da gaur egun euskal kulturaren biziraupenerako… Durangoko azoka eta holako beste zenbait ekimenengatik ez balitz euskal kultura erabat desagertuko litzateke.

…azoka, topaleku, euskal kulturaren indarraren espresio eta termometro… eta beste abar luzea da Azoka, ez ezer gutxiago…imajinatzen duzue, pentsatu minutu batez, Azoka gabeko euskal kulturaren panorama? Erreferentzia itzela galduko luke Euskal Herriak eta bere kulturak.

5.3.2.2.1.3. Dantza

Dantzari dagokionez, ez dago aipamen askorik. Eta daudenak dantza tradizionalei eta bizitzen ari diren zaharberritze prozesuari lotuta daude. Zaharberritze hau, beste alde batetik, beharrezkotzat jotzen dute gaur egungo egoera aintzat harturik:

Euskal dantza tradizionalak egitura eta nortasun arazo larriak ditu, eta noraezean dabil aspaldiko urteetan.

…euskal dantzak egiturazko arazo latzak ditu, bere nortasuna, funtzioa eta norabidea aztergai ditu…

Dantza tradizionalak, berriz, galdu du, ein haundi batean, bere espazio naturala eta batzuk saiatzen dira (gara) horrelako espazio bat berreskura dezan.

Tradizioa ez baita aldaezina, mugiezina. Tradizioa bizia da, etengabe aldatzen ari den prozesu kulturala.

Zaharberritze honen esangura eta hedaduraren gainean, nolabaiteko ika-mika ere piztu da:

*…(*dantza*) atzera begira jarri da, eta besteak beste jantzi eta estetika tradizionala berreskuratu eta aldarrikatu ditu. Azken urteotan talde batzuk hasi dira dantza tradizionalak estetika modernoaz janzten… lehenengo multzokoek tradizioaren aldarrikapena, bere jantzi eta molde koreografikoekin, egiten jarraitzen dutelako, eta bigarren multzoan irudi modernoaren bilaketa nagusitzen delako. Bi multzo horien artean paradoxa bitxia gertatzen ari dela iruditzen zait niri. Tradizioaren eskema estetikoan lan egiten jarraitzen duten multzokoek dantza tradizionala barrutik, koreografikoki, berritzen eta eguneratzen ari direla iruditzen zait. Estetika tradizionalari uko egin diotenak, ordea, lan handiak dituzte dantzaren lengoaia berri bat sortzen, eta apenas ekarpen koreografiko interesgarririk egiten asmatzen duten. Alegia, hizkuntza koreografikoaren bilakaeran urrats sendoak ematen ari direnak dira estetikoki tradizioaren moldeekin jolasten jarraitzea erabaki dutenak. Baina, estetikoki aldaketa handiena egin dutenak bigarren multzokoak dira, eta ondorioz horiek dira euskal dantza tradizionalaren berritzearen ikurra komunikabide, programatzaile eta kultura agenteen begietan.*

Tradizioaren ondarea norberan gustura erabili, eraldatu, nahastu eta forma garaikideetara egokitzeko joera zabaltzen da bolada batzuetan. Halako batean konturatzen gara egiten ari garen horrek dagoeneko ez duela inolako loturarik eta antzik apur bat lehenagorarte indarrean izan diren tradiziozko moduekin eta, beraz, baliagarri egiten zituen ezaugarriak galduta, piperrik balio ez duela ohartzen gara.

Atal honetan zenbait izen propio agertzen dira: Juan Antonio Urbeltz, Mikel Sarriegi edo Jon Maia. Gainera, dantza tradizionalei lotutako pertsona bezala (aditu bezala, ez dantzari bezala) Etxebarria (“Camarón” ezizenekoa) ere aipatzen da:

Etxebarria euskal dantzen gaineko aditua zen… Camarón inor baino gorago heldu zen dantzen arloan, hainbeste ze Joxe Miel Barandiaran ere sarritan joaten baitzitzaion bisitan…

5.3.2.2.1.4. Arte plastikoak: pintura, eskultura,…

Arte plastikoei dagokienez, eskulturgileei buruzko aipuak dira nabarmenenak: Jorge Oteiza, Eduardo Chillida eta Nestor Basterretxeari buruzkoak, batik bat. Horiez gain, José Alberdi,

Remigio Mendiburu, Vicente Larrea, Ricardo Ugarte eta abar ere aipatzen dira. Hauek guztiak bai banaka, bai belaunaldi bezala ere aipatzen dira:

> *Eduardo Chillida, recently deceased, is considered one of the great sculptors of the XX century.*
>
> *Y hay que esperar hasta los años 50 para que en el País Vasco empiece a cuajar un movimiento creativo de verdadera importancia (…) generación de artistas que han grabado nombres vascos en el frontispicio de la Historia de la Escultura Contemporánea.*

Hala ere, pinturari dagokionez, museoetan dauden erakusketak aipatzen dira, baina erreferentzia gutxi egiten zaie euskal artistei. Aipatzen den bakarra Aurelio Arteta da:

> *I also was happy to discover several works by Aurelio Arteta that pleased me to no end.*

Arkitekturari ere aipamen txiki batzuk egiten zaizkio:

> *…admire the Catedral de Santiago, known fot its splendid Renaissance cloister…*
>
> *…San Sebastian already had its glorious Belle Epoque architecture…*

Ugariak dira, aitzitik, museoei egindako aipamenak: Guggenheim Museoa, Bilboko Arte Ederren Museoa edo Chillida Leku:

> *There is a museum near Donostia called Chillida-Leku which is very much worth visiting.*
>
> *High culture was weel served by the excellent Museo de Bellas Artes…*
>
> *I also recommend Bilbao's Guggenheim Museum.*

Guggenheim Museoari aitortzen zaio kalitatezko obrak biltzen dituela, baita museoak duen balio arkitektonikoa ere. Baina, gainera, balio erantsi bat ere aitortzen zaio: Bilbo biziberritzeko izan duen gaitasuna, alegia:

> *…an extraordinarily successful project of regeneration, of which the Guggenheim was merely the most breathtaking symbol.*

Aldizka bada ere, artea erakusten duten beste zenbait leku edo espazio ireki aipatzen dira. Besteak beste, Omako basoa:

> *All around us were trees painted with colourful designs, ranging from jagged lightning bolts to rainbow patterns to mystical eyes watching you from all around.*

edo Bilboko kaleak:

> *Hace unos años, no mucho… Bilbao, entre otras cosas, se puso de moda de nuevo porque en sus calles sin pensarlo ni esperarlo te topabas de bruces con vacas. Vacas artificiales a tamaño natural, muy bonitas ellas, hechas normalmente por artistas…*

5.3.2.2.1.5. Zinema

Zinemari buruzko iritzien artean, nabarmendu behar dira film zehatzei egindako aipamenak: "Obaba", "Aupa Etxebeste!",… fikziozkoen artean eta "La pelota vasca: la piel contra la piedra" dokumentalen artean.

Iritzi-emaile askok deitoratu egiten dute euskarazko zineman produkzioa eskasa dela:

> *Zinema euskaraz egitearen zaila egia berdaderoa da… Demografia txikia daukagu, kanporako eragin-ahalmen hutsa, industria ahula… Zineman jardun nahi duten Euskal Herriko profesional gehienak Madrilen bizi dira aspaldidanik…*

baita zineman kritika politikoa egiteko aukera gutxi dagoela ere:

> *…cuando una película española (de ficción o documental) ejerce un poco de crítica social o política, o bien se la ignora y miramos para otro lado, o bien genera unas polémicas (ideológicas, que no cinematográficas) interminables…*

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzak euskal ikus-entzunezkoen sektoreari laguntzen diola ere aipatzen da:

> *Niniak es un programa creado por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco con el fin de impulsar y proteger el sector audiovisual vasco.*

5.3.2.2.2. Gastronomia

Euskal kulturaren adierazpideen artean alor bat bereziki nabarmendu bada, hori gastronomia da. Euskal Herriko sukaldeko ohiturak, jatetxe, sukaldari eta herriko plater eta produktu tipikoak aipatzen dira, beti zentzu positiboan, euskal sukaldaritza laudatuz.

Gai honi buruzko testuen bi herenak (%66) ingelesez idatzia daude, frantsesez %7 eta beste hizkuntza batzuetan %3. Izan ere, erreferentzia gehienak Euskal Herrira datozen bisitariek egin dituzte, gure sukaldaritzarekin txundituta geratu diren bisitariek, hain zuzen ere.

5.3.2.2.2.1. Uste orokorrak

Lehenik eta behin, bilduko ditugu euskal sukaldaritzari buruzko uste orokorrak. Oro har, gure gastronomia laudatu egiten dute:

…the wonders of basque cooking (…) style of eating is the best the earth has to offer.

…fantastic food (…) fabulous food…

…made this place a gastronomical mecca…

…excellent basque cooking…

…une cuisine plus que sublime…

The Basque Country is also well known by its delicious food and drinks.

Euskal kulturak gastronomiari aitortzen dion garrantzia ere aipatzen dute:

…Basque culture that loves to eat…

…the Basque Country, is the place for eating, a kind of religion over here.

…a love of good food. Here, eating means much more than simply covering a basic need: Gastronomy forms an important part of the everyday life of the Basques (…) of the importance of food and drink to the Basques people and of the integral role it plays within Basque culture.

The Basques (…) have, it seems, built a civilisation on good food and wine.

You're in a land of food.

Los vascos piensan con el estómago.

5.3.2.2.2.2. Ohitura gastronomikoak

Sukaldeko ohitura propioei dagokienez, bisitatzen gaituztenei oso deigarriak egiten zaizkien hiru nabarmentzen dira bereziki: pintxoak, elkarte gastronomikoak eta sagardotegiak.

Pintxoei dagokienez, horrela definitzen dituzte:

…small, perfectly formed delicious snacks…

The pintxos! All those delicious tapas, just waiting to be eaten.

Hainbat tabernatan daudela aipatzen da, baita euren kalitatea ere:

…they're pretty much in the bars constantly and they're all pretty good.

Quase todos os bares, restaurantes, exibem os tentadores pintxos nas barras, que sao como "tapas", a cozinha em miniatura.

In the Basque Country la tapa has been raised to an art form.

Gainera, aipatzen dute tabernaz taberna pintxoak jateko ohitura dagoela:

…the elaborate rituals involved in going out for pintxos… These include the accompaniment of your cuadrilla –a large group of friends (…) with whom you'll remain loyal throughout most, if not all, of your adult life– a circuit of some 10-15 stops, and a limit of one drink and only one or two pintxos per stop.

Elkarte gastronomikoei dagokienez, deigarriena da gizonak izatea bertan janaria prestatzen dutenak:

…me sorprendió que los hombres en el País Vasco son los que componen estas sociedades gastronómicas.

Basque men have been forming Gastronomic Associations, at which amateur chefs test their skills and signature dishes on friends.

Sagardotegiei dagokienez, aipatzen da urteko garai zehatz batean joateko ohitura dagoela:

The habit of visiting ciderhouses is very much part of basque life. In winter, the arrival of the season, known as probateka (the drinking of cider straight from the barrel) sends local flocking to sidrerias (ciderhouses) to taste the year's new production.

En Febrero me inclinaría por Gipuzkoa. Es época de sidrerías. No puedes venir aquí sin pasar por una de ellas (…) Entre semana, los findes están a tope.

baita ohiko menua ere, sagardoa zerbitzatzeko edo hartzeko modua nabarmenduz.

While enjoying a traditional meal of cod omelette, T-bone steak, walnuts, quince jelly and cheese, guests anxiously wait for the proprietor to shout

"mojón", meaning it is time to unplug a new cask. People immediately line up, with their wide-mouthed glasses ready, as the bung is pulled from the barrel and the stream of cider splashes into their glasses held at the ready, hitting the inside first to aerate it. Only a few mouthfuls are collected in each glass, to ensure that the head remains frothy.

…the general procedure is to grab a splash of cider from the streaming txotx and then head back to the table…

Las sidrerías también son un referente mundial para degustar buena carne.

5.3.2.2.2.3. Produktu eta plater tipikoak

Produktu tipikoen artean, janariei dagokienez, sagardotegiko ohiko menukoez gain, arrainak azpimarratzen dituzte: bakailaoa (eta prestatzeko dauden makina bat forma), angulak,…:

…one of the true delicacies and taste budteases of that world, angulas. I'd have to describe their silken texture as they slip into the mouth from a wooden fork. Then their tiny sizzle, as they nestle in very hot, heavily garlicked olive oil stung with a bright red chile of the region…

Of the huge assortment of seafood available to them, cod, specifically salt-cured cod, has a special place.

Eta, edariei dagokienez, honako hauek aipatzen dira: txakolina (askotan aipatua), sagardoa, patxarana eta (Errioxako) ardoa, kalimotxoa ahaztu barik:

The bars all also have a local white wine called txakoli.

Another local beverage is txakoli, a young, fresh, slightly, sparkling, fruity white wine that has recently started making a name for itself outside of the Basque Country.

…txakoli, a wine – champagne style drink only made in a small region of the Basque Country.

…el txacolí (ese vino blanco tan parecido al champagne)…

Le cidre basque est fabriqué à partir d'un assemblage de deux types de pommes, acides et amers, auxquels on ajoute parfois suivant le caractère des deux premières des pommes sucrées.

Du Patxa quoi? Ah, cette délicieuse liqueur basque qui a agréablement terminé le délicieux repas de chasse (chevreuil) de samedi dernier, miam J'avoue que j'ai une bouteille entamée chez moi mais je ne me voyais pas débarquer avec… promis, je prendrai le temps d'un saut de l'autre côté de la frontière très vite!

…delicious wines. The distinctive, fruity produce of the Rioja Alavesa winegrowing area of Alava is perfectly capable of competing with the best wines in the world.

Kalimotxo is just wine and coke.

5.3.2.2.2.4. Sukaldari eta jatetxeak

Jatetxe eta sukaldariei dagokienez, azpimarratzen den lehen gauza da janariaren kalitatea ona dela edozein establezimendutan, izan jatetxe apalak izan goi sukaldaritzakoak.

…the entire region offers numerous opportunities to delight the palate, whether at reputable restaurants or modest establishments.

Edonola ere, hainbat aldiz aipatzen dira izen propioak, denak euskal sukaldaritza berriaren mugimenduarekin lotuta daudenak.

Euskal sukaldaritza berria etxeko sukaldaritza tradizionalaren eta berrikuntzaren arteko nahasketa dela esaten dute. Ezaugarririk garrantzitsuena kalitatezko produktu freskoak erabiltzea dela esaten dute, baita horiek nahasteko irudimena ere:

…cuisine that has elevated basque farmhouse cooking into an art.

It's a rustic but refined, fully realized, largely unique cuisine.

…the pure quality of ingredients and the care and imagination shown produce world class dishes. Great tradition is complemented by innovation, methods are passed from generation to generation. Seasonal produce is always used and combined in an authentic basque way.

Basque nouvelle cuisine was brought into being in the mid-1970s by a series of young chefs whose point of reference was the French cookery of the same name. New aromas, textures and methods of preparation were the main features of this movement, which nonetheless remained firmly based on the two secrets of basque cuisine: high-quality ingredients and seasonal products. The mainstay of basque cuisine is fish from either the Basque coast or from the far-off fishing grounds, which the local arrantzales (fishermen) have been working for centuries.

Euskal sukaldaritza berriaren erreferente nagusia Juan Mari Arzak da, bakarra ez bada ere.

> *…he* (Arzak) *launched Nueva Cocina Vasca, which exploits the riches of local sources –especially the hake, tuna, scallops, clams and other fish and seafood that come in on the San Sebastian tide– and subtly enlivens them with variations based on home-grown tomatoes and chillis and with more exotic herb confections.*
>
> *…Arzak, Subijana, Arguiñano y otros 10 más (…) esos chavales sentaron las bases de la cocina actual que señala entre otras cosas la identidad en función de los productos de una zona determinada y trabajar con los sabores originales y no disfrazarlos…*

Oro har, sukaldarien artean gehien errepikatzen diren izenak honako hauek dira: Arzak, Arguiñano, Berasategi eta Subijana. Eta jatetxeen artean, sukaldari hauek lan egiten duten jatetxeak, baita beste hauek ere: "Beltz the Black" (Bilbo), "Zortziko" (Bilbo), "Mugaritz" (Errenteria), "Arbolagaña" (Bilboko Arte Ederretako Museoan), "Etxanobe" (Bilboko Euskalduna Jauregian), Guggenheim Museoaren jatetxea, eta abar. Kasu guztietan, janariaren kalitate onaz hitz egiten dute.

> *I was at Arzak last september and had one of the very best (possibly the best) meals I have ever had in my life.*
>
> *…Arzak, one of the top restaurants in all of Spain. Another one to consider is Akelarre, another of Spain's top restaurants. There is also Casa Nicolasa…*
>
> *Dinner was at the Guggenheim's restaurant (…) the tasting menu was a delight…*

Baina gastronomia-erreferente nagusia, dudarik gabe, Donostia da (gida turistiko guztietan agertzen da):

> *…San Sebastian elevates dinning to an art form.*
>
> *San Sebastian loves to brag it has more Michelin stars per meter than any other city in the world.*

Erreferentea da Donostian dauden jatetxeengatik ez ezik, alde zaharreko tabernetan dauden pintxoen famagatik ere. Izan ere, Euskal Herria bisitatzen dutenek aipatzen dute ezinbestekoa dela tabernetatik buelta bat ematea:

> *…visit the old city* (parte vieja donostiarra) *and sample some of the best pintxos (tapas) you'll find in the region.*
>
> *The old quarter of San Sebastián is awash with bars selling pintxos…*

Azkenik, Euskal Herriko jatetxe eta sukaldariak aipatzeaz gain, Ameriketan dauden euskal jatetxeak ere aipatzen dira:

> *"Marichu" (junto a la ONU) y "Pintxos", dos restaurantes vascos en Nueva York.*
>
> *Iluna Basque* (en San Francisco) *is doing (…) real basque food artfully presented.*
>
> *…the basque kitchen by Gerald Hirigoyen chef. Gerald's restaurant "Piperade" is perhaps one of my all-time favorite restaurants.*

5.3.2.2.3. Kirolak

Kirolei dagokien atal honetan ia testuen erdiak (%46) gaztelaniaz idatzita daude. Gainera, ingelesez (%29) eta frantsesez (%17) idatzitakoak euskaraz idatzitakoak (%8 eskas) baino gehiago dira.

Gehien aipatzen diren kirolak hauek dira: futbola, txirrindularitza eta pilota. Gutxiago aipatzen dira euskal kirol tradizionalak (herri kirolak), errugbia eta surfa.

5.3.2.2.3.1. Futbola

Futbolean Bilboko Athletic taldeari buruzko aipamenak nabarmentzen dira:

> *They are one of the very few clubs in the world not to have any sponsors logo in their shirts. But their greatest source of pride is that only Basque born players can play for them and amazingly despite having such a narrow field to pick from have never been relegated from the top division (…) This engenders a fiercely proud response from their adoring fans (…) the fans are very friendly and you will not have any problems…*

Eta, zentzu honetan, aipatuena da euskal jokalariekin baino ez dutela jokatzen. Honen inguruan, nolabaiteko ika-mika piztu da:

> *Cada día me parece más absurdo eso de que tengan que ser vascos.*
>
> *Creo que siempre ha habido jugadores que no eran vascos. Muchos emigrantes de Castilla han tenido la oportunidad de ver a sus hijos jugando en el Athletic. Ahora mismo, en Lezama hay chavales que no son vascos. Por alguna razón (trabajo, normalmente) sus padres están en Vizcaya y juegan en las categorías inferiores del Athletic.*

...no creo que tardemos mucho en tener gente de muchas nacionalidades, aunque nacidas en Euskadi.

Talde honen jarraitzaileak ere aipatzen dira. Hauen portaera txalotzen dute taldearekin zerikusirik ez dutenek ere.

...sus seguidores (del Athletic de Bilbao) están por encima de temas políticos y cuando un equipo juega bien en la catedral simplemente los ovacionan ya sea el Real Madrid o el Getafe este mismo año o el equipo que sea de la ciudad que sea, mi admiración por ellos.

...tanto el Betis como el Athletic tienen para mí el honor de contar con dos de las mejores aficiones del país.

Euskal futbol taldeen arteko derbyak ere aipatzen dira, baina ez beti zentzu positiboan:

...un derby euskaldun es muso más k un derby...

...los partidos que amañan entre la Real Sociedad, Osasuna y Bilbao...

Eta, azkenik, Euskal Futbol Selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatzen duenik ere izan bada:

Euskadi es una nación que se merece formar parte de la UEFA o de la FIFA (...) Gora Euskal Selekzioa!

5.3.2.2.3.2. Txirrindularitza

Txirrindularitzan aipamen gehienak Euskaltel Euskadi taldeari buruzkoak dira, baita talde honen zale edo jarraitzaileei buruzkoak ere.

...en el tema de la afición vasca (...) es bastante correcta, anima mucho, y lleva banderas (...) He estado en el Tour alguna vez y el ambiente es cojonudo, y bastante respetuoso y de compañerismo con los de cualquier equipo. (...).

Kirol honekiko zaletasuna ere aipatzen da.

...hay una gran afición a la bicicleta aquí.

Si tanto bombo se le da al ciclismo en Euskadi es porque hay una gran afición.

Euskaltel taldeak ere (Bilboko Athleticekin futbolean gertatu bezala) euskal nortasun sentimendua nolabait sorrarazten du, euskal txirrindulariz baino ez dagoelako osatua:

...porque estos ciclistas son todos de la casa, se les ha ido siguiendo carrera a carrera desde aficionados, porque el equipo ha ido creciendo sin más medios que el trabajo bien hecho desde la base...

Euskal txirrindularitzan izen propioak ere aipatzen dira, futbolean ez bezala. Aipatuenak hauek dira: Joseba Beloki, Aimar Zubeldia, Iban Mayo,... Hala ere, historikoa den euskal txirrindulari ospetsurik ez da apenas aipatzen. Emakumezko txirrindulari bat ere aipatzen da: Joane Somarriba. Nabarmendu behar da kirolen arloan aipatzen den emakume bakarra dela. Baina ez hori bakarrik, kultur adierazpide guztietan aipatzen den emakumezko bakarra da.

I have heard that people like Joane Somarriba does not get any sponsors in Spain because she is too "basque" (she would wave the basque flag after her stage wins in the TdF).

5.3.2.2.3.3. Pilota

Pilotari dagokionez, ez da txapelketarik aipatzen, ezta enpresarik ere. Eta pare bat izen propio baino ez.

Pilota euskal pilota legez ulertzen da, hau da, Euskal Herrian jaiotako, garatutako eta bizitako kirol legez:

La patria vasca está en la pelota.

Ikuspegi hau, batez ere, bisitariek izaten dute, bai orain dela urte batzuk bisitatu gintuztenak,

...since that day in August 1945, I have learned a lot about these remarkable people (...) I learned in my travels that the Basques are great sportsmen, and the national game of jai alai is played, with variations, by nearly all of their men and boys. I would learn later that it was brought to the American West, and is still played in Boise, Mountain Home, and Jordan Valley, Ore.

baita gaur egungoek ere:

Ball games are pretty much compulsory in the Basque Country, especially up against churches because they are the only places with long-enough walls for a proper court.

Pilotari dagokionez, jokoaren aldaerak aipatzen dira:

Je découvre les règles de la pelote basque. J'identifiais ce jeu à celui où ils ont un espèce de truc en osier dans les mains pour rattraper la

pelote: "le chistera". Un autre jeu existe avec la pelote. Il se joue avec une sorte de raquette en bois "la pala". Non, je vous parle de la vraie pelote basque, pour les durs, à mains nues (…) Ce doit être douloureux de jouer à mains nues.

eta, bereziki, kirolaren gogortasuna.

Je confirme, ça fait mal, d'autant que normalement la pelote n'est pas une balle de caoutchouc, mais elle a un coeur en bois. Les pelotaris se reconnaissent au fait qu'ils ont des énormes callosités à la place d'une paume normale.

I also attempted to play Pelota Vasca. I don't recommend it for the hands.

Hala ere, joko bizia eta dibertigarria dela aitortzen da.

Si vous avez la chance de partir en vacances dans cette région, IL FAUT aller a un match de pelote que vous soyez sportifs ou non, on ne s'ennuie pas une minute tellement c'est instensif et les commentaires aussi vont bien avec le tempérament des basques: c'est vivant et on s'amuse énormément.

5.3.2.2.3.4. Beste kirol batzuk

Noizean behin, beste kirol batzuk aipatzen dira. Besteak beste, herri kirol tradizionalak:

They have competitions involving tree trunks and lifting boulders above their heads.

Baita errugbia ere, Biarritz Olympique Pays Basque taldea aipatuz:

Allez Biarritz.

Eta surfa, Mundakako ezker olatu ospetsua aipatuz:

Mundaka, Spain – Something is missing this year from a Spanish beach that's a magnet for top-rates surfers from all over the world – waves. The beach at this pinturesque village is famous for tubelike waves that unusually crash left-to-right instead of right-to-left (…) Surfing tourism is essential for this place, but there is something more. Mundaka is the symbol for surfing in Europe.

5.3.2.2.4. Herri tradizioak

Euskal kulturari buruz hitz egiterakoan, nabarmendu behar dira, azkenik, folkloreari, erlijioari edota mitologiari lotutako herri tradizioak.

Iritzi-emaileen ustez, tradizio hauek bizirik iraun dute urterik urte, batez ere ohitura hauek tinko defendatu direlako.

…stubborn defence of cultural traditions…

Tradizioak transmititze aldera, umeek betetzen duten papera nabarmentzen da, tradizioen jasotzaile gisa:

Milaka ume egongo dira gaur, Santa Ageda eguna den honetan, Euskal Herriko bazterretan makila hartuta kantuan.

Gure lurraldean oso preziatua da Olentzero izeneko pipadun lodikote horren irudia, eta zoritxarrez gure lurraldetik kanpoko hainbat bazterretan ere urrun egon behar dutenek Olentzerori erregutzen diote garai honetan.

Aitortzen da halaber atzerriko "euskal etxeek" egin duten lana, diasporan folklorea eta euskal tradizioak mantentze aldera (era berean, besteei ezagutarazteko bidea dela ere aipatzen da):

…the euskal etxe's activities are wonderful for us.

Centros Vascos de todo el mundo celebrarán la noche mágica de San Juan, de gran tradición en Euskal Herria.

I always enjoyed some of the traditions Buffalo's Basque community has tried to maintain, such as the singing, dancing and ethnic food.

Azkenik, euskal mitologiari buruzko aipamen zehatzak badaude, baina oso gutxi:

I read that witches are a significant part of Basque mythology.

LABURBILDUZ

- Interneten jasotako iritzien artean ez dago euskal kulturari buruzko definizio zehatzik, haren berezitasuna aipatzen bada ere. Hala ere, bai aurkitu ditugu euskal kulturaren hainbat adierazpideri buruzko aipamenik. Aipamen hauek lau multzotan sailkatu ditugu: gastronomia, arteak (musika, literatura, arte plastikoak,...), kirolak (futbola, txirrindularitza eta pilota, batik bat) eta herri tradizioak.
- Gastronomia bereziki nabarmentzen dute bereizgarri modura, nazioarteko sona duten produktu tipikoekin. Sarritan aipatzen dira norbanakoak (sukaldariak). Gai hau, batez ere, Euskal Herrira etorri diren bisitariek jorratzen dute.
- Kirolei dagokienez, bi baino ez dira aipatzen euskal kirol propio gisara: pilota eta kirol tradizionalak (herri kirolak). Futbola edo txirrindularitza gehiago aipatzen badute ere, aipamen hauek zerikusia dute, batez ere, izen propioekin edo Euskal Herrian kirol hauekiko dagoen zaletasunarekin.
- Arteei dagokienez, ez dago artearen euskal kontzeptu propiorik, nahiz eta eskultura mugimenduaren idiosinkrasia aitortzen den. Euskal izaera propioa dantza tradizionalei eta bertsolariei baino ez zaie aitortzen (bertsolariak, dena den, apenas aipatzen dira).
- Azkenik, herri tradizioak gutxi aipatzen dituzte. Hauen artean, nabarmenak dira tradizio horien transmisioari buruzko aipuak.

5.3.3. Nortasuna eta beste gizarte gai batzuk

Nortasuna eta beste gizarte gai batzuei buruzko aipamenek euskaltasuna eta euskal kulturaren inguruko gai batzuekin harremana dute: gizarte nortasunarekin, lurralde nortasunarekin, euskal herritarrei egozten zaien izaerarekin, gizarte egiturarekin, bizimodua eta gizarte ohitura edo azturekin, euskal gizartea kanpotik hautematen den moduarekin (beste gizarte batzuekiko alderaketa barne), politika, historia edo sinbologia ahaztu gabe.

Nabarmendu behar da gai honi lotuta euskaraz idatzitako testu gutxi dagoela (%9 eskas). Horren aldean, gaztelaniaz (%50) eta ingelesez (%32) testu asko idatzi dira; gainera, testuen %7 frantsesez idatzita daude eta %2 beste hizkuntza batzuetan.

Jarraian, atalez atal aipamen hauek zehaztuko ditugu.

5.3.3.1. Gizarte nortasuna

Kategoria honetan euskal herritarrak ezberdinak direlako ideia nabarmentzen da lehenik. Ideia hau gehienek onartzen dute. Hala ere, horrek ez du esan gura euskal herritarrak beste batzuen gainetik daudenik:

> *...los vascos son distintos a los andaluces, pero también los andaluces son distintos de los gallegos, y los gallegos de los valencianos... y podemos seguir así hasta el último rincón de Cuenca.*

> *Euskadi is different from the others in the same way that other is different from each one. Is an orange different from a strawberry, an apple and a banana? If you feel yourself like an orange, yes it's different but if you feel yourself like a fruit...*

> *To be a basque is a way of living. I'm not speaking about politic, but just about way of living who isn't in contradiction with what I'm. Don't you agree?*

> *...the basques are indeed different, a people apart, fiercely independent, the basques possess a profound attachment to their land.*

Euskal herritarra izatearen harrotasuna, euskal komunitateko kide izatearen harrotasuna azpimarratzen da:

> *...gran pueblo el vasco, nunca cometas el error de bajar la cabeza al decir "soy vasco" por lo que algunos intransigentes hacen, ser vasco es algo que se lleva dentro y a mucho orgullo, ser violento no.*

> *Neure buruari euskaldun deitziaz oso arro nago.*

Harrotasun hau nabarmenagoa da diasporako kideen artean. Izan ere, hauek euren euskal sentimendua milaka kilometrotara bizi dute eta, batzuetan, Euskal Herrian inoiz izan gabe:

> *…people who, being american, are at the same time absolutely basque at heart, even never having stepped on the soil of European Euskal Herria.*
>
> *I and my 8 brothers and sisters strongly identify with our basque heritage.*

Euskal nortasuna definitzeko ezaugarririk garrantzitsuena, jasotako iritzien arabera, hizkuntza da:

> *Basque country, Euskal Herria, the land of the basque speakers.*
>
> *Euskal-Herria. Euskeraren herria.*

Badago euskal nortasuna erro historikoetan oinarritzen duenik ere.

> *They* (the basque people) *also claim to be one of the oldest societies that's still around today (my dad did a little research on them and told me that they claim that their people were around since the neanderthal days).*
>
> *(*They*)…have a history that is unique, too, being directly descended, according to current theories, from the first homo sapiens to inhabit Europe some 40.000 years ago.*
>
> *Basques can trace their roots back to the Stone Age, and are one of Europe's most distinct people, fiercely proud of their ancestry and traditions.*
>
> *Le pays basque est un vrai pays… Le seul peuple autochtone de l'Europe, c'est le peuple basque. Ça n'a rien d'une fabrication artificielle comme l'état espagnol.*

baita herentzia genetikoan ere:

> *…I have basque blood (my aita was full blooded basque), so in this way I am basque.*

kulturan:

> *…whether they live in France or Spain or anywhere else in the world, the Basques are one people, united by a language and culture unlike any other.*
>
> *Euskal Herria o cualquier otra acepción similar que quiera proponerse jamás ha existido con entidad política, respondiendo eso sí a una denominación que tiene sentido en el plano cultural…*

edo talde beraren, komunitate beraren, nazio beraren partaide izateko sentimenduan oinarriturik:

> *Geure artian be badaoz desberdintasunak… baiña naziño modura bat eginda gaoz, hori ideia argi daukagulako danok. Eta zer da naziño bat? Nitzako naziño bat, hizkuntza, gobernua eta pentsatzeko era propioa daukan herridxa da.*
>
> *Actualmente somos un pueblo-nación sin estado, con fuerte identidad propia: historia, sistema socio-democrático, organización grupal, cultura, idioma, modo de vida,…*
>
> *The people have a very strong sense of regional identity.*

Sentimendu hau bere egiten dute bai Euskal Herrian jaiotako pertsonek, beste herri batzuetatik etorri eta euskal kulturan edo Euskal Herriko bizimoduan murgildu direnek ere:

> *La población actual está compuesta además de la autóctona de una importante inmigración interior en general muy integrada en el modo de vida existente, y por creciente inmigración exterior en integración, es decir, el pueblo vasco.*

Sentimendu edo euskal nortasun hau, batzuetan, espainiar edo frantziar sentimenduarekiko kontrajartzean oinarritzen da:

> *…they are basque first, second and third. Being citizens of Spain is somewhere down the list.*
>
> *The basques have a strong sense of being unique from the rest of Spain.*
>
> *The basque people… have…a different look about them in comparison with the spaniards.*

Badago kontrajartzerik antzematen ez duenik ere. Hauek sentimendu edo identitate biak batu egiten dituzte:

> *Yo soy euskaldun, de corazón y así lo siento. Pero recordad: "Nosotros también somos España".*

Eta badago, estatu nortasunetatik gaindi, euskal nortasuna Europakoarekin batzen duenik ere:

